

E.T.A Hoffmann

Ipuin fantastikoak

euskaratzailea: Antton Garikano

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Antton Garikano.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1992

Jatorrizkoaren data: 1814

E.T.A. Hoffmann euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=175>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1001>

HITZAURREA

Ernst Theodor Amadeus Hoffmann (1776-1822) genero fantastikoaren sortzaileetakoa dugu eta istorio laburraren bilakaeran mugarri.

Erromantizismo alemaniarraren garaian idatzi zuen, 1790 eta 1820 arteko urrezko aroan. Gainerako herrietan ez bezala, Alemanian garatzen den erromantizismoak gizakiaren barne bizitza hartzen du aintzat batik bat, eta bide horretatik ahalegintzen da edertasunaren bila. Ez dago bertako idazleengan bizitzaren aurreko asaldura edo teatraltasunik: zuhurki bizi dira, eta gogoratu besterik ez dago Hoffmann bera ere burgesiaren partaide eta magistratu zela lanbidez, nahiz gogoz kontra eta bizimodua atera ahal izateko bakarrik.

Obraren gaineko kontrol hori gorabehera, badago hausturarik, hala eta guztiz ere, bateko norbera dena eta besteko izan nahi lukeenaren artean, edo berez dena eta ustez denaren artean. Ildo horretatik, sarritan igartzen zaio iro-

nia samina Hoffmannen idazkerari, artearen sail guztietan maisu izan nahi eta ezinak sortua.

Erromantizismoak artistaren izaera bakana aldarrikatu zuen, horretarako beste gainerako giza erregelen menpe ez dagoen norbait bezala azalduaz. Bere herrikideen gidari modukotzat ere hartu zen artista, errealitatea hautemateko gaitasun berezia zuelakoan. Hala, erlijio baten antzekoa litzateke artea, eta artista, berriz, iniziatuaren gisakoa.

Maila horretan, bizitzaren transformazioa bilatzen da, beti ere artearen bidez: pintura, musika eta literatura. Hoffmannek berak hirurak ala hirurak ere landu zituen, eta zalantza handitan bizitu zen sarritan, hirurotan zeini aurre eman edo zeinetarako sortua ote zen. Hiru bide horien bitartez gure barreneko altxor edo galdu-tako ondasun hori bilatzeko gonbitea luzatzen digu artistak, inoren baitako musika arretaz entzun dezagun. Aipatu dugun aldaketa asmo hori gauzatzeko, berriz, abiapuntu nagusienetako ametsak izango dira, epifania edo betierekoki tankera emateko biderik baliosenak bezala. Novalisen esaldia argigarria izan daiteke: Mun-

dua amets egiten da, eta ametsa mundu. Hau ikuspegi izpiritualean kokatuko da beti, fantasia-rik bizenari bide emanaz.

Ordea munduaren alderdi ilun hori, arrazoia-
ren bidez argitu ezin den hori, eguneroko bizi-
tzan txertatzen zaigu, kezka eta beldur iturri
bihurtuz. Gaitz horri aurre egiteko, idazleak maiz
joko du zientziarantz: sail horretakoa dugu, adi-
bidez, Chamissoren *Peter Schlemihlen istorio
miresgarriak*. Hoffmanni dagokionez, sarritan
aurkitzen ditugu bere lanetan hipnosia eta abere
magnetismoa, geure barrena aztertu eta hala
gure ezinen sendabidea aurkitzeko modu bezala.
Gai beretsuak landu zituen Heinrich von Kleistek
bere istorio ospetsuetan ere, misterio gehiegiz
jositako mundu kaotikoa aurkeztua

Halaber, Hoffmannen iritziz gizakia indar
arrotzen arteko gatazkaren erdian dago, bateko
zeruko indarra eta besteko infernukoa, berak *ein
feindliches Prinzip* deitzen duen hori; eta nola
bata hala bestea ere geure arimen jabe nondik
egingo dabiltzalarik erakusten dizkigu. Honek,
jakina, eleberri gotikoa eta izuzko ipuinak gogo-
rarazten dizkigu, Horace Walpole eta M. G. Lewi-

sen modukoek aurrez idatziak. Horregatik azaltzen dira Hoffmannen ipuinetan hainbeste mamu, zoro, amandre, arima erratu eta abar, inor eromeneraino eraman arte.

Horien bidez Hoffmannek *unheimlich* edo izugarriaren zirraraz bilatzen du, askotan gizakiaren alderdi tragiko eta groteskoenak azpimarratuz; argi aurkitu dugu hau, esate baterako, *Etxe Hutsa*-ko administatzaile zaharragan (ez dezagun ahaztu beste jardueren artean gure idazlea karikaturagilea zela). Alderdi hau da, hain zuzen ere, gainerako erromantikoengandik gehien bereizten duena, haiengan nabariagoa baita lirikotasun joera, natura ederraren aurrean.

1809garrenean idatzi zuen lehen eleberria, *Glück Zalduna*. Obrarik ospetsuenak *Deabruaren Elixirrak* eta *Ipuinak* ditu, eta azken honetan *Serapiondar Anaiak* izeneko bilduma batez ere. Bere sorketa lanean ia elkarrengandik bereizi ezinak dira artearen beste arloak ere, musika eta pintura alegia, jadanik aipatu dugunez. Horregatik dira horren ugariak musika eta pinturari buruzko aipamenak ondoren datozen ipuinetan, tartean Hoffmannen beraren iritziak tarteka-

tzen direlarik, eta horrekin batera, noski, erro-
mantizismo alemaniarrarenak.

Automatak ipuinean, esate baterako, pareko-
tasun argia dago Ludwig pertsonaiaren eta Hoff-
mannen iritzien artean. Bertan azaltzen zaigu
argiro arteak berezko zerbait izan behar duela,
gizakiaren barreneko musikaren isla leiala, Lud-
wigek dioen bezala: Ziztrina eta nazkagarria iru-
ditzen zait makinaren musika, eta neure ustez gal-
tzerdi makina on batek askoz balio gehiago
dauka musikazko ordulari dotore, perfektuenak
baino . Ipuin horretan agertzen dira, besteak
beste, amodioaren ezina, amodio galdua, patu
gaiztoa, maitaleak bereizten dituen indar beltza,
edo kantuaren botere erabatekoa. Eguneroko
bizitza leialki erakusten saiatzen da Hoffmann
beraz, baina bere irudimenaren ispilutik iragazi
ostean. Hori, halere, ez da inolaz ere ikuspegi
zentzuzko bati jarraituz bideratuko, eta gandu
eta laino artean utziko da, horrela irakurlea beti
zalantzan utziaz; zentzu horretan, argigarriak
dira Theodorren esaldiak *Automatak* ipuinean:
Desatseginagorik ez dago, ipuin edo eleberrian
fantasiaren mundua harrotu ondoren, bertako

zorua erratzaz hainbeste pasatzearen poderioz azkenean ondar ale edo hauts ipitz bat ere ez geratzea baino; eta jakinmin guztiak asetuta etxeratzean inongo irrikarik ez antzematea gortinaren atzean berriro kirika egiteko. Ipuin aberats baten zenbait zati anima barruraino sartzeak, aldiz, nire fantasiari hegalk eman eta luzaz dirauen atsegina eragiten dit.

Hoffmannen istorioetan ederki elkaturik ikusiko ditugu irudimen oparoa eta pertsonaien azterketa psikologikoa, askotan digresio zabalak edo azpi-istorioen bidez, kontraeraren hariak hartarako aukera ematen duenean. Ondoren doazkizunak, irakurle, lagunartean kontatutako istorio laburren eran daude antolatuak, Serapiondar Anaien elkartean, eta horregatik azaltzen dira maiz bertan bilerako entzule lagunak iritziak tartekaturik. Ipuinok ez dira E.T.A. Hoffmannen ipuin bilduma zabaleko ale bakar batzuk besterik, zuk ere, irakurle, liburuan barneratu ahala, gizakia bezain antzinakoak diren ikarak zirrara batekin senti ditzazun, bertako protagonistek bezalaxe.

BANPIRO ISTORIOA

(Eine Vampit-Geschichte)

— Banpirismoari buruzko elkarrizketan — hartu zuen Cyprianek hitza—, izugarrizko istorioa bururatu zait, antzina irakurri edo entzun bide dudana. Ziurrenik azkenekoa izango da, gogoan baitaukat istorioa benetan gertatu zela gaineratu zuela kontalariak, eta bertako kondearen familia eta oinetxea ere aipatu zituela. Baina istorioa jadanik argitaratua egon eta ezaguna bazaizue, eten iezadazue berehala hitza, aspalditik ezagutzen diren gauzak azaltzen uztea baino aspergarriagorik ez dago eta.

— Ikusten nago —mintzatu zen Ottmar— berebiziko izugarrikeriaren bat aurkeztuko diguzula berriro. Gogoan izan ezazu bederen Serapion santua, eta ahal bezain labur izan zaitez, hartara gure Vinzenzek ere hitz egiteko parada izan dezan; izan ere konturatu naiz egonezinik dagoela guri aspaldi hitz eman zigun ipuina berritzeko.

— Lasai, lasai —hotsegin zuen Vinzenzek—. Ezin diot nire buruari ezer hoberik opa Cyprianek atzekalde guztian oihal beltz eta iluna eskegitzea baino, horrela gero nire irudi koloretsu eta, nire ustetan, ipursaltokarien emanaldi mimiko plastikoa bere edertasunagatik nabarmen dadin. Hasi honenbestez bada, ene Cyprian, eta izan zaitez goibel, beldurgarri eta baita lazgarriagoa ere, oraindik irakurri ez dudan Lord Byron banpirozalea baino.

Hyppolit kondea —hasi zen Cyprian— bidaia luze eta urrunetik itzuli zen, berriki hildako aitararen ondare aberatsaz jabetzera. Oin-jauregia ingururik eder eta atseginenean zegoen eta ondasuneko mozkinekin apainketa garestitarako askitzen zen. Bere bidaiaren barrena eta batik bat Ingalaterran xarmangarria, fina eta bikaina iruditu zitzaion guztia ikusi nahi zuen berriro begi aurrean ernaturik. Bere deia entzutean beharrezko artisau eta artistak bildu, eta berehala has zen jauregiaren berregitea eta parke zabal baten ezarketa eskalarik handienez; hartara

eliza, hilerria eta apezetxea inguratu eta baso itxurako haren zati zirela ematen zuen. Kondeak berak zuzentzen zituen langile guztiak, horretarako behar den jakintza bazeukanez; buru-belarri murgildu zen jardun hartan, eta urtebete igaro zuen hala, inoiz emakume gazteen aurrean bere jakinduria agerian jartzea bururatu gabe, modu horretan, eta osaba zahar baten aholkuari jarraiki, emazterik eder, on eta prestuena egoki zekion.

Marrazketa mahaian zegoen goiz batez eserita, egoitza berrirako egitura taxutzen, baronesa zahar baten etorrera adierazi ziotenean, aitaren ahaide urruna. Baronesaren izena entzun zutenean, Hyppoliti berehala gogoratu zitzaion andre zahar hari buruz hitz egiterakoan aitak agertzen zuen arbuioa, baita higuina ere, eta harengana hurbildu nahi zutenei bazterrean mantentzea gomendatzen ziela, inoiz arriskuaren arrazoia aipatu gabe. Zehaztasunak eskatuez gero, berriz, gauza batzuetaz isiltzea hitz egitea baino hobe zela esan ohi zuen. Kontu ziur bakarra zen zurrumurru ilunak ibili zirela binan barrena auzi kriminal bitxi, bakan bati buruz, zeinak baronesa

senarragandik bereizi eta bere bizileku urrunetik joanarazi zuen, eta printzearen errukiari esker utzi omen zen epaia bertan behera. Hyppolit oso modu desatseginean hunkiturik sentitu zen bere aitak higuintzen zuen pertsona haren hurbiltzearekin, nahiz eta berak ere arrazoia jakin ez. Ordea kanpo alde hartan indarrean zegoen ostatu legeak enbarazuzko bisita hura onartzera behartzen zuen.

Behin ere ez zuen inortxok kondeagan baronesak adinako higuina sortu itxura hutsarekin, batere itsusia ez izan arren. Sartu orduko suzko begiradaz kondea zeharkatu, ondoren begiak beheratu eta bisita harengatik barkamen eskatu zuen apaltasunez. Bere kexa izan zen kondearen aitak heriotzako ordurarte gorrotatu zuela aurreiritzi arraro, jende makurrak zitalkeriaz txertatutakoengatik, eta miseria gorrian ia akiturik eta lotsatzeko egoeran ikusi arren sekulan ez ziola laguntzarik ñimiñoena ere eskaini. Azkenean, diru mordoska baten jabe ustekabe eginik, aukera zeukan bina utzi eta herriska urrun batera aldegiteko. Bidaia hartan zihoalarik ez omen zion eusterik izan gizon haren semea ezagutze-

ko gogoari, begirune handia baitzion, bidegabe-ko gorroto adiskidezin hura eta guzti. Baronesaren hizketa doinu egiati harekin ezezik, hainbat gehiago hunkitu zen kondea andre zahar haren aurpegi zatarretik begirada saihestu eta aldame-neko andereño polit, lirain, eta miresgarrian begirada pausatzean.

Baronesa isildu baina kondea ez zen agi danean ohartu, mutu geratu baitzen. Baronesak eskatu zion lotsakizunari leporatzeko sartu eta berehala bere alaba Aurelia ez aurkeztua. Orduan berreskuratu zuen kondeak mintzoa, eta gaztetxoan maitemin zoroz gorri-gorri eginik, baronesari arren eskatu zion uzteko konpontzen aitaren hutsegite hura, inondik ere gaizkiulerturen bati egotzi beharrekoa, eta ezer baino lehen bere jauregian ostatua onartzeko.

Bere borondaterik onenaren seinaleztat baronesaren eskua estutu zuen, baina nola hitza hala arnasa ere trabatu eta hotzikarek barrena zeharkatu zioten. Heriotza punturaino sumindutako hatz haien artean harrapaturik sentitu zuen eskua, eta baronesaren gorputz ihar luze hura, berriz, ikusmenik gabe begira zeukana, koloreta-

ko arropa zatarrez dotoretutako gorpua iruditu zitzaion.

— Jainko santua, zoritxar honek oraintxe gertatu behar zuenik ere! —hots egin zuen Aureliak ahots ezti, erdiragarriz. Atsekabez esan zuen ama gajoa aldian behin tetano gaitzak jotzen zuela ez non eta ez han, baina bere gisara joaten zitzaiola handik guttira. Ezinean aritu ondoren baronesagandik libratu eta Aureliaren eskuari heldurik ezpainen kontra sutsuki estutu zue-
nean, kondeari amodio gozoaren bizitasun opa-
roa itzuli zitzaion.

la gizontasunera heldurik, kondeak lehen aldiz nabaritu zuen pasioaren indar guztia, eta ezin izan zituen bere sentimenduak gorde; Aureliaren jatortasunak bera onartzerakoan, berriz, itxaropenik ederrenak erne zituen beragan. Handik minutu guttitara baronesa tetano gaitzetik esnatu eta kondeari ziurtatu zion, arestiko egoera hartaz deusik oroitu gabe, anitz estimatzen zuela denboraldi bat jauregian geratzeko eskaintza eta denak batera barkatzen zituela bere aitak egindako bidegabeak.

Honela aldatu zen bat-batean kondearen etxea, eta bera sinisturik zegoen fortunaren mesede berezi batek eskuratu ziola hainbeste otoiztutako emazte maitagarria, munduan izan daitekeen zorionik handiena ekar ziezaiokeen bakarra. Lehengoan jarraitu zuen baronesaren jokaerak, isila, seriosa, bere baitaratua, izakera xamurrekoa aukera zuenean eta bihotz itxikoa gutzia xalo guztien aurrean. Kondea azkenerako ohitu egin zen andre zaharraren aurpegi zurbil, beldurgarri eta mamu itxurakoarekin, eritasun harengatik zelakoan; baita bere grina goibel harekin ere, mirabeengandik jakin baitzuen sarritan joaten zela gauzez paseatzera parkean barrena kanposantu aldera.

Kondea lotsaturik zegoen aitaren aurreiritziek hainbeste eragin ziotelako, eta indar guztia galdu zuten osaba zaharraren agindu irmoek, alegia sentipen hura gairatu eta jarrera hura utz zezan, lehenago edo beranduago inor hondamenean amilduko zuela eta.

Aureliaren benetako maitasunaz erabat konbentziturik, haren eskua eskatu zuen. Pentsatzen ahal da zeinen pozik onartu zuen eskaintza

hura baronesak, bere burua miseria gorritik irtenda zorionaren altzoan ikusirik. Zurbiltasuna eta itxura berezi hura, bihotz kargatuaren seinale, desagertu egin ziren Aureliaren aurpegitik; maitasun bozkarioa zerien bere begiei eta gorritz distiratzen zioten masailek.

Ezkonegun goizeko halabehar hunkigarri batek kondearen asmoak zapuztu zituen. Kanposantutik urruti gabe baronesa parkeko lurrian ahopez hilda aurkitu zuten, eta jauregirantz zeramaten. Kondea, jaiki berritan, kanpora begira zegoen zorion atseginez. Betiko gaitzak joko zuela baronesa uste zuen, baina alferrik izan ziren hura oneratzeko ahalegin guztiak, hilda zegoen eta.

Oinaze sakonetan murgildu beharrean, Aurelia mututu egin zen kolpe harekin, malkorik isuri gabe, barreneraino dolaturik bezala. Kondea bere maiteaz arduratu zen, eta eztiro eta goxoki ausartu zitzaion gogorazten umezurtz geratu zela, eta gizalegea alde batera utziz benetako gizalegeaz jokatu behar zutela; hots, ama hil arren ezkontza ahalik gehiena bizkortu behar zutela. Hura entzutean Aurelia kondearen beso-

etara jausi eta hala oihukatu Zion ahots erdira-
garriz, malkoak begietatik mara-mara:

— Bai, bai! Santu guztien izenean, nire zorio-
nagatik, bai!

Kondeak hunkialdi bortitz hura barrenean
eduki bide zituen ideia saminei leporatu zien:
bakarrik geratua, nora joanik gabe, eta jauregian
jarraitzea berriz itxura ez.

Aureliak andre zahar prestu bat eduki zezan
arduratu zen kondea, lagungarri moduan. Hala,
aste guttiren buruan ezkonguna iritsi zen berri-
ro; oraingoan inongo halabehar gaiztoen ozto-
porik gabe, Hyppolit eta Aureliaren arteko zorio-
na zigilatu zuen. Bitarte hartan guztian Aurelia
oso urduri egon zen. Ama galdu izanaren oina-
zeak ez baizik eta larritasun garratz, hilgarriren
batek ematen zuen jarraitzen ziola etengabe.

Maitasun hizketarik eztienean ere bat-batean
izuturik bezala eta hildakoaren zurbiltasunaz
besarkatzen zuen kondea, malkoak mara-mara,
heldulekua nahi balu bezala eta botere gaizto
ikusezinen batek hondamenera eramanez ez zezan
oihuka:

— Ez. Inoiz ez, inoiz ez!

Orduan ematen zuen, kondearekin ezkondu ondoren, lehengo urduritasuna desagertu egin zela, joan zitzaiola larritasun izugarri hura. Jaki-na, Aureliaren barrena kaltetzen ari zen misterio zitalaren susmoa bazeukan kondeak, baina ordurarte ez zitzaion gisakoa iruditu Aureliari haren galdera egitea, urduritasun hark iraun eta bera isilik egon bitartean. Une hartan ausartu zen aldarte bitxi haren arrazoia zein izan ote zen emeki galdetzera. Aureliak adierazi Zion arinaldi handia zuela senar maiteari bihotza zabal-zabal egitea. Eta kondea gogotik harritu zen jakitean amaren jardun doilorrak sortu zuela Aureliaren atsekabe nahasgarri hura.

— Izugarriagorik ba ote da —hots egin zuen Aureliak— norberaren ama gorrotatu, higuindu beharra baino?

Aita eta osabarenak ez ziren gezurretako aurreiritziak beraz, eta baronesak ongi hausnar-tutako zurikeriaz lortu zuen kondea engainatzea. Kondeak adur onekotzat hartu zuen ama gaiztoa ezkongunean zendu izana, eta ez Zion hori gorde Aureliari. Baina honek azaldu zion ama hil bezain laster ideiarik goibel, beldurgarrienak

erne zitzaizkiola: ezin omen zen estuasun izugarri hartatik aldendu, alegia hildakoa piztu eta maitearen besoetatik leizezulo beltzera jaitsaraziko ote zuen.

Aureliak gandu artean gogoratzen zuen, artean ume zelarik (bere esanaren arabera), goiz batez, lotatik esnatu berritan, sekulako ardaila harrotu zela etxean. Ateak indarrean zabaldu eta itxi, eta ahots ezezagunen istilua entzun zen. Azkenean giroa baretzean umezainak Aurelia besoetan hartu eta gela handi batera eraman zuen, non gizon asko zeuden bilduak; bertan, mahai zabal baten gainean, Aureliarekin sarritan jolastutako gizona zegoen etzanda, berari gozokiak eman eta alaba deitzen ziona. Eskutxoak luzatu eta muxu eman nahi izan zion. Bestetako ezpain epelak izozturik zeuden ordea, eta Aurelia negar hipaka hasi zen, zergatik jakin gabe.

Umezainak etxe arrotz batera eraman zuen, non luzaroan egon zen, harik eta emakume bat agertu eta zaldikotxean eraman zuen arte. Hura zuen ama berria, eta handik lasterrera hiriburura bidaiatu zuen Aureliarekin.

Aureliak hamasei urte inguru edukiko zituen baronesarenean gizonezko bat azaldu zenean, pozez eta konfidantzaz hartua izan zena, aspaldiko ezagun kuttuna bailitzan. Geroz maizago etortzen zen, eta aurki baronesaren etxea nabarmen aldatu zen. Teilatuazpian bizi, erromes moduan jantzi eta otordu kaskarrak jan beharrean, gela eder batera bildu zen hiriko auzorik ederrenean, arropa apainak eskuratu zituen, eguneroko bazkaldar zuen arrotzarekin bapo jan eta edaten zuen, eta hiriburuak eskaintzen zituen josteta guztietan esku hartzen zuen. Baina arrotzari eskertu beharreko hobekuntza hark ez zuen Aureliagan inongo eraginik izan. Gela barruan geratzen zen giltzapean, eta lehen bezain erromes, baronesa arrotzarekin dibertitzera zihoan bitartean.

Arrotzak, nahiz eta ia berrogei urteak aldean izan, oso itxura fresko, gaztea zeukan, gorputz altu eta lerdenekoa zen eta aurpegiz ere egoki antzekoa. Alabaina, desatsegina iruditzen zitzaion Aureliari; izan ere, jokabidez maila gorena erakutsi nahi izan arren, sarritan baldarra, gordina eta zarpaila zen.

Aureliari begiratzen hasi zen moduak, ordea, sekulako beldurraz bete zuen, baita biguina ere, nahiz eta arrazoiari igarri ezin. Orduarte baronesak ez zuen lanik hartu Aureliari arrotzaren gainean txintarik ere esateko. Orduan aipatu zion Aureliari baroiaren izena, aberats okitua eta urrutiko ahaidea zela gaineratuz. Bere lerdentasuna eta eskuarteak goraiatu eta zer iruditzen zitzaion galdetuz bukatu zuen. Aureliak ez zuen ezkutatu arrotzarekiko bere biguina, baina orduan baronesak suzko begiz begiratu, barrenean beldurra sortzeraino, eta txoro eskasa deitu zion.

Handik guttira inoiz baino jatorrago hasi zen baronesa Aureliarekin jarduten. Arropa ederrak eman zizkion, baita modazko apaingarri ugari ere, eta jende arteko ospakizunetan esku hartzeko parada izan zuen. Aureliari atsegin emateko arrotzaren eginahalek gero eta biguingarriago bihurtzen zuten. Baina jota geratu zen bere andereño zentzu xamurra, kasualitate zitatez arrotza eta ama galduaren arteko lotsagarrikeria baten lekuko suertatu zenean.

Handik egun batzuetara arrotzak erdi moz-korturik besarkatu zuenean Aurelia, asmo jakina-
rekin, etsipenak gizonezko indarra eman, atzera-
ka boteaz arrotza baztertu, ihes egin eta gela
barruan giltzaperatu zen.

Baronesak hoztasunez eta irmoki argitu zion
Aureliari, arrotzaren bizkar bizi zirenez eta
lehengo miseriara itzultzeko inongo gogorik ez
zeukanez, kaltegarri eta alferrikakoak zirela
xotilkeria tuntun haiek; Aureliak men egin behar
ziola arrotzaren borondateari, beste gaineran-
tzean bertan utziko zituen amenazua egin bai-
tzuen. Aureliaren otoi saminak, malko beroak
aintzat hartzeko orde, halako moduan hasi zen
andre zaharra isekati barrez bizitzako atsegin
guztiak eskuratuko zizkion jarrera bati buruz, eta
izugarrikeria likitsekin gizalegea gaitzesten non
Aurelia arrunt izutu zen. Bere buruaren honda-
mendia ikusirik, berehalako ihesari iritzi zion sal-
batzeko bide bakarra.

Etxeko giltza lortu ondoren, Aureliak pre-
miazko huskeriak bildu eta ezkaratze motel argi-
tuan barrena abiatu zen gauerdia eta gero, ama
lokaturik zegoelakoan. Bazihoan isil isilik irtete-

ra, bat-batean etxeko atea zalapartan ireki zenean, zarata eskaileretan gora zabalduz. Ezkaratze erdian Aureliaren oinetara oldartu zen baronesa, ator zarpail, zikinez jantzia, bular besoak agerian, ile urdina banatua eta istilu bizian. Atzetik zuen arrotza, marru batean: Zaude, deabru madarikatua, infernuzuloko sorgina, zure ezteieguneko otorduaren ordaina eman-go didazu eta! Iletatik helduta gela erdiraino arrastaka eraman eta berarekin zeraman makil lodiarekin hasi zitzaion indartsu joka.

Baronesak ikaragarritzko garrasia bota zuen, eta Aurelia, ozta-oztan bere buruaren jabe, laguntza eske hasi zen leihotik oihuka. Polizia armatu patruila bat suertatu zen orduantxe handik igarotzen. Berehala sartu ziren etxean. Harrapa ezazue —hots egin zien baronesak polizia soldaduei amorru eta oinazez kizkurturik—, harrapa ezazue! Eutsi gogor! Begiraiozue bizkarran! Bera da .

Baronesak izena aipatu orduko, patruila buru zen sarjentuak oihu egin zuen pozez: Hara! Azkenean atzeman haugu, deabru. Eta horren-

bestez arrotza atxilotu eta indarrean eraman zuten, berak gogor egin arren.

Gertatua gertatu, baronesak ongi igarri zion Aureliaren asmoari. Mementuz nahikoa iritzi zion Aurelia besotik zakar oratu, gela barrura bota eta giltzapean uzteari, txintarik esan gabe. Bihamunean baronesa norabait joan eta iluntzera arte ez zen itzuli. Bitarte horretan Aureliak, bere gelan espetxean bezala giltzaperaturik, ez zuen inor ikusi edo entzun eta egun osoa igaro behar izan zuen jan eta edan gabe. Honela jarraitu zuen zenbait egunez segidan. Anitzetan begiratzeko zion baronesak amorrutako begiz, erabakia hartu ezinik bezala, harik eta gau batean pozgarriak ziruditen gutunak aurkitu zituen arte. Burugabe alaena —esan zion baronesak Aureliari—, hi haiz guztiaren errudun, baina jadanik berdin zion. Neuk ere ez dinat opa izpiritu gaiztoak ezarri dinan zigor beldurgarria. Handik aurrera jatorragoa bihurtu zen berriro; Aureliak, berriz, gizon higuigarri hark aldegin zuenetik ihesarena ahazturik, askatasun handixeagoa eskuratu zuen berriro.

Zenbait egunen buruan Aurelia bere gelan bakarrik escrita zegoelarik, iskanbila gogorra has zen kalean. Gelariak, presaka sartuz, jakinaz zion orduantxe zekartela borreroaren semea ***tik, hilketakiko lapurretatik bertan markatua izan eta espetxeko bidean zaindariei aldegin ziena. Beldurrezko susmoak harturik, Aureliak balantza egin zuen leiho ondoan. Ez zegoen oker: arrotza zen handik zehar zaindari ugariz inguratua zeramaten, gurdari estuki loturik. Zigorra betetzera zekarten berriro. Aurelia zorabiatzeko zorian erori zen besaulkira, gizonezkoaren begirada basati ikaragarriarekin egokitu eta hark behetik amenazuzko keinuarekin ukabila leiho aldera luzatu zionean.

Baronesak etxetik kanpo joaten jarraitzen zuen maiz, Aurelia beti bertan utzita; hala, beti gogoeta triste eta goibelen artean bizi zen, bere patuari buruz eta ustekabeko arrisku posibleei buruz. Gelariak, berriz, gaueko gertakari haren ondoren etxera etorri zenak, ongi ezagutzen zuen bilau hark baronesarekin izandako harreman estua, eta esan zion errukia ziotela barone-

sari hirian, gaizkile zirtzil hark halako modu zitalan engainatu zuelako.

Aureliak sobera zekien kontua besterik zela, eta ezinezkoa zirudien arrotza baronesaren etxean atzeman zuten poliziak behinik behin konbentziturik ez egotea borreroaren semea eta baronesaren arteko ezaguera onaz, bere izena aipatu eta bizkar markatua salatu baitzien bistako gaizkile ezaugarritzat. Gelariak han hemenako esamesak ere adierazi zizkion zalantza artean; gauza jakina omen zen auzitegiak ikerketa sakonak burutu zituela eta baita baronesa ohoragarria atxilotzearekin mehatxatu ere, borreroaren seme zitalaren aitoren bitxiak zirela medio.

Aurelia gajoa berriro jabetu zen amaren izaikera okerraz; izan ere bazuen hiriburuan bizitzen jarraitzeko kemena, gertaera izugarri haren ostean. Azkenean, ordea, susmo lotsagarri eta funts sendoko haietatik ihes, urrutira aldegin beharrean gertatu zen. Bidaia horretan zihoazelarik kondearen jauregira heldu, eta arestian kontatua gertatu zen bertan.

Aurelia pozez gainezka zegoen, kezka ilun guztietatik urrun; baina hura izua eman zion, bere zorionean zeruko paru dohatsuari buruz amari hizketan hastean, honek infernuko sugarrak begietan zituelarik oihu egin zionean: Hi haiz nire zorigaitza, ume makur zirtzila, baina hire zorion amestu horren erdian aurkituko hau mendekuak, heriotza azkar batek naramanean. Hire jaiotzak sortu zidan tetano gaitzaren bidez, Satanas maltzurak... Hemen trabatu zen Aurelia, eta kondearen bularrean hondoratuz, amen eskatu zion ez errepikarazteko baronesak amonru zoroan esandako guztia. Lur jota sentitzen zen parte gaiztoko indarrek hartutako amaren mehatxu harekin oroitzean, edozein izugarrikeria gainditzen baitzuen.

Kondeak ahal hainbat adore eman zion emazteari, nahiz eta berak ere gorputzean barrena herio hotzikarak nabaritu. Bera ere lasaitu zenean, aitortu beharra izan zuen baronesaganako arbuioak, hilik egon arren itzal beltzez estaltzen ziola bizitza, eguzki distirazkoa uste zuena.

Handik denbora guttira Aurelia nabarmenki hasi zen aldatzen. Aurpegiko herio zurbiltasunak eta begi ahulduak eritasuna adierazteaz gain, Aureliaren izakera nahasi, urduri eta izutiak sekretu berriren bat iragartzen zuen, bere burua hondatzen ari zena. Senarragandik ere ihes, gelan giltzapean itxi ala parkeko txokorik bakar-tienak bilatzen zituen; ondoren ikusiez gero, negarrarekin puztutako begiek eta aurpegi desitxuratuak oinaze latzen bat salatzen zuten. Alferrik ahalegindu zen kondea egoera haren jatorria ikertzen.

Mediku ospetsu baten susmoak atera zuen zeharoko atsekabetik: hots, kondesak agertzen zuen asaldura eta aldaketa seinale mehatxukor guztiak ez ote ziren bikote zorionsuarentzat esperantza ona besterik. Mediku hura bera, kondea eta kondesarekin mahaian eserita zegoen batean, ustezko esperantza on haren aipamen luzetan ari zen. Bazirudien kondesak entzungor egiten zuela, axola ez eta, baina bat-batean adi-adi jarri zen, medikua hizketan hastean emakumeek halako egoeran nabari obi dituzten gurari bitxiei buruz, eutsiezinak gainera, beren osasuna

kaltetu gabe haurragan ere eragin txarrik ez dutenak.

Kondesak galderez josi zuen medikua, eta honek etengabe berritu zituen kasurik irrigarri eta zelebreenak, bere esperientzia praktikotik bilduak.

— Halere —esan zuen—, badaude gurari bihurrienen adibideak ere, emakumeak ekintza latzenetara eraman dituztenak. Esate baterako, errementari baten emazteari halako gurari eutsiezina piztu zitzaion senarraren haragiarekiko non ez zuen atsedunik izan harik eta egun batez, senarra mozkorturik etxeratu zitzaionean, ustekabean laban handi batez eraso eta bertan sarraskitu zuen arte, handik ordu guttitara azken hatsa eman behar izateraino.

Medikuak hitz hauek jalki orduko kondesa zorabiatuak hondoratu zen besaulkian, eta ozta-oztan atera ahal izan zuten jo zion nerbio ataketik. Orduan jabetu zen medikua arinkeriaz jokatu zuela emakume neurasteniko haren aurrean gertaera beldurgarri hura aipaturik.

Kinka gaizto hura kondesaren mesederako izan zela zirudien.

Lasaitu egin zen, nahiz eta handik lasterrera bere izakera zurrinak, begietako su ilunak eta hildako kolore areagotuak kondea zalantza mingots berritan murgildu zuten.

Kondesaren egoerako alderdirik argiezinena, ordea, janaririk ez zuela hartzen zen, berebiziko biguina baitzion, bereziki haragiari; hala, beti biguinezko keinurik bizienez joan behar izaren zuen mahaitik. Medikuaren jakintzak huts egin zuen; ez kondearen erregurik sutsu, eztienek eta ezta beste ezerk ere ezin zion kondesari botika tantotxo bat harrarazi.

Asteak, hilabeteak igaro ziren kondesak mokadu ttiki bat ere ahoratu gabe, eta misterio argiezina zenez halere bizirik jarraitzea, medikuak iritzi zion han tartean bazegoela zerbait giza ezagutzaren esparrutik kanpo geratzen zena. Aitzakiaren baten pean joan zen jauregitik, baina kondea argi ohartu zen mediku trebeari ulergaitza ezezik izugarriegia ere iruditu zitzaio- la kondesaren egoera, zer eta eritasun ikertuezin haren aurrean zain jarraitzeko, lagundu ahal izan gabe. Pentsatzen ahal da zer nolako aldar-tean geratu zen kondea. Baina ez zen hori dena izan.

Garaitsu hartan azaldu zion morro zahar leial batek kondeari, bakarrik aurkitu zuen batean, kondesa gauero jauregitik irten eta egunsentian itzultzen zela. Izozturik geratu zen kondea. Orduantxe bururatu zitzaion azkenaldian ez-ohizko logaleak hartzen zuela gauerdi aldera, eta emazteak isuritako edari loarazleren bati egotzi zion; hala lortzen zuen, nonbait, gizalege finaren aurka senarrarekin elkarbanatzen zuen ganberatik oharkabean aldegitea.

Juzkurik ilunenak erne zitzaizkion animan; ama sorginarekin gogoratu zen, agian haren joera piztu baitzen alabagan, sasiko harreman zantarren batekin, borreroaren seme zirtzilarekin...

Hurrengo gauak azalduko zion sekretu izugarri hura, emaztearen egoera argiezinaren arrazoi bakarra bide zena. Kondesak senarrari tea prestatzeko ohitura zuen gauero, ondoren joan egiten zelarik. Egun hartan ez zuen tantorik edan, eta ohiturari jarraituz ohean irakurtzen hastean ez zuen bestetako logalea nabaritu gauerdian. Halere burko gainean ezarri eta lozorroan zegoen itxura egin zuen. Kondesa ohantzetik isil isilik

atera, senarragana hurbildu, aurpegian argi egin eta ganberatik irten zen.

Bihotza taupaka, kondea jaiki, berokian bildu eta atzetik joan zitzaion. Ilargi gaua izanik kondeak garbi bereizi zezakeen zuriz jantzitako Aureliaren irudia, nahiz eta aurre handi samarra hartua zion. Parketik zehar kanposanturantz egin zuen kondesak, bertako hormaren parean desagertuz.

Korrika joan zen kondea atzetik, zabalik aurkitutako kanposantu hormako atetik barrena. Aurrez aurre eta ilargi distirapean, irudi beldurgarri, mamu tankerako batzuk antzeman zituen elkarren jiran. Ile banatuko atsoak zeuden lurrean makurtuta erdi bilutsik. Gizonezko baten gorpua zeukaten erdian, eta gosepasaturik ari ziren hari harrapazka. Eta Aurelia ere tartean zen!

Kondeak, izulaborriaren zoramenaz, korrika aldegin zuen bere onetatik aterata parkeko bidezidorretan barrena, herio beldurrak eta infernuzuloko izuak xaxaturik, egunak argitzean bere burua jauregiko ate aurrean topatu zuen arte, izerditan blai. Zorabiatuak, ezer garbirik burura-

tu ezinik, eskailerak korrika igo eta geletan zehar zalapartan sartu zen kanberaraino. Hantxe zegoen kondesa etzanik, itxuraz loaldi ezti goxotan. Amets higuigarria izan zuela sinistarazi nahi izan zion kondeak bere buruari; edo bestela, ihintzaz basitutako berokiak ezagun baitzuen gauean batera eta bestera ibili zela, ikuskari nahasleren batek larritu zuela zeharo.

Kondesa iratzarri zain egon gabe ganberatik joan, jantzi eta zaldiz atera zen. Goizgiro ederreko ibilaldi hartan, zuhaiska urrintsuetan barrena, esnatutako txorien kanta hots alaiak agurturik, aienatu egin ziren gaueko irudi beldurgarriak. Indar berriz eta alaiturik itzuli zen jauregira. Baina biak, senar emazteak, mahaian bakarrik eseri eta kondesak nazka imintziaz jangelatik irtetekoa egin zuenean haragi egosia zerbitzatu zutelako, modu latzean agertu zitzaion kondearen animari gauean ikusitakoaren egia. Sumindura basatiz zutitu eta ahots beldurgarriz hots egin zion:

— Infernuzuloko abere madarikatua, ezagutzen dut gizonen otorduari diozun nazka, hilo-

bian harrapatzen baituzu jatena, emakume deabrua!

Kondeak hitz hauek esandakoan kondesa uluka oldartu eta bularrean hozkatu zuen hienen amorruz. Kondeak figura gaizto hura beragandik lurrera jaurti, eta azken hatsa ematen ikusi zuen estasi ikaragarrian. Kondea, berriz, erotu egin zen.

— Bejondeizula! —esan zuen Lothark une batez besteak bezala isilik egon ondoren—. Nire Cyprian paregabea, ederki bete duzu hitza. Zure istorioaren aldean banpirismoa benetako umejolas da, barrez lehertzeko haute komedia. Ez, bertako guztia izugarri interesgarria da, eta hainbeste dago *asa foetida*-z ondua non ahosabai aztoratuegi batek, janari natural osasuntsuei zaporerik hartzen ez dienak, atsegina aurkilezakeen bertan.

— Halere —hartu zuen Theodorek hitza—, gure lagunak hainbat alderdi isildu eta beste hainbatetik lasterka igaro da zirrara beldurgarri arin bat bakarrik sortzeko, eta eskertzekoa da

hori. Oraintxe datorkit gogora liburu zahar batean irakurri nuela mamu istorio latz hori. Bertan, ordea, zehatz-mehatz kontatzen zen dena, eta bereziki atsoaren biguinkeriak aurkezten ziren *con amore*. Osotasunak irudipen gaiztoa utzi zidan, luzaroan gaintitu ahal izan ez nuena. Pozik nengoen berriketa zatar hura ahazturik eta hobe nuen Cyprianek atzera gogorazi ez balit, nahiz eta aitortu beharra daukadan berak, gure San Serapion patroia gogoan, dardarizo galantak sortu dizkigula, bukaeran behinik behin. Denok zurbildu gara apur bat, baina bereziki kontalaria bera.

MAGNETIZATZAILEA

(Der Magnetiseur)

Ametsak apar huts dira

— Ametsak apar huts dira —esan zuen baroi zaharrak eskua kanpai lokarrirantz luzatuz, loge-larako bidean argia eman behar zion Kaspar zaharrari deitzeko.

Berandu zen. Udazken haize hotza zebilen udako sala gaizki atonduan, eta Mariak, bere txalean bil-bil eginda, bazirudien ezingo ziola loari luzaroan eutsi, begiak erdi itxita.

— Hala ere —jarraitu zuen baroiak eskua berriro bildu eta besaulkian kizkurturik bi besoak belaunetan jarriz—, hala ere gogoan dauzkat nire gaztaroko hainbat amets berezi!

— Ai, aita jauna —eten zion Ottmarek—, zein amets ez ote da berezia! Alde batetik agerraldi bakanen bat iragartzen duten ametsak dauzkagu, alegia Schilleren hitzez Destinua aurrera ekartzen diguten izpirituak , eta, bestetik, gure begirada lotsatiak ezinez soilik ikus dezakeen erresuma ilun, misteriotsu baterantz bultzatzen

gaituzten ametsak; bi amets mota horiek dira berebiziko indarraz atxikitzen gaituzten bakarrak.

— Ametsak apar huts dira —errepikatu zuen baroiak ahots lodiz.

— Materialisten esaera horretan ere —gaineratu zuen Ottmarek—, non miresgarria gauza arruntzat hartzen den, baina arrunta ere sarritan gauza geza eta sinistezintzat; esaera horretan, nire ustez, badago alegoria zuzen bat.

— Zer zentzu aurkitzen diozu atsotitz zahartu horri? —galdetu zuen Mariak aharrausi eginaz.

Irribarretsu erantzun zuen Ottmarek Prosperoren hitzez:

— Zeure begietako leihatilak zabaldu eta entzuidazu gogoz! Izan ere, Maria maitea, horren loti egon ez bazina, aise antzemango zenuen giza bizitzako agerraldi ezin bikainagoei buruz ari garela hizketan, ametsez alegia. Aparrarekin alderatzean, berriz, burutapenik finenak datozkit. Txanpaina gainezkari, txistuegile, txinpartatsuaren aparrari buruz ari naiz, zeuk edan ohi duzun hori, nahiz eta andereñoen gisara ardoa baztertu, kaltegarria delakoan. Begiraiezu

milaka burbuila ñimiño horiei, edontzian gora txinparta artean igo eta aparraren gainean irakiten: horiek dira izpirituak, lurreko loturetatik askatzen ari direnak, ezinegonez. Horrelaxe bizi da izpirituaren oinarri gorena aparretan, materiaren eraginetik libre, hegoak astinduz hitz eman zaigun erresuma zerutiar urrunerantz, bere kideko izpiritu gorenekin pozik elkartzeko eta agerraldi miresgarri guztiak beren zentzurik sakonenean ulertu eta ezagutzeko. Baliteke, beraz, ametsen sorrera apar horixe izatea, non gure bizitzaren izpirituak pozik eta libre irakiten duten, loak gure bizitza hertsia kateatzen duenean; orduan hasten da, agian, bizitza zabal gorenagoa, eta igarri ezezik orduan ezagutzen ditugu ere izpirituen mundu urruneko agerraldi guztiak, leku eta denbora esparruen gainetik.

— Hizketako tankera hori —eten zion baroi zaharrak, murgilduta zegoen oroitzapen batetik indartsu aldenduz bezala—, zure lagun Albanena iruditzen zait. Badakizue zuen aurrean inoiz amore ematen ez duen kontrarioa nauzuela. Esan berri duzun guztia berez oso atsegina da entzuteko, hau da, zenbait anima hunkibera edo

hunkitzaile gozatzeko, nahiz eta egia ez izan bere alderdikeria horrengatik. Izpirituen munduarekiko lotura eta nik dakita zeri buruzko zure berriketen ondoren, pentsatzekoa litzateke ametsak egoerarik zoriontsuenean jarri behar lukeela inor. Zenbait amets, ordea, niretzat gogoangarriak direnak halabeharragatik nigan nolabaiteko eragina izan dutelako —halabehar, bide batez esanda, elkarren arrear harremanik ez duen gertaera arrotzak elkartzeari deitzen diot, gero guri denak batera agertzen zaizkigularik-; amers horiek guztiak, nioen moduan, desatseginak ziren eta baita mingarriak ere; amets horiek sarritan gaizkitu ninduten, nahiz eta hausnarke-ta guztiak neure golkorako gorde, orduan oraindik ez baitzegoen ohiturarik naturak gugandik urrundu duena atzeman nahian jarduteko.

— Badakizu, aita jauna —gaineratu zuen Ottmarek—, zuk halabehar, gertaeren elkarketa edo antzeko zernahi aipatzen duzunean nire lagun Albanen iritzi bera dudala. Eta hausnarke-tarako ohiturari dagokionez ziur zaude antzinako ohitura dela hori, giza izaeran sustraiturik dagoena. Saisen dizipuluak ere...

— Zaude! —zutitu zen baroia—. Ez gaitezen gehiago murgildu solas horretan, arrazoi aski baitaukat zure miresgarri zaletasun larregia jasateko aldarlean ez egoteko. Aitortu beharra daukat gaztaroko oroitzapen batek atxiki nauela gaur bertan, irailak bederatzi, eta ezin dudala uxatu. Abentura hura kontatuko banizue, hantxe aurkituko luke Ottmarek frogaturik zeinen kaltegarria gertatu zitzaidan amets edo erdi-ametsetako egoera hura, errealitatearekin halako lotura bitxia zuena.

— Agian, aita jauna —esan zuen Ottmarek—, adibide ederren bat emango diguzu Albani eta bioi, loa eta ametsak ikertzen dituen magnetismoaren esperientzia ugarientzat.

— Magnetismo hitzak berak dardarka jartzen nau —haserretu zen baroia—. Baina nork bere alorrean jardun beza. Arrakasta opa dizuet, naturak onesten badizue zuen esku traketsez berari errezela urratzea, eta ez dezala zuen jakinmina heriotzarekin zigortu.

— Ez dezagun eztabaidatu, aita jauna —erantzun zuen Ottmarek—, segurantzia osotik erne-

tzen diren gauzetaz. Baina zure gaztaroko oroitzapen hori ezin al diguzu jakitera eman?

Baroia hondoraino eseri zen berriro besaulkian, eta barrena asaldatua zeukanean egin ohi zuen bezala begirada modu adierazkorrean gora zuzendu eta hasi zen:

— Badakizue nobleziaren B.ko akademian jaso nuela nire heziketa militarra. Bertako irakasleen artean bazen gizon bat inoiz ahaztuko ez dudana; ordea oraindik ezin naiz berarekin oroitu barreneko dardara edo izu tankerako bat gabe. Sarritan iruditzen zait mamuen gisan sartuko dela atletik ezkutuan.

«Gizon tantai hura are nabarmenagoa bihurtzen zen bere zimelean, gihar eta zain hutsez osatua ematen baitzuen; agian gizaseme egokia izango zen gaztetan, oraindik ere jaurtitzen baitzuten bere begi beltz handiek suzko begirada bat, aurre egiten zaila denontzat. Berrogeitamar urtetik gora samartua, halere gaztetxo baten indarra eta iaioitasuna zeukan, bere mugimendu guztiak azkarrak eta tinkoak ziren. Inor baino trebeagoa zen esgriman, nahiz labana eta nahiz ezpatarekin, eta zaldirik basatiena ere apalduko

zukeen, antsika jartzeraingo. Soldadu danimarkarren artean komandante izana, ihes egin beharrean gertatu omen zen, bere jenerala dueloan hil zuelako ezpataz. Hau askoren ustez ez zen dueloan gertatu, baizik eta jeneralaren irain baten ondoren sartu omen zion ezpata gorputzean, bere burua babesteko betarik eman gabe. Aski bedi esatea Danimarkatik ihes egin eta komandante graduarekin ipini zela gotorlekuan, gol mailako irakaskuntzan. Txit suminkorra, hitz edo begirada hutsarengatik jar zitekeen sutan eta ongi hausnartutako laztasunaz zigortzen zituen ikasleak; bere inguruko guztiak, ordea, ukitu misterioetsua zeukan. Behin batean arau eta erregela guztien kontra ikasle bati emandako tratu gogorak buruzagien arreta erakarri eta ikerketa zabaldu zen; baina orduan ikasle harek bere burua errudun egin eta halako grinaz mintzatu zen komandantearen alde non salaketa guztietatik libre utzi zuten.»

«Beste batzuetan, berriz, ez zuen bera zenik ematen. Bere ahots lodiaren bestetako doinu zalapartariak ozentasun zehaztuezin bat hartzen zuen, eta ezin izaten zen beragandik begirada

saihestu. Onez onean hartzen zituen akats ttiki guztiak, eta bazirudien arrakastaren bat lortu zuen norbaiti bostekoa ematen zionean bere morroi bihurtzen zuela, eutsiezineko azti-indar batez; eta inori bat-bateko heriotzarik saminena opatzen bazion, bazirudien bete egingo zela bere desioa. Halako egunen biharamunean ekaitz izugarria lehertu ohi zen, denok gorde edo aldegitara behartuz. Berak orduan egunsentian Danimarkako uniforme gorria jantzi eta erraldoiaren adinako pausoak emanaz irteten zen akademiaren jauregi aldameneko lorategi zabalera, nola uda hala negua izan, egun osoa noraezean ibiltzeko. Ahots beldurgarri eta imintzio nabarmenekin entzuten genion danieraz hizketan, ezpata atera eta arerio izugarri batekin borrokan arituko balitz bezala, kolpeak jaso eta moztuz, harik eta kolpe artetsu baten ondoren arerioa bota arte; orduan birao eta madarikaziorik latzenak esanez gorpu hura ostikoka mastrakutzen zuela zirudien. Ondoren zitzu bizian aldegiten zuen zumardietan barrena, arbolarik altuenetara igo eta isekati algaraka, geure geletatik aditzen genionoi zainetako odola izoiztuz. Berro-

geitalau orduz jarduten zuen hala, eta paroxismo hark egunez bezala erasotzen zion gauzez ere. Hurrengo egunean bazirudien aurreko bere ibilera guztiak ahaztuak zituela; bestetan baino zakar, suminkor eta gogorrago agertzen zen, lehengo aldarte atseginera etorri arte.»

«Ez dakit nondik jaio ziren berari buruzko zurrumurru harrigarri, sinistezin haiek, akademiako mirabe eta herriko jende xehearen artean ere zabalduak. Ziotenez, sua amatatu eta gaitzak sendatzeko gauza zen, eskuak gainean ipini edo baita begirada hutsarekin ere; izan ere, gogoan daukat behin batean makilka uxatu zituela zenbait lagun, modu hartan senda zitzan etorriak. Nire zerbitzuko agure elbarri batek zuzenean aipatu zidanez, denek zekiten komandantea parte gaiztokoa zela, eta deabru zitala agertu zitzaiola aspaldi ekaitzaren erdian itsasotan, heriotzatik salbatzeko aukera eta nolana hiko ekintza miresgarriak egiteko gizagaindizko indarra eskainiaz; berak orduan onartu eta deabruaren menpe geratu omen zen. Agi danean orain maiz zeukan borrokatu beharra deabru harekin, azaldu egiten baitzitzaion lorategi inguruetan,

nahiz zakur beltz eta nahiz beste edozein animalia zatarren itxuran; baina lehenago ez bazen beranduago komandanteak burua makurtu beharko omen zuen, modu ikaragarriren batean.»

«Kontaera zoro eta ments haiek gorabehera, ez nion barne hotzikarari eusterik izaten, eta nahiz komandanteak nirekiko agertzen zuen zaletasunari atxikimendu leialez erantzuten nion, gizon berezi harenganako nire sentimenduetan zerbait ulertezina nahasten zen, etengabe jarraitzen zidana eta neuk ere argitu ezin nuena. Bazirudien goiko izakiren batek hertsatzen ninduela gizon harekin leial izatera, maitasun haren amaitze ordua nire heriotzako ordua balitz bezala. Berarekin elkartzen nintzenean atsegin antzeko bat nabaritzen nuen, baina baita beldur antzeko bat ere, eutsiezineko estuasunaren sentimendua, parte onekoa ez zen moduan larritu eta barrena hotzikaraz jartzen zidana. Aspalditik nengoenez bere ondoan, jator jokatzen zuen nirekin eta gauzarik bitxiak kontatzen zizkidan, begirada nigan josirik ohitura zuen moduan, eta eskutik helduta; aldarte bakan hark

leher eginik uzten ninduen. Zorabiatzeko zorian ibiltzen nintzen ondoezik eta nekatuta. Aipatzeko uzten ditut nire lagun eta nagusiarekin izaten nituen eztabaida bitxi guztiak nire ume jokoetan parte hartzen zuen aldietan, neroni, babes lege zorrotzeneri jarraituz, lorategian egiten ari nintzen gotorleku garaitezin hura altxatzen laguntzen zidanean. Baina harira joan nadin.»

«17-garren urteko Irailaren zortzitik bederatzirako gauean, zehatz-mehatz gogoratzen naiz, ametsa egin nuen, bizi bizia eta benetan gertatua zirudiena. Komandanteak atea isilik zabaldu, nire ohe ondora etorri eta eskuineko eskua ezarri zidan bekainean, bere begizulo beltzekin beldurtzeko moduan niri so, zinez nire aurrean zutik baneuka bezala. Hasperen egin nuen, ezinegonez eta izuz. Orduan ahots lodiz hitz egin zidan: «Gizakume gizarajoa, aitor nazak hire nagusi eta jauntzat! Zergatik ahalegintzen haiz alferrik hire morroi uztarria astintzen? Hire barrena dakusan Jainkoa nauk, eta inoiz bertan gordetako edo gorde nahi duan guztia argi eta garbi zeukat nire aurrean. Baina lurreko zizare hori, nik higan dudan boterearen zalantza egiten ausart ez

hadin, hire gogoeten errota ezkutuan sartzeko asmoa diat, heuk ere ikus dezakean moduan». Bat-batean tresna zorrotz distirant bat ikusi nion eskuetan, eta kaskezurra zulatzen has] zitzaidan bere harkintxe. Atera zitzaidan izu oihuaren poderioz esnatu egin nintzen, izerdi patsetan, zorabiatzeko zorian. Nire oneratzea lortu nuenan giro sargori zakarrak betetzen zuen gela osoa. Oraindik ere komandantearen ahotsa entzuten nuela iruditzen zitzaidan, urrutitik nire izenaz deika behin eta berriro. Amets latz haren ondoriotzat hartu nuen; ohetik jauzi egin eta leihoa ireki nuen, haize garbiak gelako sargoria egurasteko. Baina hura beldurra nirea ilargi gauaren erdian komandantea ikusi nuenean uniformeaz jantzita, nire ametsean agertu bezalaxe, kanpora zeraman burdinazko aterantz zihoalarik zumardian barrena. Zabaldu atea, zeharkatu, bere atzean itxi eta erro nahiz krisketen burdin zaratak oihartzuna harrotu zuen gau isilean. «Hara! —pentsatu nuen nire artean—. Zer nahi ote du komandanteak kanpora irtenda?», eta berebiziko larria eta kezka abaildu zitzaizkidan. Eutsiezineko indarrak bultzata bezala presaka

jantzi eta inspektore jauna iratzarri nuen, hirurogeitamar urteko agure alaia, komandanteak bere paroxismo gaiztoetan aintzat hartzen zuen bakarra; izandako ametsa ere kontatu nion, ondorengo gertakariarekin batera. Agurea adi-adi jarri eta esan zuen: «Nik ere entzun dut ate hots handia, baina neure irudipena zelakoan nengoen; nolana ere, baliteke komandanteari zerbait berezia gertatu izana eta hobe izango dugu bere gelan begiratzea».

«Txirrina jota ikasle eta irakasleak esnatu eta, kandelak hartuta, prozesio itzaltsuan bezala joan ginen pasabide luzean barrena komandantearen gelarantz. Atea itxita zegoen eta giltza nagusiarekin irekitzen alferrik saiatu ondoren, barrenetik morroiloa emanda egongo zela jabetu ginen. Ate nagusia ere, lorategira irteteko erabili beharko zukeena itxita eta morroiloa emanda zegoen, lehenago bezala. Oihuek erantzunik ez zutenez azkenean logelako atea behartu zuten: begirada josita eta ahotik apar odoltsua zeriola zegoen komandantea, Danimarkako uniforme gorria soinean, esku okertuarekin ezpatari hel-

duta, lurrean hilda! Alferrik izan ziren hura zuzpertzeko ahalegin guztiak.»

Baroia isildu egin zen. Ottmar zerbait esateko zorian zegoen bina eutsi egin zion; eskua kopetan jarrita, bazirudien lehenbizi bere barrenean taxutu eta itxuratu nahi zuela kontatera hartaz esateko zeukana. Mariak isilune hura eten zuen, esanaz:

— Ene bada, aita jauna! Hori pasadizo ikaragarria! Nire aurrean ikusten dut komandante beldurgarria Danimarkako uniformeaz jantzi eta begirada nigan josita. Hondatu dit gaurko loa.

Franz Bickert pintoreak, baroiaren etxeko lagunmina azken hamabost urte haietan, ez zuen ordurarte parterik hartu elkarrizketan, ohitura zuenez; aldiz, gurutzatu besoak bizkarrean eta sinu zelebregari eginez ibilia zen harat-honat, noizean behin jauzi barregarriak egiten ahaleginduz. Azkenean honela ekin zion:

— Baronesak arrazoi osoa du. Zertarako ditugu ikarazko kontaerak eta pasadizo hunkigarriak lotarako tenorean? Loa eta ametsei buruz daukadan teoriaren kontra dago hori, milioi pare bat esperientziatan bakarrik oinarriturik dagoen teo-

riaren kontra, hain zuzen ere. Baroi jaunak orain artean zorigaiztozko ametsak besterik ez baditu egin, hori da nire teoria ezagutzen ez duelako eta ezin duelako, beraz, horren araberan jokatu. Ottmarek aipatzen duenean magnetismoa, planeten eragina eta auskalo zer kontu, baliteke arrazoirik falta ez izatea baina nire teoriak ilargi izpiei ere sartzen uzten ez dien armadura osatzen du.

— Dagoeneko irrikitzen nago zure teoria bikain hori entzuteko —esan zuen Ottmarek.

— Utzi Franzeri lasai hizketan —eten zion baroiak—. Laster konbentzituko gaitu nahi duen guztiaz eta nahi duen eran.

Pintorea Mariaren parean eseri, finezia barregarria eta irri gozo, bitxi batekin atzaparkada tabako hartu eta honela hasi zen:

— Lagunarte ohoragarria! Ametsak apar huts dira. Alemaniako atsotitz jator esanguratsu bat da hori, baina Ottmarek hainbeste xehatu du, hainbeste zehaztu du non berak hitz egin bitartean nire buruan antzeman baititut lurretik jaio eta gorantz zihoazen burbuilak, izpirituaren oinarri gorenarekin batzera. Baina ez al da geure

izpirituia legamia prestatzen duena, gero hortik beste zati xeheago horiek harrotzen direlarik, oinarri bakar eta beraren emaitza direnak? Aurkitzen al ditu gure izpirituak bere baitan legami hori prestatzeko osagai guztiak, ala kanpotik datorkio laguntza? Hori ere galdetu eta berehala erantzuten dut: Natura osoa, bere agerpen guztiekin, ez dago horren eskura, bere lantegiaren luze-zabala eskaintzen digunean; gure izpirituak nagusi libre dela uste du, baina naturaren helburuei jarraituz aritzen da. Gutaz kanpoko gauzei dagokienez hain gaude lotura psikiko eta fisiko estuan naturarekin non beragandik libratzeak, halakorik ahal balitz, gure bizitza suntsituko lukeen. Gure bizitza mugatua delako hori beste zabalago horrek hesitzen du, horrexen islada besterik ez baita; halere, irudiak eta imajinak ispilu sakon batean jasota bezala ikusten ditugu aldaturik, eta beraz modu harrigarri eta arrotzean sarritan, nahiz eta karikatura horren jatorria bizitzan bertan egon. Ene ustez gizakiak behin ere ez du gogoeta edo ametsik egin naturakoak ez diren osagaiekin; horiek gabe ez lego-ke ezertarako. Alde batera utziaz gure gogoia

asaldatu eta geurezkoa ez dugun estuasunean jartzen gaituzten kanpoko eragin bazterrezinak, hala nola bat-bateko izua, nahigabe larria e.a., ene iritziz gure izpiritua bere horretan egoten da ezarri zaion barrutian, bizitzaren agerraldi bikainenetarako legamia prestatzen, gerora bertatik burbuilak goratuko direlarik, alegia ametsen aparra eraikitzen duten horiek, Ottmarek dioen moduan. Nik neuk, batez ere ilunabarretan humore agortezinekoa bainaiz, denek aitortzen didaten eran, artez prestatzen ditud gau bakoitzeko ametsak, nire burura hamaika gauza irri-garri erakarriz; eta gauetz nire fantasiak kolore bizi eta tankera zoragarrienaz aurkezten dizkit. Neure antzerki emanaldiak maite ditud gehien.

— Zer esan nahi duzu? —galdetu zion baroiak.

— Ametsak iraun bitartean —jarraitu zuen Bickertek—, eta idazle azkar batek jadanik aipatu duenez, antzerki idazle eta antzezlerik onenak gara, zeren gutaz kanpoko pertsonaiak beren ezaugarri berezi guztiekin interpretatu eta guztiz egia antzean aurkezten baititugu. Horretan oinarrituaz, egunez gogora ekartzen ditud bidaietan

gertatu zaizkidan hainbat abentura barregarri, nirekin bizitutako pertsona barregarriak, eta gauean neure irudimenak munduaren antzezpenik atseginena aurkezten dit, lagun horiek beren ezaugarri bitxi eta kaikukeria guztiekin azalduaz. Gaua baino lehen, ikuskizunaren oihala edo zirriborro antzekoa egiten dut, eta ametsean poetaren borondatearen arabera taxutzen da dena gatza eta piperrarekin. Nire barruan daramat Sacchiren konpainia osoa, eta bizitzatik hartutako zertzeladekin hain bizi antzezten ditu Gozzi-ren ipuinak, non ikuslegoak, berori ere neu naitzelarik, egiatzat hartzen dituen. Esan bezala, nahita sumatutako amets horietatik bazter uzten ditut bai kanpoko halabeharrek piztutako aldar-teak, bai kanpoko beste eragin fisikoren batek sortuak. Izan ere, ia denok noizbait oinazetu gaituzten amets guztiak, alegia dorretik erortzea, burua moztea e.a., gorputzeko oinazeren batek sortuak izaren dira; izpirituak, lotako orduan animaliazko bizitzatik aldendu eta bere kontur lanean ari delarik, bere eran konprenitu eta asmatzen du jatorri fantastikoren bat oinaze

horrentzat, emanaldiarekin ahalik ongiena egokitzeke moduan.

«Gogoan daukat pontxearen inguruko lagunarte alai batean gertatu nintzela behin ametsetan. Ofizial harroputz ezagun bat etengabe ari zen estudiante bati zirika, harik eta honek aurpegira edontzia hustu zion arte. Borroka zabaldu zen denean, eta nik, bakea jarri nahian, mina hartu nuen eskuan, erresuminez esnatzeraino. Eta hara! Eskua odoletan ez neukan bada, mantan gordeta zegoen orratz gogor batekin urratuta!»

— Bada aizu, Franz! —hots egin zion baroiak—. Ez zen oso amets atsegina, prestatu zenuen horixe!

— Ai ene! —esan zuen pintoreak ahotslantu-rosez—. Ezer egin ote daiteke patuak sarritan ezartzen digun zigorraren aurka? Neuk ere izan ditut amets beldurgarri, oinazetsu, izugarriak, izerditan jarri eta nire onetatik atera nautenak.

— Horietaz mintza zaitetz —hots egin zuen Ottmarek—, horrekin zure teoria pikutara joango bada ere.

— Baina Jainkoarren —kexatu zen Maria—, ez al duzue batere begirunerik nigana?

— Ez! —hots egin zuen Franzek—. Akabo dira begiruneak! Beste edonork bezain izugarriak egin ditut ametsak. Izan ere ez al ninduen Amaldasongiko Printzesak tea hartzera gonbidatu? Ez al neukan soinean xingolezko txamarrarik zoragarriena, txaleko brodatua eta guzti? Ez al nuen italierarik garbiena hitz egiten, *lingua toscana in bocca romana*? Ez al nengoen andere zoragarri harekin maitemindua, artisten eran? Ez al nituen gauza bikain, zerutiar eta poetikoenak esaten, halako batean behera begiratu eta ohartu nintzen arte, izuarekin zeharo pasata, modurik itxurazko eta gisakoenean nengoela jantzia baina prakak ahaztu zitzaizkidala?

«Baina nabarmenkeria horrekin inor haserretu baino lehen —jarraitu zuen aztoratuta—, alajainkoa! zer ez ote nezake esan nire ametsetako herio oinazeez? Ez al nintzen nire hogeigarren urtebetetze egunean andereño prestu harengana itzuli, dantzan egiteko irrikitan? Ez al nituen nire azken sosak xahutu txamarra zaharrak berria eman zezan alderantzikoz gain jarraraz-

ten eta zeta zurizko galtzerdi batzuk ere erosten? Hala, heldu naiz azkenean milaka argi eta gizonezko dotoreekin distiraz dagoen salako ate aurrera, eman dut nire txartela, eta infernuko zakur atezain batek labezulo txiki bat ireki ez dit bada, itolarrizko fintasunez sartzeko erreguka, hura dela eta salako sarrera! Baina hauek denak huskeriak dira, bart estutu eta larritu nauen amets garratzaren aldean. Ene! Paper orri baten erdiko errainua nintzen. Norbait —hain zuzen ere idazle deabru guztiz ezagun bat, baina aski bedi norbait esanda— harramazka aritu zait deabruzko bertso zarpailak izkiriartzen, bi pitzadurakiko antzar luma kamuts eta izugarri luzearekin. Beste behin ere ez al ninduen etsai anatomista batek maniki baten eran bere gogora zatikatu, nirekin hainbat froga deabruzko egiteko? Esate baterako zein itxura izango ote nukeen garondon hanka hazita, edo ezkerreko hankaren ordez eskuineko besoa ipiniez gero.»

Baroiak eta Ottmarek algara ozenez eten zuten pintorearen hizketa. Aienatua zen lehengo giro goibela eta baroiak honela ekin zion:

— Ez al naiz lehen ere esana familiarte ttiki honetan Franz zaharra dela gure benetako *maître de plaisir*? Bere mintzaldi hasiera patetikoa-ren ondoren are bikainagoak bihurtu dira bere eztenkada humoretsuak, azkenaldera ustekabean jaurti eta leherketa indartsu batekin bezala gure zurruntasuna apurtu dutenak; ez non eta ez han aldatu gara izpirituen mundutik benetako bizitza pozgarrira.

— Etzazue uste —gaineratu zuen Bickertek— pailazoen moduan aritu natzaizuenik alaitu nahian. Berehalakoan! Amets higuingarriok benetan oinazetu naute eta baliteke neronek oharkabean prestatuak izatea.

— Gure Franzek —eten zion Ottmarek— esperientzia ugari ezagutzen ditu ametsen sorrerari buruzko bere teoriarentzat, baina oinarrri hipotetiko horien arteko lotura eta ondorioen txostena ez da oso txalotzekoa. Gainera badago beste amets mota gorenago bat ere, eta lotako ordu pizgarri pozgarrian haztamuka hurbildu ondoren, gizakia harexez bakarrik balia daiteke izpirituen munduko printzak erakartzeko, horrela jainko indarrez asetu eta sendotuz.

— Begirozue! —esan zuen baroiak—. Ottmar bere zaldira igoko da laster, eta hala joan egingo da guk sinisgogorrok, Moisesek lur agindua bezala, urrutitik bakarrik ezagutu omen dezakegun erresuma misterioitsu hartara. Baina galarazi egingo diogu aldegitea, udazken gau zakar honetan. Zer derizkiozue beste ordubetetxo igitzen badugu elkarrekin? Tximiniako sua piztu eta Mariak, berak ongi dakien eran, pontxe goxoa prantatuko digu, alaitasuna bizkortu eta azkartuko digun izpiritua, ustez behintzat.

Bickertek estasian bezala zero sabaira begiratu, antsia egin eta Mariaren aurrean makurtu zen, eskari bat apalki egiten duenaren itxuran. Mariak, ordurarte isil samar eta bere baitaraturik eserita egon ondoren irribarre egin, ohitura bakana beragan, eta alegera zutitu zen pintore zaharraren jarrera zelebrea ikusita, dena baroiaren nahiei jarraituz paratzeko. Bickert ere korrika ttikian zebilen batera eta bestera. Kasparri egurra ekartzen lagundu zion, eta belaun bakar baten ganean saiheska jarri eta sugarrei haizemanenez etengabe ari zen Ottmari hoska: erakusteko zeinen ikasle saiatua zen eta bera marraz

zezala, aurpegiko su errainuei eta islada ederrei zehatz erreparatuaz. Baroi zaharrak, gero eta alaiago, anbarrezko puntadun bere pipa luze turkiarra ekarrarazi zuen, soilik mementurik atseginenetan egin ohi zuen gauza.

Turkiako tabakoaren urrin iheskorra salan hedatu eta Mariak limo zukua isuri zionean zilarezko pontxe-ontziko azukre txikitu berriari, izpiritu atsegin, etxekoi bat jaiki zela zirudien, eta hartatik sortutako barne patxadak une haren gozamena areagotuko zuela, aurreko eta ondorengo mementu guztiak hutsaldu eta deuseztuz.

— Harrigarria da gero —hasi zen baroia—, Mariak beti hain pontxe goxoa prestatzea. Ez dut beste inorena dastatzerik izaten. Alferrik azalduko dizkizu zehatz-mehatz osagai guztiak. Behin batean Katinka petralak nire aurrean prestatu zuen pontxea, Mariak bezalaxe, baina ez nuen baso bakar bat ere irensterik izan; badirudi azti formula batez edo hitz egiten diola Mariak edariari, indar magiko berezia emanaz.

— Ezin bestela izan —hots egin zuen Bicker-tek—. Heltzen dion guztia bizitzen du Mariak, bere airostasun liluragarri horrekin. Prestaketan

ikuste hutsarekin, pontxea goxoa eta aparta bihurtzen da.

— Oso gisakoa —eten zuen Ottmarek—, baina zure baimenarekin, arreba maitea, hori ez da erabat egia. Ados nator aita jaunak dioenean zuk prestatu edo zure eskuetatik igarotako edozein gauza dastatzeak edo ukitzeak barne patxada pizten duela inoren bakean, baita nigan ere. Hori sortzen duen magia, ordea, izpirituzko harreman sakonagoetan bilatzen dut nik, eta ez Bickertek bezala zure edertasun eta finezian; berak horri leporatzen dio, noski, zortzi urte zenituenetik kortea egin dizunez.

— Zer ikusteko ote nago oraindik? —hots egin zuen Mariak barrezka—. Gaueko fantasia eta lilurak ozta-oztan gainditu ditut, eta orain berriz zer eta misteriozko zerbait aurkitzen duzue nigan. Beraz komandante beldurgarriekin edo bizkiekin ahaztu naizen arren, halere arriskuan jarraitzen dut, alegia ni neu ere fantasma bihurtu eta ispilu aurreko neure isladarekin izutuko ote naizen.

— Tamalgarria litzateke —esan zuen baroiak irribarrez—, hamasei urteko neskatilak ispilura

begiratu ezin izatea, bere burua fantasmaztat hartzeko arriskuagatik. Baina nolatan ezin ote gara gaur zorakeria fantastiko hauetatik urrundu?

— Zeuk ematen didazu mementuero aukera, jauna, nahigabe bada ere —gaineratu zuen Ottmarek—, berriketa alfer eta kaltegarriak direlakoan zokoratzen dituzun gai horietaz mintzatzeko, eta horregatik ezin duzu aurrean ikusi, onar ezazu, ene Alban ona. Ezin da zigortu naturak berak txertatu digun ikerketarako grina eta jakin nahia; areago, badirudi zenbat eta handiagoa izan gudan daukan eragina, orduan eta errazago igoko garela berak ipini dizkigun mailetan gora.

— Eta nahikoa gora iritsi garela uste dugunean —eten zion Bickertek—, zorabioak hartu eta lotsagarri erortzen gara zilipurdika, goialdeko arnasa fina gure buru astunentzat desegokia dela jabeturik.

— Ez dakit zer pentsa zutaz azkenaldi hone-tan, hain zuzen ere Alban etxean dagoenetik —gaineratu zuen Ottmarek—. Lehen hezur eta mami besarkatzen zenuen miresgarri zen guztia,

tximeleta hegoen irudi berezi eta abardurei buruz hausnarrean, eta baita lore, barri...

— Zaude —hots egin zuen baroiak—. Aurki gara bestela lehengo solasean. Zoko-moko guztietan edo trasteen ganbara fantastikoan zure Alban mistikoarekin aurkitu nahi duzun zera horri, ahalik eta gero funts sendorik gabeko erai-kuntza altxatzeko, zera horri ametsa derizkiot, alegia apar hutsa, nire teoriaren arabera. Edaria-ri darion aparra geldieztina da, zaporerik gabea; horrelakoak dira ere zuen lan sakonen emaitzak, tornutik ateratako txirbilak bezain hutsaren hurrengoak, hau da, nahiz eta kasualitateak forma jakina eman sekula artelan gorentzat hartuko ez direnak. Gainerakoan Bickerten teoria hain da argia non praktikara eramaten saiatuko naizen.

— Ez garenez ametsetatik aldentzen —esan zuen Ottmarek—, zilegi bekit duela gutti Albanek berritu didan pasadizoa kontatzea, gure oraingo giro atseginean mantenduko gaituena.

— Baldintza batekin —gaineratu zuen baroiak—: azken esan duzun horretaz ziur ego-

tea eta Bickerteri uztea nahi hainbat ohar erantsen.

— Horixe nerabilen buruan, aita maitea — esan zuen baroiak—. Izan ere, Albanen kontakizunak latzak eta izutzekoak ez badira ere, gehienetan hain zirrargarriak dira non eragin ongarrria duten inorengan, nahiz akiturik utzi.

— Pozik geratuko da nire Maria jatorra —gaineratu zuen Ottmarek—, baina ezin ditut Bickerteren oharrak onetsi, ametsei buruzko bere teoria baieztatuko baitu nire kontakizunak. Nire aita jaunak, ordea, konbentzitu beharra edukiko du oker dagoela Alban onari buruz eta bere dohain horri buruz, Jainkoak emana praktika dezan.

— Ahora datozkidan ohar guztiak pontxearekin irentsiko ditut —esan zuen Bickertek—, baina libre izan behar dut nahi hainbat aurpegi imintzio egiteko.

— Onartua izan bekizu —hots egin zuen baroiak, eta beste hitzaurrerik gabe hasi zen Ottmar kontaktzen:

— Albanek J.ko unibertsitatean gazte bat eza-gutu zuen, bere itxura egokiagatik ikusi orduko denak erakarri eta leku guztietan ongi-etorria

jasotzen zuena, konfidantza eta begikotasunez. Biak medikuntza ikasleak eta jakinduri egarriz eskolara iristen lehenak izaki, elkarrekin egotearen poderioz harreman estura heldu ziren, eta azkenean, leialtasunik handienaz jokatzeko baitzuen Theobaldek (hala deitzen zion Albanek bere lagunari), adiskide min bihurtu ziren. Theobaldek izakera samurra, ahula, ia emakumezkoa agertzen zuen, eta baita aztoramen idilikoa ere; aro honetan, hain zuzen ere zapaltzen duenagatik axolarik gabe eta trumoi urratsez bazterrak zanpatuz aurrera doan erraldoi gotor baten antzeko aro honetan, beste guztien aldean Theobald hain ttipi eta gozo nabarmentzen zen non gehienek barre egiten zuten bere bizkar. Alban zen, bere lagunaren samurtasunari ederretsita, lotsarik gabe jarraitzen Zion bakarra bere lorategitxo fantastikoetan barrena, nahiz eta sarritan saiatzen zen berriro bizitzako ekaitzaldietara itzul zedin, eta horrela barrenean agian zeuzkan indar eta kemen txinpartak nondik piztuko. Izan ere Albanek uste zuen bere lagunari hainbeste zor ziola, unibertsitate urte haietan bakarrik ernatu eta sendotu baitzitzakeen Theobaldegan

beharrezko ziren indarrak, ahalik eta aurre egin ahal izateko bai gorabehera gogorrei eta bai zorigaitzen ustekabeko zigor guztiei, eguraldi sargoriko tximisten antzekoei.

«Theobalden asmoak, bere inguruari bakarrik erreparatzen zion pentsakera xume haren neurrikoak ziren. Ikasketak amaitu eta doktoradutza eskuratu orduko bere sorterrira itzuli nahi zuen, guraso ordeengana joan (umezurtza zen) eta haien alabarekin ezkontzeko, elkarren ondoan haziak baitziren biak; eta hartara, itxurazko ondasun baten jabe eginik, bere buruari eta jakintzari bakarrik begira bizitzeko. Garai hartan berriro zabaltzen ari zen abere magnetismoa bere animaz nagusitu zen, eta gai horretaz idatzitako guztia gogotsu ikasi zuen; era berean, Albanen gidaritzapean esperimintutan jardun bitartean, baztertu naturako indar psikikoen aurka omen zihoazen baliabide fisikoak, eta magnetismo barbaro izenekora itzuli zuen gogoia, hau da, izpiritualisten eskola zaharrera.»

Ottmarek magnetismo hitza aipatu orduko, Bickerten aurpegian imintzioa agertu zen, hasieran astiro baina ondoren gihar guztietatik *cres-*

cendo zihoana, harik eta azkenean, *fortissimo*-aren gisan, keinu ezin zelebregoa hura baroiagana zuzendu zuen arte; berau barrez lehertzeko zorian zegoen, Bickertek zutitu eta hizketan hastekoa egin zuenean. Orduantxe Ottmarek baso bat pontxe luzatu zion eta honek maltzurki edan zuen, Ottmarek bere kontakizunarekin jarraitzen zuen bitartean:

— Buru-belarri murgildu zen Alban hipnosian; isilpean ereiten zuen han-hemenka abere magnetismoaren ikasbidea, mesmerismoari bere burua guztiz eskainirik; halaber, Theobaldi hain higuigarriak zitzaizkion krisi bortxatu haien alde zegoen ere. Bi lagunak iritzi desberdintasun hura hainbat eztabaidatarako gai izanik, horra non Theobalden zenbait esperientzia ukatzerik ez eta eragin psikikoei buruzko Theobalden aztoramen eztiak erakarrira, Albani berari ere magnetismo psikikorako joera handitu zitzaion; azkenean, Puysegurenak bezala bi alderdiak ekartzeko dituen eskola berriaren jarraitzaile egin zen Alban. Aitzitik, hain konbentzimendu arrotz eta arinak zituen Theobald ez zen bere sistematik

den guttiena ere aldendu; aldiz, temati baztertu zituen baliabide fisikoak oro.

«Bere beta guztia eta beraz bizitza osoa erabili nahi zuen eragin psikikoen osin misterioetsuetan ahalik eta gehiena sakontzeko, eta hartara, izpirituz beti hari atxiki eta oztopo guztietatik urrunduz, naturaren dizipulu duin bihurtzeko. Horrela, bada, bere bizitza kontenplatzaileak apaizgo baten antzekoa izan behar zuen, hartara, gero eta ordenazio gorenago baten moduan Isisen tenplo handiko barne geletan sartzeko bedeinkazioa jasotzearen. Lagunaren grina hark itxaropen emanda, Albanek haizea eman zion Theobalderi xede hartarako, eta azkenean bere helburua erdietsi eta sorterrira itzultzerakoan honako hauek izan ziren Albanen azken hitzak: hasitakoari tinko eusteko.»

«Handik lasterrera jaso zuen Albanek bere lagunagandik eskutitz bat, eta bertako zentzurik ezatik argi ageri zen zoramenak hartu zuela, etsipenak ezezik. Bere zorion bakarra, idazten zion, gerrara joatea zen, bere bihotzeko maiteak hara aldegin baitzuen sorlekutik, eta heriotzak bakarrik arin zezakeen bere orduko atsekabe

hura, erabat akitzen ari zuena. Alban ez zen bertan egonean geratu; berehala abiatu zen lagunagana, eta alferrikako hainbat saioren ondoren zertxobait behintzat lortu zuen malerus hura lasaitzea. Tropa arrotzak handik igarotzerakoan, kontatu zion Theobalden maitearen amak, ofizial italiar batek bere etxean hartu omen zuen ostatu; lehenengo begiratuan maitemindu zen erabat neskatilarekin, eta baita bere aberrikoek ohizkoa duten sugarraz ekin ere; emakumeen bihotza eskuratzeko xarma guztiak erabiliz, halako sentimendua piztu zuen harengan non egun gutti barru Theobald gizarajoa ahaztu eta italiarrarentzat baino ez zen bizi. Honek ordea gerrara bildu beharra izan zuen berriro, eta orduztik neskatxa errukarriari etengabe jarraitzen zion maitearen irudiak, nahiz gatazka garratzean odolusten nahiz lurrera jaurtita hiltzear, neskaren izena etengabe hots eginaz; hala, azkenean neskatxari zentzua nahasi zitzaion eta Theobald gizarajoa itzuli zenean andregai zorionsua besoetan hartzeko itxaropenetan, ez zuen ezagutu ere egin. Albanek Theobald zuzpertzeara lortu bezain sarri, maitea berreskuratze-

ko bide ziur bat adierazi zion. Bere iritzien araberrakoa iruditu zitzaion Theobalderi Albanen aholku hura, eta ez zuen mementu bakar batez ere zalantzan jarri zeharoko arrakasta izango zuela; beraz, fede osoz lotu zitzaion lagunak egiaztat aitortu zionari.»

«Badakit, Bickert, zer esan nahi duzun —eten zuen Ottmarek solasa—. Antzematen dut zure ezina, eta Mariak horren jator luzatzen dizun pontxe basoari eusten diozun era etsi, barregarria atsegina egiten zait. Baina zaude isilik, arren. Irribarre gazigozo hori da zure oharrik bikainena, nire asmoa hondatzeko edozein hitz edo ateraldi baino askoz hobea. Zuei esateko daukadana, ordea, hain da zoragarri eta atsegina non zu zeu ere goxotasunik handienez jarriko zaituen. Entzun bada arretaz, eta zeuk baieztatuko didazu, aita, nire hitza osoki bete dudala.»

Baroiaren erantzuna «hm, hm» egitea izan zen, eta Mariak begirada argiz so egin Zion Ottmari, aldi berean masaila ez tiro esku gainean kokatuaz, ile adats horiak beren oparoan besoan beheara hedaturik.

— Neskatilaren egunak oinazetsuak eta beldurgarriak baziren —jarraitu zuen Ottmarek bere kontakizuna—, gauek ere jota uzten zuten. Egunez jarraitzen zioten irudi beldurgarriak indar handiagoz agertzen ziren gauez. Ahots erdiragarritz oihukatzen zuen bere maitearen izena, eta bazirudien haren gorpu odolduaren alboan eman behar zuela azken arnasa, itolarrizko hasperenez. Gauean ametsek neskatila gajoa larritzen zutenean, amak haren ohe ondora joanarazten zion Theobaldi. Hau aldamenean esertzen zitzaion, eta borondatearen indar guztiarekin izpiritua tinkatuaz, beragan josten zuen begirada. Hainbat bider hartan aritu ondoren, ametsen eragina ahuldu egiten zela zirudien, ofizialaren izenaren deiadarrek ez baitzuten inoren anima zulatzerainoko lehengo indarra, eta hasperen sakon haiek lasaitua ematen zioten bularreko estuasunari. Orduan Theobaldek neskaren eskua bereen artean ipini eta isil isilik esaten zuen bere izena. Laster igarri zen ondorioa. Etenka baino ez zuen esaten ofizialaren izena; bazirudien silaba bakoitzarekin, hizki bakoitzarekin geratzen zela hausnarrean, bere irudien errenkadan zer-

bait arrotza sartu bailitzan. Handik lasterrera ez zen batere mintzo; ezpaineako dardarak bakarrik erakusten zuen bere mintzatu nahia, kanpoko eraginen batek galarazia. Egoera hark zenbait gau iraun zituen; ondoren Theobald esaldi etenetan hasi zitzaion isilka mintzatzeko, eskutik indartsu helduta. Haurtzaroa zekarkion gogora. Batean jolasten zebilen Augusterekin (oraintxe oroitzen naiz berriro neskatiaren izenez) osabaren baratze handian, arbola altuenetatik gerezi-rik ederrenak berarentzat biltzen, beti moldatzen baitzen beste umeengandik ezkutuan onena berari eskupetik emateko; bestean, luzaroan gogaitzen zuen osaba arren eta arren, harik eta honek nazio arrotzen janzkera liburu ederra uzten Zion arte. Orriak pasatzen aritzen ziren bi umeak, besaulki gainean mahaiaren kontra belauniko. Beti egoten zen beren lurraldeko gizon emakume banaren irudia, eta hauek beti ziren Theobald eta Auguste. Janzkera bitxiko bazter arrotz haietan egon nahi izaten zuten bakarrik, lore eta belar ederrekin jolasteko...

«Gogotik harritu zen ama, gau batez Auguste hizketan hasi eta Theobalden oroitzapenekin bat

egin zuenean. Zazpi urteko neskatila zen bera ere, eta biek jardun zuten jolasean. Augustek haurtzaroko pasadizo aipagarrienak iratzarri zizkion. Oso sutsua zenez, sarritan egiten zion gogor ahizpa zaharragoari, honek maltzurki amorrazten baitzuen arrazoirik gabe, hainbat gorabehera tragikomiko sortaraziz. Esate baterako neguko gau batez hiru umeak elkarren ondoan eserita zeuden, eta ahizpa zaharrena, inoiz baino elkorragoa, egoskor ari zen Augustetikia zirikatzen, berau haserre bizian negarrez zeukalarik. Theobald irudiak marrazten ari zen beti bezala, gero haiei zentzuzko esanahiak emateko. Halako batean argia mukatu nahi izan zuen hobeto ikusteko, baina itzali egin zen ustekabean; azkar baliatu zen Auguste aukera hartaz eta zaplazteko gogorra eman zion ahizpa zaharrenari, hainbeste amorrazioaren truke. Neskaxa oihuka joan zen lanturuan aitagana, Theobalden osabagana, Theobaldek argia itzali eta jo egin zuela esanaz. Osaba berehala hurbildu eta Theobalderi maltzurkeria zital hura aurpegiratzean, honek ukatu egin zuen errudunaz edo gaiztake-riaz ezer zekienik. Auguste nahigabez lehertzeko

zorian zegoen, Theobalderi egotzi ziotenean bera errudun egitearren itzali zuela argia eta zartakoa eman; baina zenbat eta Augusteren negarra ugariagoa, orduan eta gehiago kontsola-tzen zuen osabak, esanaz gaizkilea aurkitu zute-la eta baita Theobald gaiztoaren bihurrikeria zapuztu ere. Bazihoan osaba zigorrari ekitera, Augustek bihotza hautsi eta egia aitortu zue-nean, bere burua errudun eginaz; aitorpen har-tantxe antzeman zuen osabak neskatxaren muti-laganako maitasun neurrigabea, eta Theobalden tinkotasun hura zela eta, zorientsu baitzegoen Augusterengatik benetako heroismoz sufritzeko, umerik setosoena baino areago jipoitu zuen. Augusteren oinazeak ez zuen mugarik eta erabat desagertu ziren bere zakarkeria eta agindu nahia. Theobald gozoa bihurtu zen aurreran-tzean bere agintari, eta gogotsu egin zion men; nahi hainbat uzten zion bere jostailu eta panpi-narik ederrenekin ibiltzen, eta lehen neskatxa-ren ondoan egoteko sukalde ttikirako hosto eta lore bila aritu behar bazuen, orain atseginez jarraitzen zion Augustek berak sasiartean barre-na, zurezko zaldi ausartaren gainean elkarrekin.

Baina neskatilaren anima osoki atxikitzeaz batera, bazirudien sufritutako bidegabeak Theobalden maitasunugarra ere piztu zuela. Osaba jabetua zegoen hartaz guztiaz, eta handik urte batzuetara pasadizo haren egiazko nondik norakoa harriturik jakitean ez zuen gehiago zantzantz jarri umeez erakutsi zuten elkarrekiko maitasuna, eta gogo osoz onetsi zuen bien ezkontza asmoa, beren bizitza osorako nahi zutena. Gero ere pasadizo tragikomiko harek elkartu behar zuen bikotea berriro.»

«Osaba haserre sartu zen unetik hasi zuen Augustek bere jarduna, eta Theobaldek leialki heldu zion bere paperari. Ordurarte Auguste egunez isilik eta bere baitaraturik egona zen, baina gau haren biharamunean amari bat-batean adierazi zion azkenaldian Theobaldek egiten zuela amets, eta zergatik ez ote zen etortzen, ez eta ere idazten. Desira hau gero eta nabariagoa zenez, Theobaldek ez zuen ez bai gehiago izan Augusteren aurrean azaltzeko, bidaiatik lehen aldiz orduantxe baletor bezala; izan ere, Augustek ezagutu ez zuen aldi izugarri

barrez gero kontu handia izan zuen aurrean ikusi ez zezan.»

«Augustek maitasunez gainezka eman zion ongi-etorria. Handik guttira aitortu zion, malko ugariren artean, huts egin ziola. Arrotz batek modu arraroan lortu omen zuen beragandik urrunaraztea, eta indar arrotz hark atera zuela bere onetatik, harik eta Theobalden ametsetako agerraldi mesedegarriek izpiritu gaizto, sorgintzaile hura uxatu zuten arte; aitortu beharra omen zeukan ere ezin zela arrotzaren itxurarekin gogoratu, eta Theobald zela orain bere baitako biztanle bakarra. Nola Alban hala Theobald ere konbentzituta zeuden Augustek gainditu zuela bere arestiko eroaldia, eta ez zegoela beste oztoporik bien elkartzea...»

Ottmar kontakizuna horrenbestez amaitzera zihoan, Mariari bat-batean garrasi lehor bat atera zitzaionean; zorabiatu erori zen eserlekutik Bickerten besoetara, hau arin hurbildu ondoren. Baroia izaturik altxa, Ottmar ere berehala Bickerteri laguntzera joan eta bion artean eraman zuten Maria sofa gainera. Hildakoa

bezain zurbil zegoen, bizitzaren zantzuak oro aurpegi oker, desitxuratutik ezkutatuak.

— Hilda dago, hilda dago! —egin zuen baroiak oihu.

— Ez —hots egin zuen Ottmarek—. Bizi beharra dauka. Bizitzeko premia dauka. Albanek lagunduko dio.

— Alban! Alban! Hildakoak piztu ditzake berak! —oihukatu zuen Bickertek.

Orduantxe atea zabaldu eta Alban sartu zen. Bere itzal berezi harekin joan zen isilik zorabiatuagana. Baroiak amorrus begiratzen zion... inor ez zen hitz egitera ausartzen. Alban Mariaz baka-rik ohartzen zela zirudien. Beragan itsatsi zuen begirada.

— Maria, zer gertatzen zaizu? —mintzatu zitzaion irmoki, dardara sortaraziz.

Eskutik heldu zion. Ondotik aldendu gabe esan zuen:

— Nolatan beldur hau, jaunok? Pultsua mote-la dauka baina etenik gabea. Kez betea dago gela. Ireki leihoa eta Maria berehala zuzpertzeko da hutsaren hurrengo nerbio atake arin honeta-tik.

Bickertek hala egin eta orduan Mariak begiak zabaldu zituen. Albanengan pausatu zuen begirada.

— Utz nazazu, izugarri halakoa, oinazerik gabe hil nahi dut eta —murmuriatu zuen oztantzantz entzuteko moduan.

Aurpegia Albanengandik saihestuaz sofako kuxinen artean gorde eta lo sakonean murgildu zen, bere arnasaldi sendoetatik antzeman zitekeenez. Irribarre bitxi, beldurgarri bat hegaldatu zen Albanen aurpegitik. Baroia zutitu egin zen, irmoki zerbait esan nahian bezala. Albanek gogor eutsi zion begiradaz, eta egoeraren larria aintzat hartu gabe mintzatu zen barre zuri batekin:

— Lasai, baroi jauna! Umetxoa apur bat gaizkitu da baina lo ongarri honetatik itzartzen denean bihar goizeko seietan puntuan, aski izango da hemendik hamabi tanta ematea.

Sakelatik ateratako txarroa Ottmari luzatu eta urrats motelez irten zen salatik.

— Sasi-mediku alena! —hots egin zuen Bickertek, Maria lokartua bere gelara eraman eta Ottmar gelatik irtetea—. Azti begirada sakon

hori, itzal hori, iragarpen profetikoa, elixir miresgarriaren txarroa... Zain nengoen airean lurrinduko ote zen Schwedenborg bezala, edo agian beltzetik gorrira aldatutako frakez salatik aterako, Beireis bezala.

— Bickert —erantzun zuen baroiak, Maria zeramatelako tristuraz besaulkian geldirik eta mutu egon ondoren—, zer bilakatu da gure ilunabar alaia? Baneukan irudipen hori barrenean, alegia gaur zorigaitzen batekin egokitu eta arrazoi bereziren batengatik Alban ikusiko nuela. Ottmarek izendatu duen unean bertan agertu da, aingeru jagolea bezala. Esaidazu, Bickert, ez al da ate horretatik sartu?

— Noski! —gaineratu zuen Bickertek—. Eta oraintxe konturatzen naiz Cagliostroren antzera sartu digula ziria, arestiko gure larrialdian jabetu ez garen arren; gela aurreko ate bakarra barrutik itxi dut, eta hona hemen giltza... Nahastu egin ote naiz bada, eta irekita utzi?

Bickertek atea ikertu eta itzultzerakoan irribarrez esan zuen:

— Ongi bukatu ditu Cagliostrok bere lanak. Atea lehen bezala dago sarrailez itxita.

— Hm —jalki zuen baroiak—. Sasi-medikua amarruzale ari zaigu bihurtzen.

— Tamalgarria da —gaineratu zuen Bicker-tek—. Albanek mediku trebearen ospea dauka, eta aspaldi hartan gure Maria osasuntsua nerbio-
etako gaitz sendaezin hark jo eta botika guztiek
kale egin zutenean ere aste guttiren buruan
osatu zen Albanen kura magnetikoari esker.
Azkenean behintzat hartu zenuen erabaki zail
hura, Ottmaren kontseilu ugariei esker, baina
batez ere bestetan bere burua pozik eta alai
eguzkitara luzatzen zuen lore zoragarria gero
eta iharrago ikusten zenuelako.

— Ongi uste al duzu egin nuela Ottmaren
aurrean amore emanda? —galdetu zuen baroiak.

— Une hartan bai —gaineratu zuen Bicker-
tek—. Baina Albanen egonaldi luzatu hau ez dut
batere gogoko. Eta magnetismoari dagokionez...

— Zeharo baztertzen duzu —eten zuen
baroiak.

— Bai zera —erantzun zuen Bickertek—.
Makinatxo bat frogatu ezagutu ditut, hartan sinis-
tera naramatenak. Argi antzematen dut magne-
tismoan daudela natura osoko bizitza organikoa-

ren harreman eta lotura miresgarriak. Hartaz dakigun guztia, ordea, erabat zatikatua dago eta gizakiak lortuko balu naturako sekretu sakon horren jabe egitea, irudituko litzaidake amak ustekabeen lanabes zorrotz bat galduko lukeela, bere umeen atsegina eta pozerako hainbat gauza zoragarri sortzeko erabili duena; umeei topatuez gero mina hartuko lukete, amaren tankeran beste hainbeste egiteko grina itsuan.

— Horixe da neure iritzia ere —esan zuen baroiak—. Baina Albani berari dagokionez, oraindik ez dakit nola bildu eta argitu bere ondoan nagoenean nabaritzen ditudan sentimendu berezi guztiak. Batzuetan ondorio argi batera heldu naizela uste dut: bere jakinduri sakonak aztoratu egin bide du, baina bere grinak, bere zorteak besteon arreta erakartzen du! Ikusten ez dudanean soilik iruditzen zait horrelakoa; hurbiltzen zaidanean beste ikuspegi batetik ikusten dut eta izuz betetzen naute bere aurpegiko egite okertuek, banaka azaltzen baitzaizkit zein baino zein beldurgarriago, baina denak batera ez. Duela zenbait hilabete Ottmarek aurkeztu zigunean bere lagunik onena bezala, iruditu zitzaidan

lehen ere noizbait ikusia nuela; gogoko nituen bere fintasan eta jokabide prestuak, baina bere agerraldi hura, oro har, ez nuen atsegin. Izan ere askotan kezkatu nau Alban iritsi eta berehala, dakizuenez, Maria hain modu arraroan gaixotu izana, eta aitortu beharra daukat Albanek, azkenean deitu ziotenean berehala ekin ziola kurari, eta gainera halako ahalegin paregabez, halako gogoz, halako maitasun eta leialtasunez non bere arrakastak atxikimendu eta begirunerik zuzen eta garbiena irabazi zuen. Gustura okituko nukeen urrez baina zaila gertatzen zitzaidan eskerrak ematea; izan ere sendaketa magnetikoaren emaitzek, azaltzen ziren heinean, higuinez betetzen ninduten eta Alban bera ere gero eta gehiago nuen gorroto. Batzuetan uste nuen arrisku latzenetatik salba nindezakeela, berarentzat inongo onurarik gabe. Bere itzal hori, bere solas mistikoak, bere hitzontzikeriak zumar, ezki eta beste hamaika zuhaitz magnetizatzeari buruz, edota besozabalik ifarrera begira munduko izpiritutik indar berria eskuratzeari buruz; horrek denak urduri jartzen nau, nahiz eta bihotzez gaitzesten dudan. Baina, Bickert, entzun

arretaz! Denetan bereziena da, Alban hemen denetik inoiz baino sarriago pentsatu behar dudala Danimarkako komandanteagan. Oraintxe bertan ere hain isekati eta deabruaren antzera irribarrez eta bere begi beltz handiekin begiratzten zidanean, hantxe neukan komandantea aurrez aurre... nabarmena da elkarren arteko antza.

— Horra non argitu den bat-batean —eten zuen Bickertek— zure sentimendu arraroa, zure minberatasuna. Alban ez baina Danimarkako komandantea da larritu eta oinazetzen zaituena. Mediku onbera horrek arrano sudurra eta suzko begi beltzak izatearen errua besterik ez dauka; lasai zaitez eta uxatu etsaiak burutik. Baliteke Alban aztoratua egotea, baina denon ona nahi du eta hala lortzen du. Har ditzagun bere hitzontzikeriak kaltegarri ez den jostailutzat, eta begiraiozun mediku trebe, begi zorrotzeko gisara.

Baroiak zutitu eta honela esan zuen, Bickerten bi eskuei helduta:

— Franz, zeure iritzien aurka mintzatu zara; egon behar du aringarriren bat nire larri eta egoenez honentzat. Animaren barruan daukat erro-

tua: Alban da nire deabru galgarria. Franz, begi-rozu gero! Erne egon, aholku eman, lagundu eta babes nazazu nire familiako egoitz akitua kolokan ikusten baduzu. Ulertu nauzu. Buka dezagun honenbestez.

Lagunek elkar besarkatu zuten eta gauerdia aspaldi igaroa zen nor bere gelara pentsakor joan zenean, egonezaz eta urduri. Seietan puntuan itzarri zen Maria, Albanek iragarri bezala; txarrotik hamabi tanta eman eta handik bi ordutara alai eta distiratsu sartu zen egongelan, non baroia, Ottmar eta Bickertek besozabalik hartu zuten. Alban bere gelan itxita zegoen, presazko gutun batek egun osoa lanpeturik edukiko zuela esanda.

Mariaren eskutitza Adelgunderi

Azkenean salbatu zara, beraz, gerra zitalaren eraso eta moztadetatik, eta ihesleku libro, ziuurra aurkitu. Ezin dizut hitzez adierazi, bihotzeko lagun maitea, nolako zirrara nabaritu nuen hainbeste denboraren ostean zure idazkera ttiki,

polita berriro ikustean. Egonezinik, guttigatik ez nuen erabat hautsi hain gogor itxitako gutuna. Hasieran behin eta berriro irakurri eta halere ezin nuen antzeman zer zioen, harik eta azkenean lasaitu eta bozkarioz jakin nuen arte zure neba maitea, ene Hypolit laztana, ongi dela eta aurki ikusiko dudala berriro. Ez al zaizu orduan nire gutunik heldu? Ai, ene Adelgunde! Zure Marie gaixo egon da, oso gaixo ere, baina hobetu naiz jadanik, nahiz eta nire gaitza hain tanke-ra ulertezinekoa zen non oraindik ere arras izutzen nauen hartan pentsatzeak. Ottmar eta medikuek diote oraindik daukadan sentimendu hau eritasunaren ondar bat dela, eta gainera sustraitik erauzi beharrekoa. Ez idazu eskatu zer gertatu zaidan kontatzea, neuk ere ez dakit eta: ez oinazerik, ezta izenez esan daitekeen minik ere, baina halere patxada guztia, alaitasun guztia eduki dut joana. Dena aldaturik heltzen zitzaidan. Hitz ozenek eta urrats hotsek arantzek bezala zulatzen ninduten buruan. Batzuetan nire inguruko gauza guztiek ahotsa eta doinua zuten eta beren mingain miragarriekin zirikatu eta oinazetzen ninduten; susmo arraro batzuk bene-

tako bizitzatik aldenduta nindukaten. Sinistazu, ene Adelgunde, beldurgarrizko moduan sartu zirela nire bizitzan txori berdea, Trebisond-go Fakardin printzea eta beste hamaika ipuin ergel, izeba Klarak hain ederki kontatzen zizkigunak, eta azti maltzurren batek nigan eragindako aldatetaren menpe nengoen. Barregarria da esatea inozokeria horiek nigan hain eragin gaiztoa izan dutenik, nire ahulezia eta indarrik eza nabarmenduaz. Ezerez edo huskeriekin sarritan heriotzeraino kezkatu, eta gero horrelakoxe beste huskeria batek loriatzen ninduen bitartean, indar ezezagun baten enbata gogorrak nire barrua suntsitzen ari ziren. Zenbait gauza bestetan aintzat hartzen ez nituenak, bat-batean bururatu eta erabat oinazetzen ninduten. Konparazio batera halako ezinikusia hartu nien lirioei non zorabiatu egiten nintzen urrutira bakarren bat loratuez gero ere; beren kokotsetik basilisko leun, distiratsuak ikusten nituen miztoa aterata nigana jauzika. Saiatu besterik ez naiz egin, Adelgunde maitea, zuri nire egoeraren berri ematen, nik eritasuna deituko ez nukeen egoera,

pixkana makaltzen joan ez banintz; gero eta ahulago, heriotza ikusi nuen atetan.

Baina orain zerbait berezia esan behar dizut. Alegia nire zuzpertzeara gizaseme zoragarri bati esker izan dela, Ottmarek aurrez etxera ekarria eta agi danean hiriburuko mediku handi eta tre-been artean bakarra, nirea bezalako eritasun berezia azkar eta ziur sendatzeko sekretua daukana. Baina benetan berezia zera da: nire amets eta lilura guztietan gizon serio, eder bat agertzen zela, gazte izan arren benetako begirunea pizten zidana; noiz era batean noiz bestean, baina beti sotana luzez jantzita, diamantezko koroa buruan, ipuinetako izpirituen munduko errege erromantikoa bezala agertu eta aztikeria gaizto guztiak desegiten zituen. Bihotz bihotzez atxiki behar nintzaion bere babespean hartu baininduen, eta nire burua zor nion horren ordainetan. Batzuetan Salomon jakintsuaren gisara agertzen zitzaidan, eta bestetan, inongo zentzurik gabe, *Xirula Magikoa*-ko Sarastro ekartzen zidan gogora, lehenago hiriburuan ikusia nuena. Ai Adelgunde maitea, hura ikara hartu nuen nire ametsetako errege erromantiko hura Alban zela

ohartu nintzanean, ikusi bezain laster. Alban da, hain zuzen ere, arestiko mediku berezi hori, Ottmarek aspaldi lagunmin moduan aurkeztu ziguna; aurreneko bisitaldi labur hartan hain gutti erreparatu nion non ondoren ez nintzen bere itxuraz ere oroitzen.

Ni sendatzeko deitu eta itzuli zanean, ordea, ezin nion nire orduko sentipenari inolako tanke-rarik eman. Nahiz Albanek bere itxura eta jokabide guztian duintasuna eta agintari itxura hori eduki, gainerako guztiengandik goraltzen duena, bere begirada zorrotz, seriosa nigan ezarri zue-nean honako hau iruditu zitzaidan: berak agindutako guztia egin behar nuela eta ni berea egiteko bakarrik sendatu nahi ninduela. Ottmarek esan zuen magnetismo izenekoaren bidez izango nintzela sendatua eta zenbait bitarteko erabiliz Albanek egoera asalatu batean jarriko ninduela, lo harrarazi eta ondoren loaldi horren barruan itzar nendin, hartara neuk ikusiko bainuen nire eritasuna, eta baita sendabidea finkatuko ere. Ez dakizu,

Adelgunde maitea, larria ezezik zenbateko beldurra eta izua nabari nuen korderik gabeko

egoera goren horrekin gogoratzean, baina hale-
re ongi nekien alferrik nuela Albanen erabakien
aurka saiatzea. Bitarteko haiek erabili eta, nire
ikarak eta beldurrak gorabehera, ondorio mese-
degarriak soilik antzeman ditut, zorionez. Itzuli
zait kolorea, alaitasuna, eta edozein huskeria
oinaze bihurtzen zidan lehengo estuasunaren
ordez lasai samar nago orain. Desagertu dira
ametsetako irudi burugabe haiek eta loak zuz-
peltu egiten nau; gainera, bertan maiz agertzen
zaizkidan zorakeriekin oinazetu beharrean bizitu
eta alaitu egiten naiz. Sarritan amesten dut
orain, Adelgunde maitea, begiak itxita eduki
arren eta zentzu berri bat ernaturik bezala,
gauza naizela koloreak ezagutu, metaleak bere-
zi, irakurri eta abar egiteko, Albanek hala nahi
duen heinean. Anitzetan eskatzen dit ere nire
baitan begiratu eta esateko zer ikusten dudan
bertan, eta zehatz-mehatz egiten dut. Batzuetan
Albanekin gogoratu behar izaten dut bat-batean,
bera aurrean daukadalarik, eta murgiltzen joa-
ten naiz amets antzeko batean; nire zentzuak
lokartzen joan ahala, nire azken gogoetek ideia
arrotzak ekartzen dizkirate eta bizitasun bere-

ziz, edo areago, urre distirakoz zeharkatzen naute. Badakit Alban dela jainkozko ideiak nigan pentsatzen dituena, barruan baitaramat bera txinparta bizkorgarri, goren baten antzera, eta bera urrun baledi, izpirituz bakarrik gerta daitekeen gauza zeren urruntze fisikoak ez baitu axola, akabo nintzateke.

Berarekin eta beragan bakarrik bizi naiteke, eta nire izpirituaz erabat nagusitzea lortuko balu, nire bizitza mortu hila litzateke; izan ere, hau idazten dizudan bitartean ere argi antzematzen dut beragandik datorkidala etorria nire burua ezagutzera emateko. Ez dakit, ene Adelgunde, zelebrea edo agian ameslari asaldatu horietakoa irizten didazun, eta ezta ulertzen ote nauzun ere. Oraintxe bertan iruditzen zait Hypoliten izena irristatzen dela zure ezpainenetik, isilik eta saminki. Sinistaidazu inoiz ez dudala Hypolit orain baino gehiago maitatu; sarritan aipatzen dut nire otoitzetan, osasun izan dezan. Zeruetako aingeruek begiratuko al dute gatazkako zauri gaiztoen mehatxutik. Hala eta guztiz ere Alban nire jaun eta nagusi denetik, iruditzen zait bere bitartez soilik maita dezakedala Hypolit gehiago

eta sakonago, eta nire esku daukadala izpiritu jagolearen antzera bera zaintzeko eta nire otoitzekin serafinen hego azpian bezala gordetzeko ahalmena, inguruko heriotzaren begirada erne eta maltzurra zapuztuaz. Alban gizon prestu, zoragarri horrek bizitza gorenaren bidez kontsokratutako andregai bezala narama Hypoliten besoetara; baina umeak ezin du munduko ekaitzetara bere nagusia gabe ausartu. Orain egun gutti jabetu naiz Albanen benetako indarrak. Baina sinistu al dezakezu, ene Adelgunde, inoiz baino eriago eta suminkorrago jarri nintzenean nire jaun eta jabeari buruzko zalantza ziztrinak jaio zirela nire bularrean? Izan ere maitasun eta leialtasun haustura iruditzen zitzaidan nire Hypoliten aldeko otoitzetan ere Albanen irudia jaikitzea, haserre eta mehatxukor, bakar-bakarrik irten nahi nuelako berak ipinitako barrutitik ume bihurriaren antzera, aitaren ohar hitzak ahaztuz baratze baketsutik basora joateko, non basapizti odolzaleak sasiarte berde, ederren artetik zelatan dauden.

Ai, Adelgunde! Izugarri oinazetzen naute zalantza horiek. Barre egingo duzu esaten badi-

zut zera ere bururatu zaidala: Albanek propio nahaspilatu nahi nauela, eta baita nire barruan haragizko maitasuna piztu ere, zeruetako mirari baten itxurapean. Ai, Hypolit!

Duela gutti geunden eroso asko eserita gau batez aita, neba, Bickert zaharra eta laurok; ohitura duenez, Alban bere paseo luze horietako batean zen. Ametsez ari ginen hizketan, eta nola aitak hala Bickertek ere zer konta miresgarri eta atsegin anitz zekiten. Orduan Ottmarek hitza hartu eta kontatu zuen bere lagun batek Albanen aholkuz eta gidaritzaz lortu zuela neskatila baten amodioa irabaztea, hau deusez jabetu gabe, lo zegoen bitartean aldamenean jarri eta honen gogoeta sakonenak magnetikoki bideratuaz. Hala, aitak eta Bickert zahar leialak ere, nire aurrean inoiz ez bezala, tinko eta gogor gaitzetsi zuten magnetismoa eta, hein batean, baita Alban bera ere. Horrek indarbizitu egin zituen nire nagusiarekiko zalantzak: infernuko bide ezkutuak ote zerabilzkien ni bere esklabu egiteko? Eta aginduko balit Hypolit utzi behar nukeela, gorputz eta animan bera bakarrik eramateko? Inoiz ezagutu gabeko zorabioan erori

nintzen larritasun hilgarriz; Alban ikusten nuen bere gelan tresneria ezezagun, landare eta animalia zatar eta metale distiratsuz inguratua, mugimendu ezinduen bidez beso eta eskuekin jira-bira bitxiak eginaz. Bere aurpegia, bestetan hain bare eta seriosa, har beldurgarri batena zen eta bere begi gorrietatik zitzu nazkagarrian labaintzen ziren basilisko leun, distiratsuak, lehen lirio kokotsetan ikusi uste nituenak. Ibai izoztu bat iruditu zitzaidan zihoakidala bizkarrean behera dariola, eta egoera beretsuan esnatu nintzen zorabio hartatik; aurrean neukan Alban zutik, baina Jainko santua, inolaz ere ez zen bera, ez, nire irudimenak sumatutako har izugarria! Hura lotsa biharamunean bere aurrean! Albanek bazuen berari buruzko nire zalantzen berri, eta gozotasun jatorrez isildu zuen nik emandako itxura; izan ere, nire baitan bizi denez nire gogoeta ezkutuenak ere ezagutzen ditu, eta ni, debozio eta apaltasunez, ez naiz horiek gordetzen saiatzen.

Gainerakoan nire eritasunaz ezer gutti argitu zuen, eta aitak gau hartan erretako tabako turkiarraren keari leporatu zion. Ikusi egin behar

zenuen, zenbateko seriosotasun jatorrez, zenbateko arretaz zaindu ninduen nire nagusi zoragarriak. Ez da gorputza bakarrik sendatzen dakiena, ez! Izpiritua ere bizitza gorenerantz bideratzen du. Nahiago nuke hemen bazeunde, ene Adelgunde maitea, eta aspaldiko gure bake bizitza zoriontsu hark bizkortuko bagintu. Bickert betiko agure alaia da, baina aita eta Ottmar aldarte txarrean jartzen dira batzuetan; bizitzan zaildutako gizonei sarritan ez zaie gure geldotasuna atsegin. Albanek zoragarri hitz egiten du antzinako Egipto eta Indiako saga eta mitoez; sarritan loak hartzen nau nahigabe, batik bat parkeko bago handien azpian, eta ondoren indarberrituta esnatzen naiz. Shakespeareren *Ekaitza*-ko Miranda bezala sentitzen naiz, Prospero alferrik saiatzen denean bere ipuina entzun diezaion. Prosperoren hitz berak erabiliaz esan zidan Ottmarek lehengoan: «Etsi ezazu zure nekearen azpian. Ezin duzu besterik egin.»

Tira ba, Adelgunde! Hona hemen nire barne bizitza guztia, dena kontatu dizut eta horrek on egiten dit bihotzean. Aldameneko lerroak Hypolitentzat dira, e.a.

Albanen Theobaldentzako gutunaren zatia

... atzean geratu da. Fedeak berarekin dakar onbearra ere, baina on egite hori lagun hurkoa engainatzeko ezezik zurikeria hutsa ere bada, inork bere burua saildu gisara koroatzeko, urre distira faltsuko argizpien isladan atsegin hartuz. Brahman maite hori, atso zaharren moral zaharkituak eraikitako bide bazterrean geratu zaren hori, ez al dira batzuetan zure bularrean ernatzen bestelako sentipenak ere, on eta zuhurtzat daukazun zure sentipen horiekin bat ez datozenak? Ama Antzarraren ikasbidearen aurkako zalantza guztiok, sistema moralak hesitutako ibai bazter artifizialetik gainez egiteko joera guztiok, goietara hegaldatzeko grina eutsiezinak, sorbaldan antzematen ditugun hego lumadunak astindu nahiak, horiek guztiak Satanen akuilukadak dira, eta hauexen kontra ohartarazten gaituzte maisu aszetek. Ume sinisberak bezala behar ditugu begiak itxi, naturak denean heda-

tzen digun Kristo sainduaren argi eta distirak itsutu ez gaitzan. Barne indarrez baliatzen diren joera guztiek ezin dute gaitzesgarriak izan; izan ere, giza naturan bertan ernatu eta oinarrituz, gure bizitzaren xedea betetzen saiatzen dira. Eta zin da xede hori, non eta ez den gure indar fisiko eta psikikoak ahalik ongiena landu eta erabil-tzea? Badakit gehiago mintzatu gabe ere, ene brahman maitea (horrela eta ez bestela deitu behar dizut zure bizimodua ikusita), zuk bestela-ko iritzia duzula, iradoki besterik egin ez dizudan nire uste honen aurka baitoaz zure ibilera guz-tiak.

Ongi derizkiot, zaude ziur, zure bizitza kon-tenplatzaileari eta baita zure ahaleginei ere, ikerketa zorrotzen bidez naturako misterioetan sartzeko; nik ordea zu bezala egon beharrean besoak gurutzatuta gozaten, nahiz diamantez-ko giltza distiratsua eskuetan daukazu, nik adore eta kemenez heldu eta zabaldu egiten dut ate misteriotsu hori, zuk beti aurrean edukiko duzun hori. Borrokarako prest egonik, zergatik zabartzen zara? Bizitza osoa da borroka eta borrokaren ondorioa. Gero eta gorago iristen

den klimax batean eskuratzen du boteretsuak garaipena, eta arloteak menperatuz indartzen du bere burua. Badakizu, Theobald maitea, borroka hori bizitza izpiritualean kokatu dudala beti, eta erabat sinisturik nago naturako semea-alaba kuttun batzuk lortzen duten nagusitza izpiritual misterioitsu horrek, bereganatzen duten aginte horrek gero eta ekintza gorenago baterako indarra eta bultzada ematen diela. Geurez indarra eta nagusitza daukagunoi eskura eman zaizkigu armak, nolabait esanik, borroka izpiritual honetan azpiko oinarriaren aurka borrokatu eta irabazteko. Nolatan deitzen ote zaio magnetismoa, baliabide ezezagunen bidez gutaz kanpoko izpituaren oinarrian barneratze, geureganatze eta menperatze horri? Izan ere izendapen hori ez da aski, edo areago, ez du adierazten guk ulertzera eman nahi duguna, indar fisikoa bakarrik hartzen baitu aintzat. Mediku bat izan da munduari nire sekretu horiek aipatzen lehena, eliza ikusezin batek altxor kuttunaren moduan gordeta zeuzkan sekretuak hain zuzen, eta gainera errezela lodi batez estalita, kotsakratu gabeen begirada soilarenzat zeharkatu ezina. Ez

al da bada zorakeria pentsatzea izpirituaren errege egiten gaituen talisman miresgarri hori konfiatu digula naturak, zer eta hagnetako edo buruko mina edo auskalo zer sendatzeko? Ez, bizitzako izpirituaren oinarriaz erabat nagusitzen saiatzen gara, talisman horren botere indartsua gero eta hobeto ezagutzearen poderioz. Lilura horren uztarripean, menperatutako izpiritu arrotza gure bitartez bakarrik bizi daiteke, eta bere indarraz sendotu eta gogortzen gara! Izpiritu guztiak elkartzen diren fokua Jainkoa da! Zenbat eta izpi gehiago batzen diren suzko piramidean, orduan eta hurbilago dago fokua! Nola zabaltzen diren izpi horiek! Natura osoko bizitza organikoan barrena hedatzen dira izpi horiek, eta izpirituaren distirak erakusten dizkigu landare eta animalien ere, gu ezezik hauek ere argitzen baitituzte. Nagusitza horren atzetik ahalegintzea jainkotasunaren atzetik ahalegintzea da, eta botere sentipena zenbat izan, hainbeste da zoriona ere. Zorion guztien osotasuna foku horretan dago! Zein kaskarrak eta zirtzilak iruditzen zaizkidan zurrumuru horiek guztiak, konsakratuei emandako dohain zoragarriari buruz!

Izan ere gorentasun hori ikuspegi goren baten bidez bakarrik iritsi daiteke, norbere barruko kontsakrazioa eta gero.

Azken honen ondoren pentsatuko zenuen bitarteko fisikoak guztiz arrotzak direla nire jardunean, baina ez da horrela. Gizakiok ilunpetan haztamuka gabiltza, izpiritua eta gorputzaren arteko harreman ezkutua argi ez daukagun bitartean, eta nire ustez baliabide fisikoak dira guri eskura eman zaizkigun agente-ikur antzekoak, morroi ezezagunak makurrarazteko.

Neuk ere ez dakit, ene Theobald, nolatan idatzi dizudan honenbeste kontu hain desatsegin honetaz, hitz huts hauek zentzua eta sendotasuna edukitzeko izpiritu barrenetik erretako konbentzimendu osoa behar baita. Erantzun egin nahi nion zure salaketari, alegia bizkor hedatzen doan joera horren jarraitzaile eta zure ikuspegi moralaren arabera bekatari naizenekoa, baina oraintxe jabetzen naiz baroiaren etxeko nire hartuemanak era etenegian berritu dizkizudala, taxuz ulertzeko behintzat. Saiatzera noa, beraz, etxe honetako nire sarreraren hainbat alderdi biltzen, eta ene brahman fededun maiteak

mementu batez jarraitu nahi banau nire esparruan gora hegaka, erru guztietatik arinduko dut nire burua.

Ottmar beste gizon horietakoa da, azkarra eta zuhurra ezezik zaletasun sutsukoa, zientzien arloko edozein aurkikuntza ulertzen duena; baina ulerpen hori da bere xede bakarra, eta formaren ezagupena da erdiesten duen bakarra, bere barne indarrarekin pozik, neke guttiren ostean. Ezagupen horri aski irizten dio bere izpirituak, barruko ideiei igarri ere egin gabe; bere gogoak, hori behintzat ezin ukatu, sakonera gutti du. Ottmarek, dakizunez, oso gogoko nau eta gaur egun hain ugariak diren korifeo gazte horien pare onartu ondoren, gustura ekin diot berari adarra jotzeari. Nire gelan sartzeko daukan begirunea ikusita pentsa liteke Saisen tenploko areto ezkutu eta saindua dela, eta bere burua nire heziketa gogorraren menpe jarri nahi izan duenez, bidezkotzat jo dut berari jostailu xume batzuk konfiatzea, gero neska-mutilei harro erakutsi eta nagusiak dion maitasuna goraiatzeko duelarik. Bere erreguei amore emanaz aitaren ondasunetara joan nintzenean bera-

rekin, bere aita agure egoskor bat zela aurkitu nuen, aldamenean pintore zahar bitxi, umoretsu bat zeukalarik, batzuetan pailazo moralzale negartiarena egiten duena.

Ez naiz oroitzen Mariak nigan izandako zirraz lehen zer esan nizun, baina orain zaila izango dela iruditzen zait horretaz mintzatzea, zuk ulertzeko moduan behintzat. Zinez, ezagutzen nauzula pentsatu beharra daukat, eta ulertzen dituzula nire ibilerak herri xeheari beti arrotz zaizkion arlo gorenetan. Pentsatzen ahal duzu, beraz, nahiz eta liraina izan, kimu berritan hosto eta lore bikainez jantzitako landare zoragarriaren parekoa; nahiz urruneko hodeiek ezkututzen dutenaren irrikaz diruditen beg, urdinak eduki; alegia, nahiz aingeruak bezain ederra izan, bera bezalako neskatila batek ez nazakeela jarri maitemindu barregarriaren egoera xamur, antsikarian.

Bat-batean, Maria eta bion arteko harreman izpiritual ezkutuaz jabetu bezain laster, sentipen miresgarrienak zeharkatu ninduen. Baina gozamen hari amorru zorrotz, arantzadun bat gehitu zitzaion, Mariaren oposizioa sortuz: indar arrotz

gaizto batek aurre egiten zion nire eraginari, eta atxiloturik zeukan Mariaren izpiritua. Ahalegina guztian nire izpiritua hantxe bilduaz etsai hura ezagutu ahal izan nuen, eta borroka bizian bilatu nituen Mariaren barrenetik nigan isurtzen ziren izpi guztiak, erre-ispilu antzeko batean atxikiaz. Besteek ez bezala begiratzen zidan pintore zaharrak; bazirudien Mariak nigan ernatutako urduritasuna antzeman zuela. Begiradak salduko ninduen agian, zeren eta gorputza hain dago izpituari itsatsia non gorabeherarik ttikiak nerbioak dilindan jarri ezezik kanpoan ere eragiten duen, eta aurpegia edo behinik behin begirada aldatzen duen. Anitz poztu ninduen, ordea, berak kontua hain isilik eramateak; ez zuen Hypolit kondea beste solasgairik, Mariaren ezkongai alegia, eta haren dohai bilduma opa-roa niri aurkezten aritzeak barre egiteko balio izan zidan, gizonek xaloki eta umekiro beren arrearan eraikitzen dituzten harreman txoroen bizkar, eta pozteko aukera ere eman zidan, naturak bilbatu dituen lotura motak ezagutzen ditudalako eta horiek arretaz zaintzeko ahalmena daukadalako.

Nire helburu bakarra Maria zeharo nireganatzea zen, bere bizitza eta izaera guztia nireari lotzea, nigandik bereiziez gero bera suntsi zedin; horrek ni zoriontsu egin eta naturaren borondatea beteko zukeen. Emakumearekiko lotura izpiritual hau da Isisen apaizari komeni zaiona, animaliazko plazer handienen gainetik zeru sabairaino hegaldatzeko; baina ezagutzen duzu nire sistema puntu honi buruz eta ez dut jarraituko. Naturak emakumea pasiboa egin zuen denerako. Emakumeei dagokien bakarra zera da, oinarri goren arrotz horri, hau da, haurren anima osatzen duen horri beren borondatez amore ematea, gogoz konprenitzea, onestea eta ohoratzea; eta emakumeen nagusi eta jabe egitea da, berriz, eduki daitekeen gozamenik handiena. Aurrerantzean ere, nahiz eta baroiaren ondasunetatik berriro urrundu nintzen, dakizunez, Manaren izpiritu alboan jarraitu nuen, eta nahia-go ditut ez aipatu ezkutuan erabili nituen bitartekoak beragana gorputzez ere hurbiltzeko, berari gogorrago eragiteko, batzuk zirtzilak emango bailukete, aurreko nire xede hartarantz bideratuak egon arren.

Handik lasterrera Maria egoera harrigarrian murgildu zen, Ottmarek noski eritasun nerbiosotzat hartu zuena, eta mediku gisara itzuli nintzen etxera, aurrez pentsatua neukan bezala. Maria ohartu egin zen ni nintzela ametsetan nagusi gisara agertzen zitzaion hura, botere menperatzailearen loriaz, eta ordurarte ilunpe artean sumatutako guztia argi eta garbi ikusi zuen izpirituko begiekin. Nire begirada eta borondate tinka behar izan nituen bera egoera sonanbuloan jartzeko, hau da, bere baitatik guztiz irten eta nagusiaren goragoko esferara aldarazteko. Ni gogoz onartu ondoren, neure izpirituak hegoak eman zizkion, gizonek inguruan eraiki zioten espetxetik ihes egiteko. Nirekiko izate honen bidez bakarrik jarrai dezake Mariak bizitzen, eta lasai eta zoriontsu dabil. Hypoliten iruditik arrastoxume batzuk besterik ez zaizkio geratzen, eta horiek ere aurki desegingo dira airean. Baroiak eta pintore zaharrak bekozko ilunez begiratzen didate, baina zoragarria da naturak oparitu didan indarrak horretarako ere duen balioa. Inondik ere sentimendu latza izango da, gogor egin arren ni nagusi aitortu beharra. Badakizu

zeinen modu miresgarrian bildu dudan ezkutuko jakintzen nire altxorra. Inoiz ez duzu nire liburua irakurri gura izan, nahiz eta harrituta utziko zintuzkeen, inongo fisika tratatutan ez baitago landurik naturako indar ugarien eta beren eraginen halako konbinazio zoragarria. Ez nau lotsatzen hauetako zenbait arretaz prestatu izanak; eta iruzurra deitu al lekioker zerbait miresgarria delakoan ahoa bete hortz dagoen jendaila beldurtu eta harritzen duenari? Izan ere zerbaiten jatorria ezagutzeak ez du hondatzen berez miragarria dena, baizik eta harridura.

Hypolit koronel gisara dago ...n, gatazkalekuan beraz. Ez diot heriotza opa; etortzea du nahi badu, hartara nire arrakasta bikainagoa izango baita, garaipena ziurra denez. Nik uste baino indartsuagoa suertatzen bada arerioa, fida zaitez nire indarraz, eta abar...

Gaztelu bakartia

Atertu zuen ekaitza, eta ilunabarreko eguzkiak, sugaldetan, urratu egiten zituen hodei goi-

belak, ihes bizkorrean urruneko haran sakonetan lurrintzen ari zirenak. Arratseko haizeak bere hegoak harrotu eta zuhaitz, lore eta belarren urrinak uhin zabalén eran isuri zituen aire epelean barrena. Basotik irten nintzenean belaze loratuak inguratzen zuen herrixka atsegina, postiloiak aurrez iragarritako moduan. Gorantz zutitzen ziren gazteluko dorre gorikoak eta leihoak sutan zeuden eguzki distirarekin, barruko garrek kanpora lehertu nahi balute bezala. Ezkilots eta eliz kantak heldu zitzaizkidan; segizio itzaltsu bat ikusi nuen urruneko gaztelutik hilerri aldera zihoana. Iritsi nintzenerako isildua zen kantua; bertako ohiturari segituz zerraldoa zabaldu eta hilobi aurrean ipini ondoren, apaiza azken otoi-tzarekin ari zen. Zerraldoari estalkia jartzeko zorian ziren, ondoratu eta hildakoari begiratu nionean. Oso gizon adindua zen, okertu gabeko aurpegi argi, lasaiarekin, lozorro gozoan bailegoan. Hunkiturik esan zuen nekazari zahar batek:

— Begira zeinen atsedén ederrean joan zai-
gun gure Franz zaharra; niri ere eman biezat
Jainkoak hain azken pozgarria. Dohatsuak Jain-
koaren alboan hildakoak.

Huraxe iruditu zitzaidan hileta ospakizunik egokiena zendu dohatsuarentzat eta nekazaria-
ren hitz soil haiek, berriz, errezurik bikainena.

Zerraldoa ehortzi zuten, eta lur zokorrak
zarata lehorrez erortzerakoan tristurarik mingot-
tsenak hartu ninduen, nire bihotzeko laguna
balitz bezala lur hotzaren gaineko hura.

Gaztelua zegoen gailurrera igotzekoa nin-
tzen, apaiza bidera irten eta hilobiratu berriaren
nortasunaz galdetu nionean. Franz Bickert pinto-
re zaharra, azken hiru urteotan gaztelu hutsean
bakarrik bizitu eta bertako zaindari bihurtu zena
ehortzi omen zuten. Nire gaztelurako desioa
aipatu nion; elizgizonak bere gain zeukan giltza,
jabeak emana eskubidedun berria etorri arte.
Ukatu ezinezko hotzikaraz sartu nintzen sala
zabal hustuetan, lehen gizonen bizileku alaia eta
orain heriozko isiltasunaren erresuma zen har-
tan. Azken hiru urte haietan gazteluan ermitau
gisara egon zen bitartean harrigarriro jardun
zuen artegintzan. Inongo laguntzarik gabe, ezta
aparailu mekanikoena ere, goiko solairu guztia
estilo gotikoan pintatzeari ekin zion, bere gela
ere bertan ipinita, eta lehenengo begiratuan

zentzu sakoneko alegoriak antzeman zitezkeen elementu bitxiaren multzo fantastiko hartan, edergintza gotikoaren antzera. Sarritan azaltzen zen deabru irudi zatar bat, neskatila lokartu bati zelatan.

Bickerten gelarantz abiatu nintzen berehala. Eserlekua saihestua zegoen mahaitik, non marrazki bat egiten hasia zegoen, Bickert lanetik orduantxe altxa balitz bezala; beroki gris bat zegoen adarretik eskegita, eta kapela gris ttikia marrazkiaren alboan. Bazirudien segituan sartuko zela arrotzari bere lantegi hartara ongi-etorria beso zabalik ematera aurpegi atsegin, dohatsu-ko agure hura, heriotza oinazeak desitxuratzerik izan ez zuena. Elizgizonari nire desioa adierazi nion zenbait egunetarako, agian astetarako, gazteluan bizitzeko. Txunditua zirudien; sentitzen zuela esan zuen nire desioa bete ezin izatea, eskubideduna etorri bitartean legez itxita jarraitu behar zuela gazteluak, eta Inongo arrotzek ezin zuela bertan bizi.

— Eta neu banintz eskubidedun hori? —jarraitu nuen, Baron von F. bertako jabe egiten zuen baimen agiria erakutsiaz.

Ez zen gutti harritu eta lausenguz bete ninduen. Gela eskaini zidan parroki etxean, gaztelu hutseko bizimodua gogoko izango ez nuelakoan. Baztertu egin nuen eskaintza; gazteluan geratu nintzen, eta Bickertek utzitako paperak izan ziren patxada orduetan gehien erakarri nindutenak. Berehala aurkitu nituen orri bakar batzuk, egutegi antzeko ohar labur ezaxolatiak, familia prestu hartako senide guztiek nozitutako hondamendiaz argitasunak ematen zituztenak. Guztiak bildurik Ametsak apar huts dira izenburu umoretsu samarraren pean, pintoreak modu bereziren batean eskuratutako b gutun zatiekin borobiltzen da dena.

Bickerten egutegitik

San Antonioren izenean ez al naiz hiru mila deabrurekin borrokan aritu, eta ez al diot kementsu eutsi? Inori tinko begiratu ez gero hauts eta ke artean desegiten da. Albanek nire animan irakurtzerik baleuka, nire barkamen eskari eta ohore ordain bat aurkituko lituzke ber-

tan berarentzat, halako satanaskeriak leporatu dizkiodalako, irudimen biziagiak kolore itsugarritz aurkeztuak neure damu edo ikasbiderako!

Heldu da! Gazte, osasuntsu, bikain; Apoloren adatsak, Jupiterren bekokia, Martitzek bezalako begia, jainkoen mandatari itxuraz, Hamletek heroia deskribatzen duen bezala. Maria lurrean bizi beharrean, zeruan dabil hegaz. Hypolit eta Maria... honelako bikoterik!

Baina halere ez naiz berarekin fidatzen. Zergatik ixten da bere gelan? Zergatik ibiltzen da gauzez hiltzaile zelatariaren antzera hanka puntetan? Ezin naiz berarekin fidatu! Batzuetan iruditzen zait lehenbailehen sartu behar niokeela labana eta ondoren *pardonnez!* esan adeitsu. Ezin naiz berarekin fidatu!

Harrigarria gertaera! Nire lagunari gelara laguntzen ari nintzaionean pasabidean barrena, gauminera arte bihotzez bihotz hizketan aritu ondoren, irudi ihar bat presaka igaro da, batoi zuriarekin eta kriseilua eskutan. Baroiak oihu egin du: Komandantea, Franz! Komandantea! Alban zen inondik ere, eta behetik zetorren argiak okertu egiten zion aurpegia, zahar eta

itsusia. Saihetsetik zetorren, Mariaren gela alde-
tik. Baroiak alabagana joatea erabaki du. Jainko-
aren aingeru dohatsua bezain lasai zegoen lo.
Biharkoa da hain aspalditik irrikatutako eguna!
Hypolit zoriontsua! Baina agerraldi horrek izuz
bete nau, nahiz eta nire buruari Alban zela kon-
bentzitzen saiatu. Gaztetan baroiari azaldutako
deabru gaiztoa ore dabil bere buru gainean zin-
tzilik, hemengo bakea apurtuaz bere bizitzan
sartzeko? Baina utikan susmo ilunak! Konbentzi
nadin ametsetako zorakeria zatar horiek sarritan
sabeleko ondoezaren ondorio direla. Ez ore litza-
teke Diavolinis hartu behar amesgaiztoen kal-
teetatik begiratzeko?

Jainko zuzena, hil egin da hil! Maria baronesa
maitagarriaren heriotza jakinarazi behar diot
Aibezari, familiaren artxiboetarako. Gaitasun
gutti daukat jarduera diplomatikorako. Jainkoak
eskuko jaiotasun apur hau eman ez balit pinta-
tzeko! Baina behintzat argi dago aldare aurrean
Hypolit besarkatzera zihoanean, Maria zerraldo
erori dela, hilik. Jainkoaren zuzentasunaren esku
uzten dut gainerako guztia!

Bai, zeu izan zara, Alban, Satan zitala! Zeuk hil duzu infernuzuloko azpikeriak erabiliz, Jainkoak hala aitortu dio Hypoliti! Ihes egin duzu, baina zoaz, bai. Ezkuta zaitez lurraren barren-barrean, halere mendekuak aurkitu eta zirtzilatuko zaitu eta.

Ez, ezin dizut barkatu, Ottmar! Zuk utzi duzu Satanasek lilura zaitzan, eta zuri eskatzen dizu Hypolitek bere maitearen izpiritua! Gaur hitz gogorregiak izan dituzte elkarrentzat eta jadanik borrokak ez dauka bueltarik.

Hypolit hil egin da! Zorionekoa bera, Mariarekin baitago. Ottmar dohakabea! Aita dohakabea!

Exeunt omnes! Bakea eta betiko atsedena hildakoei. Gaur gauerdian, irailak bederatzi, nire laguna hil zait besoetan! Berebiziko kontsola-mendua daukat laster ikusiko dudala jakinda. Ottmar gatazkan hil dela jakiteak, horrela bere okerrak bikain garbituz, eten egin ditu lurrari lotzen ninduten azken hariak. Hemen geratu nahi dut gazteluan, geletan barrena, beraiek bizi eta maite ninduten lekuan. Sarritan entzungo dut beren ahotsa. Maria dohatsu maitagarriaren hitz atseginek, lagun leialen ateraldi jatorrek

zuzpertzat egingo naute izpiritu dei baten antzera oihartzun eginaz, bizitzaren zama arintzeko. Bizitzak galdu du niretzat zentzu guztia. Igarotako egun zoriontsuak han urrunean elkartzen dira, eta handik datozen lagun maiteen diosala irribarrertsuek sarritan amets mirengarri eta dardara atseginetan biltzen naute. Noiz ore? Noiz joango ore naiz beste alde horretara zuengana?

Eta beste alde horretan dago orain!

AUTOMATAK

(Die Automate)

Turkiar hiztunak sekulako arreta piztu zuen. Hiri guztia zeukan asaldaturia: nola gazte hala zaharrak, nola agintari hala eskekoak, jendearen emanak gauera arte irauten zuen. Orakulua entzutera joaten ziren denak, irudi erdibizi erdihil harrigarri haren ezpain geldiek kuriosei xuxurlatzen zieten. Bere egitura guztiz berezia zen merkatu eta azoketan erakusgai egon ohi diren tramankuluen aldean, eta nornahi erakartzten zuen.

Behar-beharrezko altzariz bakarrik jantzitako gela ez oso handi baten erdian zegoen eserita giza tamaina eta itxura oneko irudi hura, arropa turkiar aberatsez, hiru hankako aulki apal baten gainean. Inork eskatzen zionean artistak baztertu egiten zuen aulkia, solairuarekiko edozein lotura susmo gezurtatzeko, ezkerreko eskua belaunaren gainean zeukalarik eta eskuinekoa berriz mahai huts, aparte baten gainean. Esandako moduan, irudi hark tankera bikaina zeukan,

baina burua zen denetan bereziena: ekialdeko begitarte zuhur haren bizitasuna guttitan aurkitzen da argizarizko irudietan, nahiz horiek giza-
seme zuhurren izakera sendoko aurpegiak itxuratu. Hesi xume batek inguratzen zuen irudia, ondoraino hurbiltzea galaraziz; izan ere, sekretua igartzen saiatu gabe egitura ezagutu nahi zuena edo zerbait galdetzera zihoana bakarrik sar zitekeen barrura, irudiaren alhora, beti ere artistari ongi iruditzen zitzaion heinean.

Galdera eskuineko belarrira xuxurlatuez gero, turkiarrak lehenik begiak eta ondoren gorputz guztia galdetzaileagana jiratzeko ohitura zeukan; ahotik zerion arnasa ikusita, berriz, bazi-rudien bere erantzun isila irudi barrenetik zeto-rrera zinez. Erantzuna emateko garaia heltzen zenero, artistak irudiaren ezkerretik giltza sartu eta erloju mekanismo bati kuerda ematen zion, zarata handiarekin. Horretaz gain, leihatila bat irekitzen zuen eskatuez gero, eta irudi barrenean gurpil askodun tresneria agertzen zen; hark ez zuen inolako zerikusirik automataren mintzoarekin, baina betetzen zuen lekuarekin ezinezkoa zen irudi txokoren batean inor ezkuta-

turik egotea, nahiz ttikiagoa izan Augusto enperadorearen ipotx ospetsua baino, hostopilezko pasteletik irtendako hura. Erantzun bakoitzaren aurreko buru mugimenduaren ostean, turkiarrak aldiaren behin eskuineko eskua altxatzen zuten, behatzaz mehatxatu edo esku osoaz galdera baztertzeko bezala. Halakoetan, galdetzailearen grina berretuak erantzun nahasi edo elkor bat besterik ez zuten jasotzen; barruko gurguleriak buru eta besoaren mugimendu hura ere erakutsi zezakeen, ezinbestean izaki pentsalari baten ondorioa zela zirudien arren.

Gogotik saiatzen zen jendea harreman mota-
ren bat sumatu nahian, nota horma hala aldame-
neko gela eta altzariak ere ikertuz, baina alferrik.
Irudia ezezik, artista ere mekanikari aski trebeen
Argos-en begiek inguratzen zuten, baina zenbat
eta nabariagoa izan norbait begira zeukala,
orduan eta ageriagoa zen artistaren lasaitasuna.
Gelako bazterrik urrunenean aritzen zen ikuslee-
kin hizketan eta txantxetan, eta berezko bizitza
balu bezala uzten zuten irudia, berarekiko lotura-
rik behar izan gabe mugitu eta erantzun zezan.
Artistak, ordea, ezin izaren zion irribarre ironiko

antzeko bati eutsi mekanikariek aulkia eta mahaia alde guztietatik inguratu eta ukitzen zutenean; beheratu eta berriro argitan jarritako irudiari betaurreko eta handitzeko kristalez begiratzen zioten, gurpil multzo harrigarri hari deabruak bakarrik antzeman ziezaiokeela baieztatuz. Dena alferrik zen, eta irudiari ahotik zerion arnasa hauspo gordeen bidez sortua zenik eta artista sabeliztuna zeneko hipotesia ere berehala ezeztatu zen, artista ozenki aritzen baitzen hizketan ikusleren batekin, turkiarrak erantzun bitartean.

Irudi haren apaindura eta ezinulertu miresgarri hura gorabehera, laster agortuko zen herritarren jakinmina artista gauza izan ez balitz beste era batean ikusleak bereganatzeko. Turkiarrak zabaltzen zituen erantzunen bizkar zegoen hori: galdetzaileari sakon begiratu ondoren, erantzunak batzuetan zuhurrak eta bestetan gordin samarrak izaten ziren; zenbaitetan adimen eta azkartasunez beteak bihurtzen ziren eta, harrigarria bada ere, baita oinazea sortzerainokoak ere. Sarritan etorkizunari buruzko iragarpen mistiko baten bidez txunditzen zuen inor, baldin eta

galdetzaileak bere animarekin bat egiten bazuen. Are gehiago, turkiarrak sarritan galdera alemanieraz jaso eta galdetzaileak ere bazekien hizkuntza arrotz batean erantzuten zuen eta gainera ez omen zegoen erantzun borobilagoa ematerik, edo hain hitz guttiz gehiago adierazterik, aukeratutako hizkuntz hartan baino!

Laburbilduz, la egunero izaten zen turkiar jakintsuaren erantzun erne eta zehatzen berri. Zer ote zen miresgarriagoa, gizasemea eta irudiaren arteko lotura misterioitsua, edo bestela galdetzailearen nortasunean sartze hura eta erantzunen azkartasun bakana; horrexez ari ziren hizketan ilunabar batez lagunarteko bilera batean, Ludwig eta Ferdinand ikaskideak ere tartean zeudelarik. Lotsatzekoa bazen ere oraindik turkiarra ez zutela bisitatu aitortu beharra zeukaten, nahiz eta gizalegezkoa izan bertara joatea, galdera zorrotz bakoitzari emandako erantzun miragarria ondoren denetara zabaltzeko.

— Niri higuigarriak iruditzen zaizkit —zioen Ludwigek—, giza tankera ez baizik eta giza itxura isekatia duten irudi horiek guztiak, heriotza bizi edo bizitza hilaren estatuak. Mutil kozkorre-

tan negarrez korrika irteten nintzen argizarizko irudi erakustokiren batera eramaten nindute-nean, eta gaur egun ere ezin naiz horrelako erakustokietan sartu sentimendu latz ikaragarria nabaritu gabe. Agintari, heroe, hiltzaile eta lapur ospetsu guztien begirada izoztu, hil, kristalezkoak nigana zuzenduak ikusten ditudanero Macbethen hitzak datozkit gogora: Zergatik begiratzten didazu ezin banauzu ikusi? Berez, ziur nago gizaki gehienek nire sentimendu ikaragarri hau bera dutela, nigan nagusi dena adinakoa ez bada ere. Nabarmena da ere argizarizko irudi erakustokietan jende gehiena isilka mintzatzen dela eta guttitan aditzen dela ahots gorarik. Hori ez da agintarienganako begirunez baizik eta ikara eta laztasunaren ondorioa, azken horiek behartzen baitute ikusleen *pianissimo*-a. Areago, irudi hilen gizaki itxurako mugimendu mekaniko-ei nazkagarriak derizkiet eta ziur nago zuen turkiar bizkor, miresgarri horrek bere begi okertze, buru jira eta beso altxatzeekin munstro nigromanteak bezala jarraituko lidakeela lokartu ezineko gauetan. Ez naiz beraz bertara joan zale,

eta nahiago dut besterengandik jakin hari edo honi adierazi dizkion ateraldi eta zuhurtasunak.

— Egiaz —hartu zuen Ferdinandek hitza—, ezeri gizaki itxura ematearen zorakeriaz eta argizarizko irudi erdibizi erdihilei buruz esan duzun guztia bihotz barrenean daukat errotua. Alabaina automata mekanikoetan artistaren lan egiteko moduak erabakitzen du dena. Nik inoiz ikusi dudan automatarik perfektuenetakoa Ensleren Akrobata da; izan ere, bere mugimendu indartsu guztiak ikuskarriak izateaz gain, bere bat-bateko geldialdiak soka gainean eta buru imintzio atseginak txit barregarriak ziren. Halere irudi horiek ez dute pizten jende sentiberaren artean bestelako beldur honi, hain ohizkoa dena.

Nire iritziz, ordea, gure turkiarra beste izaera batekoa da. Ikusi dutenen deskribaketaren arabera, daukan tankera bikain prestua erabat badaezpadakoa da, eta bere begi kizkurtze eta buru jiratzeak sekretuaren gakotik gure arreta saihesteko besterik ez dira. Turkiarrari ahotik arnasa dariola litekeena da, eta agian egia ere izango da, esperientziak hala erakusten duenez; horrek ez du esan nahi, baina, ebakitako hitzek

sortzen dutenik arnasa. Ezbairik gabe, ikusizko eta entzunezko aparailu gorde, ezezagunen bidez galdetzailearekin harremanetan dago nor-bait, aditu eta erantzunak xuxurlatzen dituen irudipena emanaz. Lotura mota horretaz inor-txok, ezta gure mekanikari trebeek ere aztarrenik ttikiena bildu ezinak adierazten du artistaren asmakizuna zeinen burutsua den, eta horregatik merezi du bere lanak gure arreta osoa.

Ordea niri askoz miresgarriagoa iruditu eta gogotik erakartzen nauena gizaki ezezagun horren izpirituko indarra da, galdetzailearen gogoan barrena sartzen dela baitirudi: azkartasun eta argi-ilunpe izugarria ageri da maiz erantzunetan, hauek orakulu bihurtuaz, hitzaren zentzu estuan. Gai honetaz zenbait lagunengandik entzun ditudan gauzek hainbeste harritu naute non ezin diodan gehiagoan nire grinari eutsi, ezezagunaren azti miragarri horri neurria hartzeko; horregatik erabaki dut bihar goizean bertaratztea. Hori horrela, Ludwig maitea, panpina bizienganako beldurrak baztertu eta lagun nazazun gonbidatu nahi zaitut begirunez.

Gogor ekin arren, Ludwigek amore eman behar izan zuen zelebretzat har ez zezaten, taldeko gehiagok ere beharturik eta lagunarte algeratik alde batera ez geratzearren, biharamunean denak elkarrekin turkiar miragarriari tamaina hartzera joateko.

Ludwig eta Ferdinand beste zenbait gazte alairekin Pan ziren, harako hitza emanak haiek ere. Turkiarra, ekialdeko gorentasun ukaezina eta, esan bezala, buru bikainekoa, Ludwigeri barregarria iruditu zitzaion sartu orduko, eta artistak giltza saihetsetik sartu eta gurpilak kirrinka hasi zirenean, buruzpide hari tankera baldar eta antzua emanik oihuka ekin zion nahi gabe:

— Begira, jaunak! Geuk sabelean haragi errea besterik ez baina gure jaun turkiarrak burduntzi osoa dauka barru horretan.

Denak hasi ziren barrez, baina artistari ziria nonbait gustatu ez eta berehala utzi zion kuerda emateari. Taldeko giro alai hura turkiar jakintsuari atsegin ez zitzaiolako edo goiz hartan aldarte onean ez zegoelako, kontua da galdera azkar eta zorrotzak izan asmo zuten gehienek

erantzun zentzugabeak eta motelak jaso zituztela. Zorigaitzik handiena Ludwigena zen, orakuluak la inoiz zuzen ulertzerik ez eta oso zalantzazko erantzunak jaso baitzituen. Haserre zirudien artista eta automatagandik bazihoazen denak, asmo guztiak zapuzturik, Ferdinandek esan zuenean:

— Egia da, jaunak, ez zaudetela oso pozik turkiar jakintsuarekin; baina gure galderetan bertan egon liteke koxka, agi danean ez baitzaizkio atsegin. Badirudi bere oraingo buru jiratze eta esku altxaldiek (hala ari zen irudia egiten) nire susmoa baieztatzen dutela. Ez non eta ez han beste galdera bat egitea bururatu zait, erantzun egokia jasoez gero automataren ohorea berehala salbatuko duena.

Ferdinand irudiaren aurrean jarri eta hitz batzuk xuxurlatu zizkion belarrira isilik; turkiarrak besoa goratu zuen, ez zuela erantzun nahi adierazteko. Ferdinandek ordea lehengoari eutsi eta azkenean turkiarrak beragana itzuli zuen burua.

Ferdinanden bat-bateko zurbiltasunaz ohartu zen Ludwig; laster berriro galdetu, ordea, eta

berehala jaso zuen erantzuna. Irribarre behartu batekin hitz egin zion Ferdinandek lagunarteari:

— Jaunok, niri dagokidanez behinik behin turkiarrak bere ohorea salbatu duela ziurta dezaket. Baina ahalik eta orakuluak orakulu misterioitsu izaten jarrai dezan, zilegi bekit nik zer galde-tu eta berak zer erantzun didan isilik gordetzea.

Ferdinand bere barruko asaldura gorde nahian aritu arren argi antzematen zitzaion egiten zituen ahaleginetan pozik eta bere onean zegoela emateko. Turkiarraren erantzun miresgarri eta zuzenenak ere ez zukeen lagunartean hain sentimendu arraroa, kasik beldurgarria sortuko, Ferdinanden estuasuna antzemanik. Joanak ziren aurreko alaitasunak, arestiko berritsuketaren ordezt hitz solte bakanak jalki zituzten eta bekozko ilunez banakatu ziren.

Ferdinand Ludwigekin bakarrik geratu orduko, honela hasi zitzaion:

— Adiskidea, zuri ezin dizut ezkutatu: turkiarrak barren barrenetik hunkitu eta mindu nau, eta ez dut oinaze hau guztiz gaindituko orakulu beldurgarriak heriotza ez dakarkidan arte.

Harri eta zur begiratu zion Ludwigek lagunari, Ferdinandek aurrera jarraitzen zuelarik:

— Orain jabetzen naiz turkiarraren bidez gurekin harreman misterioetsuan dagoen izaki ikusezin horrek botere aski daukela gure pentsamendurik gordeenetan indar magikoz sartzeko; botere arrotz horrek, agian, argi eta garbi ikus dezake etorkizunaren ernamuina ere, kanpoko munduarekiko lotura mistikoan gure baitan haziz doana. Hartara, etorkizunean egokituko zaiguna jakin lezake, heriotzako ordua iragartzeko dohain hitsa daukaten gizonak dauden bezalaxe.

— Berebiziko zerbait galdetuko zenion —gaineratu zuen Ludwigek—, baina agian garrantzi handiegia emango zenion orakuluaren erantzun dudatiari; hala, turkiarraren bidez bere burua ezagutarazten duen gizon txatxu horren indar mistikoari leporatuko zenion hain hunkigarria den zera hori, kasualitate hutsalen elkarketa bitxi batengatik.

— Kontraesanean zaude —hartu zuen Ferdinandek hitza—, beste batzuetan kasualitateari buruz aho batez esaten dugunarekin. Dena jakin dezazun eta gaur egun neure barrena zeinen

aztoratua eta hunkitua dagoen kontura zaitezten, orain arte isilean eduki dudan neure iragan bizi-tzako zerbait adieraztera noakizu konfidantzaz.

«Badira zenbait urte nire aitaren Prusia Ekialdeko ondasunetatik B.ra itzuli nintzela. K.ra hel-tzean gazte kurlandar batzuekin topatu nintzen, B.rako bidean beraiek ere, eta elkarrekin abiatu ginen hiru zaldikotxetan. Pentsatuko duzunez, gaztaroko lehen ernealdi hartan diruzorroa ongi beteta mundutik bidaia genezakeenoi bizinahiak ia lasaikeria gordineraino egiten zigun gainez. Barrez lehertzen egiten genituen eroaldirik han-dienak, eta oraindik gogoan daukat eguerdi batean M.ra iritsi eta zaldien ugazaba andreari ilekosare guztiak lapurtu genizkionekoa; ondo-ren bere protestak aintzat hartu gabe sareak jantzi eta etxe aurrean tabakoa erreaz ibili ginen harantza eta honantza, sekulako jendetza eraka-rriz, harik eta postiloiairen adar-dei alaiarekin berriro bideari lotu ginen arte.»

«Aldarterik onenean heldu ginen D.ra, berta-ko bazter ederretan egun batzuk geratzeko asmoz. Egunero egiten genituen irtenaldi alaiak. Behin batean gauera arte ibili ginen Karlsberg

eta inguruko bazterretan, eta ostatura itzultzean zain geneukan aurrez agindutako pontxe goxoa. Itsas aireak arnasa berotuta, gogoz heldu genion harixe. Pultsua zainetan taupaka eta odola zainetatik suzko ibaia bezala zihoakidan galdetan, berez mozkortuta ez egon arren. Azkenean nire gelara itzuli ahal izan nuenean ohe gainean etzan nintzen zerraldo, baina nekatuta egonagatik neure loak ametsetako gogoetaren antza gehiago zeukan, inguruko guztia aditzen bainuen. Bazirudien aldameneko gelan isilka ari zirela hizketan, eta azkenean gizon ahotsa bereizi nuen argiro esanaz:

— Orain lo egin ezazu eta garaia denean prest egon.»

«Ateren bat ireki, osterara itxi eta isilune sakona nagusitu zen denean, handik guttira piano baten akorde xumeek eten zuena.»

«Badakizu, Ludwig, musika doinuen lilura zenbatekoa den beren oihartzuna gau isilean zabaltzean. Akorde haien bidez izpiritu baten ahots xarmantak hitz egiten zidala ematen zuen. Zirrara atsegin hartan murgildu nintzen guztiz, fantasia edo musika piezaren batek jarraituko

zuelakoan, baina ez nintzen gutti harritu emakume ahots eder, zerutiar bat melodia bihotzerdiragarritz kantari hasi zenean:

*Mio ben ricordati
s'avvien ch'io mora,
quanto quest' anima
fedel t'amò.
Lo se pur amano
le fredde ceneri
nel urna ancora
t'adorerò!»*

«Nola azalduko dizut inoiz ezagutu eta inoiz somatu gabeko nire sentimendu hura, batean *crescendo* eta bestean *decrescendo* zihoazen doinu luze haiek nigan piztu zutena? Melodia bakan, ezezagun hura —maitasunik saminenaren malenkonia sakon, ezta— batean goraino igotzen zen *melisma* xumez, kristalezko kanpai hotsekin, eta bestean beheraino jaisten zen, itxaropenik gabeko lanturu baten hasperen lodietan hiltzera balihoa bezala; berealditako pozak astintzen zuela nire barrena sentitu nuen,

izugarrizko oinaze irrikatsuak bularra tinkatu, arnasak huts egin, eta hondoa jotzen nuela zeruko atsegin itzel haren pean. Ez nintzen mugitzera ausartzen eta nire anima osoa, nire gogo osoa neukan jarria huraxe entzuteko. Aspaldi mutuak ziren doinu haiek, harik eta bertan suntsituko ninduela zirudien tentsio hura negar jario batekin hautsi nuen arte.»

«Azkenean loak hartu bide ninduen, adar hots ozen batek esnaturik zalapartan jaiki nintzenean goizargiaren distira baitzegoen nire gelan. Agi danean ametsetan bakarrik bizitu nuen neure ustez munduan aurki daitekeen zorion eta pozik handiena zen hura: hau da, neskatila eder, egoki bat zegoela nire gelara sartuta. Kantaria zen, eta ahots goxo, xamurrez hitz egin zidan:

— Honela aise ezagutuko ninduzun, Ferdinand maitea, baina ongi nekien kantuan aritzea aski nuela berriro zure baitan berpizteko. Izan ere, doinu bakoitza zure bihotzean pausatu da eta ni ikusi orduko egin du oihartzun.»

«Hura poza hartu nuen nire maitemina zela ikusi nuenean, umetatik bihotzean neramana,

patu gaiztoak apaldi nigandik urrundu eta orain zorionez berriro aurkitua. Baina nire maitasun gartsuak desira sakonezko melodia hartantxe egin zuen oihartzun, eta gure hitzak, gure begiradak doinu bikainak bihurtu ziren, suzko ibaian bezala elkarrekin dariola.»

«Erabat esnatu nintzenean onartu beharra izan nuen ametsetako irudi zoragarri hura ez zela antzinako inongo oroitzapenek sortua: lehenengo aldiz ikusi nuen neskabila eder hura. Buila handian eta gogot ari ziren etxe aurrean hizketan. Modu mekanikoan agudo jaiki eta inguratu nintzen leiho aldera: gizon adindu, apain jantzinako bat postamutilei errietan ari zitzaien, organineko zerbait hautsi zutelako. Azkenean dena antolatzez bukatu eta gizonak oihu egin zuen goiko aldera:

— Dena zuzen dago. Bagoaz.»

«Orduan jabetu nintzen nigandik hurbil emakume bat zegoela leihora aterata, eta berehala ezkutatu zen. Bidai sonbreru handi samarra zeramanez, ez nuen bere aurpegia ikusterik izan. Etxeko ataritik irten zenean jiratu eta gora begiratu zuen, ni nengoen aldera. O, Ludwig,

kantaria zen! Nire ametseko imajina. Begi zeru-
tiar haiek nigan ezarri ziren eta iruditu zitzaidan
kristalezko doinu baten argi printzak jo zuela
nire bularra eztenkada gori batek bezala, mina
nabaritu nuen gorputzean, dardarka neuzkan
zuntz eta zain guztiak eta berebiziko plazer hark
lurrari josita nindukan. Laster sartu zen organ
eta postiloiak adarrari haizeman zion, txantxe-
tan bezala piezatxo bizia osatuz. Berehala ezku-
tatu ziren kale kantoian barrena. Ametsetan
bezala geratu nintzen leihoan. Kurlandarrak nire
bila sartu ziren gelara, aurrez erabaki genuen
txangorako. Ez nuen txintarik esan eta gaixotzat
hartu ninduten: nola aipatuko nien bada gertatu-
rikoaz ipitzik ere? Uko egin nion nire ondoan bizi-
tutako arrotz haien galdera egiteari ostatuan,
besteren ezpainenetako hitzek nire bihotzeko
sekretu goxoa likistuko zutelakoan. Orduztik
aurrera nire maite betikoa bihotzari atxikita era-
man nahi nuen zinez, nahiz eta gehiago ikusi
ez.»

«Ulertu ahal izango duzu, bihotzeko ene
laguna, nire orduko egoera. Horregatik ez didazu
errietaryk egiten maite ezezagun haren aztarna-

ren bat biltzeko izan nuen zabarkeriagatik. Nire aldarte hartan kurlandar talde alaia desatsegina bihurtu zitzaidan eta beraiek ezer igarri aurretik gau hartan bertan aldegin eta B.rako bidea hartu nuen, nire lehengo asmoei jarraituz.»

«Badakizu ttikitatik ongi samar marraztu dudala. B.n maisu trebeen gidaritzapean jarri nintzen, miniaturen margogintzan, eta baita denbora guttian hainbeste aurreratu ere non nire helburu nagusia bete ahal izan nuen: hau da, emakume ezezagun haren ahalik eta irudirik antzekoena duintasunez margotzea. Ezkutuan eta giltzapean margotu nuen erretratua. Gizakia- ren begiek ez dute inoiz ikusi. Neurri berdineko beste irudi bat markuan jarrarazi eta nahikoa lanen ondoren maitearen erretratua gainean ipini nuen, orduztik bularrean daramadan bera.»

«Nire bizitzan lehenbiziko bider mintzatu natzaio inori nire inoizko mementurik garrantziz-koenaz eta zeu zara, Ludwig, nire sekretuaren partaide egin dudan bakarra. Baina kanpoko indar zital hori barruraino sartu zait gaur. Turkia-rrari hurbildu natzaionean honela galdetu diot, bihotzeko nire maitea gogoan:

— Bizituko al dut etorkizunean beste mementurik, garai batean adinako zoriona ekarriko didanik?»

«Turkiarrak ez erantzutekoa egin du, konturatuko zinenez. Azkenean, amorerik ematen ez nuenez, jartzen zait eta:

— Zure bularrari begira nago, baina aurreko urre distiratsuak ikusmena eragozten dit. Jira ezazu erretratua!»

«Ez daukat hitzik nire zirrara adierazteko. Ohartuko zara nire barruko hunkiduraz. Turkiarrak esan bezalaxe neukan erretratua bularrean; inor konturatu gabe hura itzuli eta errepikatu diot galdera. Goibel hitz egin dit:

— Gizarajoa! Berrero ikusi bezain laster galduko duzu!»

Gogoeta sakonetan murgildutako laguna hitz adoretsez zuzperten saiatzera zihoan Ludwig, orduantxe ezagun batzuk azaldu eta eten zituztenean.

Turkiar jakintsuak emandako erantzun misteriotsu berriaren zurrumurrua hirian zehar zabal-tzearekin batera zer suman hasi zen jendea, ea zein zorigaiztoko profeziak larritu ote zuen hain-

beste Ferdinand arduragabea; barra-barra egiten zizkieten galderak biei, eta bere laguna estuasun hartatik ateratzeko, Ludwig abenturazko istorio bat asmatu beharrean aurkitu zen, jende artean zabaltzen zihoan heinean egiatik guttiago zeukana.

Ferdinandi turkiar harrigarria bisitarazi zion talde hark astero elkartzeko ohitura zeukan. Hurrengo bileran bertan aipatu zuten turkiarra, Ferdinandengandik zerbait aditu nahian aldarte ilun hartan jarri zuen gorabeheraz, bera alferrik gordetzen saiatu arren. Ludwig argi ohartzetzen bere lagunaren barrena ikaran zegoela; izan ere indar arrotz, beldurgarri hark bularreko sako-nenean gordeta zeraman maitasun fantastikoaren sekretua ikusi ahal izan zuen. Bera ere Ludwig bezain ziur zegoen, gauzarik sekretuenetaraino iristen zen indar haren begiradarentzat etorkizunaren nondik norako misterioetsua ere gauza jakina izan zitekeela. Ludwigek orakuluetan sinistu beharra zeukan, baina laguna mehatxatzen zuen adur gaiztoko aitorten zital haren berri izatean ezinikusia hartu zion turkiarraren bitartez mintzo zen izaki gordeari.

Horregatik egiten zien gogor irudiaren miresleugariei, eta norbaitek adierazi zuenean automataren berezko mugimenduak ikuskarriak zirela eta modu horretan orakulu antzeko erantzunek sortutako zirrara handiagoa zela, Ludwigek esan zuen turkiar prestuaren begi kizkurtze eta buru jiratzeak zelebrenkeria hutsa iruditu zitzaizkiola. Eta gainera ustekabean aldegin zion ateraldi hark humore txarrean jarri omen zuen artista eta agian baita ezkutuan ziharduen izakia ere, ondorengo erantzunak anitzez motelagoak izateaz gain ez baitzuten batere zentzurik.

— Aitortu beharra daukat —gehitu zuen Ludwigek—, sartu bezain laster, irudi hark nire intxaurreusteko ñimiñoa gogorazi zidala, artean mutil kozkorra nintzelarik lehengusu batek behin Eguberritan oparitua. Gizontxoak aurpegi petral barregarria zeukan eta intxaur gogorren bat txikitzerakoan bere begi handi, nabarmenak kizkurtzen zituen barruko tresnaren bidez, irudiari halako bizitasun zelebrea emanaz non ordutan aritzen nintzen huraxe hartuta jolasean, ipotx hura nire esku artean benetako mandragora bihurtzeraino. Handik aurrera txotxongilorik per-

fektuenak ere traketsak eta geldoak ziren nire intxaurreusteko ederraren aldean.

«Erruz hitz egin zidaten Danzigeko arsenaleko automata miresgarriari buruz, eta orain dela urte batzuk Danzigen suertatu nintzenean ez nuen aukera hura huts egin nahi izan. Salan sartu eta berehala Alemania zaharreko soldadu bat nigana bizkor inguratu eta tiro egin zuen bere armaz, sabai zabalean barrena zakar zartatuz. Ahaztu ditudan antzeko beste bitxikeria gehiagok ere harritu ninduten, baina azkenean beste sala batera eraman ninduten, Mayors gerraren jainko beldurgarria korte guztiarekin zegoen lekura. Martitz bera jazkera grotesko samarrez zegoen eserita mota guztiko armaz apaindutako tronuan, zaindari eta gerrariz inguratua. Tronu aurrera heldu ginen orduko danborjoka hasi ziren bi soldadu, eta txilibitu jotzaileak berriz ikaragarritzko hozki hotsarekin haizeman-ka, belarriak ixteko gogoia emateraino. Gerraren jainkoak orkestra txarra zeukala iradoki nuen, jaun goren harentzat desegokia, eta arrazoi eman zidaten. Azkenean danborrak eta txilibituak isildu eta zaindariak burua jiraka eta hala-

bardaz lurrean danbaka hasi ziren, harik eta gerraren jainkoak begiak maiz okertu ondoren eserlekutik zutitu eta gugana etortzekoa egin zuen arte. Laster bota zuen ordea bere burua berriro tronu gainera, eta beste danbor eta txilibitu saio laburraren ostean dena lehengo lasaitasun astunera itzuli zen. Automata haiek denak ikusita, kanporako bidean nire artean esan nuen: «Nahiago diat nire intxaurreustekoa». Eta orain ere, jaunak, turkiar jakintsua ikusi eta gero hala diot berriro: «Nahiago diat nire intxaurreustekoa».

Barre handiak egin zituzten, baina denak ados zeuden Ludwigen iritzia benetakoa ez baizik eta txantxetakoa zela; izan ere aintzat hartu gabe automataren erantzunek gehienetan zuten azkartasuna, ez eta ere gizaseme gordea eta turkiarraren arteko igarriezinezko lotura, irudiarren bidez mintzatzeaz gain galderen araberako mugimenduak eragiten zituena; nolana ere miressgarria zen, eta azken batean mekanika eta akustikaren arloan maisu lana.

Hala onartu behar izan zuen Ludwigek berak ere, eta aho batez goretsi zuten denek artista

atzeritarra. Hartan agure bat altxa zen eserle-
kutik, normalean gutti hitz egin eta ordurarte
elkarrizketan esku hartu ez zuena, bukaeran iza-
ten baitzuen hitzen batzuk gehitzeko ohitura,
beti ere gaiari estuki lotuak. Hala, gizalege osoz
hasi zen:

— Arren entzun nazazuen eskatzen dizuet
apalki, jaunak. Arrazoi osoz goraipatzen duzue
aspaldi honetan hainbeste erakarri gaituen arte-
lan bakan hori; baina hori erakusten duen gizon
arrunta arrazoirik gabe izendatzen duzue artista,
ez baitauka inongo zerikusirik lan horren bikain-
tasunean. Horren jatorria artearen arlo guztietan
jantzita dagoen gizon batengan dago, azken
urteotan gure hiriko murru artean bizi ezezik guk
denok ezagutu eta ohoratzen duguna.

Harriduraren harriduraz ekin zioten agureari
galdezka eta honek horrela jarraitu zuen:

— Aipagai dudan gizona X. profesorea da.
Turkiarrak bi egun zeramazkien hemen jadanik,
inork beragan ezer asko erreparatu gabe; profe-
sorea ordea ezin egon harengana joan gabe,
gogotik interesatzen baitzaio automata izeneko
guztia. Turkiarraren erantzun pare bat jaso ordu-

ko, baina, eramán artista txokora eta hitz batzuk esan zizkion belarrira. Hau zurbildu egin zen eta gela sarrailez itxi zuen, bertaratutako kurios bakarrak joan zirenean. Iragarkiak kale kantoietatik ezkutatu eta ez zen turkiar jakintsuaz beste konturik aditu, harik eta handik bi astetara ohar berriak azaldu ziren arte; orain hain misterio argituezina den buru eder berria eta gainerako egitura guztiarekin azaldu zen turkiarra. Orduzkerok dira erantzunak hain azkar eta zentzuzkoak ere. Ez dago inongo zalantzarik hori guztia X. profesorearen lana dela, artista egunero joaten baitzen profesorearen etxera, automata agertzen ez zuen bitarte hartan; era berean, jakina da irudia jasota zegoen eta oraindik ere dagoen hoteleko gela berean izan zela profesorea zenbait egunez erreskadan. Zeuok atera ondorioak, jaunak, baina jakin ezazue profesorea musikazko automata bikainen jabe dela, eta denetariko mekanika eta magia gaiak direla eta ez direla gutunezko harreman etengabe dagoela aspalditik B. kontseilariarekin, eta zein baino zein aritzen direla biak; bere esku dauka, beraz, mundua harriduraz betetzea. Baina ezkutuan ari da

lanean eta asmaketan, nahiz eta benetako gogoia eta zaletasuna daukatenei bere artelan bakanak atsegin handiz erakusten dizkien.

Zinez, denek zekiten X. profesorea, bere fisika eta kimika jakintza arlo nagusiez gain artelan mekanikoekin ere aritzen zela, baina lagunarteko bakar batek ere ez zuen igarri turkiarrarekiko bere zerikusia, eta aditzeraz bakarrak ezagutzen zuten agureak aipatutako arte erakustokia. Ferdinand eta Ludwigek asaldura bitxia nabaritu zuten X. profesorea eta automata arrotz haren arteko loturari buruzko agurearen txostenarekin.

— Ezin dut zure isilpean gorde —esan zuen Ferdinandek— itxaropena jalo zaidala; alegia orain hain latz lotuta naukan sekretuaren aztar-na bilduko ote dudan, X. profesoreagana baldin banoa. Izan ere baliteke bai turkiarra, edo areago, orakulua bideratzeko darabilen pertsona gordea eta bai ni lotura harrigarrian gaudela jakiteak nire burua lasaitzea eta hitz beldurgarri haien zirrara guttitzea. Erabakia hartuta daukat, bere automatak ikusteko aitzakiarekin gizon misterioitsu horren ahalik eta ezaguerarik estuena egiteko, eta bere artelanak musikazkoak

omen direnez zeuri ere interesgarria gertatuko zaizu nirekin etortzea.

— Bestela ere nahikoa atsegina zait zuri nire babesa ematea, hitzez eta egitez —erantzun zuen Ludwigek—. Ezin dizut halere ukatu, X. profesoreak makina horretan duen eraginaz agureari entzun ondoren ideia bitxi anitz igaro zaizkidalaburutik, nahiz eta gugandik hurbil dagoena agian urruneko bidetan bilatzen ari naizen. Izan ere ezin ote liteke izan, misterioaren argia gugandik hurbil bilatuz, pertsona ikusezin horrek lehendik jakitea bularrean irudia zeneramala eta hartara hitz konbinazio arrakastatsu batengatik egiaren itxura ematea? Zorigaiztoko iragarpen hori da, apika, guk turkiarraren jakinduriari egingadako isekaren ordaina.

— Lehen ere esana dizut —erantzun zion Ferdinandek—, animarik ez dagoela nire erretratu hori ikusi duenik, eta ez diodala nire bizitza guztian inori kontatu gertaera hunkigarri hori: ezinezkoa da turkiarrak horren berri izatea moduarruntean! Urruneko bidetan bilatzen duzuna, apika, askoz hurbilago dago egiatik.

— Hona hemen nire ustea —esan zuen Ludwigek—: automata hori ikuskizun aparta da, nahiz eta gaur nire iritziak desberdina ematen zuen; eta argi dago artelana itzaletik zuzentzen duen ezezagun honi askoz jakintsuagoa dela inozoen moduan ahoa bete hortz mirespenez begira egoten direnek uste dutena baino. Irudia ez da komunikaziorako bidea besterik, baina ez dago ukatzerik oso trebe aukeratua daudela nola bere tankera hala bere mugimenduak, egokituta baitaude inoren arreta sekretuari atxiki eta galdetzailea airean jartzeko, horrela izaki erantzulearen nahiari jarraituaz. Bistan da irudi barruan ez dagoela gizaki batentzako tokirik, eta beraz entzunezko trikimailuren batengatik iruditzen zaigu erantzunak turkiarraren ahotik datozkigula. Hori nola dagoen antolatua, erantzuten duen pertsonak nolatan daukan ahalmena galdetzaila ikusi, entzun, eta atzera ulertzeko moduan mintzatzeko, niretzat erabateko misterioa da oraindik. Guzti horretarako artistak ezagupen akustiko eta mekaniko onak behar ditu alde aurretik, eta baina zentzu bikaina ere, edo hobeto esanda maltzurkeria franko, ahal dituen bitar-

teko guztiak baitarabilzki guri ziria sartzeko. Aitortu beharra daukat ere sekretu hori argitzea guttiago interesatzen zaidala askoz gauza garrantzitsuagoa dena baino, hain zuzen ere turkiarrak maiz galdetzailearen anima ikusten dueneko irudipena; alegia, berak zeuri frogatu aurretik aipatu zenuenez, zulatu egiten duela inoren gogo barruraino.

«Badirudi izaki erantzule horri posible zaiola guretzat ezezagunak diren bideak erabiliz guran eragin psikikoa edukitzea, eta gurekin halako izpirituzko loturan jartzea non gure gogo eta nortasun osoa atxikitzen dituen. Nolanahi ere, ez ditu gure sekretu gordeak argiro adierazten bai-zik eta estasian bezala, inoren izpirituarekin bat egin ondoren; hala, geure barrua izpirituaren begiarentzat agerian jarri eta bertako zera guztiak azaleratzen dizkigu. Botere psikiko horrexek astintzen ditu bestela zarata nahasia bakarrik ateratzen duten gure barruko sokak, dardarka eta soinuan jarriz, eta hala argiro entzuten dugu armonia garbia. Baina geu gara gure buruari erantzuna ematen diogunak, kanpoko izpiritu arrotzak barruko ahotsa guretzat ulerkorragoa

egin ondoren; eta asmakizun nahasiak, pentsa-
menduaren arabera taxaturik, orakulu argi
bihurtzen dira. Maiz ametsetan ahots arrotz
batek zerbait irakasten digunean bezala da, guk
jakin ez edo behintzat zalantzan geneukana;
ahots hori, halere, itxuraz jakintza ezezagunak
eskuratzen dizkiguna, geure barrutik dator eta
ulertzeko moduan hitz egiten digu. Bistakoa da
turkiarrak, atzeko izpiritu gorde horrek alegia,
guttitan daukala beharra galdetzailearekin
harreman psikikoan jartzeko. Ehundaka galdegi-
lek azaleko erantzuna jasoko dute, beren norta-
sunaren arabera; eta sarritan aski izango da
erantzulearen berezko azkartasunak edo izpiritu
erneak behar bezala zorrozitutako ateraldi zolia,
galderaren sakonerak bestelakorik ezinezko egi-
ten duenean. Galdetzaile aztoratuak modu des-
berdinean hitz egingo dio turkiarrari eta honek
orduan lotura psikikoa ezartzeko bideak finkatu-
ko ditu, boterea emanaz galdetzailearen barren-
barrenetik erantzuteko. Galdera sakonei bereha-
la erantzuteko turkiarraren ukoa agian ez da
bere bitarteko ezkutuetan erabili ahal izateko beta
lortzearren besterik. Hori da nire iritzia, bene-

benetan, eta ikusten duzunez, artelan horren inguruan ez naiz gaur sinistarazi nahi nizuen bezain axolakabe: baliteke seriosegi hartu izana ere! Halere ez nuke aipatu gabe utzi nahi, nirekin ados baldin bazaude ere, ez dizudala ezer esan lasaituko zaituenik.»

— Oker zaude, lagun maitea —erantzun zuen Ferdinandek—. Zure ideiak nire animako ilunpearekin, bat etortze horrek harritzeko moduan lasaitzen nau. Neure esku bakarrik dago nire sekretu maitea profanatua izan ez dadin, bai baitakit nire lagunak ere leialki zainduko duela, konfidantzan emandako gauza sekretu bezala. Halere beste xehetasun bat ere aipatu beharrean natzaizu, orain arte gogoratu ez zaidana. Turkiarrek zorigaiztoko hitz haiek jalkitzean, ustez behintzat melodia lanturos hura aditu nuen, *Mio ben ricordati s'avvien ch'io mora*, doinu eten, banakatutan; eta gero, berriz, aspaldiko gau hartako ahots jainkotiar haren akorde luze, bakarra igaro zen nire buru gainetik.

— Neuk ere ez dizut ezkutatuko —esan zuen Ludwigek—, zeuk erantzun isil hura jaso zenuen unean bertan, kasualitatez, artelana inguratzen

duen itxituraren gainean neukala eskua jarrita; dardara nabaritu nuen eskuan eta neuri ere iruditu zitzaidan gelan barrena musika doinua labaintzen zela, kantu tankera ematerik izan ez nion arren. Ez nion kasu handirik egin zeren ondo dakizunez irudimena beti musikaz betea baitaukat, eta hori dela eta nahasketa harrigarriak izan ditut dagoeneko. Ez nintzen gutti harritu, halere, jakin nuenean zeinen lotura misterio-tsua zegoen, bateko doinu lanturos hura eta beste-ko turkiarrari galdera egitera bultzatzen zintuen D.ko gertaera dohakabe haren artean.

Ferdinandek bere lagun maitearekiko harreman psikikoaren frogatzat hartu zuen hark ere doinua aditu izana, eta gero eta gehiago murgiltzen zirenez izpiritu hurbilen arteko lotura psikikoen sekretuetan, eta beti ondorio bizi, miresgarrietara iristen zirenez, azkenean Ferdinand arindua sentitu zen turkiarraren erantzuna jaso zenez gero bularra zapaltzen zion zama astunetik. Kementsu zegoen zorigaitz haren aurka ekiteko:

— Nola galduko dut bada —esan zuen—, neure baitako erregina dena eta hain sendo

errotua egonik nire heriotza arte suntsituko ez dena?

Itxaropenez beterik ustez egiaztat zeuzkaten susmo haiekin, X. profesoreagana loan ziren azalpen argiagoen bila. Urtez oso aurrera eta modaz kanpo jantzitako gizona aurkitu zuten, itxura alai, modu desatseginean zulatzen zuten begi gris ttiki, eta aho ertzean irribarre zuriarekin.

Bere automatak ikusteko nahia adierazi ziotenean, esan zuen:

— Hara! Artelan mekanikoen zale zarete? Ala *dilettante*-ak agian? Europa guztian eta mundu ezagun guztian ere alferrik bilatuko zenuketena aurkituko duzue hemen.

Bere artelanez hitz egiterakoan profesorearen ahotsa biziki higuingarria zen, tenore garra-silari disonante batena, marrukako saltzaileen antzekoa. Zarata handiarekin giltza hartu eta artelanak zeuzkan gela ireki zuen, fintasun eta apainduraz jarria. Erdian, koska baten gainean, piano handi bat zegoen; eskubitan, benetakoa-ren tamainako gizon irudia, eskuan txirularekin; ezkerretan, emakume irudia zegoen eserita

piano antzeko musika-tresnaren aurrean, eta honen atzean bi mutiko, danbor handia eta triangeluarekin. Gibelean, jadanik ezagutzen zuten orkestrioia ikusi zuten bi lagunek, eta musikazko ordulariak paretaren jira guztian. Hartan, profesorea orkestrioia eta ordularien artetik arin igaro eta automatak ukitu zituen pasaeran. Orduan pianoan eseri eta martxarako andantea hasi zen *pianissimo* jotzen; errepikatzerakoan, xirulariak xirula ahoan ipini eta leloa haizematen hasi zen, mutiko bat danborra emeki jotzen erritmoari jarraituz, eta bestea triangelua eztiro ukitzen. Handik guttira andrea elkartu zitzairen akorde txit egokiekin, teklak zapaltzean armonikaren antzeko doinua sortuaz. Aretoko giroa bizitzen zihoan, musikazko ordulariak erritmo zehatzez elkartzen ziren bata bestearen ondoren, mutikok gero eta gogorrago astintzen zuen danborra, triangelua zorrotz entzuten zen gela guztian eta azkenean orkestrioiak turutotsei ekin zien *fortissimo*, dena dardarka jartzeraino, harik eta profesoreak eta bere makinek azken akorde batez amaitu zuten arte.

Lagunek txaloaldi batekin saritu zuten profesorea, bere irribarrezko begirada maltzur eta alai hark itxuraz irrikatzen zuen gauza. Automaten-gana hurbildu eta antzeko musika emaitza gehiago eskaintzeko zorian zegoen, baina bi lagunek, aurrez erabaki balute bezala, egiteko larri bat aitzakiatu zuten aho batez eta denbora gehiagorik geratzea ezinezkoa zutela esanaz, mekanikaria eta bere makinengandik loan ziren.

— Ez al zaizu dena oso artistikoa eta ederra iruditu? —galdetu zuen Ferdinandek.

Baina luzaroan haserreari eutsi ezinik egon balitz bezala lehertu zen Ludwig:

— Gaizkitxo sartu digu ziria profesore mada-rikatu horrek! Non dira desio genituen azalpenak? Zertan dira profesore burutsu horrekin izatekoak genituen elkarrizketa aberatsak, Sais-era joaten ziren ikasleenak bezalakoak?

— Horren orde z —esan zuen Ferdinandek—, berebiziko artelan mekanikoak ikusi ditugu. Baita musika bera aintzat hartuez gero ere! Agi danean xirularia Vaucanson-en asmakari ospetsua da, eta behatzen mugimendua arautzen duen mekanismo bera darabil emakume irudia-

rekin ere, musika tresnetan oso doinu atseginak sortuaz. Bikaina da makinan elkarketa hori!

— Horrexek berak erotu nau bada! —ekin zion Ludwigek—. Makinen musikak, eta baita profesorearen piano emanaldiak ere halako jipoia eta egurra eman dit non hezur mamitaraino sartu zaidan, eta ez dut luzaroan gaudituko.

«Gizakiak hildakoekin elkartzeko hori, gizakien gorpuzkera eta mugimendua itxuratuaz, hunkigarria eta zirraragarria da niretzat, izugarria ezetik. Gogoan darabilte posible litzatekeela barne-tresneria gorde baten bidez irudiak arintasunez eta artistikoki dantzan jartzea; baita gizakiekin batera dantzan ibili eta denetariko itzulinguruak eginaz jiratzen eta bihurrikatzen ibiltzea ere, dantzari biziak zurezko hila besotik hartuta harantza eta honantza. Jasango al zenuke halakorik minutu bakar batez, barruko ikara nabaritu gabe? Baina gainera ziztrina eta nazkagarria iruditzen zait makinan musika, eta neure ustez galterdi makina on batek askoz balio gehiago dauka musikazko ordulari dotore, perfektuenak baino.»

«Haizezko instrumentuek jo dezaten erabilitako ahoko arnas jariora bakarrik ote da, ala, aldiz, sokazko instrumentuei eragiten dieten behatz zalu, malguak ote dira gu halako xarmaz liluratzen gaituztenak eta gudan lur honetan berdinez gabeko sentipen ezezagun, adierazezinak pizten dituztenak, hau da, lurreko ezerekin hartuemanik ez duten sentipenak, izpirituen erresuma urrunaren eta gure izaera gorenaren irudipena sortuaz?»

«Ez ote da ordea anima bera izango organu fisiko hori inoren bihotz barreneko hotsa bizitzara ekartzeko darabilena, denok entzuteko moduan, eta horrela guztion baitan oroitzapen berdinez iratzartzen dituenak, ondoren izpirituari oihartzun armonikoan erresuma miresgarri hori irekitzeko eta bertatik doinuak suzko izpiak bairan jaurtitzeko?»

«Haizebide, malguki, haga, zilindro eta mekanika saileko beste aparailuen bidez musika sortu nahi izatea zentzugabeko eginahala da, animaren barne indarrak bakarrik eman baitiezaioke ezeri bizitza, baita mugimendu ñimiñoen ere. Musikagileari lepora dakioken okerre-

na sentimendurik gabe jotzea da, horrela musikaren berezko izaera hondatzen baitu, edo, areago, musika horren bidez musika bera suntsitzen; hala eta guztiz ere, jotzailerik geldo eta elkorrena ere askoz hobea izango da makinarik perfektuena baino, ezinezkoa baita hari bere emanaldian barrena unetxo bakar batez ere zirrarak ez sortzea, eta hori, noski, ez zaio makinari inoiz gertatuko.»

«Mekanikoen ahaleginak giza organuak gero eta gehiago musika doinuen sorkuntzari egokitzeko edo makinaren bidez ordezkatzeko, ene ustez gerra aitortzea da izpirituaren oinarriari; azken horien botereak gora egiten du distiraz, bere aurka diharduten indarrak ugariago diren heinean. Hori horrela, mekanikaren ikuspegi horretatik perfektuena irizten zaion makina niretzat txatxukeria bat da, eta aitzitik organilo xume bat, alegia izan daitekeen gauzarik mekanikoena, askoz nahiago dut Vaucanson-en xirularia eta armonika jotzailea baino.»

— Zeharo bat nator zurekin —esan zuen Ferdinandek—. Hitzez adierazi duzu argiro aspaldian barreanean eduki eta batez ere gaur profesio-

rearen etxean bizi-bizian nabaritu dudana. Musi-
kari zu bezain lotua eta atxikia ez nagoen arren,
eta beraz nolana hiko akatsei horren azkar antze-
maten ez diedan arren, halere betidanik higuin-
garria iruditu zait makinen musika hotz, hil hori.
Oraindik gogoan daukat mutil kozkorretan aita-
ren etxeko harpa-ordulari handi batek izugarriz-
ko egoneza sortzen zidala, bere ordueroko joal-
diekin. Tamalgarria da hain mekaniko trebeek
beren jakintza guztia kalterako huskeriatan era-
biltzea, eta ez musika instrumentuen hobekun-
tzan.

— Egia da hori —gaineratu zuen Ludwigek—.
Teklazko instrumentuetan bereziki zeregin han-
dia dago, arlo zabala irekitzen baitiote mekaniko
trebeari; harritzekoa da, adibidez, zenbateraino
dagoen aurreratua pianoaren egitura, horrek
doinua eta erabilkeran dauzkan ondorio ugarie-
kin.

«Izan ere, ez al da musika saileko mekaniko-
rik onena naturaren berezko hotsak zelatan adi-
tzen dituen, denetariko gorputzen barruan bizi
diren soinuak aztertzen dituen, gerora musika
misteriotsu hori tresnaren bati txertatzen ahale-

gintzeko, gizakion nahia beteaz ukitu ahala hotsa atera dezan? Metale eta kristalezko zilindro, kristalezko hari, kristal nahiz marmolezko barretatik doinuak ateratzeko ahalegin guztiak, edo sokak ohi ez bezala dardarkatuz jotzea txalogarria iruditzen zait; era berean, naturan barrena gordeta dauden soinu sekretuak ezagutzeko urratsak, akatsez beteak egon arren, edo handinahiak eta dirugoseak bultzata, perfekzio-rantzako asmakizun berritzat laudatu eta erakutsiko dira. Honexegatik azaldu dira azken aldera hainbeste instrumentu berri, izen bitxi edo handiosen pean batzuk, abiadura berean desagertu eta ahanzturan utziak.»

— Musikaren mekanika bikain hori —esan zuen Ferdinandekikuskarri interesgarria da, baina ezin diet igarri ahalegin horien balio edo jomugari.

— Funtsean —gaineratu zuen Ludwigek—, doinurik perfektuena bilatzea. Baina musika doinuari orduan eta perfektuagoa derizkiot zenbat eta hurbilago egon naturaren hots ezkutuetatik, hots oraindik erabat desagertu gabeak lurretik.

— Baliteke —esan zuen Ferdinandek—, sekretu horietan ni zu bezain sartua ez egotea, baina aitortu beharrean nago ez dizudala guztiz ulertzen.

— Utzidazu behinik behin argitzen —jarraitu zuen Ludwigek— zein den nik horretaz dudan ustea.

«Gizateriaren antzinatean, eta idazle jakintsu baten hitzez baliatuz (Schubert-enak, *Natur zien-tzien alderdi ilunei buruzko iritziak*), bizitza naturarekiko armonia dohatsuan zegoenean, iragarpen eta poesiarako sen jainkotiarrek beteta; ez gizakien izpirituak natura, baizik eta naturak gizakien izpiritua bereganaturik zeukanean; ama horrek haur miresgarriari bere altzotik jaten ematen Zion garaian, orduan, zorionezko haurgintza minetan bezala, musika dohatsuaz besarkatzen zituen gizakiak, eta hots miragarritz eza-gutarazten zizkion bere etengabeko jardunaren sekretuak. Antzinate horren osin ezkututik datorren oihartzunetako bat esferetako musikaren leienda zoragarria da; gazte denboran *Scipioren Ametsa*-n lehen aldiz bere berri irakurri nuenean gogoeta saminez bete ninduen, eta hala, ilargi

gau isiletan erne egoten nintzen maiz, haizearen firfir artean doinu miresgarri hura entzungo ote zen. Halere, arestian esan dudanez, naturaren hots horiek ez dira erabat desagertu: horien artean daude Ceylango Airemusika edo Deabru-boza, lehengo idazle berak aipatuak eta giza gogoan hainbeste hunkitzen dutenak non lekukorik lasaienak ere ezin baitio eutsi barruko izu sakon eta erruki erdiragarriari, giza lanturuen hain antzeko doinuen aurrean.»

«Berez, neuk ere behin naturaren gertakari antzekoa bizitu nuen Prusia Ekialdeko Kurisches Haff-etik hurbil. Udazken mina zen eta aspalditxotik nengoen bertako etxalde batean. Gau isilean, haize leunarekin, argi aditu nituen doinu luze, geldi batzuk, behin organu hots sakonaren berdinak, beste behin ezkilots ito, dardarkorren berdinak. Sarritan, zehatz bereizi nitzakeen fa lodia eta do bosgarrenaren zartada, eta mi bemol ttiki hirugarrena ere sarritan aditu nuen; zazpigarrenen akorde zorrotzak, bada, aienerik sakonenaren doinuz, nire bularra tristura sarkorrez bete zuen, eta baita izuz ere.»

«Naturako hots aztarnagabeen sorrera, sendotze eta isilaldi horretan, badago zerbait gure gogoan nahitaez atxikitzen duena, eta beren isladan den instrumentuak ere beste hainbeste egingo du gurekin. Horregatik iruditzen zait niri, doinuari dagokionez, eta gure animan duen eraginarekin arabera, armonika dela perfekzioari gehien hurbiltzen zaiona; eta ederki dago ikustea naturako hotsak hain poliki imitatu eta geure barrena hain era miresgarrian hunkitzen duen instrumentu horrek arinkeria eta itxura hutsari inolako biderik ez ematea, baizik eta berezko soiltasun dohatsu horri eustea.»

«Honen inguruan, asmatu berria den armonikordio izenekoak ere emaitza oparoak agintzen ditu, ezkilen ordezkoko mekanika ezkutu horrekin, teklak zapaldu eta zilindroa itzulikatzean sokak dardarka jarriaz. Doinuaren sorrera, sendotze eta isilaldia, jotzaileak armonikarekin baino aiseago menperatzen ditu ia, baina beste mundukoa dirudien armonikaren maila hori armonikordioak oraindik ez du iritsi.»

— Entzuna dut instrumentu hori —esan zuen Ferdinandek—, eta aitortu beharra daukat bere

doinua barreneraino heldu zitzaidala, nahiz eta ene ustez artistak erdipurdi jo zuen. Gainerakoa, denean ulertzen dizut, nahiz eta zuk aipatutako natur hotsen eta instrumentu bidez sortzen dugun musikaren arteko harreman estua oraindik argi ikusten ez dudan.

— Geure baitan bizi den musika —gaineratu zuen Ludwigek—, izan al daiteke beste ezer, non eta ez den naturan gordetako sekretu sakonen berdina, zentzurik altuenaz bakarrik ikertu eta instrumentuen bidez bakarrik entzun daitekeena, azti indartsuak bezala menperatu ondoren? Baina izpirituaren eragina psikikoa besterik ez denean, ametsetan alegia, xarma hori desegin egiten da, eta instrumentu ezagunen bidez aditzen ditugu naturako hots horiek era miresgarrian airean jaiotzen, gugana hegaldatzen, sendotzen eta oihartzun ematen.

— Eoloren harpa datorkit gogora —eten zion Ferdinandek lagunari—. Zer derizkiozu asmakizun burutsu horri?

— Naturako hotsak jalkitzeko ahalegin horiek —gaineratu zuen Ludwigek—, txit bikain eta goragarriak dira; baina, ene iritziz, orain arte ez

dizkiote jostailu kaxkarrak baizik aurkeztu naturari, eta honek gehienetan txikitu egin ditu, arrazoizko haserrez bezala. Aireari igarotzen uzte hutsarekin ume jostailu bihurtu diren Eoloren harpa guztiak baino burutapen hobea da eguraldizko arpa, behin bere berri irakurri nuenez: zabal samarrean lasatutako hari lodiak dardarka ipintzen ditu haizeak, hots indartsuarekin joaz.

«Hementxe daukate fisiko eta mekaniko zuhur eta azkarrek arlo osoa lantzeko, eta nik uste, natur zientziek daramaten habaila ikusita, are sakonagotik ikertuko direla naturaren sekretu dohatsuak; eta era berean, orain iragarri bakarrik egiten ditugun hainbat gauza ikusi eta entzuteko moduan argitaratuko direla.»

Bat-batean soinu bitxi baten zurrumurrua hegaldatu zen airean barrena, etengabe *crescendo*, armonika zirudiena. Biak ala biak ere beldur bizian jarri zituen, lurrari josita bezala, zutik; orduan, doinu hura emakume ahots baten melodia lanturosa bilakatu zen. Ferdinandek lagunari eskutik heldu eta dardarizo batean estutu zuen bularraren kontra, baina isilik eta ikaraz esan

zuen Ludwigek: *Mio ben ricordati s'avvien ch'io mora.*

Hiritik kanpo zeuden, hesi eta arbola altuz inguratutako lorategi baten sarrera aurrean; hantxe bertan, belazean eserita jolasten arituta-ko neskatila polit bat bizkor zutitu zen, esanez:

— Zeinen ondo kantatzen duen ahizpa maitteak. Lorea eramango diot, krabelin koloretsuak ikusita askoz hobeto eta gehiago kantatzen baitu.

Hartara, lore sorta handia eskutan, jauzika sartu zen lorategira eta bertako atea zabalik utzi zuen, lagunek barrura begiratzeko moduan. Harridura ezezik, hura izan zen beldurra nabaritu zutena X. profesorea ikustean lorategi erdian, lizar handi baten gerizpean. Lagunek bere etxean aurkitu zuten irribarre ironiko, beldurgarriaren orde, seriosotasun malenkoniatsu sakona ageri zitzaion aurpegian, eta zerurantz zuzendutako begirada hark bazirudien transfigurazio zoriontsuan so egiten ziola hodei atzean gordetako munduaz bestaldeari, eta soinu zoragarri haiek zireia hango berriemaile, haizeboladak balira bezala airean hedatzen. Pauso geldi eta

neurtuak eman zituen erdiko bidexkan gora eta behera, baina bera mugitu ahala piztu eta bizitzen zen inguruko guztia. Kristalezko soinuek zuhaiska eta arbola ilunen artetik distiratzen zuten, eta denek bat hartuta, suzko galdak bezala kontzertu zoragarrian, ibaika sartzen ziren noten gogo barruraino, bertan gutizia zerutiar gorenak piztuz.

Ilunabarra abailtzearekin, profesorea hesi arrear desagertu eta doinuak *pianissimo* ahitu ziren. Azkenean lagunak isiltasun sakonean itzuli ziren hirira. Baina Ludwig aldentzera zihoa-nean lagunagandik, Ferdinandek bularraren kontra estutu eta esan zion:

— Izan zaitez leiala nirekin! Izan zaitez leiala! Indar arrotza nabari dut neure barrura sarturik, bertako soka gordeei atxiki eta nahi bezala eraginaz, ni bertan suntsitu beharrean! Profesoreak bere etxean azaldu digun ironia gorrotagarri hura ez al zen azken batean guganako etsaitasunaren seinale, eta ez al gaitu automatak erakutsita baztertu nahi izan, hartara zentzuen munduan nirekiko edozein harreman deuseztatzeko?

— Baliteke arrazoi osoa izatea —erantzun zuen Ludwigek—. Neure susmoa ere zera da: nola-hala, oraingoz bederen misterio argitu gabea guretzat, profesorea txertatu egin da zure bizitzan, edo, hobeto esanda, zuk emakume ezezagun horrekin daukazu lotura psikiko, misteriosuan. Agian, bere gogoz kontra eta gogor ekiten dion etsaitasun baten bitartez sendotu egin du zuen harreman hori, borrokarekin indartuz baitoa; pentsatzekoa da beraz, zu beragana hurbiltzea gorrotagarria gertatzen zaiola, zeren eta zure izpiritua bere nahiaren kontra, edo areago, bere asmo arrunten baten aurka jarduteak harreman psikiko horren ondarrak guztiak harrotzen baititu, eta baita abiadura bizi berrian jarri ere.

Bi lagunek bitarteko guztiez baliatzea erabaki zuten X. profesoreagana hurbildu eta, hala, Ferdinand hainbeste hunkitzen zuen misterio hura argituko ote. Biharamunean profesorearen etxerako bigarren bisitaldiarekin kontua bideratuko zutelakoan, ez non eta ez han Ferdinandek eskutitza jaso zuen aitagandik, atzerapen ttikiena ere gabe B.ra joan zedin; handik ordu guttita-

ra irten zen posta-zaldiz, lagunari ziurtatu ondoren ezerk ez ziola galaraziko berandu jota hamabost egun barru atzera itzultzea.

Ludwigi txit harrigarria iruditu zitzaion X. profesorea eta turkiar hiztunaren arteko zerikusiaz hitz egin zien agure harengandik jakitea, Ferdinand abiatu eta laster, profesorearen artelan mekanikoak bigarren mailako denborapasa zirela, eta bere aztergairik sakonena, bere eginahalen benetako helburu tinkoa natur zientziak zirela, oro har. Gizon hark profesorearen musika arloko asmakariak goretsi zituen batik bat, oraindik inori erakutsi gabe eduki arren. Agi danean aldiriko lorategi eder bat zuen bere laborategi misteriozua, eta bertatik pasaeran zirenek sarritan entzuten omen zituzten soinu eta melodia bitxiak, lorategi hura amandre eta izpirituen bizilekua bailitzan.

Hamabost egun igaro baina Ferdinand ez zen bueltatu. Azkenean, bi hilabete eta gero, Ludwigek eskutitza jaso zuen B.tik, honela zioena:

«Harrituko zara ondorengo hau irakurtzen duzunean, nahiz agian susmatuko zenuen profesorearekin berriro elkartu ondoren, baldinbaitere elkartuko al zinen eta.

«P. herrixkan zaldiak aldatzen ari diren bitartean, ezertan pentsatu gabe bazterrei begira nago. Halako batean hor non azaltzen den zaldikotxe bat eta ondoko eliza irekiaren aurrean gelditzen; soiltasunez jantzitako emakume bat jaisten da, gizon gazte egoki bat atzetik duela, xingolekin apaindutako ehiztari uniforme errusiarrez; bi gizon ere jaisten dira bigarren auto batetik. Postazaina jartzen da eta: «Hori da Artzain jaunak gaur ezkonduko duen bikote kanpotarra». Banoa mekanikoki eliza aldera eta barrura sartzen naiz, apezak bedeinkazioaz ospakizuna amaitzen duen unean bertan. Begiratu, eta kantaria dela ikusten dut. Berak ni ikustean zurbildu eta zorabiatu egiten da, eta atzean daukan gizonak besotan hartzen du. Nor izango eta X. profesorea.

«Handik aurrera gertatutakoaz ez dakit fisik, eta hain gutti nola heldu naitzen hona: X. profesoreak ongi berrituko dizu. Inoiz nabaritu gabeko lasaitasuna eta epeltasuna dauzkat animan. Turkiararren zorigaiztoko orakulua ez zen gezur madarikatua besterik, tramankulu traketzen bidez itsu-itsuan asmatua. Galdu ote dut nire maitea? Ez ote da beti neurea izango bihotzaren barne gartsuan? Ez duzu luzaroan nire aditzerarik izango. K.ra noa, eta agian handik ipar urruneko P.ra.

Hitz horietatik Ludwigek argi antze-man zion lagunaren gogo nahastuari, eta are misteriotsuagoa iruditu zitzaion dena, jakindakoan X. profesorea ez zela hiritik irten. «Ez ote da izango —pentsatu zuen—, zenbait jenderen arteko lotura psikiko miresgarrien tirabira moren bizitzan sartzen dela, eta norberak erakartzan dituela bere ingurura kanpoko gertaerak, zentzu engainatuari sinetsaraziz jatorria ez dagoela norberagan? Agian nire laguna noizbait jabetuko da orain

neure barreanean daramadan ideia pozgarri honetaz, eta modu horretan kontsolatuko da! Bete da turkiarraren orakulu zitala, eta honela agian baztertuko zen nire laguna mehatxatzen zuen ukaldi latza».»

— Eta? —galdetu zuen Ottmarek, Theodor bat-batean isiltzean—. Hori al da dena? Non dago argibidea? Zertan dira bai Ferdinand, bai X. profesorea, bai kantari xarmanta, eta bai ofizial errusiarra?

— Ez al dut aldeaz aurretik esan —gaineratu zuen Theodorek—, zati bat bakarrik aurkeztu nahi nuela hemen? Ene ustez, gainera, turkiar hiztunari buruzko istorio gogoangarria hasieratik bertatik ' eskaini zen zatikaturik. Izan ere, irakurle edo entzulearen fantasiak haize astindu gogorpare bat bakarrik jaso behar du, eta handik aurrera bere kabuz nabigatu. Baina, Ottmar maittea, Ferdinanden patuaz guztiz lasai egon nahi baduzu, oroit zaitez orain dela gutti irakurri dudan operari buruzko elkarrizketaz. Ferdinand bera da, gorputz eta anima osasuntsuz, borrokarako gogo alaiz zelaira irteten dena; honako

honetan bizitzaren lehenagoko denbora batean ageri arren, dena ongi joan bide zaio logaraiko maitemindu honi.

— Gogoratu besterik ez dago —hartu zuen Ottmarek hitza—, lehen ere gure Theodorek oso begiko zuela hainbat istorio miresgarri, zoroekin inoren fantasia ahalik eta gehiena sustatzea, gero bat-batean eteteko. Berak guttiena uste duenean mistifikazio neurrigabea leporatuko diote, okerragorik ez bada. Garai batean ere bere ibilera eta jardun guztiek zatikatuak ematen zuten. Bigarren aldeak bakarrik irakurtzen zituen, lehena edo azkenaz batere axolatu gabe; antzerkian bigarren eta hirugarren aktoa bakarrik ikusten zituen, eta abar.

— Oraindik ere badaukat joera hori —esan zuen Theodorek—. Desatsegina gorik ez dago, ipuin edo eleberrian fantasiaren mundua harrotu ondoren, bertako zorua erratzaz hainbeste pasatzearen poderioz azkenean ondar ale edo hauts ipitz bat ere ez geratzea baino; eta jakinmin guztiak aseta etxeratzean inongo irrikarik ez antzematea gortinaren atzean berriro kirika egiteko. Ipuin aberats baten zenbait zati anima barrurari-

no sartzeak, aldiz, nire fantasiari hegalak eman eta luzaz dirauen atsegina eragiten dit. Nor, ez zaio hala gertatu Goetheren intxaur koloreko neskatilarekin? Batez ere Goetheren amandre ipuin haren zatiak, bidaiariak kutxatilan sartuta daramazkien emakume ttikiari buruzkoak, zeharo liluratu ninduen.

— Aski da —eten zuen Lothark laguna—, aski da. Ez dugu besterik jakingo turkiar hiztunaren inguruan, berez istorioa nola-hala bukatua dago eta.

JESUITEN ELIZA

(Die Jesuiterkirche in G.)

Leher eginik lepoa hautsi beharreko bidaia baten ondoren, estu-estu eginda postakotxe ziztrin batean, sitsek ere abandonatu egin zutena hala nola arratoiek Prosperoren itsasuntzia, G.ra heldu nintzen azkenean, merkatuko ostatu aurrera. Zorigaitzik handienak gertatu zitzaizkion nire ibilgailuari, azken estazioko postazuzendariarenean puskaturik geratu zen arte. Hainbat ordu eta gero azkenean arrastaka eramane zuten haraino lau zaldi erkitu eta higatuk tramankulu zirtzilatu hura, nire morroia eta zenbait laborarik lagunduta. Jakitunak etorri, buruari eragin eta esan zuten zeharo zegoela konpondu beharra, bizpahiru eguneko kontua.

Atsegina zirudien herriak, inguruak ere polita, baina halere beldurrez nengoen mehatxatzen ninduen geldialdi harekin. Irakurle jator hori, inoiz beharturik egon bazara hiru egun igarotzera herrixka batean, non inortxo ere ezagutzen ez eta denen aurrean arrotz zaren, eta oinaze sako-

nen batek ez badizu behinik behin hondatu lagun hurkoarekin harremanak izateko joera, jabetuko zara nire orduko ondoezaz.

Jakina da bizitzaren izpiritua gure inguru guztian dagoela zabaldurik; baina herri ttikiak beren buruentzat bakarrik jotzen duten orkestrak bezala dira: beren piezak bakarrik entzuten dituzte garbi eta zuzen, doinu arrotzek hozkia eman eta segituan isilarazten dituztelarik.

Aldarte txarrean nenbilen nire gelan gora eta behera; hartan, bat-batean bururatu zitzaidan nire herrikide batek, sarritan aipatzen zuenez, tratu handia eduki zuela gizon ikasi eta azkar batekin aspaldi, G.n bertan urte pare bat egin zituen garaian. Izena ere gogoan neukan: Aloysius Walther, jesuiten kolegioko irakasle. Bertara joatea erabaki nuen, nire lagunarekiko ezagutza hartaz baliazera. Kolegioan esan zidaten Walther profesorea klasean zegoela baina aurki amaituko zuela, eta aukeran eman zidaten geroago itzuli edo kanpoko salan itxoitea. Nahiago izan nuen azkenekoa.

Jesuiten komentu, kolegio eta eliza guztiak estilo italiarrean daude eraikiak, antzinateko

forma eta egituretan oinarriturik, edertasun eta ospari aurea emanaz eta ez jaiera sakratu edo handitasun erlijiosari. Hala, han ere arkitektura aberatsez zeuden apaindurik sala altu, egurastu eta argiak, eta habe jonikoen artean saildu irudiak zeuden han hemenka zintzilik, harritzeko moduan nabarmenduak, leihoarteetako jeinuen dantza edo fruitu eta kutixi irudien alboan.

Profesorea sartu zenean nire laguna gogorazi nion, eta bere abegikortasuna eskaini zidan nire egonaldi behartu hartan. Lagunak deskribatu bezala aurkitu nuen profesorea: hiztuna eta munduko gizona; hau da, apez gorenak bezalaxe sarritan *breviarium*-etik urrundurik zientzian jantzi eta bizitzari begiratu ziona, bertako berri zehatza jakiteko. Bere gela ere dotorezia modernoz paraturik ikusi nuenean berriro etorri zitzaizkidan gogora salan izandako burutapenak, eta profesoreari jakinarazi nizkion.

— Egia da —erantzun zuen—. Baztertu egin dugu gure eraikuntzetatik garai bateko jauntxo zanpatzaileen garratasun eta maiestate berezi hura, eraikuntza gotikoen bidez bularra tinkatu eta berebiziko izua sortzen ziguna. Txalogarria

da, beraz, gure lanek antzinako bizitasun hori erakustea.

— Hala eta guztiz ere —erantzun nion—, erai-kuntza gotikoen zerura iristeko maiestate eta handitasun saindu hori ez al du benetako kristautasunak sortzen, modu horretan aurre eginaz antzinako izpiritu zentzukorrei, munduaren barrutian geratutakoei?

Profesoreak barre egin zuen.

— Bai zera —mintzatu zen—. Erresuma goren hori mundu honetan bertan ezagutu behar da, eta ezagutza hori sinbolo alaien bidez esna daiteke, zeren horiek erresuma hartatik munduko bizitzara jaitsitako izpiritua aurkezten baitute. Beste aldean dago gure bizilekua; baina hemen gauden bitartean, gure erresuma mundu honetakoa ere bada.

Hori da, pentsatu nuen: zuen ekintza guztietan erakusten duzue zuen erresuma mundu honetakoa dela, eta mundu honetakoa soilik. Ez nion noski pentsatzen nuena Aloysius Walther profesoreari esan, eta honela jarraitu zuen:

— Hemengo gure egoitzaren apaindura diotzun hori, itxura hutseko edertasuna da. Hemen,

marmola garestiegia izan eta margogintzako maisu handiek lan egin nahi izan ez dutenez, imitazioen bidez moldatu behar izan dugu joera berrietara. Aski egiten dugu estukuzko estalkiak erabiltzearekin, eta gehienetan margolaria bera da marmol mota desberdinak lortzen dituen; hori bera gertatzen da gure elizan, berriro ari baitira dekoratzen gure babesleen bihotzonari esker.

Eliza ikusi nahiko nukeela adierazi nion; profesoreak behera eraman ninduen, eta habe korintiarrekiko elizbarnean sartu nintzenean, zeharo hunkitu ninduen neurri lirainen zirrara atseginak. Aldare nagusiaren ezkerretan aldarmio altua zegoen altxata, eta gizon bat zegoen gainean paretak *giallo antiko*-z berriro margotzen.

— Zer moduz ari zara, Berthold? —hots egin zion profesoreak goikoari.

Margolariak gugana burua itzuli baina berehala jarraitu zuen lanean, ahots lodi eta ia entzuzenezinez esaka:

— Lan nekeza! Tresna baldarrak... erregela erabiltzerik ez... abereak... tximinoak... giza aur-

pegiak... giza aurpegiak! Ai, ene inozo errukarria!

Soilik barreneko oinaze minak sor zezakeen azkena esateko erabili zuen ahotsa. Modurik bitxienean sentitu nintzen asaldaturik; hitz haiek eta bere aurpegiak, hasieran profesoreari luzatu zion begiradak artista dohakabearen bizitza urratua ekarri zidan begi aurrera. Gizonak ez zituen berrogei urte baino gehiago izango; margolari arropa zikin, zarpail hark gorputza itxuragabetzen zion arren, bazuen prestutasun bakan bat ere. Barreneko kezkek aurpegia koloregabetzen zion, baina ez zeukan itzaltzerik bere begi beltzetako distiraren sua.

Margolariaren berri galdetu nion profesoreari.

— Atzerriko artista da —gaineratu zuen—, eliza konpontzea erabaki zenean hemen gertatu zena. Pozez ekin Zion guk eskainitako lanari, eta bere etorrera zorte handia izan zen guretzat: izan ere, ez hemen eta ezta inguru guztian ere ez genukeen margolari iaioagorik aurkituko, hemen margotu behar den guztirako. Gainerakotan izan litekeen gizonik gisakoena da, denok

maite dugu, eta horregatik izan zen ongietorria gure kolegiara. Bere lanagatik jasotzen duen soldata mordoskaz gain mantenua ematen diogu; gastu ttikia da guretzat halere, oso jale urria baita, bere gorputz gaixobera horri dagokion bezala.

— Halere —eten nion—, petrala ematen du gaur, urduri.

— Horrek baditu bere arrazoi jakinak. Goazen saihets aldareetako koadro eder batzuk ikustera, duela gutti kasualitate zoriontsuak eskuratu dizkigunak. Original bakarra dago bertan, Domenichino bat; eskola italiarreko maisu ezezagunek dira besteak, baina aurreiritzirik ez baduzu behintzat izenik ospetsuena ere eduki lezaketela aitortu beharko duzu.

Profesorearen esana berretsi nuen. Bitxia zen original bakar hura izatea alerik kaskarrenetako, kaskarrena ez bazen; eta haren aldean zenbait koadro izengaberen edertasuna zoragarria iruditu zitzaidan. Aldare bateko koadroaren gainean estalkia zegoen ipinia. Arrazoiak galdetu nuen.

— Irudi hau da daukagun ederrena —esan zuen profesoreak—, gaur egungo artista gazte baten lana; bere azken lana izango da inondik ere, okertu egin baita bere jarduera guztia. Azken egunotan, eta zenbait arrazoi tarteko, gorde egin behar izan dugu koadroa baina agian bihar edo etzi erakutsi ahal izango dizut.

Galdetzen segi nahi nuen baina profesorea presaka abiatu zen galerian barrena, argi aditzera emanaz niri beste erantzunik emateko gogorik eza.

Kolegiora itzuli eta pozik onartu nuen profesorearen gonbidapena, arratsaldean berarekin aldameneko leku atsegin bat bisitatzera joateko. Berandu etxeratu ginen, ekaitza lehertu zen eta nire bizitegira iritsi orduko euria hasi zuen goian-behean. Gauerdi aldera zerua argitu eta urruti entzuten zen trumoa. Leiho irekitik aire epel, urrinez puztuak haizematen zuen nire gela sargorira; nekaturik egonarren, ez nion eusterik izan beste ibilalditxo emateko tentazioari. Bi ordu zurrungan zeramatzan atezain zakarra esnatzea lortu, eta gauerdian paseatzera irtetea

inongo erokeria ez zela adierazi ondoren laster nintzen kalean.

Jesuiten elizatik igarotzerakoan leiho bateko argi itsugarriaren distirari ohartu nintzaion. Saihetseko ate ttikia bultzata bakarrik zegoen; sartu eta zuzia ikusi nuen hutsune altu baten aurrean sutan. Gehiago hurbiltzean konturatu nintzen hutsune aurrean lokarrizko sarea zegoe-la luzetarako, eta atzean errainu ilun bat zebile-la eskaileran gora eta behera, itxuraz hutsune barrena margotzen. Berthold zen, sarearen itzala kolore beltzez zehatz markatzen. Eskaileraren ondoan, asto altuaren gainean, aldare baten marrazkia zegoen.

Harritu egin ninduen burutapen argi hark. Irakurle agurgarri hori, zertxobait ezagutzen baduzu margogintzaren arte noblea, beste azalpenik gabe jakingo duzu zertarako zen Berthold hutsunean marrazten ari zen sarearen itzala. Bertholdek barrutik kanporako aldarea margotu behar zuen hutsunean. Marrazki ttikia neurri handira ongi aldatu ahal izateko, eta ohizko bideari jarraituz, sareaz estali zuen bai zirriborroa eta baita margoa burutu beharreko gaina ere. Baina

margotu beharreko hutsunearen azala ez zen laua, baizik eta borobil erdia. Modu xume, bikain hartan lortzen zuen hutsunean sare lerro okerrek isladatzen zituzten laukiak zirriborro gainean bateratzea, lerro zuzen eta proportzio arkitektonikoekin.

Kontu handia hartu nuen zuziaren aurretik igaro eta nire itzalak salatu ez nindezan; baina nahikoa hurbil geratu nintzen saihetsean, margolaria ederki ikusteko eran. Goizean ez bezalako iruditu zitzaidan; agian zuziaren distiragatik izango zen, baina aurpegia gorritua zeukan eta begiak irirka, barne lasaitasunaz; lerroak marrazteaz bukatu zuenean eskuak gerrian jarri eta, lanari begira, doinu alai bat hasi zen txistuka. Gero itzuli eta sarea baztertu zuen. Orduan ikusi ninduen.

— Aizak, aizak! —hots egin zuen—. Hi al haiz, Christian?

Agerian jarri eta elizara zerk erakarri ninduen argitu nion; eta itzalentzako sarearen burutapen azkar hura goraipatu ondoren, margogintzaren arte nobleaz jakitun eta praktikatzaile gisara

aurkeztu nintzen. Harekin jarraitu beharrean, Bertholdek esan zuen:

— Christian alferrontzi hutsa da; nire ondoan igarotzekoa zuen gau osoa, baina inondik ere lo egongo da dagoeneko. Aurrera jarraitu behar nuke lanean, agian bihar izugarri gaizki margo-tuko baita hutsunean, baina orain ezin dut baka-rik ezer egin.

Nire laguntza eskaini nion. Ozenki barre egin eta b sorbaldetatik helduz hots egin zidan:

— Zirikaldi ederra! Zer esango ote du Christianek bihar jabetzen denean artaburua dela eta ez dudala bere beharrik eduki? Zatoz bada, adis-kide eta lagun ezezaguna, lagunidazu lehenik aldamiaoa altxatzen.

Kandela batzuk piztu eta elizan barrena joan ginen lasterka, astoak eta oholak arrastan eramanez. Laster zegoen eraikirik aldamio altua hutsune aurrean.

— Ekiogun orain lanari! —hots egin zuen Bertholdek, gorako bidean.

Harritu egin ninduen marrazkia neurri handi-tara aldatzeko Bertholden arintasunak; bizkor luzatzen zituen lerroak, inoiz hutsik egin gabe,

artez eta txukun. Aurrez halakoetara ohitua nengoenez ganoraz lagundu nion, batzuetan bere gainaldean eta bestetan azpialdean, adierazitako tokietan erregela luzeak kokatu eta eusten, ikatz ziriak zorroztu eta ematen, e.a.

— Laguntzaile aparta zara —hots egin zuen pozarren.

— Eta zu berriz —gaineratu nuen— izan dai-tekeen eraikuntza margolaririk trebeenetakoa. Zure eskumutur bizkor horrekin ez al zara inoiz bestelako margoketan aritu? Atrebentzia ez bada, noski.

— Zer esan nahi duzu? —mintzatu zen Berthold.

— Alegia —esan nuen— eliz hormetan marmolezko habeak margotzeko baino zerbait hoberrako zarela zu jaioa. Eraikuntzen margoketa bigarren mailako zerbait da; historia edo paisaien margolaritza goragokoak dira, zalantzarik gabe. Horrelakoetan izpiritua eta irudimena airean barrena hegaldatzen ahal dira, lerro geometrikoen barruti estuetara mugatu gabe. Zure margogintzak daukan fantasia bakarra ere, perspektiba liluratzailer hori, kalkulu zehatzen arabere-

rakoa da eta emaitza ez da ideia bikain baten ondorioa, baizik eta espekulazio matematiko hutsa.

Nik hura nioen bitartean berak pintzela utzi eta burua esku gainean ipini zuen.

— Lagun ezezagun hori —hasi zen ahots lodi eta itzaltsuz—, bekatu handia da artearen alor-rak beren garrantziagatik sailkatu nahi izatea, errege harro baten mirabeak balira bezala; eta bekatu are latzagoa da ausartak bakarrik hartzea aintzat, hau da, esklabu kate hotsari entzungor eta lurraren uztarriari muzin egin diotenak, argia eta bizitzaren gainetik sortu eta agindu nahi dutenak, libre eta Jainkoaren pare direlakoan. Ezagutzen al duzu Prometeoren fabula, kreatzaile bihurtu nahian zeruari sua lapurtu zion hura, ahalik eta bere irudi hilei bizia emateko? Lortu zuen bere xedea: irudiak aurre-rantzean biziak ziren eta beren begiei zeruko sua zerien, barreneko galda hartatik. Baina bekatari hura kondenatua izan zen betiko oinaze latz eta gupidagabera, Jainkoena bakarrik zen ondasun hartaz jabetzeagatik. Jainkozkoa igarri eta munduaz bestaldearen irrika zeukan bihotz hura

putre mendekatiak jan zuen, lotsagabe haren erraiez elikatuz. Zerura iritsi nahi izan zuen hark betirako jasaten du lurreko oinazea.

Margolaria bere artean gogoetan geratu zen.

— Baina Berthold —ekin mon nik—, zer harreman dauka horrek zure artearekin? Ez dut uste inor bekatari lotsagabetzat har daitekeenik, zer eta gizakien irudiak egiteagatik, nahiz margoz edo nahiz eskulturaz.

Ironia mingotsez bezala lehertu zen Berthold barrezka:

— Ja ja! Umekeriak ez dira bekatu! Izan ere, umekeria da pintzela margoen ontzian lasai sartu eta oihala igurtzitzea, gizakiak itxuratzeko grinarekin. Baina hori, beste tragedia hartan ageri den bezala, naturako ezjakinen bat gizakiak egiten saiatu eta gaizki irtetea bezala da. Bekatariak ez baizik eta txoro errugabeak dira horiek! Baina, jauna! Tizianoren haragi grina ez bezala alderdi goren hori bilatzen duena, alegia jainkotasunaren alderdi gorena, Prometeoren txinparta gizakiagan, ene! amildegi ertzean dago, erori ez erori, osin beltza oinpean zabaldurik. Handik zehar nabigatzen da belauntzi ausar-

ta, infernuaren engainuz behera begiratu eta bertan ikusten duen arte izarretan ikusi nahi zuena.

Margolariak hasperen sakona egin, eskua kopetatik igaro eta gora begiratu zuen.

— Baina zertan ari naiz zurekin hizketan, adiskide, margotzeari utzi eta zorakeriak esaten? Begira, honi esaten diot nik zuzen eta artez marraztea. Erregela baino zoragarriagorik! Lerro guztiak jomuga jakinerantz, erabakitako asmo argi baterantz. Zehatz neur daitekeena bakarrik da benetan gizatarra; hortik aurrerakoa, parte txarrekoa. Gizakiaz harantzagokoak Jainko ala Deabru izan behar du; ez al lituzke gizakiaren matematikak biak gainditu behar? Ezin al liteke pentsa Jainkoak gu propio bere etxeko lanak egiteko sortu gaituela, arau eta neurri jakinen alorrean jardun dezagun, guk geure beharretarako zerratokiak eta ehundegiak egiten ditugun bezala? Orain dela gutti Walther profesoreak baieztatzen zidanez, animalia batzuk besteek jan ditzaitez izan dira sortuak, eta hori azkenean gure probetxurako omen da; hala, konparazio batera katuak berezko sena du saguak jateko, hauek

gosariko azukrea ostu ez diezaguten. Azken batean arrazoi du profesoreak: bai animaliak eta bai gu ere ongi egituratutako makinak gara, errege ezezagunaren mahairako osagaiak landu eta oratzeko eginak... Bizkor, bizkor adiskide, hurbildu ontziak! Eguzkiargi ederretan sailkatu nituen atzo margo guztiak, zuziaren distirak nahastu ez nazan: txokoan daude zenbakiturik. Hurbil idazu lehenbizikoa, gazte! Grisa! Bai idorra eta nekeza izango litzatekeela gure bititza, zeruko Jainkoak honenbeste jostailu koloretsu eman ez baligu! Zuhurrak ez du jokutzen ume kuriosak bezala, girtenari eragitean musika jotzen duen kutxa nondik apurtuko. Bere artean dio: Bistakoa da jotzen duela, girtenari eragin ondoren. Nik zureria hau perspektiba zehatzez marrazterakoan ziur nago ikusleak plastikoki jasoko duela. Bigarren zenbakia honantza, gazte! Margo egokienekin ari naiz orain pinta-tzen... badirudi lau kanaz egiten duela atzera. Ongi menperatzen dut hau. Azkarrak gara gero! Nolatan ttikitzen ore dira gauzak urrunean? Txinarr baten galdera inozo bakar batek zalantzan jar lezake Eytelwein profesorea bera ere; musika

kutxari buruz, ordea, girtenari eragin dionero emaitza bera jaso duela esan lezake. Lehen zenbakiko bioleta, gazte! Beste erregela eta pintzel lodi garbitua! Ene, zer dira gorenera heltzeko gure lehia eta borroka guztiak? Haurraren egina hal baldar eta zorabiatuak, bularra goxoki ematen dion inudea zauritzen dutenak! Bigarren zenbakiko bioleta... Azkar, gazte! Ideiala amets ziztrin gezurti bat da, odolaren irakinak sortua... Baztertu ontzi horiek, gazte, jaistera noa eta. Deabruak adarra jotzen digu, aingeru hegoak erantsi dizkien panpinekin.

Ez naiz gauza Bertholdek esandako guztia hitzez errepikatzeko, berak presaka margotu eta ni eskulangile moduan erabili ninduen bitartean. Hartan jarraitu zuen iseka saminak egiten munduko ekintza guztien murriztasunari; alafede, hiltzorian zegoen anima zauritu baten barrutik hitz egiten zuen, eta ironiarik zorrotzenaz irteten zen bertako lanturu hotsa.

Egunsentia agertzen hasi eta zuziaren distira motelduz zihoan, sartzen ari ziren eguzki izpiekin. Bertholdek grinati jarraitzen zuen margoketan, baina geroz astiroago, eta bular hunkitu har-

tatik hots bakanak eta azkenean hasperenak bakarrik jalkitzen ziren. Aldare guztia abardura egokiz zegoen estalia, eta erabat osatu gabe ere jadanik miresteko moduan nabarmentzen zen.

— Zoragarria... Txit zoragarria! —hots egin nuen mirespenez.

— Zer esan nahi duzu —esan zuen Bertholdek ahots ahulez—, hala-moduzko zerbait aterako dela? Egoki antzean marrazteko ahalegin guztiak behintzat egin ditut, baina orain ezin dut gehiago.

— Ezta pintzelkada bat ere gehiago, Berthold maitea! Harrigarria da honelako lana zenbat aurreratu duzun ordu guttitan; baina gehiegi nekatzen zara eta indarrak alferrikaltzen dituzu.

— Hala eta guztiz ere —gaineratu zuen Bertholdek—, hauek izaten dira nire ordurik emankorrenak. Agian gehiegi jardun dut berriketan, baina nire barreneko oinaze erdiragarria askatzeko hitzak baino ez dira izan.

— Zorigaitzak jota ematen duzu, gizarajo hori —esan nion—. Gertaera zitalen batek mingostu dizu bizitza, nonbait!

Margolariak bere lanabesak kaperara astiro eraman eta zuzia itzali zuen. Orduan nigana etorri, eskutik heldu eta ahots dardartiz mintzatu zitzaidan:

— Une bakar batez ere lasaitu eta pozik egoteko gauza izango al zinateke zu, bekatu gogor eta inoiz garbitzerik izango ez den bat burutu duzula jakinda?

Harri eta zur geratu nintzen. Eguzki printzek margolariaren aurpegi zurbil okertuan jotzen zuten eta fantasma tankera zeukan ia, ate ttikitik kolegio barrenera alderoka sartu zenean.

Biharamunean desiratzen nengoen noiz iritsiko ote zen profesorearekin elkartzeko ordua. Hainbeste hunkitu ninduen iragan gaueko gora-beheraren berri xehea eman nion. Kolore biziz azaldu nion margolariaren jokaera harrigarria eta ez nuen bere hitz bakar bat ere isilean gorde, hain gutti profesoreari berari buruzkoak ere. Baina zenbat eta bere arreta gehiago erakarriko nuela uste nuen, orduan eta axolakabeagoa iruditzen zitzaidan, eta oso modu desatseginean egiten zuen barre nire bizkar; izan ere, ez nuen etsitzen Bertholderi buruz hizketan, eta gogor

ekiten nion ere gizarajo hartaz zekien gutzia esan ziezadan.

— Gizon harrigarria da margolari hori —hasi zen profesorea—: barea, bihozbera, saiatua, jangartsua, lehenago ere esan dizudanez, baina zentzu guttikoa. Bestela ez zen, ez bizitzako gertaera eta ezta inongo krimenengatik margolaritza historiko ospetsutik hormen arrastogintza kaskarrera makurtuko.

Profesorearen ardura ezak ezezik, arrastogintza kaskarra esateak ere haserretu egin ninduen. Erakusten saiatu nintzen Berthold oraindik aintzat hartzeko artista zela, eta gainera arretarik azkarrena merezi zuena.

— Tira —esan zidan azkenean profesoreak—, horrenbeste interesatzen bazaizu gure Berthold, zehatz-mehatz ezagutu behar duzu nik berataz dakidana, eta ez da gutti. Hasteko, goazen orainxe elizara. Berthold gau osoa jo eta ke arituz denez lanean, atsedean hartuko du goizez; bertan aurkitzen badugu, huts egingo dute nire asmoek.

Elizara iritsi eta profesoreak agerian jarri zuen koadro estalia. Distira liluragarriko oihala

agertu zen nire aurrean, inoiz ikusi ez dudan bezalako. Konposizioak Raphaelen estiloa zeukan, xume eta zerutiarra: Maria eta Elisabeth zelai eder bateko belaze gainean eserita, beren aurrean Joan eta Jesus haurrak zeudelarik, loreekin jolasten. Atzekaldean, berriz, gizon bat otoitzean, saiheska.

Mariaren egite garden zerutiarrak, bere irudi osoaren gorentasun eta gartsutasunak harridura eta mirespen sakonez bete ninduten. Ederra zen, munduan izan den edozein emakume baino ederragoa, baina era berean, Dresdetar Galeria-ko Raphaelen Mariak bezala, bere aurpegiak Jainkoaren Amaren botere guztiahalduna erakusten zuen.

Ah, ez al zuten inoren bularrean irrikarik asezinena harrotzen begi miresgarri eta itzal sakonez inguratutako haiek? Ez al ziren zeruko zorion amaigabeaz mintzo, aingeruen korua bezala, ezpain fin, erdireki haiek? Sentimendu azalduzin batek ahopez jarrarazi ninduen Zeruko Erregin haren aurrean!

Hitzik esan ezinik, ez nintzen gai irudi paregabe hartatik begirada aldentzeko. Amabirjina

era umeak bakarrik zeuden erabat bukatuak. Elisabethen irudiari ezkerreko eskua falta zitzaiola zirudien, eta gizon otoizlea arrear bigarren aldiz margotu gabe zegoela. Gehiago hurbiltzean, Bertholden egitea hartu nion gizon haren aurpegiari. Berehala igarri nion profesoreak esango zidanari.

— Oihal hau da Bertholden azken lana. Orain dela zenbait urte jaso genuen Silesia Garaiko N.tik, gure kolegetako batek enkantean erosi ondoren. Amaitu gabe dagoen arren, lehengo erretaula kaskarraren ordeztatu jarri genuen. Bertholdek etorri eta ikusi zuenean garrasi egin eta lurrera erori zen konortea galdua. Aurrerantzean kontu handia zeukan honixe ez begiratzeke, eta sail honetako bere azken lana zela aitortu zidan. Espero nuen oihala bukatzera bilduko nuela pixkana, baina izu eta higuinez baztertu zuen nire eskari bakoitza. Alai eta indartsu antzean egon zedin, oihala estalarazi behar izan nuen berak elizan lan egin bitartean. Pasaeran begiz joetz gero ere eutsiezineko indar batek hartura bezala korrika aldegin, bere burua negar zotinka lurrera bota eta sumindura haren ondo-

ren ez zen egun batzuetan deusetarako gauza izaten.

— Gizarajo errukarria! —hots egin nuen—. Nongo deabruren ukailak atxikitzen zaitu halako amorruz bizitza hondatzeko?

— O! —bota zuen profesoreak—. Gorputzean bertan hazi zaio esku hori, era baita besoa ere. Bai, bai! Zalantzarik gabe bera izan da bere buruaren etsaia, barrenean infernuko sua piztu duen Satanas. Hala ezagun du behintzat bere bizitzak.

Margolari gizarajo haren bizitzaz zekien guttia berehala esateko erregutu nion profesoreari.

— Luzeegia litzateke eta arnasa franko beharko nuke horretarako —gaineratu zuen profesoreak—. Ez dezagun berrikeria hitsekin egun alai hau alferrikaldu! Gosaldu eta goazemazu gero errotara, bazkaria edukiko dugu bertan zain eta, ederki asko prestatua.

Ez nuen nire eginahalean amore eman, eta itzulinguru anitzen ondoren, azkenean jakin nuen Berthold iritsi eta handik lasterrera kolegioko ikasle zen mutiko bat berarekin adiskidetu zeta, eta honi konfiatu zizkiola pixkana bere bizi-

tzako gorabeherak. Gazteak bere aldetik arretaz idatzi eta Walther profesoreari eman zion eskuizkribua.

— Zure baimenarekin, jauna —esan zuen profesoreak—, zu bezain saiatua zen bera ere! Baina margolariaren gorabehera harrigarriak idaztea behinipehin poliki etorri zitzaion estiloa lantzeko!

Neke asko eta gero lortu nuen profesorearen promesa, gaueko txangoaren ondoren eskuzkribua utziko zidala. Nahiz jakinmin ernagarri harengatik, nahiz profesorearengatik berarengatik, inoiz ez naiz egun hartan hainbat aspertu. Ezin nuen burutu profesorearen Bertholdengana-ko hoztasunarekin ere; baina bere kolega bazkaltarrekin izan zuen elkarrizketak konbentziturik utzi ninduen, bere jakinduria eta ohitura mundatar guztiak gorabehera, materialista porrokatua zeta eta ez zeukala gorenerako interesik. Erabat sinisten zuen jatea eta jana izatearen sistema, Bertholdek aipatu zidana. Berak zioenez, bai izpirituzko eginahalak bai asmakizun eta sormen indar guztiak ere errai eta sabeleko lotura jakinen ondorio ziren, eta tartarrean aritu zen

beste hainbat ateraldi zelebren eta bitxiri buruz; benetan sinisten zuen, adibidez, gogoeta bakoitzaren garuneko bi zuntzen arteko koitoak sortzen duela. Hartatik ulertu nuen kontu zoro haiekin nolako oinazeak eragin eta zenbat laban zorrotz sartuko zituen Berthold gizajoaren zauri odolduetan, honek etsipen mingotsez egiten baitzien gogor goietako eragin mesedegarri guztiei.

Azkenean ilunabarrean profesoreak orri idatzi batzuk eman zizkidan, hitz hauekin:

— Hemen duzu, lagun lehiatsu hori, ikaslearen erdipurdiko lana. Ez dago gaizki idatzia baina oso zelebren bai, zeren egileak, arau guztien aurka, lehen pertsonan jasotzen baitu margolariaren hizketa inongo azalpenik gabe. Gainerakoa, nire karguak ahalmena ematen didanez oparitu egiten dizut lan hau, bai baitakit zu ez zarelako idazlea. *Fantasiak Callot*-en eran idatzi duenak bere modu zoroan sasiatolatu eta berehala argitaratuko luke, baina zurekin ez dut horren beldurrik.

Aloysius Walther profesoreak ez zekien Bidaiari Saiatua zeta aurrean zeukana, nahiz eta igarri zezakeen. Honenbestez eskaintzen dizut

bada, irakurle agurgarria, Berthold margolariaz jesuiteneko ikaslearen kontraera laburra.

Bertan argituko zaizu niri agertu zitzaidan bezala, eta orduan jabetuko zara, irakurle, patuaren joko harrigarriek sarritan hutsegite kaltegarritara garamatzatela.

«Utziozue semeari lasai Italiara joaten! Dagoeneko artista azkarra da eta hemen D.n ez zaio aukerarik falta original bikainenetatik ikasteko, baina halere ez du hemen geratu behar. Artisten bizitza librea ezagutu behar du artearen lurralde alaian; bertan sendotuko da bere ikasketa eta osatuko zaizkio ideiak. Kopiatze hutsa ez zaio jada lagungarri. Landare itsatsiak eguzki gehiago hartu behar du, kimuak hazi eta fruituak eman ditzan. Zeuon semeak benetako artista anima dauka eta ez zaitezte beste ezertaz kezkatu!»

Horrela mintzo zitzairen Stephan Birkner margolari zaharra Bertholden gurasoei. Hauek beren etxe behartsuan ezinbestekoa ez zuten guztia bildu eta bidaia luze hartarako hornitu zuten

mutikoa. Horrela bete zen Bertholden desirarik sutsuena, Italiara joatea.

«Birknerek nire gurasoen erabakia jakinarazi zidanean, jauzi egin nuen pozaren pozez. Ametsetan bezala igaro nituen irteera iritsi bitarteko egunak. Ez nintzen gauza galerian pintzelkada bakar bat emateko ere. Artearen mintegia zen Italiaren berai eman behar zidaten, nahitahiezin, inspektoreak eta Italian izandako artista guztiek. Hurbildu ziren azkenean eguna eta ordua. Samina izan zen gurasoengandik agurtzea, ez baitzidaten joaten utzi nahi, gehiago ikusiko ez ninduten susmoarekin nahigabeturik. Aitak berak ere, bestetan gizon irmo eta tinkoa zenak, nahikoa lan bazuen bere buruari eusten. «Italia! Italia ikusiko duzu!» hots egiten zidaten lagun artistek. Hala, haizea eman zioten nire irrika hari, tristurak indartu besterik egin ez zuenari, eta berehala abiatu nintzen... artistaren bidea gurasoen etxe aurrean hasten zeneko irudipenarekin.»

Margolaritzaren sail guztietan prestatua egon arren, Berthold paisaialaritzan jarduna zen batik bat, maitasun eta gogo osoz. Artearen adar

honetarako larre gizenak aurkitu uste zituen Erroman, baina ez zen hala gertatu. Bere inguruko artista eta artezaleek etengabe esaten zioten historiaren margolaritza bakarrik zegoela gailurrean, eta gainerako guztia bigarren mailan. Hala, artista ospetsua izan nahi bazuen, aholkatu zioten bere ordurarteko arlotik berehala aldendu eta gorenago hari ekitea. Azken honi gaineraturik Raphaelen Vatikanoko freskoek beragan izan zuten eragina, inoiz nabaritu ez bezalako, paisaialaritza saihestu zuen. Raphaelen antzera marraztu eta beste maisu ospetsuen oleo ttikiak kopiatu zituen. Zeukan trebetasun harekin dena irteten zitzaion ederki eta itxuraz, baina argiro antzematen zuen artista eta jakituen laudorioak kontsolatu eta pozik edukitzeko bakarrik zirela. Berak ere ikusten zuen bere marrazkiei, bere kopiei originalaren bizitasuna falta zitzaiela. Raphael eta Correggioren ideia zerutiarrek sormenerantz bultzatzen zuten (hala uste zuen behintzat); baina irudimenean atxiki nahi zituenean gandu artean bezala desagertzen ziren, eta buruz marrazten zuen guztiak ez zeu-

kan inongo mugimendu edo esanahirik, burutapen ilun eta nahasien antzera.

Alferrikako eginahal eta borroka haiek guztiek anima goibeldu zioten. Sarritan egiten zien ihes lagunei, Erromako ingurumarietan zuhaiztiak eta paisaia zati bakanak ezkutuan marraztu eta margotzeko. Baina hau ere ez zitzaion lehen bezain ongi irteten, eta, lehen aldiz, zalantzan jarri zuen bere artista izateko deia. Itxaropen ederrenak aienatuz zihoazkiola zirudien.

«Ai, ene lagun eta irakasle prestua —idatzi zion Birkneri—, gauza handietarako gai ikusten ninduzun zuk; baina anima argitu behar zidan leku honetan jabetu naiz zuk arterako maisutasuna deitzen zenuen hura ez dela talentu hondarra besterik, eskuko trebetasun hutsa. Esaiezu gurasoei aurki etxeratuko naizela mantenduko nauen lanbideren bat ikastera, eta abar.»

Honela erantzun zion Birknerek: Oh, zure ondoan egoterik baneuka, seme, zure nahigabe horretatik zuzpertzeko! Baina sinistaidazu: zure zalantzek ezagun dute artistarako deitua zarela. Bere indarrekiko konfidantza aldagaitzez etengabe aurrera egiteko asmoa daukana tentel

hutsa da, eta bere burua engainatzen du; horrelakoak faltan du borrokarako akuilu benetakoa, akastunaren gogoan bakarrik bizi dena. Saia zaitetz! Laster azkartuko zara eta orduan lasai egingo duzu aurrerantz zeure buruak agintzen dizun bidetik, lagunena epai eta aholku oztopatzailerik gabe, agian ez dira zu ulertzeko gauza eta. Zerorrek erabaki ahal izango duzu orduan paisaialaritzan geratu ala historiaren margolari bilakatu, enbor beraren adarrak guttietsi daitezkeenik uste izan gabe.

Bertholdek bere aspaldiko irakasle eta lagunagandik kontsolamenduzko gutun hau jaso zuen garai berean, Erroman Philipp Hackerten ospea zegoen zabaldua. Bertan aurkeztutako bere lan batzuk, grazia eta argitasun miresgarrikoak, artisten arreta erakarri zuten eta historiaren margolariek ere aitortu zuten naturaren imitazio garbi hura oso berezi eta bikaina zela. Bertholdek lasai hartu zuen arnasa: ez zuen gehiago entzuten bere arte maiteaganako isekarik, eta goraipatu eta ohoraturik zekusan huraxe bera lantzen zuen gizona. Txinparta baten antzera piztu zitzaion bere baitan Napolira joan eta Hac-

kertekin ikasi behar zuela. Pozez gainezka idatzi zien Birkneri eta gurasoei, borroka latzen ondoren bide zuzena aurkitu eta laster bere alorrean artista ospetsu bihurtzea espero zuela.

Atseginez onartu zuen Hackert aleman pres-tuak ikasle herrikidea, eta hau laster lotu zitzaion irakaslearen ereduari. Bertholdek trebetasun handia lortu zuen naturako arbola eta landare mota desberdinak leialki itxuratzen; ez zen makal azaldu gandu eta lainoekin ere, Hackerten koadroetan ageri ziren bezala. Laudorio ugari irabazi zituen horrekin, baina batzuetan, oso modu berezian, bai bere eta bai irakaslearen paisaiek zerbait eskas zutela irizten zion, izenez zehaztu ezinekoa, baina Claude Lorrainen koadroetan eta Salvator Rosaren basamortu gorrietan aurkitzen zuena. Maisuaganako hainbat zalantza jaio zitzaizkion, eta zeharo sumindu zen Hackertek berealditako lanak hartu zituenean erregeak bidalitako ihizi hilak margotzen. Baina laster gainditu zituen bere ustez gogoeta iraingarriak ziren haiek, eta begirune dohatsu eta ahalegin alemanez jarraitu zuen irakaslearen

ereduen arabera lanean, handik guttira ia bere pareko izatera heldu arte.

Azkenean, Hackertek berak aukera eman ondoren, naturatik leialki margotutako paisaia handi bat erakusketan ezarri behar izan zuen, gehienez Hackerten paisaia eta natura hilez osatua zegoen batean. Artista eta jakitun guztiak miretsi ziren gaztearen lan fin, txukun harekin, eta gogotik laudatu zuten. Modu bitxian jantzitako agure bat izan zen ezertxo ere esan ez zuen bakarra, ezta Hackerten pinturei buruz ere; aldiz, era esanguratsuan egin zuen irribarre, jendearen goraipamenak barra-barra zabaltzen ziren bitartean.

Berthold argiro konturatu zen ezezagun hark, bere paisaiaren aurrean aurpegi errukiorrez jarrita, burua astindu eta handik joatekoa egin zuela. Berthold harrotuxea zegoenez jendetzak eskainitako laudorio orokorrarekin, ezin izan zion eutsi ezezagun harenganako haserre minari. Aldameneratu eta honela galdetu zion, beharrezko zena baino doinu zakarragoz:

— Badirudi ez zaizula koadroa atsegin, jauna, nahiz eta artista eta jakitun azkarrenek ez duten

erabat txartzat hartu. Esaidazu arren zein akats duen, ahalik eta zure aholku jatorrari jarraituz hobetu dezadan.

Ezezagunak Bertholdi begirada zorrotzez so egin eta seriooki esan zion:

— Gazte, zu urrutira iritsi zintezkeen.

Berthold zeharo beldurtu zen gizon haren begirada eta hitzekin; ez zuen kemenik izan beste ezer esan edo atzetik jarraitzeko, hura salatik astiro irten zenean. Laster sartu zen bertan Hackert bera, eta Berthold berehala joan zitzaion gizon harrigarri harekin izandako gorabehera kontatzera.

— Utikan! —hots egin zion Hackertek irribartsu—. Ez zaitez larritu! Gure agure purrustaria zen, ezer atsegin ez eta denei gaizki irizten diena. Sarreran egokitu naiz berarekin. Zelebre aberats hori Maltan jaioa da guraso greziarrendik, eta ez da batere margolari txarra; baina egiten duen guztiak itxura fantastikoa du, inor hunkitzeko egokia. Izan ere, arteari buruzko oso iritzi aldrebesak dauzka, eta etsaiari ere balioko ez liokeen sistema artistikoa eraiki du. Ondo asko dakit ez dela batere nire zale baina gogo

onez barkatzen diot, horrela ez baitu parterik izango bidezko dudan ospean.

Bertholderi iruditu zitzaion maltatar hark barreneko txoko minberatu batean ukitu ziola, baina zirujilari ongiegilearen antzera zauria aztertu eta sendatzeko. Laster ahaztu zen hartaz, ordea, eta lehen adinako ganoraz jarraitu zuen lanean. Bere koadro arrakastatsu hark adore eman zion antzeko bati ekiteko. Hackertek berak aukeratu zuen Napoliren inguru aberatseko tokirik ederrentxoena, eta lehengo koadroak ilusentia aurkezten zuenez, oraingo paisaiak egusentian egina behar zuen. Bertholdek zuhaitz ezezagun eta mahasti franko margotu zituen, baina bereziki lainoa eta gandua.

Egun batez barri handi baten gainean zegoen Berthold eserita, Hackertek aukeratutako tokian bertan, naturatik hartutako koadro handiagoren zirriborroa amaitzen.

— Benetan egokia —entzun zuen bere alboan.

Bertholdek gora so egitean maltatarra ikusi zuen bere orriari begira, eta honek irribarre sarkastikoz jarraitu zuen:

— Gauza bakarra ahaztu zaizu, gazte maitea! Begiraiozu haranzko mahasti hura inguratzen duen hesi aihentsuari: erdi irekirik dago atea. Itzal sendoz ezarri behar duzu, ate ertirekiak berebiziko eragina du eta!

— Arrazoirik gabe ari zara txantxetan, jauna! —erantzun zion Bertholdek—. Horrelako kasualitateak ez dira zuk uste bezain hutsalak, eta horregatik ipintzen ditu nire maisuak. Gogora zaitetz Herri Beheretako margolari zahar haren paisaian eskegitako zapi zuriarekin: hura gabe hondaturik legoke eragin guztia. Baina ez dirudi batere gogoko duzunik paisaialaritzara, ni gorputz eta animaz eskaini natzaiona, eta horregatik erregutzen dizut lanean lasai jarraitzen utz nazazun.

— Oso oker zaude, gazte —mintzatu zen maltatarra—. Berriro diotsut urrutira iritsi zintezkeela; alderdi gorena bilatzeko etengabeko ahalegina ageri da zure lanetan. Baina ez duzu inoiz zure helburua iritsiko, hartu duzun bideak ez baitu hara eramaten. Esango dizudana arretaz entzun ezazu. Agian lortuko dut, ezjakin hori, zure baitan neurritz gain eraikitzen saiatu zaren

su hori berriro indartzen, bere gar beroek argi zaitzaten; orduan ikusi ahal izango duzu zugar bizi den benetako izpiritua!

Horren ergela naizela uste al duzu, paisaien pinturak historiakoen azpian jartzeraino, biek ala biek ere helburu beraren atzetik saiatu behar dutela antzeman gabe? Arrearen helburu sakratua natura interpretatzea da, izaki guztiak bizitza gorenerantz bideratzen dituen zentzu sakoan. Eraman al dezake inoiz horretara natura kopiatze hutsak? Bai pobre, baldar eta behartuak ematen dutela hizkuntza ezezagun batetik egindako idatzizko kopiak, eskribauak ulertzerik ez eta hainbeste nekez zirriborratzen dituen hizkiei tankera eman ezin dienean. Hala, zure maisuaren paisaiak ere hizkuntza ezezagun batetik idatzitako originalaren bikoizketak dira. Baina iniziatuak naturaren ahotsa entzuten du arbola, sasi, lore, mendi eta urmaheletatik soinu miresgarrien bitartez ikertuezinako sekretuei buruz mintzo dena, iniziatu horren bularrean ideia gartsuak iratzarrit. Orduan iristen zaio etorria, Jainkoaren arnasa bezala, ideia hori bere lanetan gauzatzeko.

Ez al duzu zirrara harrigarria antzeman, gazte, garai bateko maisuen paisaiei so egitean? Halakoetan ez duzu noski pentsatzen ezkiaren hostoak, pinuak eta platanondoak naturari leialago izan ote zitezkeen, atzeko giroa lausoagoa edo ura gardenagoa; baina hari darion izpirituak erresuma gorago batera igotzen zaitu, eta haren islada ikusi uste duzu. Naturaren alderdi mekanikoa gogoz eta arretaz ikastazu bada, ahalik eta irudikapenaren praktika lortzeko, baina etzazu praktika hori artetzat beratzat hartu. Naturaren zentzu sakonagoan sartzen bazara, oparotasun distiratsuz agertuko zaizkizu bertako iduriak.

Maltatarra isildu egin zen. Baina Berthold zeharo hunkiturik, burumakur eta txintarik atera ezinik zegoenez, hitz hauekin agurtu zen:

— Etzaitut inolaz ere zure bokazioan nahastu nahi izan, baina badakit izpiritu gorena dagoela zure barrenean lozorroan. Berari hots egin diot hitz tinkoz, esnatu eta bere hegadak lau haizetara astin ditzan. Ongi izan!

Bertholderi iruditu zitzaion maltatarrak hitzez adierazi zuela berak izpiritu barruan irakiten zeukana. Barreneko ahotsa kanpora irten zen: Ez!

Eginahal hauek guztiak, neke hau itsuaren aztarrika dudakor engainagarria da. Utikan, utikan orain arte txoratu nauena! Ez zen gauza izan beste lerro bakar bat ere marrazteko. Maisua utzi eta harat-honat ibili zen eroa baino areago, maltatarrak aipatutako ezagupen goren hura ager zekion otoi eskatzen.

«Amets ezietan bakarrik nintzen zoriontsu, erabat dohatsu! Egia bihurtzen zen orduan maltatarraren esana. Lamara sorginduak ferekatzen ninduen zuhaiska berdeen artean etzanik, eta naturaren ahotsa haize bolada melodikoz entzuten zen baso ilunean barrena: «Entzun arretaz, iniziatu horrek! Aditu itzazu kreazioaren jatorrizko hotsak, gorputz harturik zure zentzuek jaso ditzaten». Eta akorde haiek argitzen zihoazen heinean bazirudien zentzu berri bat itzartzen zela nigan, ordurarte ikertuezintzat neukan guttia gardentasun miresgarriz ulertzeko modua ematen zidana. Argitu berri zitzaidan misterio hura hieroglifiko bitxitan bezala marraztu nuen suzko lerroz airean; baina hieroglifikoazko idazki hura paisaia harrigarri, miresgarri bat zen, non zuhaitzak, sasiak, loreak, mendiak eta urmahe-

lak doinu maitagarrien antzekoz mugitzen ari ziren.»

Baina ametsetan bakarrik etortzen zitzaion delako zoriona Berthold gizarajoari, indar guztiak akiturik eta barrena Erroman baino nahasia-go zeukalarik, historiaren margolaria izan nahi zuen garai hartan. Baso ilunean zehar ibiliez gero berebiziko izuak atxikitzen zuen; handik irten eta urruneko mendiei begiratuaz gero, berriz, atzapar izoztu antzeko batzuk heltzen zioten bularretik, arnasa gelditu eta lehertu beharreko estuasuna sortuz. Natura osoa, lehen hain irribarre atsegina eskaintzen ziona, munstro izugarria bihurtu zitzaion; eta haren ahotsak berriz, garai batean ilunabarreko haize firfiran, ur xirriparen parrastan eta ostrailaren zurrumurruan hitz goxoz diosala egiten zionak, orain hondamendi eta heriotza albisteak besterik ez zekarz-kion. Azkenean, amets goxo haiek kontsolatzen zuten heinean joan zen lasaitzen, nahiz eta beti ekiditen zuen soroetara bakarrik irtetea. Hala, margolari aleman bikote alai batekin elkartu eta sarritan egiten zituen beraiekin irtenaldiak Napoliko alderdi ederrenetara.

Haietako batek, dei diezaiozun Florentin, bere artearen azterketa sakona baino gehiago hartu zituen aintzat bizitzaren plazer atseginak, eta horren lekuko zen bere bilduma ere: neskati-la nekazarien taldekako dantzak, prozesioak, herrietako festak, ikusi ahala zekizkien Florentin-ek paperean berehala ipintzen, esku irmo eta arinez. Marrazki bakoitzak, zirriborroa besterik ez bazen ere, bizitza eta mugimendua zeuzkan. Halere, Florentinen zentzuak ez zeuden inolaz ere alderdi gorenari itxita. Aitzitik, egungo margolari anitzek baino gehiago ikertzen zuen maisu zaharrek egindako koadroen gartsutasuna. Bere margo liburuan arrasto zabalez zeuzkan marraztuak Erromako kalostira zahar bateko freskoak, hormak pitzatu aurrekoak. Santa Katalinaren martirioa erakusten zuten. Ezinezkoa zen Berthold hainbeste hunkitu zuten lerro haiek baino zoragarri eta txukunago burututako ezer ikustea. Tximisten distirak ikusi zituen ilunpe goibelaren artetik. Azkenean Florentinen alaitasun joera bera hartu zuen, eta hark naturaren xarma bizitasun azkarrez isladatzen zuenez, baina are gehiago giza alderdia, Bertholdek ere alderdi

huraxe hartu zuen heldulekutzat, aurreko bere hustasun hartan ez desegiteko.

Florentinek orduantxe topatutako talderen bat arinki marraztu bitartean, Bertholdek lagunaren margo-liburua zabaldu eta Katalinaren irudi liluragarria kopiatzen saiatzen zen; hainbestean irten zitzaion azkenean, nahiz eta Erroman bezala alferrik ahalegindu bere irudiei jatorrizkoaren bizitasuna txertatzen. Honetaz kexatu zitzaion Florentineri, bere ustez benetako maisutasun artistikoan erraz gainditzen zion hari, eta kontatu egin zizkion ere maltatarrak berarekin arteari buruz izandako hitzak.

— Ai, Berthold maitea —esan zion Florentinek—, maltatarrak arrazoi du, eta nik elkarren parean ipintzen ditut egiazko paisaiak eta margolari zaharren historiako koadro dohatsu, garrantzitsuak. Nire iritziz ere, lehenik trebatu egin behar dugu aldameneko natura bizia itxuratzten, gero gaueko erresuma horretan argitasuna aurkitu ahal izateko. Nire aholkua da, Berthold, irudiak marraztu eta bertan zure ideiak antolatzten ohitu zaitezten. Agian horrela argiago ikusiko duzu dena.

Lagunak gomendatu bezala egin zuen Bertholdek, eta bere bizitzaren gaineko hodei ilunak aienatu egiten zirela iruditu zitzaion. Nire barruan ideia ilun baten antzera zegoena hieroglifiko bidez itxuratzen saiatu nintzen, harako amets hartan bezala. Baina hieroglifiko idazki haren letrak giza irudiak ziren, argigune baten inguruan mugituz, lotura harrigarrian. Argigune honek izan behar zuen margolari baten fantasiak inoiz erne duen irudirik zoragarriena: baina alferrik saiatu nintzen hari tankera hartzen, ametsetan agertzen zitzaidanean zeruko printzez inguraturik. Hura itxuratzeko nire saio guztiek huts egin zuten modu lotsagarrian, eta irrikaz puskatzen nengoen.

Florentin jabetu egin zen lagunaren egoera eritasuneraino asaldatu hartaz eta ahal hainbat kontsolatu zuen, huraxe zela esanaz argitasunerako sarrera. Baina ameslariaren antzera zebilen Berthold noraezean, eta bere saio guztiek ume ahularen ekinaldi hutsak izaten jarraitu zuten.

Napolitik urruti gabe zegoen duke baten landetxea, artista kanpotarrei ostatu ematen ziena, baina batez ere paisaialariei, begiralekurik ede-

rrena eskaintzen zuelako Vesuvio eta itsaso aldera. Berthold maiz aritu zen han lanean, baina oraindik maizago parkeko haitzuloan bere amers fantastikoekin jokoan. Haitzulo hartan zegoen egun batez eserita, bularra erdibitzen zion irrikaz, ezinean eta malko beroak zerizkiolarik, arren eta arren zeruko izarrek bere bide iluna argi zezaten; zurrumurrua entzun zuen orduan zuhaiska artean, eta emakume baten irudi liluragarria agertu zen haitzulo aurrean.

Eguzkiaren printzek jotzen zuten aingeru aurpegi hartan. Esanezinezko begiradaz so egiten zidan. Santa Katalina... Ez, areago, nire ideiala zen, nire ideiala! Pozez zoraturik ahozpez jarri nintzen eta irribarre ezti batekin ezkutatu zen irudia! Entzuna izan zen nire otoitzik gartsuena!

Florentin haitzuloan sartu eta harritu egin zen Bertholdekin, begirada transfiguraturik bularren kontra estutu zuenean. Malkoak zerizkion begietatik:

— Lagun, lagun maitea! —totelkatu zuen—. Zorionsua naiz, dohatsua! Aurkitu dut, aurkitu!

Berehala bildu zen bere lantokira; oihala zabaldu eta margoketan has zen. Jainkoaren eto-

rriak azkarturik bezala, magia sortu zuen emakume zerutiar hura, bizitzaren su guztiarekin.

Handik aurrera zeharo aldatu zen bere barrena. Bihotza akitzen zion tristuraren orde zoria eta alaitasuna erne zitzaizkion. Gogoz eta kementsu aztertu zituen antzinako margolarien maisulanak. Kopia batzuk bikainak irten zitzaizkion, eta orduan hasi zen bere koadro propioak egiten, jakitun guztiak harriturik utziz. Paisaiekin ahazturik zegoen jada, eta Hackertek berak aitortu zuen gazteak bere benetako bidea aurkitu berri zuela.

Honela, zenbait lan nagusi margotzen hasi zen, elizatarako erretaulak eta. Gehienetan leienda kristautako gai alaiak aukeratu zituen, baina ororen gaineratik nabarmentzen zen bere ametsetako irudi zoragarria. Jendearen iritziz Angiola T... printzesaren oso antzekoa zen, aurpegi eta gorputzez; margolari gazteari ere aipatu zioten, eta zirikatzaileek isekati adierazi zuten andereño eder haren suzko begiradak bihotz barreneraino zulatu zuela margolari alemaniarra. Berthold oso haserre zegoen Jendearen esa-

mesa zoro haiekin, zerutiar zena mundu arrunte-
ra mugatu nahi zutelako.

— Zer uste duzue —zioen berak—, halako
izakia mundu honetan bizi litekeela? Liluraldi
miresgarri batean agertu zait misterio gorena;
artistaren inimizioa unea izan zen hura!

Berthold pozik eta zoriontsu bizi zen orain,
harik eta Bonaparteren Italiako garaipenaren
ondoren gudaroste frantziarra Napoliko erresu-
mara hurbildu zen arte, zorion baketsu guztiak
suntsituko zituen iraultza piztuz. Erregea irten
egin zen Napolitik erreginarekin batera, eta
antolatu egin zen *città*. Bikario jeneralak sueten
lotsagarria erabaki zuen jeneral frantsesarekin
eta laster heldu ziren ordezkari frantsesak,
ordaindu beharreko zerga jasotzera. Bikario
jeneralak ihes egin zuen jendearen amorrua iku-
sita, erabat sinisturik baitzeuden abandonatu
egin zituztela bai hark, bai *citták* eta bai etsaien
aurka babesaren eman ziezaikeen guztiek. Gizar-
teko kate guztiak hautsi, herri xeheak anarkia
basatiz ordenu eta legeari barre egin, eta *Viva la
Santa Fede!* deiadarka zebiltzan talde erotuak
kaleetan barrena, handikien etxeak ostu eta

sutan jarriaz, etsaien menpe utzi zituztelakoan. Alferrik ahalegindu ziren amorratu haiek mantsozten Moliterno eta Rocca Romana, herriaren kutunak eta buruzagitzarako aukeratuak. Della Torre eta Clemens Filomarino dukeak erailak izan ziren, baina halere ez zen berdindu jendailaren odol egarria.

Bertholdek etxe sutu batetik erdizka jantzirik lortu zuen salbatzea. Herritar multzo batekin topatu zen, piztutako zuziekin eta labana distirantekin T.ko dukearen jauregirantz zihoazenak. Beren tarrekotzat hartu eta beraiekin joatera behartu zuten. Zoro haiek guztiak *Viva la Santa Fede!* oihuka, minutu guttiren buruan hila zuten dukea, mirabeak eta aurre egin zien nornahi; eta jauregia ere su galdetan zegoen.

Bultzaka sartu zuten Berthold jauregi barruraino. Ke trinkoa hedatzen zen pasilo luzeetan. Korrika abiatu zen gela zabalduetatik zehar, sugarren artean hiltzeko arriskuz, irteeraren bila alferrik. Beldurrezko garrasi zorrotza entzun eta hor doa salan barrena lasterka. Emakume bat borrokan ari da *lazzarone* batekin, heldu tinko eta bularrean labana sartzeko zorian daukalarik.

Printzesa da, Bertholden irudi liluragarria! Bertholdek izuarekin bere onetatik aterata jauzi egin, *lazzarone*-ari zintzurretik heldu, lurrera bota eta eztarrian sartzen dio labana hura bera. Hartzen du printzesa besoetan, eta badoa berarekin sala sutuetan barrena korrika, eskaileretan behera, beti aurrerantz jendetza ugariaren artetik, dena ixtant batean! Inork ez zuen oztopatu Berthold ihesean; izan ere, labana odoldua eskuetan, kedarrez belztuta eta jazki urratu haiekin herriak lapur hiltzaitzat hartu eta onetsi egin zioten sari hura hartua. Arriskuetatik ezkutatzeko, hiriko txoko bakarti batera joan zen senez korrika, eta murru zahar baten pean erori zen zorabiatu-rik. Itzartzean printzesa zeukan aldamenean belauniko, bekokia ur hotzez garbitzen.

— O, eskerrak! —xuxurlatu zuen ahots goxo, maitagarritz—. Jainkoari eskerrak esnatu zaren, nire salbatzailea, nire bizitza!

Berthold tentetu eta ametsetan zegoela uste zuen; printzesagan josi zituen begiak. Bai, bera zen! Zeruko irudi zoragarria, jainkozko etorria bere baitan piztu zuena.

— Izan al liteke? Egia al da? Bizi al naiz? — hots egin zuen.

— Bai, bizi zara —esan zuen printzesak—. Niretzat bizi zara! Ez zinen itxaropentsu izatera ausartzen, baina mirariz bezala gertatu da. Oh, nik ongi ezagutzen zaitut. Berthold margolari alemana zara, ni maitatu eta zure koadro ederenetan goraltzen ninduzuna. Horrela ezin nintekeen zurea izan. Baina hemendik aurrera zurea nauzu, betirako. Aldegin dezagun elkarrekin, aldegin dezagun!

Printzesaren hitz hauek entzutean sentipen arraroak hunkitu zuen Berthold, bat-bateko oina-zeak amets eztia hondatzen duenean bezala.

Baina emakume eder hark bere elur zurizko besoetan hartu eta bularraren aurka estutu zue-
nean grinati, inoiz ezagutu gabeko dardara gozoa nabaritu eta desira asaldatuaz hots egin zuen:

— Oh, ez da ametsetako irudi faltsua, ez! Nire andrea da besarkatzen dudana hau, inoiz utziko ez dudana eta nire irrika egarbera hau asebeteko duena!

Ezinezkoa zen hiritik itzuri egitea; izan ere ateetan zegoen gudaroste frantsesa, herriak azken bi egunetan sarrera galarazten ziolarik, nahiz eta txarki armaturik eta inongo gidaririk gabe jardun. Hondarrean, gordelekuz gordeleku, Bertholdek Angiolarekin hiritik aldegitia lortu zuen. Angiolak, bere salbatzaileaganako maitasun suaz, muzin egiten zion Italian geratzeari. Familiak hildakotzat joko zuen eta Bertholdek berarentzat har zezakeen. Soinean zeramatzan diamantezko koilara eta eraztun garestiak aski izan ziren premia guztiak osatzeko Erroman, haraino heldu ondoren pixkana. Hala, azkenean onik iritsi ziren Alemania hegoko M.ra, non Bertholdek geratzeko asmoa zeukan, artearen bidez bizimodua atereaz.

Ez al zen inoiz amestu gabeko eta inoiz igarri gabeko zoriona, emakume eder, zerutiar, ametsik sutsueneko ideialaren senarra izatea, nahiz eta bizitzako gorabehera guztiak murrugaindiezinaren antzera zutitu bera eta maitearen artean? Bertholdek zorion hau ulertu ezin eta berebiziko plazer hartan zegoen murgildurik, harik eta barreneko ahots gero eta ozenagoak

artea aintzat hartzeko gogorazi zion arte. M.ko herrian koadro handi baten bidez bere ospea sendotzea erabaki zuen, bertako Amabirjinaren elizarentzat.

Burutapen soil bat izango zen irudiaren zirriborro guztia: Maria eta Elisabeth baratze eder bateko zelai ganean eserita, eta Jesus eta Joan umeak haien aurrean belarretan jolasten. Baina alferrik izan ziren koadroari ikuspegi izpirituala emateko lehia guztiak. Bere krisiaren garai dohakabe hartan bezala lausotzen zitzaizkion irudiak, eta zeruko Amabirjina ez baizik eta munduko emakumea zen, Angiola bera, modu zatarrean itsusiturik agertzen zena bere izpirituaren begi aurrean.

Berataz jabetu bide zen indar latz hari aurre egitea erabaki zuen. Koloreak prestatu eta margotzen hasi zen. Baina indarrak ahituta zeuzkan eta bere neke guztiak ume ezjakinaren eginahal ahulak ziren, aspaldi hartan bezala. Hotza eta motela zen margotzen zuena, eta Angiola bera ere, bere ideiala aurrean eserarazi eta margotu nahi izan zuenean argizarizko irudi hila bihurtu zen oihalean, kristalezko begiekiko begirada gal-

duarekin. Hala, atsekabe hitsa joan zitzaion animan sartzen eta bizi poz guztia hondatu zion. Ez zuen lanean jarraitu nahi, ez zen gauza, eta hala, miseria gorrian gertatu zen, hainbatez etsigarriagoa Angiolak kexu hitz bakar bat ere jalkitzen ez zuenez.

«Nire barrenarekin ezin nuen, galdutako indarrez baliatuko nintzen itxaropen faltsuak tristaturik, eta handik lasterrera eroaren pareko egoeran nengoen. Emazteak semea izan zuen eta hori izan zen nire nahigabe guztien gailurra: luzaroan eutsitako nire arrangura, galda bizizko gorroto bihurtu zen. Bera zen, bai, nire zoritxar guztien sortzailea. Bera ez zen, ez, niri azaldutako ideiala; ni erabat hondatzeko ezkutatu zizkidan maltzurki harako emakume zerutiar haren gorputz aurpegiak. Etsipen zoroz madarikatu nituen bera eta haur errugabea. Heriotza opatu nien biei, hartara aske geratzeko ezten goriz zauritzen ninduen oinaze garratzetik! Burutapen zitalak jaio ziren nigan. Alferrik izan zen Angiolaren aurpegi zurbilean, bere malkoetan nire jokatibide zakar, makur hura isladaturik ikustea... «Zuk eraman nauzu galbidera, andre bilaua»

oihukatu eta ostikoz jota baztertu nuen nigandik, zorabiatu rik lurrera erori eta belaunetatik hel-tzen zidanean.»

Emaztea eta haurraren aurkako Bertholden jokabide latz, zoro hark auzokoen arreta erakarri zuen eta horiek agintariei jakinarazi zieten. Atxilotu egin nahi izan zuten, baina poliziak bere etxean sartu zirenerako aztarnarik utzi gabe joana zen emazte eta haurrarekin. Handik lasterrera azaldu zen N.n, Silesia Garaian. Emaztea eta semea alde batera utzi eta gogo berriz ekin zion M.n alferrik bukatzen saiatutako koadroa margotzeari. Baina Amabirjina, Jesus eta Joan haurrak bakarrik bukatu ahal izan zituen. Eritasun beldurgarriak jo zuen, berak desio zuen heriotzaren ateetan jarriaz. Bere gaitz hartan lagundu nahian, lanabes guztiak erosi zizkioten eta baita bukatu gabeko koadro hura ere; nolahalazuzpeltu ondoren, arlote gaixobera, gizarrajoaren antzera joan zen. Aurrerantzean bizimodu urria atera zuen han hemenka agintzen zizkioten hormetako margoekin.

— Bertholden istorioa izugarri latza da —esan nion profesoreari—, eta berak zehazki aipatzen ez duen arren, emaztea eta seme errugabea hilko zituen zitalki.

— Erdi eroa da —gaineratu zuen profesoreak—, eta ez dut uste horretarako adorerik izango zuenik. Inoiz ez du horretaz argiro hitz egiten, eta jakiteko dago emazte eta semearen heriotzaren erruduntzat ote daukan bere burua. Marmola margotzea dagokio berriro ere, eta gaur gauean bukatuko du aldarekoa. Umoretsu egongo da orduan, eta agian kontu gehiago aterako dizkiozu alderdi korapilatsu horretaz.

Bururatu zitzaidanean gauerdian Bertoldekin egongo nintzela, biok bakarrik elizan, dardarak zeharkatu ninduen burutik oinetaraino, bere istorio hura irakurri ondoren. Batzuetan etsaia- ren hurrengoa izan zitekeela uste nuen, bere iza- kera jator eta bihotz zabala gorabehera, eta nahiago izan nuen eguerdiko eguzki argitan berarekin elkartzea.

Aldamio gainean aurkitu nuen petral antzean bere baitan bildurik, marmol zainak puntuen

bidez margotzen. Beragana igo eta txarroak eskuratu nizkion isilik. Harriduraz begiratu zidan.

— Zure eskulangilea naiz —esan nion emeki, beragan irribarrea sortuz.

Bere bizitzaz hizketan hasi nintzaion orduan. Dena nekiela jabetu zen, eta nonbait lehengo gau hartan dena kontatu zidala uste zuen. Pixkana-pixkana izugarrikeria hartaraino heldu, eta orduan bat-batean esan nuen:

— Zoramen amorratu hartan hil zenituen beraz ama semeak? Margoen txarroa eta pintzela erortzen utzi eta honela oihukatu zuen, niri begirada garratza luzatu eta bi eskuak gora altxata:

— Esku hauek garbi daude nire emazte eta semearen odoletik!

Horrelako hitz bat gehiago eta zurekin batera botako dut nire burua aldamiotik behera, elizako zoruaren harrian txiki daitezen gure kaskezurrak!

Egoera estuan aurkitu nintzen orduan, eta hitz beste egitea iruditu zitzaidan denetan onena.

— O, begira, Berthold maitea —esan nuen ahal bezain lasai eta hotz—, horman behera doa kolore hori iluna.

Bertholdek niri begiratu eta pintzelaz horia igurtzi bitartean aldamiotik isilik jaitsi, elizatik irten eta profesoreagana joan nintzen nire bizkar barre egin zezan, indiskrezio zigortu harengatik.

Nire ibilgailua konpondua zegoenez G.tik joan nintzen, Aloysius Walther profesoreak irmoki zin egin ondoren Bertholdekin zerbait berezirik gertatuz gero berehala idatziko zidala.

Urte erdi inguru igaroa zen profesoreagandik eskutitza jaso nuenean, G.ko gure elkarraldi hura luzaz gorai patuz. Ondorengo hau idazten zidan Bertholderi buruz:

«Zu joan eta aurki aldaketa gogorra izan zuen gure margolari harrigarriak. Bat-batean zeharo alaitu eta modurik zoragarrienean bukatu zuen erretaula handi hura, orain denak txunditurik uzten dituen. Desagertu egin zen orduan, eta berarekin ezer eraman ez zuenez eta handik egun batzuetara bere kapela eta makila aurkitu genituenez O... ibaitik urruti

gabe, denok uste dugu bere buruaz beste egin duela.»

ETXE HUTSA

(Das öde Haus)

Denak bat zetozen esaterakoan bizitzako gertaera benetakoak sarritan harrigarriagoak direla, fantasia bizienak asma dezakeena baino.

— Froga ugari ematen ditu historiak —minztatu zen Lelio—. Horregatik dira hain motel eta higuingarriak eleberri historiko izenekoak. Haie-tan egileak bere burmuin zabarrean su motelez lokatutako umekeriak elkartu egiten ditu unibertsoan nagusi den indar betierekoarekin.

— Inguruan ditugun sekretu argituezinen egia sakonak —hartu zuen Franzek hitza— halako indarrez atxikitzen gaitu non horretantxe ezagutzen dugun gure gaisetik agindu eta mugatzen gaituen izpiritua.

— Ai! —jarraitu zuen Leliok—. Aipatzen duzun ezagupen hori! Horixe da, jatorrizko bekatuaren ostean, gure hondamenaren ondoriorik latzena: ezagupen hori falta zaigula!

— Anitz dira deituak —eten zion Franzek lagunari— eta gutti aukeratuak! Ez al duzu uste

ezagupen hori, gure mirarizko bizitzaren alderdi oraindik ederragoak igartzeko gaitasun hori zenbaiti dohainean eman zaiela, sen berezi baten antzera? Konparazio zelebrea jarriko dizuet, inor galtzeko erraza den eskualde ilun horretatik argitara irteteko: miresgarria ikusteko dohaina, igartzeko ahalmena daukaten gizakiei xaguxar tankera ematen diet; izan ere, Spallanzani anatomista azkarrak seigarren sen bikain bat aurkitu zuen xaguxarretan, ordezkari maltzuraren gisara gainerako sen guztiak adina ezezik denak batera baino askoz urrunago heltzen dena.

— Ja ja! —eman zion Franzek algarari—. Hartara, xaguxarrak lirateke berez naturako sonanbuloak! Baina buruan zeneukan argitasun asmo horri jarraituz tinko adierazi nahi dut seigarren sen gogoangarri horrek edozein agerraldi ikus dezakeela, nola pertsona, hala ekintza, gertaera edo bitxikeria; hots, gure bizitza arruntean antzekorik aurkitu ezean miresgarri irizten diogun guztia. Baina zer da bizitza arrunta? Ai! Hesi estu baten barruko zurrunbiloan ertz guztiekin bekainekoak hartzen aritzea, eta halere *courbette*-ak egiten saiatzen gara, gure eguneroko ibi-

lera geldo, akonpasatuan. Delako igartzeko ahalmen hori txit egokia da ezagutzen dudan norbaitentzat. Horrek bultzata, egunetan zehar jarraitzen die maiz ibilera, jazki, hizketa, edo begirada arraroko arrotzei; era berean, gertaera edo ekin-tzen baten aurrean, hitz bitan esanda batere arretarik merezi ez eta inoren arreta erakartzen ez duen zerbaiten aurrean gogoetan jarri, zerikusirik gabeko gauzak elkartu eta loturak asmatzen ditu, inori bururatuko ez litzaizkiokeenak.

Lelio ozenki mintzatu zen:

— Zaude, zaude! Gure Theodorengatik ari zara. Eta gainera, badirudi buruan zerbait berezia darabilela, hain modu bitxian begirada josita daukanerako.

— Horixe bai —hasi zen Theodor, ordurarte isilik egon ondoren—. Horixe bai bitxia izango zela nire begirada, gogorapen benetan bitxi baten isladari begira bainengoen nire izpiritua-ren barrura. Oraindik orain bizitu dudan abentura...

— O, konta ezazu, konta ezazu! —eten zioten lagunek.

— Gogo onez kontatuko dut —jarraitu zuen Theodorek—, baina lehenik esan behar dizut, Lelio maitea, gaizki samar aukeratu dituzula nire igartzeko ahalmena erakusteko adibideak. Ez badakizu ere, Eberharden Sinonimo Hiztegian harrigarria hitzaz jakintza eta desiren edozein agerraldi izendatzen da, zentzuaren bidez arrazoitu ezin dena; miresgarria , berriz, ezinezko eta ulertezinari derizkio, naturaren indar ezagun guztiak gainditzen dituenari, edo, nik gehitzen dut hau, haren ohizko bideen aurka doala dirudienari. Horren ondorioz, bada, nire ustezko igartzeko ahalmena dela eta ez dela, nahastu egiten dituzu harrigarria eta miresgarria. Jakina da, ordea, harrigarria miresgarritik ernetzen dela eta maiz ez dugula enbor miresgarria ikusten, nondik adaska harrigarriak hosto eta lorez ernamuintzen diren. Berritu nahi dizuedan abenturan, ene ustez, ikaratzeko moduan elkartzen dira biak, nola harrigarria hala miresgarria ere.

Hitz horien ondoren Theodorek bere agenda atera zuen, non, lagunek zekitenez, bere bidaiei buruzko hainbat ohar zeuzkan bilduak. Noizik eta behin bertara kirika eginez ondoko gertaera

kontatu zien, zabalagorako ere nahikoa duina ematen zuena:

Badakizue (hasi zen Theodor), joan den uda osoa ***n igaro nuela. Bertan aurkitu nuen aspaldiko lagun eta ezagun mordoskak, bizitza erosoak, arte eta zientzietarako etengabeko bizi-tasunak, horrek denak gogotik eragin zidan. Inoiz ez naiz gusturago sentitu eta irrikaz heldu nion nire aspaldiko joerari: kolean barrena baka-rik paseatzen noalarik, zintzilik jarritako kobrez-ko grabatu eta iragarkiei atseginez erreparatzea, edo bidean egokitutako pertsonak aztertu eta nire artean zenbaiten horoskopoa ipintzea; izan ere, arte eta luxuzko erakusgaien aberastasunak ezezik, egoitza apain, oparo haiek ikusteak ere horretara bultzatzen ninduen.

Tankera hartako egoitzez inguratutako abe-nida, *** ateraino doana, topagune nagusia da bizitzako plazer finenak damatzen dituzten hiri-tar gorenentzat, nahiz maila nahiz aberastasu-nagatik. Jauregi altu, nasaien behe-solairuan luxuzko salgaiak eskaini ohi dira gehienetan, eta goiko pisuetan berriz, arestian aipatu jendea bizi

da. Ostaturik prestuenak kale honetan daude, atzerriko ordezkariak ere hantxe bizi ohi dira, eta beraz, kontu egingo duzue, hiriburuan beste inon baino joan-etorri bereziagoa ageri da bertan, berez dagoena baino populazio ugariagoaren itxura emanez. Leku honetarako grinaren ondorioz beharrak agindu baino bizileku ttikiagotan etsitzen du zenbaitek, eta hartara familia batzuen etxeak erlategien antzekoak dira.

Askotan ibilia nintzen abenida hartatik zehar, halako batean etxe bat begiz jo nuenean, gainetarako guztietatik oso modu harrigarri eta bitxian bereizten zena. Pentsa ezazue etxe baxu batean, lau leihorekin zabalean, bi egoitza eder alturen arrear itota eta lehen pisua ozta-ozta daukalarik aldameneko etxeen behe solairuko leihoa baino goraxeago. Teilatu gutti zaindua, tarteka paperez estalitako leihoak eta horma uherrak jabearen utzikeriaren seinale ziren. Pentsa ezazue zenbat nabarmentzen zen etxe hura, luxurik finenaz apaindutako egoitza dotore haien artean.

Gelditu eta hurbilagotik begiratu ondoren, leiho guztiak okertuta zeudela ohartu nintzen,

behe solairuko leiho aurrean horma zegoela erai-
kia, sarrerarako ere bai jo zuen saihets ate nagu-
sian ez zegoela ezkilarik eta ezta inolako sarrai-
la edo krisketarik ere agerian. Konbentziturik
nengoen etxe hark ez zuela bizilagunik edukiko,
sarritan eta noiznahi handik igaro arren behin
ere ez bainuen giza zantzurik antzeman.

Bizilagunik gabeko etxea hiriko auzo hone-
tan! Gertaera harrigarria! Hala eta guztiz ere
agian arrazoa soil eta xumea zeukan, hau da,
jabeari bidaia luzeren batek astia hartu edo urru-
neko ondasunetan bizi izanik, barruti hau ez
zuela ez inoren gain utzi nahi eta ezta alokatu
nahiko ere, hartara ***ra itzultzean berehala
bertan bizitzen jarri ahal izateko. Horixe zen nire
ustea, eta nik neuk ere zergatik ez jakin arren
etxe aurretik igarotzen nintzen lurrari erantsi-
ta bezala geratzen nintzen begira, gogoeta harri-
garritan, hausnartzen baino areago sorginduta.

Badakizue denok, ene gaztaro zoriontsuko
adiskide iaioak, badakizue aspaldidanik jokatu
dudala aztiaren gisara eta mundu miresgarriko
agerpen arraroren bat bizitzan sartu nahi izan
zaidanero, arrazoi sendoz gezurtatzen jakin

duzue! Tira, nahi hainbat sinu eta imintzio egin ezazue. Aitortu beharrean naiz sarritan sartu diodala ziria neure buruari, eta etxe hutsarekin ere hala gertatuko zela zirudiela, baina... Bukaeran dator lur jota utziko zaituzten ikasbidea, eta entzun arretaz! Has nadin!

Egun batez, itxurak pasealekuan batera eta bestera ibiltzea agintzen zuen orduan, hantxe nago etxe aurrean, ohi bezala hausnarketan begirada josita. Halako batean hot non jabetzen naizen, zuzenean so egin gabe, norbait nire aldamenean jarri eta begira daukadala. P. kondea da, elkarrizketa frankotan nire gogaide agertua, eta berehala jabetzen naiz inondik ere etxearen misterioak bera ere atxiki duela. Are gehiago harritu nintzen, ordea, hiriko auzorik jendetsueneko etxe huts hark nigan izandako eragin bitxiari buruz hizketan hasi eta barreari eman zionean ironiatsu. Baina laster argitu zen dena.

P. kondea ni baino askoz urrunago iritsia zen, eta hainbat konbinazio eta oharren ostean etxe hartako buruzpidea ezagutu zuen; eta buruzpide haren sorburua hain istorio bitxian zegoen non idazlearen irudimen bizienak bakarrik koka deza-

keen bizitza arruntean. Kondearen istorioa berri-tzea nuke zuzenena, oraindik argi eta garbi gor-detzen baitut gogoan, baina gertatu zitzaidana-gatik oraindik daukadan urduritasunak etenik gabe jarraitzera behartzen nau.

Gogotik harritu omen zen konde jauna, etxe hutsaren barruan zer eta gozogilearen konfitegia zegoela jakin zuenean, oparo jantzitako denda ondo-ondoan zuelarik. Horregatik zeuden murrutzaturik behe solairuko leihoak, labeen lekua hain zuzen ere, eta gozoak biltzeko lehen solairuko gela, berriz, eguzki eta eulien kontrako leiho-sare lodiz gordea.

Kondearen hitz haiek entzutean ur blaitua hartuta bezala geratu nintzen, edota poeten aur-kako deabru gaiztoak ameslaria atximurkatzen duenean bezala, minbera eta oinazez.

Azalpen arrunt hura gorabehera, pasaeran beti neukan begiratu beharra etxe hutsera eta beti irteten ziren giltzape hartatik irudi bitxi ugari, nire burua hotzikara emez zeharkatzen zutenak. Ezin nuen etsi gozotegi, mazapan, karamelu, opil, fruta konfitatu eta besteren ideiara. Burutapen konbinazio bitxi baten bidez

solas ezti, lasaigarriaren tankera eman nion guzti hari. Honela zioen, gutti gorabehera: Ez zaitetz beldurtu, jauna! Umetxo goxo maitagarriak gara, baina laster trumoiak joko du pittin bat! Orduan pentsatu nuen berriro: Ni nauk ni ergela, arrunta dena miresgarri bihurtu nahian! Ez al didate lagunek arrazoiz bizkarreratzen azti porrokatua naizela?

Ustezko argitasun haren ondoren, jakina zegoen moduan, etxean ez zen inongo aldaketarik izan. Hala, nire begirada ohitu egin zen, eta arestiko irudi zoro haiek, murrueetatik jalkiak ziruditenak, aienatu egin ziren pixkana. Kasualitateak iratzarriko zuen lozorroan zegoena.

Nahiz eta ahal nuen heinean eguneroko bizi-tzara itzuli nintzen, ez nion utzi etxe bakan hari begiz jotzeari; aise sinistuko duzue hori, neurezkoa baitut miresgarria den orori tinkotasun irmoz atxikitzea. Hala, egun batez bazkalordu aldera ohi bezala abenidan zehar nenbilerarik etxe hutseko leiho estalietara zuzendu nuen begirada. Orduan ohartu nintzen azken leihoko oihalak, gozotegi albokoak, mugitzen hasi zirela. Esku bat eta ondoren beso osoa agertu zen. Nire

antzoki betaurrekoak atera eta argiro antzeman nuen emakume esku zuri, itxura ederreko bat; haren behatz txikerreko harribitxi batek ohi ez bezalako dirdira zeukan eta brazaletetik bikain batek izarniatzen zuen edertasun oparoz guritutako besoan. Leihoko koxkan kristal pitxer luze, forma arraroko bat ipini zuen esku hark eta oiha-laren atzean ezkutatu zen.

Zur eta lur geratu nintzen. Sentimendu maiztagarri, beldurrezko, berezi batek zeharkatu ninduen epeltasun elektrikoz. Zirkinik egin gabe zorigaiztoko leihora begira nengoen, eta baliteke bularrondotik irrikazko intziri batek ihes egin izana ere. Azkenean neure oneratu, eta mota guztiko jendez inguratua aurkitu nintzen, neu bezala jakinmin aurpegiz gora begira. Amorrasi egin nintzen harekin baina berehala gogorazi nion nire buruari hirietan biltzen diren jendetzek badutela antzik lotarako txano bat seigarren solairutik zarrata bakar bat ere egin gabe erori eta ahoa bete hortz begira geratzen direnekin.

Isilean aldendu nintzen handik eta deabru arruntak garbi xuxurlatu zidan belarrira gozogi-learen emazte aberatsa ikusi berri nuela, igande

soinekoz apaindua, leihoko koxkan arrosa ur fineko pitxer hustua ipintzen.

Bat-batean, oraindik halakorik! ideia beldurgarria izan nuen. Itzuli eta zuzenean sartu nintzen etxe hutsaren aldameneko gozogilearen denda argitsuan.

Arnas hotzarekin txokolatearen apar beroa gatilu ertzero haizemanaz hasi nintzen hizketa jarioan:

— Hutsagaineko zabalpena eman diozu dendari!

Gozogileak koloretako beste karamelo pare bat bota zituen zorro barrura bizkor, eta irrikaz zegoen neskabila politari luzatu ondoren ukalondoak mostradore gainean jarri eta galderazko begirada irribarretsuz so egin zidan, ezer ulertu ez balit bezala.

P Errepikatu nion oso erabaki zuzena izan zela aldameneko etxean labea ipintzea, nahiz eta horrela egoitza huts hura era hits, goibelean bereizten zen ondoko beste alaietatik.

— Baina jauna! —hasi zen gozogilea—. Nork esan dizu alboko etxea geurea denik? Geureganatzeko ahalegin guztiak zoritxarrez alferrik izan

dira eta baliteke gainera hoberako izatea, albo-ko etxe hori hortik honakoa baita.

Jabetuko zarete, lagunok, zenbateko zirrara sortu zidan gozogilearen erantzunak, eta otoi etxeaz mintza zekidan eskatu nion.

— Bai, jauna! —ekin zion—. Nik neuk ez dakit ezer asko, baina ezaguna da etxea S.ko konde-sarena dela, bere ondasunetan bizi eta azken urte hauetan ***ra etorri ez dena. Gure kalea apaintzen duten egoitza bikainak artean ez zeudenean ere agi danean etxea bertan zegoen, oraingo itxura berean; harrezkero azken orduan sendotu dute beti, erabat gainbehera etorri baino lehen.

«Bi biztanle bakarrik ditu: adin handiko administratzaile elkor bat eta zakur antsilari, bizitzaz aspertutako bat, aldian behin atzeko orubean ilargiari uluka aritzen dena. Zurrumurruaren araberako egoitza huts hori sorgindua dago; izan ere dendako jabea den anaiak eta biok, gau isilean, Eguberri aldera, negozioa dela-eta hemen esna geundela, lanturu arraroak entzun genituen maiz, nonbait aldameneko etxearen pareta atzetik jalkiak. Ondoren arramazkada eta murmurio

hots latza hasi zen, gu biok izu batean jartzera-
no. Ez da aspaldi ere iluntze aldera kantu bitxia
entzun zela, inolatan ere deskribatu ezin dizuda-
na. Guk entzundako hura andre zaharraren boza
zen, argi eta garbi, baina notak hain ziren oze-
nak, eta hain goraino heltzen ziren kadentzia
aberats eta xaramela luze zorrotzez, non, nahiz
eta nik Italia, Frantzia eta Alemanian hainbat
kantari ezagutu izan, inoiz ez dudan antzekorik
aditu. Nirekiko, frantses hitzak ziren baina ezin
izan nuen zehatz antzeman eta ezta parte gaiz-
toko kantu zoro hura luzaroan entzuten egon
ere, tentetuta baineuzkan buruko ileak.»

«Aldian behin, kaleko zarata guttitzen
denean, atzeko gelan hasperen saminak aditzen
ditugu eta baita algara lodi baten durundia ere,
lurrazpitik aterea dirudiena; baina belarria pare-
tan ipiniez gero berehala antzematen da intziriak
eta algarak alboko etxetik datozela. Begira
(atzeko gelara gidatu eta leihotik erakutsi zidan),
begira harako burdinazko hodi hari, hormatik
azaltzen dena: batzuetan botatzen dituen kee-
kin, baita ezer berotu beharra ez dagoen udan
ere, eta sutearen beldur, anaiak sarritan izan

ditu auziak administratzaile zaharrarekin. Honek berriz, otordua gertutzen ari den aitzakia. Jainkoak bakarrik daki zein ote duen otordua, hodi horri kea barra-barra darionean oso usain bitxi berezia zabaltzen baita sarritan...»

Dendako atea intziri egin zuen eta gozogilea presaka joan zen; sartu berriagatik niri keinu eginaz, begirada esanguratsua zuzendu zidan. Bai nik ederki asko ulertu ere. Beste inor izan al zitekeen halamoduzko kristau bakan hura, etxe misteriotsuko administratzailea ezik? Imajina ezazue gizon ttiki, ihar bat, momia koloreko aurpegia, sudur kakoa, ezpain estuak, distira berdeko katubegiak, etengabeko barriduri txorrea, ilea antigoaleko eran kizkurtu eta hautsa emana, tentetu eta karakoilak erantsita, ileko sare handiarekin, *postillon d'amour*, kafe koloreko jantzi zahar maiztua baina ongi zaindu eta brozaturua, galtzerdi grisak, oinetako handi, mutur zapalak harrizko hebilekin. Imajina ezazue gizon ttiki, ihar hori, bere ukabil handi, behatz luze sendoak eta gorputz mardularekin mostradorera hurbiltzen dela; baina orduan, etengabeko barriduriarekin eta kristal ontzitan jasotako gozokiak begi-

tik kendu gabe, ahots ezindu, errukarriz galdegi-
ten duela:

— Bi laranja garratz konfitatu, bi almendratu,
bi *marron glacè*, e.a.

Imajina ezazue hori eta zeuok juzka ezazue
zerbait bitxia somatzeko arrazoirik nuen ala ez.
Agindutakoa batu zuen gozogileak.

— Pisa ezazu bai, auzolagun agurgarria —
esan zuen lanturu ahotsez gizon berezi hark.

Sakelatik larruzko zorro ttikia aiene eta arna-
sestu artean atera eta diruaren bila hasi zen
nekez. Ohartu nintzenez mostradore gainean
zenbatzen ari zen diruaren artean denetatik
zegoen, baita garai bateko txanpon sorta ere,
jadanik baliorik gabea. Purrustan hasi zen mar-
marka:

— Gozo, gozo! Gozo izan behar du orain
denak, niregatik gozo. Satanasek bere andre-
gaiaren muturra igurtzitzen du eztiz, ezti hutsez.

Gozogileak niri irribarretsu begiratu eta
honela mintzatu zitzaion agureari:

— Ondoezik ematen du. Urtetan aurrera eta
indarrak ahitzen doazkio berorri ere, nonbait.

Begitartea aldatu gabe, boza goratuz hasi zen agurea hoska:

— Urtetan aurrera? Urtetan aurrera? Indarrak ahitzen? Ahul, kemena galduta? Ja ja, ja ja, ja ja!

Hartan, hezurrek hotsa ateratzeraino ukabil batekin bestea jo eta jauzi egin zuen, airean hankak bilduz; hainbesteko indarrez ere non denda guztian sortu zuen burrunba eta kristal hotsa. Baina orduantxe antsi latza aditu zen, agureak zapaldu egin baitzuen zakur beltza, bere oinen babesean ezkutatu eta etzanda zegoena.

— Piztia madarikatua! Infernuzuloko zakur zaharra! —heldu zion agureak aurreko lanturu hotsari, zorroa ireki eta zakurrari, almendratu handi bat luzatzen ziolarik.

Zakurra, giza tankeran negarrez lehertzen, berehala isildu zen; atzeko hanken gainean zutitu eta kattagorriak bezala karraskatu zuen almendratua.

Biek bukatu zuten batera, zakurrak almendratua klikatzez eta agureak zorroa itxi eta gor-detzez.

— Gabon dagizula, ene auzolagun prestua — esan zuen orduan, eta bostekoa luzatu ondoren

hainbeste estutu zion eskua non gozogileak garrasi egin zuen minez.

— Agure zahar ahulak gabon opa dizu, gozogile jaun prestua —errepikatu eta kanpora abiatu zen, atzetik zakur beltza zuelarik muturreko almendratu kondarrak mihizkatuz.

Agurea ez zen jabetu nonbait neu ere bertan nengoela, harridurak jota.

— Horratx! —hasi zen gozogilea—. Horratx nota jarduten duen agure harrigarri horrek aldian behin, hilabetean bizpahiru bider edo. Baina ez dago berari deus ere aterako dionik, ezpada lehen S. kondearen gelaria zela, orain etxea bere gain duela, S. kondearen familia espero duela noiznahi (horretan gara azken urteotan), eta horregatixek ezin duela maizterrik jarri. Gaueko zarata harrigarri horiengatik anaia behin kexaka joan zitzaion batean lasai asko erantzun zion: «Bai, jendeak hala dio, etxea sorgindua dagoela. Baina etzazu sinistu, ez da egia eta.»

Ohiturak agindu zuen denda hura bisitatzeko tenorea heldu zela. Atea zabaldu, jende apaina

aukeran sartu eta ez nuen beste ezer galdetzerik izan.

Honenbestez argi zegoen P. kondearen albisteak etxearen jabegoa eta erabilerari buruz okerak zirela; administratzaile zaharra, berak ukatu arren, ez zela bakarrik bizi; eta, inondik ere, sekreturen bat gordetzen zela han munduaren begietatik. Ez al zen bidezkoa kantu bakan ikaragarri hari buruzko kontaera hura hartuemanean jartzea leihoan beso eder hura azaltzearekin? Beso hura ez zegokion, ezinezkoa zen egokitzea andre zahar, zimurraren gorputzari; eta gozogileak deskribatu bezalako kanta ere ezin zen etorri lore berritan zegoen neskabila baten ezarritik. Besoa zela eta ez zela, aise sinistarazi nion nire buruari agian gozogile izutuaren irudipen hutsa izango zela ahots hari adindu eta zorrotz tankera ematearena, edo bestela belarriek okerreko gauza entzunaraziko ziotela.

Kea, usain arraroa eta neuk ikusitako forma harrigarriko kristal pitxarrarekin gogoratu bezain laster, bizi-bizian azaldu zitzaidan begi aurrean gizaki zoragarri baten irudia, azti tresna galgarritan harrapatua. Agurea belagile zital bihurtu

zitzaidan, azti madarikatu, agian S. kondearen familiarekiko inongo loturarik gabe, bere kabuz etxe hutsetik inori kaltea sortzea besterik bilatzen ez zuena.

Nire fantasia lanean ari zen eta gau hartan bertan, ametsean baino areago lokartu garaiko nahasmenean, behatzean diamante irirkaria zeraman eskua ikusi nuen garbi, eta brazaletetik distiratsua zeraman besoa. Pixkana-pixkana, laino gris xumearen altzotik sortua bailitzan, aurpegi xamur bat ari zitzaidan hurbiltzen begi urdin, hits, errukarriz, eta ondoren lore berritan zegoen neskatila baten irudi xarmangarria. Laster konturatu nintzen lainotzat neukana ez zela lurrin fina besterik, irudiak esku artean zeukan kristal pitxarretik goratzen zena, jira-bira bihurritan.

— Oi zu, irudi liluragarria! —egin nuen bozkarioz oihu—, esaidazu non zauden, eta zeren gati-bu! Oi, zenbateko tristura eta maitasunez begiratzen didazun...! Badakit magia beltzak kateatu zaituela. Deabru maltzur horren esklabu dohaka-bea zara, gozotegietan barrena dabilen horrena kafe kolorez jantzita eta ileko sare handiarekin,

jauzika bazterrak txikitu beharrean eta zakurtzar almendratujaleak zapaltzen, hauei bost bider zortzi konpasean uluka ariarazi ondoren, infernu-ko iskanbilarekin. Oi, badakit dena, umetxo goxo ederra! Zure barruko sugaldaren errainua da diamantea! Ai, zure bihotzaren odola emango zenion edaten! Nola egin lezake bestela dir-dir eta milaka bristada jaurti, izaki hilkor batek inoiz somatutako maitasun doinurik bikainenekin? Baina ongi dakit eskumuturra inguratzen dizun uzaia katemila dela, kafe kolorekoak magnetikoa dela dioena. Etzazu sinistu, ene aingerua! Ikusten dut su urdinak goritutako pegarraren gainean zintzilik. Nik hura irauli eta libre izango zara! Ez al dakit dena? Ez al dakit dena, ene ederra? Baina ireki itzazu, andereñoa, zure arrosazko ezpainak, eta esaidazu...

Une hartan ukabil aihentsu bat nire sorbalda gaintetik kristal pitxarrerantz luzatu, eta hau mila pusketan pitzaturik birrindu zen airean. Hasperen leun batekin ezkutatu zen irudi zoragarria gau beltzean.

Ah! Zeuon irribarreetatik jabetzen naiz ameslari zelebretzat hartzen nauzuela oster. Baina

zinez diotsuet amets hark, oraingoan ere izen hori jarri nahi badiozue, liluraldiaren itxura osoa zeukala. Sinisgogortasun arruntez jarraitzen duzuen ez barrezka, nahiago dut horren gainean ezer ez esan eta lehenbailehen aurrera egitea.

Egunak argitu orduko, kezka eta irrikaz beteta abenidaraino korri egin eta etxe hutsaren aurrean jarri nintzen. Barruko leiho-oihalez gain, sare lodi batzuk zeuden ipiniak. Kanean ez zen inortxo ere ageri. Behe solairuko leihora hurbildu eta arretaz entzuten jarriagatik ez nuen soinu bakar bat ere aditu, hilobi barrua bezain isila dena. Egunak aurrera egin eta jendearen emana hasi zen. Aldegin beharra izan nuen.

Ezin gogaituko zaituztet kontaktzen egun askotan ibili nintzela edozein orduz inguruan zulomiran zantzurik ttikiena hartu gabe, azterketa eta ikerlan guztiek ez baitzuten inongo arrakastarik izan, eta azkenean nire liluraldiko irudi ederra aienatzen hasi zen.

Behinola, gautu ondoren paseatzetik etorrean etxe hutsera hurbildu nintzen batean atea zirrikitua zegoela ohartu nintzen. Hurbildu eta

kafe kolorekoa azaldu zen. Hartua neukan erabakia.

— Ez al da etxe honetan bizi Binder jauna, finantzen kontseilaria? —galdetu nion agureari, kriseiluak motelki argitutako ezkaratzera la bultzaka sartuz.

Agureak bere betiko irribarreez begiratu eta honela esan zidan, emeki eta tinko:

— Ez, jaun hori ez da hemen bizi; inoiz ez da hemen bizi izan eta ezta biziko ere. Ez da abenida honetan bizi. Etxe honetan anima herratuak daudela dio jendeak. Baina gezurra dela ziurtatzen dizut. Hau etxe lasai eta ederra da eta bihar bilduko da hona S.ko kondesa andrea, eta... gabon dagizula, jauna!

Horrenbestez, agurearen maniobrek kanpora bidali ninduten eta atea itxi zuen nire atzean. Bere giltzapilo txintxinkaria hartura, arnasestu eta ezdul batean ezkaratzetik oinak arrastaka zihoala entzun nuen eta ondoren eskailerak jais-ten zituela iruditu zitzaidan.

Denbora tarte labur hartan ohartu nintzen ezkaratza antzinako tapiz koloretsuz apaindua eta sala baten eran zegoela jantzia, damasko

gorriz estalitako besaulk handiekin, guztiari tankera harrisarria emanaz.

Orduan hasi ziren nire abenturak, etxe misteriotsuko sartualdi hark erneta bezala. Pentsa bestela: banoa hurrengo eguerdian abenidan zehar, urrutitik begirada etxe hutsari nahigabe zuzendua, eta hor non ikusten dudan zerbaiten distira gol solairuko azken leihoan. Hurbildu eta kanpoko leihosarea erabat zabalik dago eta barruko oihala erdizka. Diamanteak nire aurrean egiten du dir-dir. Jaungoikoa! Besoan bermaturik, nire lilurako aurpegia daukat begira, tristuraz eta errukarri.

Nola egon ordea geldirik jendearen emanaren erdian? Orduan jo nuen begiz paseatzaileentzat etxe hutsaren parean ipinitako bankua, nahiz eta bertan esertzen zenak atzea ematen zion. Abenidan zehar agudo joan eta bankuaren bizkarrean kuzkurtuz inork galarazi gabe begira niezaiokeen zorigaitzoko leiho hari.

Bai! Bera zen, lehengo neskatila eder, zoragarri hura berbera! Baina begiradari buruz ezin ezer esan. Ez zegoen niri so, nik lehen uste bezala, baizik eta begiak herioarekin hoztuta bezala.

Bizitasun handiz margotutako koadro batekin nahasteko modukoa zen irudi hura, noizean behin besoa eta eskua mugitu ez balira.

Erabat murgildurik nengoenez leihoko izaki harrigarri haren ikusmiran, nire barrena hainbeste asaldatzen zuena, ez nituen aditu purtxilero italiar baten garrasi hotsak, agian aspalditik bere salgaiak etengabe eskaintzen ari zitzaidana. Azkenean besotik tira zidan. Berehala jira eta gogor samar baztertu nuen, amorruez. Baina ez zion utzi niri erregutu eta gogaitzeari. Egun guztian ez zuela ezer irabazi eta arren arkatz pare bat edo ahoko zotz zorrotxoak erosteko. Eramanezinik, eskua sakelari sartu nuen poltsaren bila, nazkante hura ondotik airean bidaltzeko. Berak badauzkat gauza polit gehiago ere esanaz, bere kutxatilararen azpiko kaxoia atera, beste kristalen artetik sakela ispilu ttiki, borobil bat hartu eta aurrean jarri zidan saiheska, nigandik hurbil. Etxe hutsa ikusi nuen nire atzean, baina leihoa ere, eta argitasun eta zehaztasunik handienaz nire liluraldiko aingerua. Berehala erosi nion ispilua, posible egiten baitzidan leihoari eroso begi-

ra egotea, bizilagunen aurrean nabarmendu gabe.

Ordea leihoko aurpegiari begira nengoela, sentipen arraro eta adieraezin bat joan zen nitaz jabetzen, kasik esnatuzko ametsa dei nezakeena. Iruditu zitzaidan katalepsia antzeko batek ikusmena elbarritzen zidala, mugimenduak baino areago, ezin baintuen begiak ispilutik aldendu. Lotsarren aitortzen dut gogora etorri zitzaidala nire inudeak mutil kozkorretan oherako kontatzen zidan ume ipuina, iluntze aldera aitaren gelako ispilu handiaren aurrean jarri eta barrura begira egon zale nintzenean. Berak zioenez, hurrek gauez ispiluan begiratzen badute aurpegi arrotz, likits batek so egiten die barrutik eta hurraren begiak bertan itsatsiak geratzen dira. Beldurgarria zitzaidan hura, baina sarritan, izulaborriz bazen ere, ezin nintzen egon kirika egin gabe, aurpegi arrotz hura nondik ikusiko. Halako batean begi sutsu izugarri batzuk ikusi uste izan nituen ispiluan dir-dir; garrasi egin eta korderik gabe erori nintzen zerraldo! Eritasun neketsu batek atxiki ninduen orduan. Oraindik

ere begi haiek benetan dir-dir egin zutelakoan nago!

Beraz, mutil kozkorretako umekeria zoro haiekin gogoratu eta hotzikarak zabaldu zitzaizkidan denean. Ispilua harrika bota nahi baina ezin nuen, niri so baitzeuden irudi gozo haren begi zerutiarrak. Bai, begirada nigana zeukan zuzendua, bihotzeraino argitzen ninduelarik. Lehengo izulaborria joan eta lekua utzi zion irri-ka gozoko min maitagarri bati, nire barrena epeltasun elektrikoz su goritan jarriaz.

— Ispilu polita daukazu —esan zuen norbaiten ahotsak nire aldamenean.

Esnatu ametsetik eta handia izan zen nire txundidura b aldetan aurpegi bana ikusi nuen, zalantzazko irribarrez niri begira. Gizon batzuk zeuden eserita nire banku berean, eta inondik ere nire begirada lotuarekin eta nire asalduran egin bide nituen sinuekin ikuskizun dibertigarria eskaini nien.

— Ispilu polita daukazu —errepikatu zuen gizonak nik erantzuten ez nionez, begiradarekin beste galdera ere gaineratuz: Esaidazu baina,

zer dela ta jositako begirada zoro hori? Anima herratuak agertzen zaizkizu ala...?

Gizon hark, urtetan aurreratu samarra eta oso txukun jantziak, hizketako doinu eta begiradan bazeukan bihotzoneko zerbait, konfidantza eragiten zuena. Ezbaian egon gabe esan nion ispiluan neskabila zoragarri bat ikusi nuela atzeko etxe hutsaren leihoan jarrita. Areago, berak ere begitarte gozo hura ez al zuen ikusi galdetu nion.

— Haranzkaldean? Etxe zaharrean? Azken leihoan? —galdetu zidan ostera agureak, zeharo harriturik.

— Bai, hantxe bertan —nik berriz.

Orduan agureak barre egin eta honela hasi zen:

— Tira, nahasketa harrigarria da hori. Nire begi zaharrak... Jainkoak zain biezaizkit! Et, et, jauna. Nik, berez, begi hutsekin bakarrik ikusi dut leihoko aurpegi eder hori, baina oleozko erretratu biziaren tankera eman diot.

Leihorantz itzuli nintzen azkar. Dena desagertu eta sarea jaitsia zegoen.

— Bai —jarraitu zuen agureak—, ezertaz konbentzitzeko beranduegi da orain. Izan ere morroiak, nik dakidanez bakar bakarrik bizi denak S. kondesaren aldian behingo etxeko zaindari bezala, oraintxe bertan eraman du koadroa leihotik hautsa kendu ondoren eta sarea jaitsi du.

— Ziur zaude koadroa zela? —galdetu nuen berriro, zeharo txunditurik.

— Fida zaitez nire begiez —gaineratu zuen agureak—. Zuk ispiluan koadroaren islada bakarrik ikusi izanak handitu egin du ilusio optikoa, nonbait; baina zure adinean ez al zukeen neska eder baten koadroak nire fantasia ere berpiztuko?

— Eskua eta besoa mugitu egiten ziren, ordea —eten nion.

— Bai, bai, mugitzen ziren. Mugituko ez ziren bada! —mintzatu zitzaidan agurea, sorbaldan tapateko leun batzuk emanaz.

Hala, zutitu eta gizabidetsu gur eginez alden du zen nigandik, honela zioelarik:

— Begirozu ispiluei sinistu gero, gezurti hutsak dira eta. Zure esanetara geratzen naiz.

Imajinatuko duzue nola sentitu nintzen ameslari kaiku, inozotzat hartu nindutenean. Konbentzitura nengoen agureak arrazoi zuela eta nire baitan bakarrik erne zela irudipen zoro hura, hain modu latzean nahastu ninduen, esatea lotsagarria bada ere.

Haserre eta humore txarrez itzuli nintzen etxera, erabaki sendoa harturik etxe hutsaren misterioei buruzko ideiak baztertzeke eta egun batzuetan behinik behin abenida bar, muzin egiteko.

Tinko lotu nintzaion honi eta gainera hurrengo egunetan idazmahai aurrean egon nintzen presazko zenbait aferengatik, eta gauetan, berriz, lagun zirtolari, alai batzuen arrear; beraz, sekretu haiekin gogoratu ere ez nintzen la egin. Garaitsu hartan hasi nintzen batzuetan lotatik bat-batean esnatzen, norbaitek ukiturik bezala; argi zegoen nire liluraldian eta etxe hutseko leihoan ikusitako izaki misteriotsuaren oroitza-penak itzartzen ninduela. Lanorduan ere, edo lagunekin solasean ari nintzenean eta inolako zergatirik gabe oroitza-pen hori jabetzen zen nitaz bat-batean, tximistaren antzera.

Hala eta guztiz ere, iragaitzazko mementu labur batzuk izaten ziren horiek. Sakela ispilu ttikia, erretratu eder hura sasi-isladatu zuena, etxeko erabilpen arrunterako neukan. Harexez baliatzen nintzen gorbatari gorapiloa egiteko. Hala, lantegi garrantzitsu hori bukatzera nindoan batean lausotua aurkitu nuen eta halakoetan ohitura denez arnasa bota nion, gero igurtziz garbitzeko. Odola zainetan izoztu eta barrena dardarka jarri zitzaidan, izu atsegin batekin! Bai, horrela iritzi behar diot nitaz nagusitu zen sentipenari, ispilura arnasa bota orduko gandu urdinskaren artetik aurpegi gozo hura ikusi nuen modu hits, erdiragarrian niri begira.

Barre egiten al duzue? Egin ditut zuekikoak. Ameslari porrokatutzat naukazue, baina zuek zernahi esan edo pentsa, aingeru hura ispilutik begira neukan. Lurrina desegin bezain laster, ordea, ispiluko distiraren artean aienatu zen aurpegia ere. Ez zaituztet nekatu nahi, ez dizuet ondorengo une bakoitza banaka kontatu nahi, gertatu zen heinean. Esan nahi dizuedan bakarra da behin eta berriro errepikatu nituela nire aha-leginak ispiluarekin eta sarritan berreskuratu

nuela irudi maite hura nire am asaren bitartez, nahiz eta beste batzuetan gogotik saiatu arren arrakastarik eduki ez. Eroa baino areago joan nintzen korrika etxe hutsaren aurrera leihora begiratzeko, baina han ez zen kristaurik ageri.

Pentsamendu bakar harekin bizi nintzen, beste guztia hila zegoen niretzat, nire lagun eta ikasketekin ere zabartzeraino. Egoera hura oina-ze lasaigarri edo ametsetako irrika bilakatzen zen batzuetan, irudiak indarra eta bizitza galdu balitu bezala; baina sarritan gailurra jotzen zuen, oraindik ere izulaborriz betetzen nauten mementutan.

Hondamenera eraman nindezakeen animako egoera bati buruz mintzo naiz, sinisgogor hala-kook, eta ez dago bertan barre edo isekabide den ezer. Entzun eta erruki zaitezte nik jasanda-koaz.

Esan bezala, sarritan, irudi hura lainotzen zenean ondoezak hartzen zidan gorputza; ondoren irudia inoiz baino bizitasun eta distira handiagoz agertzen zen, eutsi niezaiokeela uste izateraino. Baina orduan, eta modu beldurgarrian, irudia neroni nintzela iruditzen zitzaidan, ispiluko

ganduak inguratu eta bildua. Egoera garratz hura bularreko min zorrotz batekin amaitzen zen, erabateko nagitasunak jarraitzen ziolarik, hondarrean beti lehertu beharreko nekea uzten zidana. Halakoetan huts egiten zuten nire saioek ispiluarekin, baina berriro indartu bezain laster agertzen zen irudia ispiluan ostera, eta ezin uka dezaket hori nire gorputzarentzat pizgarri berezi bat zela, ordurarte ezezaguna zitzaidana.

Aterunerik gabeko aztorapen hura kalterako izan nuen. Hildakoa bezain zurbil eta zalantza batean nenbilen, zeharo lur jota. Lagunek gaixotzat hartu ninduten, eta beren etengabeko oharren poderioz azkenean ahalik eta arreta handienaz hausnartu nuen nire egoera. Ez dakit propio edo nahigabe, baina medikuntza ikasten zuen lagunetako batek bisitatu ninduen behin eta buruko gaitzei buruzko Reil-en liburua utzi zuen nire etxean. Irakurtzen hasi eta lan hark biziki erakarri ninduen. Baina hura harridura neure burua ezagutu nuenean zoramen itsutuari buruz zioen guztian! Nire burua eroetxeko bidean ikustearen ikara latzak zentzatu eta erabaki sendoa bartu nuen, berehala burutu beharrekoa.

Sakela ispilua hartu eta K. doktoreagana joan nintzen segituan, eroen tratamendu eta sendaketa arloan ospetsua, eta baina oinarri psikikoaren jakinduriagatik ere, honek sarritan gorputzeko eritasunak sortu eta atzera senda baititzake. Dena kontatu nion, gorabeherarik ñimiñoena ere isildu gabe, eta nire ustetan mehatxatzen ninduen patu beldurgarritik salbatzeko erregutu nion.

Lasaitasun osoz entzun ninduen baina harri-dura sakona antzeman nion begiratuan.

— Halere —hasi zen—, arriskua ez dago oraindik zuk uste bezain hurbil, eta ziur nago erabat baztertu ahal izango dudala. Ezbairik gabe eragin psikiko bakan batek eraso dizu, baina oinarri gaizto baten erasoaz jakitun izateak gogor egiteko armak jartzen dizkizu eskura. Emaidazu sakela ispilu hori, zure adimen osoa eskatzen duen lanen bati lotu zaitez, ahaztu zaitez abenida horretaz, ahal duzun bezain goiz ekin lanari, eta gero, ibilaldi eder baten ondoren, zoaz lagunartera, aspaldi honetan zure miraz egongo dira eta. Janari sendoak hartu eta ardo bizkorgarri indartsuak edan itzazu. Ikusten duzu

zure ideia itsu hori erauzi nahi dudala, alegia etxe hutsaren leihoan eta ispiluan aurpegi hori agertzen zaizun ideia, zure gogoan beste gauzatarazuzendu eta gorputza zailduaz. Jarraiozu nire asmo honi artez.

Zaila egiten zitzaidan ispilutik aldentzea. Medikuek, jadanik eskuetan zeukalarik, antze-man egin zuen. Arnasa bota eta honela galdetu zidan, nire aurrean jarriaz:

— Ezer ikusten al duzu?

— Ezta ezertxo ere —erantzun nion, benetan zen bezala.

— Bota ezazu zerorrek arnasa —esan zuen orduan medikuek, ispilua niri emanaz.

Hala egin eta inoiz baino argiago azaldu zen lehengo irudi miresgarria.

— Horra hor! —oihukatu nuen.

Medikuek bertara begiratu eta esan zuen:

— Nik ez dut ezerean aztarnarik hartu, baina ezin ezkuta diezazuket ispiluari begiratu diodan unean bertan dardara latz bat nabaritu dudala, berehala joan zaidan arren. Ikusten duzu oso egiazalea naizela, eta horregatixek merezi dut zure zeharoko konfidantza. Saia zaitez berriro.

Hala egin nuen. Medikua besoaz inguratu ninduen, bere eskua bizkarrezurrean nabaritzen nuelarik. Berriro azaldu zen irudia. Medikua, nirekin batera ispiluari begira, zurbildu egin zen; orduan nire eskutik ispilua hartu, berriro begiratu, idazmahaiian giltzapean itxi eta nigana jiratu zen, eskua bekokian zuela segundo batzuez isilean egon ondoren.

— Jarrai itzazu —hasi zen—, jarrai itzazu nire aginduak zehazki. Aitortu beharra daukat zure onetatik atera eta zure baitan nabari dituzun oinaze une horiek oraindik misterio osoa direla niretzat, baina espero dut laster izango naizela zuri horri buruz gehiago esateko gai.

Hobe-beharrez, borondate tinko eta irmoarekin bizitu nintzen aurrerantzean, doktoarearen aginduei segituaz. Laster antzeman nuen beste-lako gogoeten eta agindutako dietaren eragin mesedegarria, baina halere ez nintzen libratu eguerdian hamabiak aldera, baina bereziki gauerdian hamabiak aldera nozitzen nituen larrialdi beldurgarrietatik. Lagunarte alaiaren erdian ere, edari eta kantuen orduan, bat-batean laban gori zorrotzek zeharkatzen zidatela barre-

na iruditzen zitzaidan, eta nire kemen guztia ez zen hari autre egiteko aski; handik aldegin beharra izaten nuen eta zorabio antzeko hartatik esnatu arte ez nuen itzultzerik izaten.

Gau batez bilera batean nengoen, non indar eta eragin psikikoari buruz eta magnetismoaren arlo ilun, ezezagunaz mintzo zen. Solasgai nagusia zen ea oinarri psikiko urrun batek inorengan eraginik izan ote dezakeen, eta aldeko adibide ugarien bidez baieztatu zuten. Mediku gazte bat aritu zen bereziki hizketan, magnetismoaren oso zalea, esanaz beta eta beste anitz, edo areago magnetizatzaile indartsu guztiak gauza zirela urrunetik sonanbuloengan eragina izateko, borondatea azkarki tinkatze hutsarekin. Kluge, Schubert, Bartels eta bestek honi buruz esandako guztia joan zen argitara ateratzen.

— Garrantzitsuena —hasi zen azkenean bertako bat, aztertzaile zuhurtzat zeukaten medikua—, nire ustez denetan garrantzitsuena da agi danean magnetismoak hainbat misterio azaltzen dituela, nahiz eta guk nahiago izan gorabehera arrunt eta xume iriztea, eta ez misterio. Baina jakina, kontuz epaitu behar dugu. Nolaz izan dai-

teke inongo arrazoi agerikorik gabe, nahiz kanpoko nahiz barruko, eta gure ideien katea etenaz norbaiten edo gertakariren baten irudi argia gure gogo barrura bat-batean sartzea eta halako bizitasun harrigarriaz gu menperatzea? Aipagarriak dira ere gure lo garaiko asaldurak: lehenbiziko ametsa leize beltz batean hondoratzen da, eta amets berriak, arestikoarekin zerikusirik gabeak irudi berri bat agertzen digu sekulako bizitasunaz, gu lurralde urrunetara eraman eta aspaldi atzendutako jendeak aurkezten dizkigularik. Areago, askotan honelaxe begiratzen diegu pertsona ezezagunei, agian amets hartatik urte askotara lehen aldiz ikustean. Esaten dugunean ere Ene Jainkoa! Harrigarria bada ere, gizon edo emakume hori ezaguna egiten zait, lehenago ere nonbait ikusi dudalakoan nago, berez ezinezkoa izanik, agian horrelako amets baten oroitzapen iluna izan daiteke. Gure gogoeten katean bat-batean irudi arrotzak agertzea eta gu hainbesteko indarrez menperatzea ez ote da izango oinarri psikiko arrotz baten lana? Ez ote da izpiritu arrotza agian gai izango, baldintza batzuen pean eta inongo prestaketarik gabe lotura magnetiko

hori bideratzeko, gu nahitaez jarraitzera behar-tuz?

— Horrela helduko ginateke —sartu zen beste bat barrez— urrats handiegirik gabe sorginkeria, lilurak, mirariak eta bestelako siniskeria bitxi eta zentzugabeen doktrinara, aspaldi zaharkitutako garai ezjakin bateko zerak.

— Begirozu gero! —eten zion medikuak sinisgogorrari—. Garaiak ez dira zaharkitzen eta inoiz ez da garai ezjakinik izan, non eta ez ditugun ezjakintzat hartzen pentsatzeko ausardia eduki duten garaiak, geurea barne. Gauza bitxia da askotan lege sendoen bidez ere finkatua dagoen zerbait ukatu nahi izatea eta, halaber, ez dut uste gure izpituaren sorterrria den erresuma ilun misteriotsu horretan lanparatxo bakar bat ere piztuta dagoenik gure begi eskasak argitzeko; baina halere jakina da naturak ez digula ukatu satorren sena eta trebetasuna. Hor saiatzen gara, itsuak izan arren ilunpean barrena bidea urratzen. Baina hala nola antzematen duen itsuak mundu honetako arbolen hosto firfiran kerizpe freskoa emango dion basoa, eta hala nola egarberak ere uren zurrumurru eta plasta-

dan aseturik utziko duen erreka, modu horretan bere desirak beteaz, gisa berean, izpirituaren arnasaz ukitzen gaituzten izaki arrotz horien hegalkada ozenetan igartzen dugu guk ere argiaren iturbururantz garamatzan erromesbi-dea, begiak zabalduko dizkiguna.

Ez nion nire buruari gehiagoan eusterik izan.

— Ziurtzat jotzen al duzu orduan —esan nuen medikuagana zuzenduz—, izpirituzko oinarri arrotz baten eragina, nahitaez jarraitu beharrekoa?

— Nire iritziz, eta sakonean sartu gabe —erantzun zuen medikuak—, eragin hau posiblea izateaz gain, antzekoak dira ere egoera magnetikoari esker argitzen diren oinarri psikikoaren beste hainbat operazio.

— Hartara —jarraitu nuen—, etsai gaizkileek eragin galgarria izan al dezakete gudan?

— Izpiritu erorien trikimailu zirtzilak dira horiek —gaineratu zuen medikuak barrezka—. Ez gaitezen horien aurrean makurtu. Arren eskatzen dizuet ere nire hitzak iritzi soiltzat har ditza-zuen, eta esandakoari gehitzen diot inolatan ere ez dudala onartzen izpiritu batek beste bat arras

azpira dezakeenik; aldiz, pentsatu nahi nuke egon behar duela menpekotasun, borondate ahultasun edo harremanen bat nagusitza hori ahalbidetzen duena.

— Oraintxe hasi naiz —ekin zion gizon adindu batek, ordurarte isilik eta arretaz entzuten egonak—, oraintxe hasi naiz zertxobait ohitzen guretzat ezkutukoak diren misterio horiei buruzko zure ideia bakan horiekin. Nahiz indar misterioitsu kaltegarriek eraso gaitzaketen, geure izpiritua okerturik egoteak soilik oztopa diezaguke garaipenez borrokatzeko indar eta kemena. Hitz bitan, soilik izpirituko eritasunak, bekatuak alegia egiten gaitu oinarri galgarri horren morro. Argi eta garbi, antzinatean has eta egundaino, gure barrena astintzen duten asaldurarik nahasienetan jardun dute etsai indarrek. Amodiozko enkantamenduei buruz ari naiz, horietako beteak baitaude kronika guztiak. Beti azaltzen dira halakoak sorgin epaiketa zoroetan, eta gaur egun ere Estatu ospetsu baten legebilduman aipatzen dira amodio edabeak, eragin psikikoak izan omen ditzaketenak eta desirak oro har irartzartzeaz gain inor nahitaez liluratzen dutenak.

Hau dela eta gogora datorkit gertakari tragiko bat, orain dela gutti neronen etxean ezagutua.

«Bonapartek bere gudarosteaz gure aberria gainezkatu zuenean, Zaldun Goardia italiarreko koronel batek hartu zuen ostatu nire etxean. Armada Handia deitzen zaioneko ofizialen artean bera zen jokabide isil, apal eta prestuagatik bereizten zen bakarretakoa. Bere hildako aurpegi zurbilak, bere begi hitsek eritasuna edo atsekabe sakona ezagun zuten. Egun gutti zeramatzan nirean, kasualitate arraro hura gertatu zenean, bere kalterako. Bere gelan nengoan orduantxe, ez non eta ez han antsi mingotsen artean eskua bularrera eraman zuenean, edo areago sabelaldera, herio-minetan bezala. Laster ez zen hizketarako gauza ere eta sofa gainera bota behar izan zuen bere burua. Orduan bere begiek ikusmena galdu eta gogortuta gelditu zen korderik gabe, estatuaren antzera. Dardarka esnatu zen azkenean, amets erdian asaldatuta bezala, baina nekearen nekez ez zuen puska batean zirkin egiterik izan. Nire medikuak, bera-gana joanarazi ondoren, bestelako tratamenduekin emaitza onik izan ez eta magnetismoa erabi-

li zuen, itxuraz poliki antzean. Baina medikuak utzi egin behar izan zuen, bera ere gaitz jasanezin batek bartzen baitzuen gaixoa magnetizatzeko orduan. Gainerakoan koronelaren konfidantza bereganatu zuen eta honek esan zion Pisan eza-gututako emakume baten irudia urreratzen zitzaiola halako uneetan; haren begirada gartsua barruratzen zitzaiola iruditu eta berebiziko oina-zeak nabaritzen zituela, kordea zeharo galdu arte. Egoera haren ostean buruan min-zurria eta ahidura bat geratzen omen zitzaion, amodio atseginetan murgildu ondoren bezala. Inoiz ez zuen adierazi emakume harekiko bere hartue-mana. Gudalosteak abiatu beharra zeukan. Koronelaren kotxea atarian prest zegoen, eta bera gosaltzen. Baina Madeirako baso ardoa ahora zeraman unean eserlekutik erori zuela aitortu zuten.»

«Aste guttiren buruan, koronelari zuzendutako gutuna iritsi zen nire etxera. Batere zalantzarik gabe ireki nuen, koronelaren senideen xehe-tasunak jaso eta hartara bere bat-bateko heriotza jakinaraziko nielakoan. Gutuna Pisatik zetorren eta hitz bakar hauek zeuden bertan, izenpe-

rik gabe: «Errukarri hori! Gaur, ...ilak zazpi, eguerdiko hamabiak aldera, eta zure erretratu engainagarria amultsuki besarkatzen zuen bitartean erori da Antonia hilik zerraldo». Egutegira begiratu nuen, markatua bainekuan bertan koronelaren heriotza eguna, eta jabetu nintzen Antoniaren ordu berean hil zela!»

Ez nuen entzuten jarraitu gizonak istorioari gehitu ziona. Izan ere, koronel italiarraren egoera berean nengoela antzematean sortu zitzaidan izuarekin oinaze garratzezko halako irrika zoroa erne zitzaidan nire irudi ezezagunarekiko non, harekek menperatuta, berehala zutitu eta lasterka irten behar izan nuen zorigaiztoko etxerantz.

Argi keinuak ikusi uste izan nituen urrutira, leihosare itxien tartetik, baina urreratu ahala aienatu zen distira. Maitasun egarriz lehertzen, aterantz jo nuen; nire bultzadapean ireki eta hantxe gertatu nintzen motel argitutako ezkaratzean, aire astun, itogarriak bildua. Bihotzak ezin gon eta kezka egiten zidan taupa. Orduan doinu luze zorrotz bat entzun zen etxean barrera, emakume eztaarritik aterea. Neuk ere ez dakit nondik nora egokitu nintzen bat-batean kandela

ugariz argitutako salo batean, antzinako dotoreziaz jantzia, altzari doratu eta txarro japoniar bitxiz apaindua. Usain sendoko kea zetorkidan gandu urdinezko uhinetan.

— Ongi etorri, ongi etorri, senargai laztana! Heldu da ordua gu biok ezkontzekoa! —oihukatu zuen emakume baten ahots ozenak.

Ez dakit nola iritsi nintzen saloi hartara, eta hain gutti nondik nora agertu zen bat-batean, gandu artetik, jantzi aberatseko andre altu, gazte hura. Ongietorri, senargai laztana garrasika errepikatuz urreratu zen niganantz besoak zabaldua... adinak eta eromenak zarpaildutako aurpegi horixka zimur bat, zuzenean niri begira. Izu ikaraz dardarka, atzera egin nuen. Kriskitin sugearen begirada gartsu zorrotzak sorgindurik bezala, ezin nituen begiak urrundu atso zatar harengandik, eta ezta urrats bakar bat eman ere.

Nigana hurbildu zenean iruditu zitzaidan aurpegi higuigarri hura gasa finezko maskara bat besterik ez zela, atzean ispiluko irudi ederraren egitea igartzen zelarik. Atsoaren eskuek ukitzen nindutela nabaritu nuen, halako batean makako-

erro eginaz lurrera jausi eta nire atzean ahots bat oihuka hasi arte:

— Ene, deabrua berriro akerrarena egiten ari da berorrekin. Ohera, ohera azkar, Aibeza, ez badu nahi bizkarra galanki berotzea!

Berehala itzuli eta administratzaile zaharra ikusi nuen mahuka hutsik, zigor luze bati buru gainean eraginaz. Atsoa zehatzen hastera zihonan bere harekintxe, antsika lurrean kuzkurtuta zegoelarik. Besotik eutsi nion baina hark baztertu egin ninduen, oihu batean:

— Alafede, jauna! Satanas zaharrak hil egingo zintuen ni tartean sartu ez banintz. Alde, alde, alde!

Saloitik itsumustuan irten eta alferrik bilatu nuen kaleko atea, ilunpe bizi hartan. Zigorkaden ziztua eta atsoaren aieneak entzuten nituen. Laguntza eske marru egiten saiatu nintzen, nire oinpeko zoruak huts egin zidanean. Eskailera batean behera piririka erori eta hain gogor jo nuen ate baten kontra non hau ireki eta gela ttiki batean erori nintzen zerraldo. Utzi berria zirudien ohe banatua eta aulkian eskegitako kafeko-

lore txamarra ikusita, berehala antzeman nuen hura administratzaile zaharraren ganbera zela.

Handik guttira zalaparta hotsa aditu zen eskaileran behera; administratzailea logela barrura oldartu eta belauniko jarri zitzaidan.

— Santu guztien izenean! —erregutu zuen eskuak goraturik—. Nornahi zarela ere, eta sorgin andere zaharrak nolnahi erakarri zaituela ere, isilean gorde ezazu hemen gertatua, bestela ez zerurako eta ez lurrerako geratuko bainaiz! Andere goren eroak jaso du astindua eta ohean loturik dago. Oh, baina egintzazu lo patxadan eta gozo, jaun agurgarria! Bai, ederki egingo duzu uztail gau epel, atsegin honetan, ilargi distirarik ez baina izarren irirrarekin! Gau lasai eta zorionsua izan!

Hitz egiten zuen bitartean agurea zutitu, kri-seilua hartu eta sototik kanpora bultzaka ateraino eramanez ninduen, ondoren morroiloaz itxiaz.

Zeharo txundituta hartu nuen lehenbailehen etxerakoa. Jabetuko zaretenez, misterio izugarri hark erabat hunkiturik, lehen egunetan ez nion gertatutakoari zentzuaren arrastorik ere hartzen. Gauza bakarra zegoen argi: ordurarte men-

peratu ninduen begizko maltzurra jadanik alden-
dua zegoen nigandik. Aienatua zen ispiluko irudi
sorgindu hura ikusteko nire irrika samina, eta
egoitza hutseko nire sartualdi hari, berriz, uste-
kabean eroetxera egindako bisitaldiaren tankera
eman nion.

Inongo zalantzarik gabe administratzailea
odol prestuko emakume zoro haren zaindari
gogorra zen, munduari ezkutatu beharreko ego-
eran bizi zena. Baina ispilua... azti hura batik
bat... Baina jarrai dezadan, jarrai!

Handik lasterrera P. kondearekin egokitu nin-
tzen lagunarte jendetsu batean. Bazter batera
eramanaz esan zidan irribarretsu:

— Ba al dakizu argitzen hasi direla etxe
hutseko gure misterioak?

Adi-adi jarri nintzen entzuteko, baina kondea
jarraitzera zihoanean jangelako ate bikoitza ireki
zen, mahaira joan gintezen.

Kondeak berritu nahi zizkidan sekretuekin
gogoeta sakonean, dama gazte bati besoa eska-
tu eta mekanikoki bildu nintzen zeremonia geldi-
ko segiziora. Eskaini ziguten leku librera nire
dama zuzendu ondoren, begiratzen diot orduan

lehen aldiz eta... hor non ikusten dudan nire ispiluko irudi berbera, inolaz ere nahastu ezinezkoa.

Jabetuko zarete barrenak dardara egin zidala, baina segurtatu behar dizuet, halaber, ez zela erne nigan lehenagoko nire maitasun grina zoro, galgarri haren aztarnarik xumeena ere, emakume irudi eder hura arnasaz ispilura erakartzera koan antzeman ohi nuena. Nire harridura, edo izua areago, begiradan ageri nuen nonbait, neskatxa zur eta lur baineukan begira; hala, beharrezkotzat jo nuen nire buruaren jabe egiten saiatzea eta ahalik lasaiena adieraztea nire oroitza pen bizi batek ez zidala zalantzarik edukitzen uzten lehenago bera nonbait ikusi izanaz. Bere erantzun laburretik jakin nuenean ezinezkoa zela, bezperan iritsi baitzen bizitzan lehen aldiz ***ra, txunditurik utzi ninduen.

Mututu egin nintzen. Neskatilaren begi ederekin zuzentzen zidaten aingeruzko soak bakarrik zuzpertzeko ahal izan ninduen. Badakizue honelakoetan hitzak neurri egokian jalki behar direla, goxo-goxo, emandako notak berriro joko duen puntu zehatza aurkitu arte.

Hala egin nuen neuk eta laster konturatu nintzen nire alboan izaki xamur eta fin bat neukala, baina animako aztoramenen batek gaizkitua. Elkarrizketako zati alairen batean, bereziki nik Cayenneko piperra bezain mina zen hitz ozar, zelebreren bat isurtzen nuenean bizitasuna eransteke, barre egiten zuen, baina saminki, zakarregi ukitu balute bezala.

— Ez zaude pozik, andereñoa. Goizeko bisitaldiagatik izango da agian...

Honela esan Zion nire damari gugandik urruti gabe eserita zegoen ofizial batek. Baina orduantxe ondokoak besotik heldu eta zerbait esan zion belarrira. Bitartean mahaiaren bestaldeko emakume bat, masailak eta begiak sutan, ozenki ari zen hizketan Parisen ikusitako opera emanaldi zoragarriaz, egun hartakoarekin alderatzen.

Nire albokoari malkoak irten zitzaizkion mara-mara:

— Ni bai tuntuna —jiratu zen nigana. Migrainak izaten zituela esan zidan.

— Nerbioetako burukominen ondorio normala —gaineratu nuen doinu ezaxolatiz—. Horren-

tzako botikarik onena edari poetiko honen bitsean igeri dabilen izpiritu bizi, alaia da.

Hitz horien ondoren txanpaina isuri nion kopan, hasieran uko egin bazion ere, eta txurru-patzen zuen bitartean begiradaz eskertu zidan gordetzerik izan ez zituen malkoei eman men interpretazioa.

Bazirudien barrena poztu zitzaiola, eta dena ongi joango zen nik aurrean neukan kopa ingele-sa tupustean jo eta soinu zorrotz, sarkor hura atera ez balu. Hildakoa hainbat zurbildu zen nire albokoa eta ni ere bat-bateko izuak atxiki ninduen, zarata hura etxe hutseko atso eroaren ahotsa iruditu baitzitzaidan!

Kaferako orduan P. kondeagana hurbiltzeko parada izan nuen. Ederki jabetu zen zergatiaz.

— Ba al dakizu zure albokoa S.ko Edwine kondesa zela? Ba al dakizu bere amaren ahizpa urtetan daukatela etxe hutsean giltzapeturik eromen sendaezin batengatik? Gaur goizean bisitatu dute ama-alabek errukarria. Administratzaile zaharra, kondesaren eroaldi bortitzak bidera zitzakeen bakarra eta bere zaintzaren ardura zeukana, hiltzorian dago. Diotenez, ahizpak

azkenean K. doktoareari sekretua konfiatu dio, eta honek azken ahaleginak egingo omen ditu guttienez aldian behingo eldarnio latz horietatik gaixoa libratzeko. Oraingoz hori da dakidan guztia.

Zenbait jende hurbiltzean eten zen elkarrizketa. K. doktore huraxe zen nire egoera misterioitsu hartan bisitatu nuena. Pentsatzen ahal duzue lehenbailehen jo nuela berriro beragana. Orduztik gertatu zitzaidan guztia kontatu nion zehazki eta arren eskatu nion, nire lasaitasunerako, atso eroaz zekien guztia esan ziezadan. Ez zuen inongo oztoporik izan nik zeharoko diskrezioa hitz eman eta gero, ondorengo hau konfiatzeko:

— Angelika, Z.ko kondesak —hasi zen dokto-rea—, hogeitamar urtetik aurrera joana izan arren, oraindik loretan zeukan bere edertasuna, S.ko konde askoz gazteagoak hemengo kortean ikusi zuenean. Bere xarmaren sarean jausirik, kondeak gorespen sutsuenen bidez ekin zion. Eta uda aldean kondesa aitaren ondasunetara itzuli zenean ere atzetik joan zitzaion, aita zahar-rrari bere desiren berri emateko, Angelikaren jarrerak ez baitzuen itxaropenik gabe uzten.

«Baina S. kondea heldu eta Gabriela, Angelikaren ahizpa gazteena ikusi orduko, liluralditik bezala esnatu zen. Angelikak iharra eta zimela zirudien Gabrielaren aldean, honen edertasun eta airosiak guztiz aztoratu baitzuen S. kondea. Hartara Angelika gehiago aintzat hartu gabe, Gabrielaren eskua eskatu zuen eta baita Z.ko kondeak pozik asko eman ere, Gabrielari ere S. kondeaganako zaletasun nabaria ageri zitzaiolako.»

«Angelikak ez zuen nahigaberik ñimiñoena ere azaldu senargaiaren hitz jatearekin.»

«— Utzi egin nauela uste du gizarajoak! Ez da ohartzen ni ez baizik eta bera izan dela nire jostailua, eta orain harrika bota dudala.»

Horrela mintzo zen ironia harroz, eta bere jarrera ikusita, benetakoa zirudien hizjale harekiko bere muzinak. Gainerakoan, Gabriela eta S.ko kondearen arteko ezkon asmoak zabaldu zirenetik, Angelika bakanka agertzen zen inora; ez zen mahaira biltzen, eta ziotenez bakarrik ibiltzen zen ondoko basoan barrena, aspaldi pasealekutzat aukeratu zuen hartatik.»

«Gertakari berezi batek nahastu zuen jauregian nagusi zen ohizko baretasuna. Agi danean Z. kondearen ehiztariek, hartara behartutako nekazari multzo handi batek lagundurik, ijito talde bat atzeman eta azken aldera bailaran gertatutako hilketadun suteak eta lapurreta ugariak leporatu zizkieten. Jauregiko patiora ekarri zituzten, gizonak kate luze bati loturik, eta emakume eta haurrak berriz gurdari estekaturik. Zenbaiten harrotasuna lapur eta hiltzaile izaerarekin egokitzen zen zeharo, tigre gatibuaren antzeko begirada basati, distiratsukoak baitziren; baina emakume zatar bat nabarmentzen zen denen artetik, luze eta argala, burutik oinetaraino txal gorrian bilduta, gurdi gainean zutik eta jaisten uzteko aginduaz. Hala onartzea erabaki zuten.»

«Z. kondea patiora heldu eta taldeak jauregiko ziegetan banakatzea agindu zuen; baina orduan, ilea askatuta, izu eta egonezaz aurpegia zurbilduta, Angelika kondesa agertu zen atetik zalapartan, eta ahots urragarriz hasi zen belau-niko oihuka:

— Utz itzazue libre, utz itzazue libre! Errugabeak dira, errugabeak! Aita, utz itzazu! Beren

odol tanta bakar bat isurtzen bada, laban hau sartuko dut nire bularrean!»

«Orduan kondesak laban distiratsu bati airean eragin eta zorabiatu erori zen.

«— Ai, nire poxpolina, nire kutuna. Banekien bai, ez zenuela honekin burutuko! —egin zuen marru atso gorritz jantziak, eta kondesaren aurrean kuzkurtu eta muxu nazkagarriz bete zizkion aurpegi bularrak, etengabeko marmarrear:

— Umetxo laztana, umetxo laztana, itzar zaitetz, badator senargaia eta! E, e, badatorrela senargaia!»

«Hartan atsoak txarro bat atera zuen, non alkohol gardenetan arrain gorri bat arintasunez igeri zebilela zirudien. Atsoak txarroa kondesaren bihotz parean jarri eta berehala itzarri zen. Baina ijitoa ikusi orduko jauzi egin, indarrez eta gartsuki besarkatu eta elkarrekin aldegin zuten jauregi barrenera.»

«Z. kondea, Gabriela eta bere ezkongia, bien bitartean azalduak, geldi geldirik zeuden begira, beldurrak hunkiturik. Buhameek ezertaz arduratu gabe jarraitzen zuten lasai. Kateak

askatu eta banaka lotuta ezarri zituzten ziegetan.»

«Biharamunean Z. kondeak auzo guztia bilduarazi eta aurrera ekarri zituzten ijitoak. Kondeak jakitera eman zuen errugabe zirela ibarreko lapurreta haietaz, eta zilegi zutela bere lurraldeak zeharkatzea.»

«Hala, askatu eta nor bere baimenarekin libre geratu ziren, harrigarriro. Gorriz jantzitako emakumearen hutsunea antzeman zuten. Zurrumuruak zioenez, buhameen buruzagia, ezaguna lepoan zeraman urre kateagatik eta hegal zabalako bere kapela beheratuko gandor gorriagatik, kondearen gelan egon zen joandako gauean. Gerora zalantzarik gabe egiaztatu zen buhameek ez zutela inolako zerikusirik izan bailarako lapurreta eta hilketetan.»

«Hurbiltzen zihoakion ezkon eguna Gabrielari. Egun batean harrituta ikusi zuen altzariak, jazkiak, oihalak, hau da, etxeko tresneria oso batekin zenbait gurdi bete eta jauregitik zeramatzatela. Biharamunean jakin zuen Angelika bezperan abiatu zela, ondoan zituelarik S.ko kondearen gelaria eta emakume mozorrotu bat, txal

gorriko atso buhamearen antza zeukana. Z. kondeak misterioa argitu zuen esanaz beharturik egon zela, arrazoi batzuk zirela medio, Angelikaren desio bitxiari amero ematera, eta ***ko abenidako etxea oparitzeaz gain, bertan aparte eta bereizirik bizitzen utzi zion; horretarako, erabaki omen zuten ez aitak eta ez familiako inork ez zuela etxean sartzerik izango Angelikaren onespenean argirik gabe. S.ko kondeak gaineratu zuen Angelikaren otaien aurrean honen esku utzi behar izan zuela gelaria ere, ***ra berarekin bidaiatzeko.»

«Ezkontza ospatu zen. S.ko kondea D***ra joan zen emaztearekin, eta beren pozak ez zuen urtebetean okerrik izan. Baina orduan kondea gaixotzen hasi zen, modu arraroan. Bazirudien oinaze ezkutu batek kemen eta bizi poz guztia osten ziola. Alferrik izan ziren emaztearen ahaleginak senarrari barrena suntsitzen zion sekretu hura ateratzeko. Azkenean zorabio gogor batzuk bizitza arriskuan ipini ziotenean, medikuei obeditu eta Pisa aldera abiatu omen zen. Gabrielak ez zion laguntzerik izan, haur izateko zegoenez, eta

handik aste batzuetara eduki zuen, hain zuzen ere.»

«Hemendik aurrera —mintzatu zen dokto-rea—, S. kondesaren albisteak zatika osatzen dira, eta begirada erneak bakarrik aurki dezake bertan nolabaiteko lotura. Aski bedi jakitea bere haurra, alaba, ulertu ezin daitekeen eran desagertu zela sehaskatik, eta hura aurkitzeko eginal hal guztiak alferrik izan zirela. Bere atsekabea etsipeneraino iritsia zen kasik, garaitsu hartan Z. kondeak beste berri latza emanaz idatzi zionean: bere suhia, ustez Pizarantz zihoana, ***n aurkitu omen zuten, Angelikaren etxean, nerbio atakeak jota hilik; agi danean Angelika zeharo erotu zen, eta kondeak berak ere ezin izango omen zituen halako zoritxarrak askoz luzaroagoan jasan.»

«Gabriela, indarrak apur bat berreskuratu orduko, aitaren ondasunetara lehiatzen da. Gaez, lo hartu ezinik begi aurrean senarra eta alaba galduaren irudia dituela, negar zotin isila entzun uste du bere logelako ate aurrean. Keme-na bildurik argimutileko kandelak piztu, kanpora irten eta... Jainko santua! Lurrean kuzkurtuta eta txal gorrian bilduta atso buhameak so egiten dio

heriozko begirada beragan josirik. Ume bat dauka besoetan, egonezaz negar zotinka. Kondesaren bihotzak indarrez egiten du taupa: bere haurra da! Desagertutako alaba! Hartzen du buhamearen besoetatik indarrean, baina une horretan esku artean bihurritzen zaio, bizirik gabeko panpina baten moduan. Kondesaren garrasi izutuek etxeko guztiak esnatzen dituzte; presaka bertaratu eta hilda aurkitzen dute andre zaharra, bizkorgarri guztiak alferrik dira, eta kondeak ehorts dezaten agintzen du.»

«Geratzen den bakarra ***ra bidaiatzea da, Angelika zoroaren etxera, apika haurraren sekretua han argitzeko. Dena aldatua dago. Angelikaren eromenak neskame guztiak izutu ditu eta gelariak bakarrik jarraitzen du bertan. Angelika lasaitu eta zentzatu egin da. Ordea kondeak Gabrielaren haurraren istorioa kontatzen dionean, txalo egin eta algara artean jartzen zaio:

— Iritsi al da panpintxoa? Ongi iritsi? Ehortzi? Alajaina, bai dotore mugitzen dela urrezko faisana! Ez al dakizu ezer begi urdin eta sutsuekiko lehoi berdeaz?»

«Kondea izaturik konturatzen da eroaldia itzuli zaiola. Ikusten duenean Angelikaren aurpegia bat-batean atso ijitoaren egitea hartzen ari dela, errukarria bere ondasunetara eramatea erabakitzen du, nahiz eta gelari zaharrak besterik aholkatu. Izan ere Angelikaren eromena amonru eta sumindura bihurtzen da, bera etxetik eramateko prestaketak hasten direnean.

«Argitasunezko une batean Angelikak malko saminez erregutzen dio aitari bertan hiltzen uzteko, eta honek, barreneraino hunkituta, onartu egiten dio, nahiz eta alabaren ezpainenetik jalkitako hurrengo ateraldiak erokeria berriztat hartu behar izan. Izan ere, hor non aitortzen dion S.ko kondea beso artera itzuli zitzaiola, eta buhameak Z. kondearen etxera eraman zuen haurra elkartze haren fruitu zela.»

«Hirian uste zen Z. kondeak bere ondasunetara eraman zuela koitadua, baina zinez hantxe egon zen etxe hutsean gordeta, gelariaren ardurapean.»

«Bada denbora puska bat Z. kondea hil dela, eta S.ko Gabriela kondesa Edwinerekin etorri da familiarteko arazoak konpontzeko. Ezin izan dio

bere buruari ahizpa ikustea ukatu. Bisita horretan ez-ohizko zerbait gertatu bide da, baina kondesak ez dit horretaz deusik berritu. Soilik, eta oro har hitz eginez, gelari zaharra ahizparen albotik urrundu behar dela esan dit. Behin batean, eta denok dakigunez, izugarritzko gogorkeriaren bitartez bideratu nahi izan zituen eroaldi haiek, baina Angelikak urrea egiten zekiela sinistarazi zionean, mota guztitako jarduera bitxiak burutzera eta zer behar hartaz hornitzera bultza omen zuen gelaria.»

«Alferrik litzateke —bukatu zuen doktoreak—, nori eta zuri adieraztea zenbateko harremana dagoen gauza hauen guztien artean. Ziur nago zeu izan zarela hondamendia sortu duena, eta ondorio bezala emakume horren sendaketa edo heriotz lasterra ekarriko duela. Gainerakoan ezin ezkuta dezaket ni zurekin lotura magnetikoan ezarri ondoren ez nintzela gutti izutu neuk ere ispiluan irudia ikustean. Biok ala biok ere dakigu Edwineren irudia zela.»

Doktoreak horrenbestez amaitzea iritzi zionez, neu ere ezin luzatuko naiz gehiago Angelika, Edwine, neroni eta gelari zaharraren arteko

harreman misteriotsuaren nondik norakoarekin, eta elkarrekiko harreman mistikoek antolatu zuten etsai jokoarekin. Gaineratu nahi dudak bakarra da gertakari hauen ostean sentipen astun, latz batek hiritik urrutiarazi ninduela, gerora desagertu zaidan arren. Uste dut patxada sakon bat sentitu nuen unean bertan gertatu zela atsoaren heriotza.

Honela bukatu zuen Theodoren kontaketa. Lagunek oraindik beste pixka batean eztabaidatu zuten bere abentura hura, eta denak ados zeuden esaterakoan bertan tankera bakan, bel-durgarrizkoan elkartzen zirela biak, nola harrigarria hala miresgarria ere.

Elkarrengandik agurtzerakoan, Franzek Theodoren eskua hartu eta honela esan zion, goxoki astindu eta irribarre ia malenkoniatsuarekin:

— Gabon, Spalanzaniren xaguxarra!

GONBIDATU IZUGARRIA

(Der unheimliche Gast)

Ekaitz erauntsi gogorra ari zuen, gero eta negu hurbilagoaren aitzindari. Hodei beltzak bidaltzen zituen aurretik, euri eta kazkabar jasaren ziztu zalapartak sakabanatzeko.

— Gaur biok bakarrik gaitun —esan zion G. koronelaren emazteak bere alaba Angelikari, hormako ordulariak zazpiak jotzerakoan—. Eguerdia txarrak lagunak uxatu zizkigun. Nire senarra etxeratuko balitz behinik ehin!

R.ko Moritz kapitaina sartu zen orduantxe. Legegizon gazteak jarraitzen zion, bere humore bizkor eta agortezinarekin asteartero koronelaren etxean biltzen zen taldea alaitzen zuen hark. Angelikak esaten zuenez, halako lagunarte etxe-koiarekin ez zen antzematen gizarte zabalagoaren hutsunerik.

Hotz egiten zuen salan. Koronelaren emazteak tximiniako sua astindu eta te-mahaia inguratzeko agindu zuen.

— Zuei bioi —mintzatu zen—, benetako heroismo prestuarekin ekaitz eta erauntsian barrena etorri zareten jaunoi, ezin eskatuko dizuet gure te motel, ahularekin etsi dezazuen; beraz, mademoiselle Margeritek iparraldeko gure edari bikaina prestatuko dizue, eguraldi txar guztiei aurre egiteko egokiena.

Margerite frantsesak, hizkuntzagatik eta emakumeen beste trebetasun batzuegatik Angelika andereñoaren mirabea zenak nahiz eta Angelikak baino urte bakar batzuk gehiago eduki, azaldu eta esandakoa egin zuen.

Pontxeari lurrina zeriolarik eta sua tximinian zirt-zart, elkarren ondoan jazarri ziren mahai tikiaren inguruan. Hotzez dardarka zeuden denak, eta arestiko jardun ozen eta alaiaren ordeztasuna zen nagusi orain. Ekaitzak kebidetan harrotutako ahots harrigarriek aditzeko moduan egiten zuten ulu eta txistu.

— Jakina da —hasi zen Dagobert legegizon gaztea—, udazkena, haize erauntsia, tximiniako sua eta pontxea zein baino zein direla gure batean hotzikararik gordeenak pizteko.

— Txit atseginak dira halere —bat egin zuen Angelikak hizketarekin—. Nik behintzat ez dut sentipen ederragorik ezagutzen ametsen mundura kirika egiten dugunean gorputz guztian barrena zabaltzen zaigun dardar eme hori baino, auskalo nola sortua.

— Horixe —jarraitu zuen Dagobertek—, horixe bera! Dardara atsegin hori nagusitu zaigu oraintxe denoi, eta ametsen mundura nahigabe zuzentzera gindoazen kirika horrexek isildu gaitu apur batean. Eskerrak joan zaigun eta ametsen mundutik itzuli garen, edari pozgarri hau eskaintzen digun_errealitate ederrera!

Hartan zutitu eta bere aurreko basoa hustu zuen, koronelaren emazteari airostasunez gur egin ondoren.

— Aizu eta —ekin zion Moritzek—, dardara horren ezintasuna sentitzen baduzu zuk ere, andereñoak eta nik neuk bezala, zergatik ez gara gogo onez bertan murgiltzen?

— Begirozu gero, lagun! —hartu zuen Dagobertek hitza—. Ez gara hizketan ari harako amets haiei buruz, non izpiritua jolas zoragarri eta bihurritan aritzen den. Haize erauntsi, tximi-

ni eta pontxearen benetako dardara horiek egoera ulertezin, misterioitsu baten lehen erasoak dira. Egoera hori berezkoa du gizakiak eta alferrik egiten dio gogor izpirituak; kontu handiz ibili behar dugu horrekin. Izuari buruz ari naiz, fantasmenganako beldurraz. Denok dakigu iratxo jende beldurgarria gauzez eta batez ere ekaitza denean jaikitzen dela bere aterpe ilunetik, noraezean hasteko; zentzuzkoa da, beraz, hone-lako une batean gu bisita izugarriren baterako gertu egotea.

— Txantxetan ari zara, Dagobert —esan zuen koronelaren emazteak— eta ezin dizut onetsi batzuetan nabari dugun ume izu hori geurezkoa dugunik; areago, umeentzako ipuin eta fantasma istorio zoroiei leporatzen diet, haurtzaroan inudeek guri frankotan kontatutako haiei.

— Bai zera, anderea! —hots egin zuen Dagobertek bizikiro—. Haur denboran hain maitagarriak iruditzen zitzaizkigun istorio haiek ez luke-te gure animan hain sakon eta indartsu joko, oihartzun sokak geure barruan ez baleude. Ez dago zalantzan jartzerik izpirituen mundu misterioitsuak inguratu egiten gaituela, eta sarritan

doinu arraro eta lilura miresgarrien bidez agertzen zaigula. Ikararen, beldurraren zirrara munduko geure organismoaren bultzadagatik bakarrik sor daiteke. Izpiritu espetxeratuaren oinazea da horrela mintzo dena.

— Ameslaria zara —esan zion koronelaren emazteak—, fantasia erneko gizon guztien antzera. Ulertzen dut zure ideia eta zinez uste dut izpirituen mundu arrotz hori gauza dela gure aurrean azaltzeko, doinu entzungarri eta liluren bidez; baina ez dut ulertzen zergatik aurkezten dizkigun naturak hain modu itsusian erresuma misteriotsu horren menpekoak, inorengan izua eta larria sortzeraino.

— Agian hortxe datza amaren zigorra — jarraitu zuen Dagobertek—, ume deslaiok bere arta eta heziketatik ihes egin dugulako. Izan ere aspaldiko urre aro hartan gizakiak sustraitik bat eginda bizi zirenean natura osoarekin, ez gintuen inongo izu edo larrik ezintzen, izadi osoaren zeharoko bake eta batasun zoriontsu hartan ez baitzegoen etsairik halako ezer ekar ziezagukeenik.

«Izpirituen ahots arraroez aritu naiz lehena-go. Baina jatorri jakina duten natur soinuak ere zer dela eta iruditzen ote zaizkigu lanturu saminak eta betetzen ote dute gure barrena larritasunik latzenarekin? Naturako doinu horien artean aipagarriena Ceylango Airemusika edo Deabru-boza da, eta baita mugako lurraldeetako ere, Schubertek bere *Natur Zientzien Alderdi Ilunak* delakoan aipatzen duena. Naturaren hots horiek gau isil, zohardietan gertatzen dira, giza ahots zinkurinationen antzeko, batean urruti-urrutitik baletoz bezala eta bestean aldamenetik. Hainbeste hunkitzen dute inor non lekuko lasai eta zuhurrenak ere ezin izaten dion izuari eutsi.»

— Hala da, bai —eten zion Moritzek lagunari—. Ez naiz inoiz izan ez Ceylan eta ezta mugako lurraldeetan ere, baina halere aditu dut naturaren soinu lazgarri hori; eta nik ezezik, hura entzundako beste guztiek ere nabaritu zuten Dagobertek deskribatu bezalako zirrara.

— Gogotik poztuko nauzu —gaineratu zuen Dagobertek—, eta baita koronelaren emaztea guztiz konbentzituko ere, gertaera osoa konta bazeneza.

— Badakizue —hasi zen Moritz—, frantziarren aurka borrokatua naizela Espainian, Wellingtonen agindupean. Zalduneria espainiar eta ingeleseko talde batekin akanpatuta nengoen Gasteizeko gatazka baino lehen, zeruaren azpian gauez. Bezperako martxarekin akiturik lozorroan nengoen, bat-batean lanturu zorrotz batek esnatu ninduenean. Burua altxa nuen nire ondoan zaurituen bat heriotza intzirika zegoelakoan, baina inguruko kideen zurrungak besterik ez nituen entzun.

Egunsenti gorriaren lehen izpiek ilunpe itxi hura urratu zutenean zutitu eta lokartuengandik urrundu nintzen, zauritu edo hil hurrean hura aurkituko ote. Gau isila zen eta goizeko haizeak emeki-emeki astintzen zituen hostoak. Orduan lanturu are luzeagoak zeharkatu zuen airea bigarren aldiz, eta motel desegin zen urrunean. Bazirudien hilen izpirituak gatazka zelaitik hegaldatu eta beren oinaze garratza aldarrikatzen ziotela zeru sabai zabalari. Barrena dardarka, berebiziko izuak atxiki ninduen. Tokitan zeuden ordurarte giza eztarritik entzun nituen intziri guztiak soinu erdiragarri haren aldean!

Nire kideak ere lotatik esnatu ziren. Ozenago eta beldurgarriago bete zuen airea lanturu hark hirugarren aldiz. Zur eta lur geratu ginen izulaborriz; zaldiak ere haizea botatzen eta ostikoka ari ziren urduri. Espainiar batzuk belaunikatu eta otoitzean hasi ziren. Ofizial ingeles baten esanetan maiz ezagutu zuen fenomeno hura hegoaldeko lurretan, eguratsean sortu eta jatorri elektrikoa omen zuena, eta eguraldi aldaketaren seinale. Espainiarrak, miresgarria den guztia sinisteko joeradunak, lurraz kanpoko izpiritu ahots indartsuak zirelakoan zeuden, izugarrikeria hurbilen baten aitzindari. Biharamuneko gatazka burrunbak sendotu egiten zituen beren susmoak, eta baita beldurra areagotu ere.

— Ceylan edo Espainiara joan behar al dugu beraz —mintzatu zen Dagobert—, naturaren intziri miresgarri horiek entzuteko? Ezin al gaitu ekaitz haizearen ulu erlatsak, kazkabar jasaren zaratak edo haize orratzaren marru eta orroak ere berdin izutu? Tira! Arretaz entzun dezagun mila ahots izugarrik tximini horretan eskaintzen diguten musika zoroa, edo oraintxe kantari hasi den te-ontziaren fantasma abestia.

— Zoragarria! —hots egin zuen koronelaren emazteak—. Dagobertek te-ontzira ere erakar-tzen ditu fantasmak eta intziri izugarriak jalkiaz agertzera doazkigu!

— Gure laguna ez da oker ari, ama maitea — hartu zuen Angelikak hitza—. Tximiniako txis-tuak, zirt-zartak eta txinpartots harrigarriak dar-dara batean jar nazake benetan, eta te-ontziaren kanta lanturosa hain da beldurgarria non sua itzaltzera noan, lehenbailehen isil dadin.

Zutitzerakoan Angelikari zapia erori zitzaion, eta Moritzek agudo makurtu eta eskuratu zion. Angelikaren aingeruzko begiak Moritzengan pau-satu ziren; honek hartu eskua eta ezpainen kon-tra estutu zuen irrikaz.

Margeritek dardara egin zuen une bere har-tan, argindar kolpe batek jota bezala, eta orduantxe bete eta Dagoberteri luzatzera zihoan baso pontxea lurrera erori zitzaion, mila puska-tan txikituaz. Margerite negar zotinka jaurti zen koronelaren emaztearen oinetara, bere burua tuntuntzat hartuaz eta bere logelara biltzeko bai-men eske. Dena ulertu ez bazuen ere, arestiko kontaera harekin beldurtu egin omen zen; bere-

biziko egonezarekin zegoela tximini ondoan, gaixo sentitzen zela eta ohean etzan nahi zuela. Hala, koronelaren emazteari eskuetan muin egin eta begietatik mara-mara zerizkion negar anpu-lu berok busti zizkion.

Dagobertek eszena haren mingostasuna igarri zuen, eta baita egoera hari jira berri bat emateko beharra ere. Bera ere koronelaren emaztearen aurrean belaunikatu eta ahalik ahots negartienaz gupida eskatu zuen gaizkile harentzat, inoiz legegizon baten mingaina laztandu eta bihotz izoztua epeldu zuen edaririk goxoena lurrera isurtzeko ausardia izan zuenarentzat. Zoru argizarituko lohidurari zegokionez berriz, zin egin zuen biharamunean oinazpian eskubilak erantsi eta korteko dantza irakasleen inbidiarik gabeko jirabira zoragarriak eginaz ibiliko zela ordubetez salan barrena zirrin-zarran.

Koronelaren emaztea, hasieran Margeriteri bekozko ilunaz begiratzen bazion ere, alaitu egin zen Dagoberten ateraldi harekin. Biei eskuak irribarretsu luzatuaz, honela esan zien:

— Altxa eta txuka itzazue zuen malkoak, gupida aurkitu baituzue nire epai-aulki gogorra-

ren aurrean. Hik, Margerite, hire abokatu trebeari eta pontxearen lohidura garbitzeko bere eskaintza heroikoari eskertu behar dion hire hoben latza gogorrago ez hartua. Baina ezin dinat zigorra erabat barkatu. Beraz, ahuleritan pentsatu gabe salan itxuraz egon eta gure gonbidatuei pontxea orain arte baino usuago banatzeko agintzen dinat; baina oroz gaineratik hire salbatzaileari eskerronezko muxu bat eman diezaionan!

— Horrela nire bertutea ez da saririk gabe geratuko —hots egin zuen Dagobertek patetismo barregarritz, Margeriteren eskua eutsiaz—. Sinistazu, aingeru, munduan oraindik badaudela legegizon heroikoak inozentzia eta zuzentasunaren alde beren buruak eskaintzen dituztenak! Baina tira! Egiogun men gure epaile gogorrari. Bete dezagun bere epaia, apelazio posiblerik ez duena.

Hala, Margeriteren ezpainetan muxu arin bat pausatu eta lehengo eserlekura eraman zuen begirune handiarekin. Margerite, gorri gorri, algara batean hasi zen, malkoen distira oraindik begietan zuen arren.

— Bai tuntuna naizena! —hots egin zuen frantsesez—. Etxekoandreak agindutakoa egingo dut! Lasai egon, pontxea banatu eta beldurtu gabe entzungo ditut fantasma kontuak.

— Bejondeizula, aingerutxo —hartu zuen Dagobertek hitza—. Zu nire heroismoak zuzper-tu zaitu eta ni berriz zure ezpainen gozotasunak! Berrero indarbizitu zait fantasia, eta gertu nago *regno di piantoko* izugarrikeria zenbait kontatze-ko, gure gozamenerako.

— Uste nuen —esan zuen koronelaren emazteak—, isiltzera gindoazela berriketa galgarri, latz horiek.

— Mesedez, ama maitea —eten zion Angeli-kak—, utziogun jarduten gure lagun Dagoberte-ri. Esanak esan, aitortu beharra daukat ume hutsa naizela eta entzutea gehien atsegin zaida-na fantasma istorio eder horiek direla, hainbeste hotzikaratzen nautenak.

— Anitz pozten nau horrek —hots egin zuen Dagobertek—. Ez da neskabila izukorra baino maitagarriagorik, eta ez nuke inolaz ere ezkondu nahi fantasmekin larritzen ez den emakumeare-kin.

— Lehen zenioenez, ene Dagobert maitea — mintzatu zen Moritz—, amets ikaretatik fantas-menganako beldurraren erasotik bezala babestu behar dugu, eta horren zergatia zor diguzu oraindik.

— Ederki —esan zuen Dagobertek—. Beranduago etortzen da ikara hori, eta ez lehenengo erasoaren dardara atseginean. Ondoren hedatzen zaigu heriozko ezina, izu lazgarria. Badirudi zirrara atsegin hori beita baten antzekoa dela, izpirituen mundu beldurgarriak gu sorgintzeko darabilena. Jatorri ezaguneko naturotsez mintzatu gara arestian, eta gure zentzuengan duten eragin itzelaz. Baina aldian behin soinu bitxiagoak entzuten ditugu, iturburu igarrezinekoak, izulaborriz betetzen gaituztenak. Alferrik da pentsatzea, geure buruak lasaitzeko, animalia gorde, haize bolada edo beste edozein modu naturalez sortutako hotsak direla. Denok antzeman dugu zurrumurru ttikiena ere gaez aldian-aldian errepikatzea aski dela guri loa galarazi eta barrena larritzeko, geure onetatik ateratzeraino.

«Orain dela zenbait denbora, bidaiari nindoarrik ostatu batean geratu eta bertako ugazabak

gela atsegin bat paratu zidan. Gauaren erdian esnatu nintzen bat-batean. Leiho irekitik ilargiak bere printzak jaurtitzen zituen, gelako altzari guztiak eta baita gauzarik ttikienak ere argiro nabarmenduaz. Hots bat entzun nuen orduan, euri tantak metalezko pertzan jotzen duenean bezalakoak. Erne jarri nintzen! Aldian-aldian errepikatzen zen. Nire zakurra, ordurarte ohe azpian etzanda zegoena, arrastaka atera eta usnan hasi zen gelan barrena aieska, hormak eta zorua harramazkatzen. Izotzezko ibaiak nabaritu nituen nire barruan, eta kopeta izerdi patsetan. Hala eta guztiz ere, kemen harturik oihu egin, ohetik jauzi eta gela erdiraino joan nintzen. Nire aurre aurrean erori zen berriro tanta, nire gorputzean barrena pertzeraino, soinu ozena atereaz. Izulaborriz beteta balantzaka oheratu eta erdi zorabiatu gorde nintzen estalki azpian. Bazirudien aldian-aldian errepikatzen zen soinu hura gero eta emeagoa zela, airean dilindan. Loak hartu eta goiz-txinta arte ez nintzen esnatu. Zakurra ondoan neukan kizkurturik eta ni tente-tzean jauzi egin zuen ohetik, zaunka alaiekin, berari ere beldur guztiak joanda bezala. Soinu

miresgarri haren jatorri arrunta agian ezkutuan zegoelakoan jabeari kontatu nion nire gaueko gorabehera hura, oraindik gorputz guztia hotzikareiz. «Dena argituko zidak —pentsatu nuen—, eta aldeaz aurretik abisatu ez izana damutuko zaiok».

«Jabeak, zurbilduta, arren eta arren eskatu zidan inori ez berritzeko gela hartan gertatua, bestela ogibidea galtzeko zorian jarriko nuela eta. Lehenago ere hainbat bidaiari kexatu omen zen ilargi gauetako soinu hartaz. Agi danean zehatz-mehatz ikertua zeukan dena, baita gela hartako eta aldameneko zoru oholak altxaraziak ere, auzoa gogotik aztertua ere bai, baina hots beldurgarri haren jatorriaz zantzurik bildu gabe. la urtebete zeraman ez isilik, fantasma gaizto hartaz libre zelakoan omen zegoen; baina orain, entzuteak beldurra eman arren, berriro jardunean hasi bide zen. Inolaz ere ez omen zuen jendea parte txarreko gela hartan gehiago ipiniko.»

— Ene! —mintzatu zen Angelika, sukarrez bezala dardarka—. Beldurgarria da hori, beldurgarria denez ere. Ni bertan hilko nintzen, antzekorik egokituez gero. Sarritan gertatu zait lotatik

bat-batean berebiziko larriarekin esnatzea, zerbait izugarria gertatuta bezala. Halere, ez dut izaten ezeren ezaguera arrastorik edo amets gaiztoen inongo oroitzapenik; aitzitik, heriozko zorabio batetik esnatu naizela iruditzen zait.

— Ezagutzen dut egoera hori —jarraitu zuen Dagobertek—. Nahitaez men egitera behartzen gaituzten eragin psikiko arrotzen seinalea da. Hala nola sonanbuloa bere ibilerez oroitzen ez den eta ezta gertatu zaionaz ere, baliteke, halaber, jatorri ezkutuko estuasun latz hori azti bote-retsuetan baten langitea izatea, geure buruongandik urrun gaitezen.

— Oraindik gogoan daukat beste aldi hura —mintzatu zen Angelika—, duela lau urte inguru nire hemeretzigarren urtebetetze eguneko gauean esnatu nintzenean, zenbait egunetako ezina sortu zidan egonez izugarriarekin. Alferrik saiatu nintzen hainbeste larritu ninduen ametsaz oroitzen. Gogoan daukat ametsetan batari eta besteari kontatu niola nire amets beldurgarri hura, baina bereziki aman; horrexek bakarrik oroitzen nintzen esnatzean, baina nondik nora-koaz deus ere ez.

— Fenomeno psikiko miresgarri hori —gaineratu zuen Dagobertek—, harreman estuan dago hipnosiarekin.

— Gero eta gogaikarriagoa bihurtuko da gure elkarrizketa —esan zuen koronelaren emazteak—, pentsatze hutsa jasanezina zaidan kontutan galtzen bagara. Arren eskatzen dizut, Moritz, zerbait atsegina eta alaia konta dezazun berehala, fantasma istorio beldurgarriekin behingoz amaitzeko.

— Gogo onez beteko dut zure eskaria —mintzatu zen Moritz—, baldin eta zilegi bazait, hori baino lehen, aspalditik ezpain puntan daukadan beste gertaera izugarri bakar bat aipatzea. Gaineraz ari zait barrena egiten, eta alferrikako ahalegina nuke gauza pozgarriez mintzatzea.

— Arin zaitez bada —gaineratu zuen koronelaren emazteak— nozitzen ari zaren zama ikaragarri horretatik. Laster etxeratuko da senarra eta zuekin eztabaida bat edukitzeko gogoia daukat, edo zuei zaldi ederrez hizketan entzuteko grina gozoa, hartara fantasma berriketek sortu didaten urduritasun nabarmen honetatik irteteko.

Nire azken gatazkan —hasi zen Moritz—, teniente koronel errusiar baten ezaguera egin nuen: livoniarra jaiotzez, hogeitamar urte eska-sekoa. Halabeharrez arerioaren aurrean elkarrekin luzaroan egonik, laster ginen lagunmin. Bogislavek, hala zuen teniente koronelak izena, dohain guztiak zeuzkan inguru guztian begirune eta maitasunik handiena erakartzeko: itxura prestua, bizkorra, begitarte atsegina, jantzia, ezin jatorragoa eta, halaber, lehoia bezain ausarta. Botilaren ondoan erraz alaitzen direnetakoa zen, baina sarritan gogorapen lazgarriren batek atxikitzen zuen ez non eta ez han, noizbait gertatu zitzaiona edo, aurpegian dolurik saminenaren arrastoak utzi zizkiolarik. Halakoetan isildu, lagunartetik aldendu eta noraezean ibiltzen zen.

Gauetan aitzinlekuz aitzinleku joaten zen zaldiz, gatazka zelaian barrena etengabe, eta soilik nekez lehertu ondoren hartzen zuen loak. Gainera bere burua maiz arrisku bizian jartzen zuen inongo premiarik gabe; bazirudien heriotza bilatzen zuela borrokan, baina honek ihes egiten ziola, gudurik gogorrenetan ere ez baitzuen

ezpata edo balakada bakar batek ere ukitu. Bistakoa zen, bada, galera berreskuraezin edo ekin-tza arinegiren batek ekarri ziola hondamena.

Frantses lurretan jauregi gotortu baten jabe egin ginen indarrez. Bertan itxoin genuen egun pare batez, gudaroste nekatuak atsedean har zezan. Bogislaven gela niretik pauso bakar batzuetara zegoen. Gau batean, nire ateko joaldi isil batek esnatu ninduen. Nor zen galdetu, nire izena entzun eta Bogislaven ahotsa ezagutzean jaiki eta ireki nion. Nire aurrean neukan Bogislav gauatorrez jantzita, eskuetan kriseilua pizturik, desitxuratuta, hildakoa bezain zuri, dardarka, hitz bakar bat esan ezinik! Jainkoaren izenean! —esan nuen—. Zer gertatzen zaizu, ene Bogislav? Zorabiatu hura besaulkira eraman eta bizpahiru baso bete nizkion mahai gainean neukan ardo sendotik. Bere eskua niretan tinkatu eta kontsolatzeko hitzak esan nizkion ahal nuen heinean, ez bainekien egoera tamalgarri haren zergatia.

Pixkana zuzpertz ondoren Bogislavek lanturu egin eta ahots isil, erlatsez hasi zen: Ez, ez! Erotuko naiz, hainbeste desio dudan heriotzak bera-

rekin ez banarama! Zuri, ene Moritz leiala, konfiatuko dizut nire sekretu izugarria. Beste noiz-bait ere esan nizun duela urte batzuk Napolin gertatu nintzela. Herritar ospetsu baten alabarekin maitemindu nintzen bertan. Aingeru hark bere ondoan onartu eta gurasoen baimenarekin erabaki zen gure bat egitea, nire ustez inongo zoriontsuena izango zena. Ezkonguna jadanik finkatua zegoen, bat-batean konde siziliar bat azaldu eta bion artean tartekatu zenean, nire andregaiia irmoki berarentzat galdatuz. Argibide eske hasi nintzaionean iraindu egin ninduen. Elkarri joka ekin eta labana sartu nion sabelean. Andregaiagana joan nintzen berehala. Negarretan blai aurkitu nuen, eta bere maitearen hiltzaille zitala deitu ondoren erdeinuz baztertu ninduen. Lanturu etsian oihuka, konortea galdua erori zen eskutik heldu nionean, eskorpioi pozoiatsuak ukitu balu bezala! Oraindik halako izugarrikeriarik! Gurasoek ezin zuten konpreni alabaren aldaketa hura. Inoiz ez omen zituen kondearen eskariak aintzakotzat hartu.

Aitak bere jauregian gorde ninduen, eta ahallegina guztian saiatu zen Napolitik ezkutuan

irten nendin. Anima apartaturik egin nuen ihes gelditu gabe San Petersburgoraino! Ez da nire maitearen leialtasunik eza, baizik eta misterio beldurgarri bat ezintasun hau sortzen didana! Napoliko egun dohakabe harrezkero infernuaren izuikarak jarraitzen dit! Egunez sarri, baina gauetz sarriago, heriotz antsi lodiak entzuten ditut, batean urrun eta bestean aldamenean. Nik hildako kondearen ahotsa da izulaborriz betetzen nauena. Batailoieko kanoien burrunba gogor eta mosketen zirt-zarten artetik lanturu ikaragarri hori entzuten dut belarri ondoan, nire baitan amorrua eta zoramenean etsia iratzarriz! Gau honetan bertan...

Bogislav isildu eta biok ala biok ere izuak hartu gintuen aspalditik eusten egondako lanturu bihotzerdiragarri bat entzun genuenean, agi danean pasabidetik zetorrena. Norbait aiene eta antsika lurretik altxa ezinean ari zela zirudien, eta gero gugana zetorrela pauso astun, dudatiz. Bat-batean indarberrituta, Bogislavek besaulkitik altxa eta oihu egin zuen ahots mardulez, begiak sutan: Azal hadi, bilaua, gauza baldin bahaiz! Hirekiko eta infernuko hire kide guzieki-

koak egingo dizkiat. Izugarrizko danbatekoa entzun zen. Une hartan gelako atea zabaldu zen zaratatsu...

Ottmarek hitz hauek irakurtzearekin batera lorategiko atea ere zaratatsu zabaldu zen eta lagunek irudi ilun, mozorrotu bat ikusi zuten, fantasma baten urrats isilez pixkana hurbiltzen. Lurrari josita zeuden denak arnasa joanda, izerdi hotzak hartuta.

— Gizalege al da —egin zuen azkenean garrasi Lothark, argiaren distirak irudi haren aurpegian osoki eman eta Cyprian adiskidea ezagutzearan—, gizalege al da jende finari fantasmakeria txatxu horiekin adarra jotzea? Badakit zuretzat ez dela aski nolana hiko lilura bitxi eta fantasma zoroiez jardutea: gustura hartuko zenuke zerorri fantasma, iratxoa bazina. Baina esan ezazu, nondik azaldu zara horren ustekabea eta nola aurkitu ahal izan gaituzu hemen?

— Hori! Esan, esan! —errepikatu zuten Ottmarek eta Lothark.

— Gaur nire bidaiatik etxeratu naizenean —has zen Cyprian—, Theodorengana joan, Lotha-

rengana joan, Ottmarengana joan eta inor ez dut topatu. Atsekabeturik soroetara irten eta kasualitateak nahi izan du hirira itzultzerakoan lorategiko etxola honen ondotik igarotzen den bideari lotzea. Bat-batean ahots ezaguna iruditu, leihotik begiratu eta hor non ikusi ditudan nire anaia serapiondar agurgarriak Ottmari Gonbidatu izugarria entzuten.

— Hara! —eten zion Ottmarek lagunari—. Ezagutzen al duzu nire istorioa bada?

— Ahaztu al duzu —jarraitu zuen Cyprianek—, kontaera horretako osagarriak nigandik hartu zenituela? Neuk eman nizkizun ezagutzera Deabruba eta Airemusika, eta baita gonbidatu izugarria agertzearen ideia ere. Jakinminez nago ea zer nolako jarraipena eman diozun nire gaiari. Bestalde, jabetuko zaretenez, Ottmarek salako atea zabaltzearena irakurri duenean behartua nengoen neu ere beste horrenbeste eginaz zuengana azaltzera.

— Kontuak kontu, ongietorria izan zaitez —hartu zuen Theodorek hitza—, ez gonbidatu izugarri bezala baizik eta anaia serapiondar leialaren gisara, nahiz eta galanki ikaratu nauzun.

— Eta gaur izpiritu itxura hartu nahi baduzu —mintzatu zen Lothar—, ez zaitez behinik behin izpiritu asaldatu horietakoa izan, baizik eta jezarri, kikararekin hotsik atera gabe tea edan eta zure lagun Ottmari arretaz entzuiozu; izan ere jakinminez nauka bere istorioak, agi danean oraingoan bestek emandako gaiez landu omen duena.

Theodor gaixoalditik oraindik oso makal zegoenez, komeni baino gehiago hunkitu zen lagunaren ziriarekin. Hildakoa bezain zurbil zegoen eta alai tankera emateko ahaleginak egin behar zituen, modu nabarmenean. Cyprian honetaz ohartu eta nahigabeturik zegoen izandako jokabideagatik.

— Izan ere! —jalki zuen—. Ez naiz oroitu nire lagunmina zuzpertz berria dela bere gaixoaldi larritik. Halako ziriak debekatzen dituen neure arauaren kontra aritu naiz, holakoen bidez erraza baita inorengan izpirituen munduko larritasun latza txertatu eta izulaborria sortzea. Gogoan dut esate baterako...

— Utikan —esan zuen Lothark—. Etenaldi aski jasan dugu. Cyprian prest dago, ohi duen

bezala, berak sumatutako oihan sorgindu, ilun-ean barrena gu denok gidatzeko. Arren eskatzen dizut, Ottmar, aurrera egin dezazun.

Ottmarek kontatzen jarraitu zuen.

Burutik oinetaraino beltzez jantzitako gizon bat sartu zen, aurpegi zurbil eta begirada serio, irmokoa. Hurbildu jende prestuaren fintasunik handienaz koronelaren emazteagana, eta barkamen eskatu Zion hertsiki, lehenagorako gonbidatu eta hain berandu heldu zelako: bidali ezineko bisita batek atzeratu omen zuen, tamalez. Koronelaren emazteak, bat-bateko ikaraldi hartatik bizkortu ezinik hitz entzunezin batzuk toteldu zituen, arrotzak eserlekua har zezan adierazi nahian, gutti gorabehera.

Koronelaren emaztearen alboan ipini zuen aulkia, Angelikarekin aurrez aurre. Eseri eta inguruko guztiak zeharkatu zituen begiradarekin. Elbarriturik bezala, inork ezin zuen txintarik atera. Orduan hasi zen arrotza: bi aldiz eskatu behar zuela barkamen, bata hain berandu heldu zelako eta bestea halako zalapartan. Bigarrena ere ez omen zen bere erruz izan, berak ez baizik

eta sarreran topatutako morroiak zabaldu baitzuen atea halako indarrez.

Beldurra gainditzeko ahaleginetan, koronelaren emazteak galdetu zion noren aurrean egoteko plazera zeukan. Arrotzak galderari entzungor egin, nonbait, eta Margeriteri begira jarri zen. Honek, bat-batean izakeraz erabat aldaturik algara egin, arrotzaren aurrean gerriei eragin eta irribarretsu esan zuen frantsesez fantasma istoriorik ederrenarekin gozatzen ari zirela, eta kapitain jaunaren borondatez fantasma zital bat azaltzera zihoala, bera, arrotza alegia, sartu zenean.

Antzemanik desegokia zela bere burua gonbidatutzat aurkeztu zuen arrotzari izena eta jatorria galdetzea, baina batez ere aurrean edukitzeaz larriturik, koronelaren emazteak ez zuen galdera errepikatu eta ezta Margeriteri errietarik egin ere, jokabide la nabarmen harengatik. Arrotzak bukaera eman zion Margeriteren hizjarioari, besteengana burua jirata zegoen koronelaren emazteari hizketan hasiaz bailaran gertatutako pasadizo hutsalen baten gainean. Koronelaren emazteak zeozer erantzun eta Dagobert ere

elkarrizketan sartzen saiatu zen, solas guztia esaldi solte eta etenekoa bihurtu zen arte. Bitartean Margeritek kanta frantses baten kobla bakar batzuk xaramelatzen ari zen, akordeak luzatuaz, *gavotte*-en jirabira berrienekin oroitz bezala, besteek mugitzerik ere ez zeukatelarik.

Bihotza kargaturik nabari zuten denek, arrotzaren agerraldi hark ekaitz aurreko sargoriak bezala zapuzten zituen denak, eta denei hiltzen zitzaien ere hitza ezpainetan, gonbidatu izugarriaren begitarte zurbilari so egitean. Hala eta guztiz ere, honen doinua eta keinuak ez ziren batere ezohizkoak. Aitzitik, mundu zabaleko gizon jantzi, asko ikusia zela igartzen zitzaion. Alemana eta frantsesa mintzatzerakoan zeukan hizkera zakarra entzunda, pentsatzekoa zen ez zela izango ez alemana eta ezta frantsesa ere.

Koronelaren emazteak lasai hartu zuen arnasa, etxe aurrean zaldia gelditu eta barruan senarraren ahotsa entzutean.

Laster sartu zen koronela salan. Arrotza ikusi orduko berehala hurbildu eta esan zion:

— Ongi etorri nire etxera, konde maitea! Ongi etorri, bihotz-bihotzez!

Eta ondoren emazteagana itzuliaz:

— S...i kondea da, nire lagun begiko eta leiala, iparralde urrunean ezagutu eta berriro hegotan aurkitzen dudana.

Koronelaren emazteari lehen aldiz kezka guztiak joan eta irribarre gozo batekin adierazi zion kondeari senarra zela errudun bakarra, bisita haren berri aurrez eman ez ziolako; horregatik hartu omen zuten modu zelebren samarrean, eta ez konfidantzazko lagunei dagokien eran. Ondoren senarrari kontatu zion ilunabar osoa jardun zutela mamukeria eta izaki beldurgarriei buruz hizketan; Moritzek istorio ikaragarria kontatu zuela, bera eta bere lagun bati gertatua, eta Moritzek «Izugarrizko danbatekoa entzun zen» aipatutako unean bertan salako atea zabaldu eta kondea sartu zela.

— Itzela! —bota zuen koronelak algara ozen batekin—. Fantasmazat hartu zaituzte, konde maitea. Egiaz, badirudi nire Angelikak oraindik aurpegian dauzkala ikararen aztarnak, kapitaina ez dela oraindik zeharo oneratu bere istorioaren zirraratik eta Dagobertek berak ere alaitasuna galdu duela. Esan ezazu, kondea, ez al da latza

zu mamutzat, anima herratu zirtziltzat hartu izana?

— Fantasma tankerako zerbait ote daramat soinean? —erantzun zuen kondeak begirada arraroarekin—. Gaur egun erruz aipatzen dira lagunurkoagan lilura psikikoa eduki dezaketen gizonak, inori kaltea sortzen diotenak. Agian neu ere gai izango naiz lilura horietarako.

— Txantxetan ari zara, konde maitea —hartu zuen hitza koronelaren emazteak—, baina egia da grina handia zabaldu dela misterio bitxiarikiko.

— Ume ipuin eta irudipen harrigarriekin ere gaixotzen da jendea —gaineratu zuen kondeak—. Begirozue izurri horrekin! Baina unerik interesgarrienean eten dut nonbait kapitain jaunaren kontraera, eta bere entzuleek bukaera edo azalpena hutsegin nahi ez dutenez arren eskatzen diot jarrai dezan.

Kapitainari konde arrotz hura izugarria ezezik higuigarria ere iruditzen zitzaion, bere barrenean. Hitz haietan iseka arrastoa igarriaz, eta bereziki irribarre desatsegin haren aurrean, suzko begirada eta doinu zorrotzarekin erantzun zion beldur zela kondeak lagunarte goibel harta-

ra ekarritako alegrantzia hondatuko ote zuen bere lehengo ume ipuin harekin, eta nahiago zuela beraz isiltzea.

Kondeak ez zituen nonbait kapitainaren hitzak oso aintzat hartu. Eskuetan zeukan urrezko kutxatilarekin jolasean, koronelagana itzuli zen andereño bizi hura jaiotzez frantsesa al zen galdetzeko.

Margeriteri buruz ari zen noski, salan barrena korrika ttikian bere artean kantari zebilena. Koronela hurbildu eta erotu al zitzaion galdetuzion isilka. Te-mahaira beldurturik bildu eta bertan eseri zen, geldi-geldi.

Orduan kondea hizketan hasi zen azkenaldiko hainbat gertaerari buruz, oso modu erakargarrian. Dagobertek ezin zuen txintarik ere atera. Moritz zutik zegoen, txingarra baino gorriago, begiak sutan, borrokarako deiaren zain bezala. Joste lanean murgildua zirudien Angelikak, kliskatu ere egin gabe begiak. Azkenean, aldarte txarrean agurtu zuten denek elkar.

— Zorte oneko gizona zara —esan zuen Dagobertek, Moritzekin bakarrik geratzean—. Etzazu zalantza gehiago egin: Angelikak biho-

tzez maite zaitu. Gaur begiradan argi antzeman diot zurekin zeharo maitemindua dagoela. Baina deabrua beti ari da arto eder, loratuaren azpian loilo pozointsua erein nahian. Margerite ere pasioaren suak hartu du. Oinaze garratzez maite zaitu eta bere anima gartsua erdibi dezake horrek. Bere gaurko jokaera zoroa ez da izan jelosia amorratuaren leherketa eutsiezina baino. Angelikak zapia erortzen utzi eta zuk eman eta muin egitean, anima apartaturik jarri da Margerite errukarria. Eta zeu zara errudun bakarra. Ahal zenuen galanteriarik handienaz jardun duzu frantses eder horrekin. Badakit zure helburu bakarra Angelika dela eta Margeriterentzako losintxa ugariak ere bestearentzat zirela, baina tximista desbideratuek sua piztu dute. Zoritxar handia da eta beldur naiz ez ote den guztia berebiziko istilu eta nahasmenean bukatuko.

— Hartzazu bada zeuretzat Margerite! —gaineratu zuen kapitainak—. Angelikak egiaz maite banindu —ai, oraindik zalantza egiten dut!— zoriontsu izango nintzateke eta ez nindukete ardurako munduko Margerite guztien lelokeriek! Baina gaur bestelako ikara batek atxiki nau! Mis-

terio ilun, goibelaren antzera agertu eta denok asaldatu gaituen konde arrotz, izugarri horrek ez al dirudi kalterako kokatua gure artean? Urrutiko oroitzapen bat edo azaleratzen duela iruditzen zait, ametsa esango nuke kasik, konde hori egoera beldurgarrian aurkezten didalarik! Iruditzen zait begiratzen duen lekuan gau iluneko zoritxarlatzen bat erneko duela, dena zeharo suntsitzeko. Ohartu al zara zenbat bider ezarri dituen begiak Angelikagan, eta nola honen masail zurbiletara gorritasun hits bat etorri eta joaten zen? Deabru hori konturatu egin da nire maitasunaz, eta horregatik ziren hain isekatiak niri zuzendutako hitzak. Baina heriotzeraino egingo diot aurre!

Dagobertek kondeari fantasmaren patroia jarri zion goitzen, baina ez zutela begitan hartu behar esan zuen ere, agian guztiaren atzean uste baino guttiago egongo zela eta; era berean, kondea agertu aurreko urduritasunari leporatu zion jasandako zirrara.

— Ekiegun izaki galgarriei adorez eta bizitzaganako konfidantza tinkoz! —amaitu zuen Dagobertek—. Indartsu eta kemen sendoz zutik

dirauen burua ez du inongo botere beltzek apalduko!

Hainbat denbora igaro zen. Koronelaren etxea gero eta sarriago bisitatzearen poderioz, kondea ia ezinbestekoa bihurtu zen bertan. Denak bat zetozen esaterakoan izugarriagoak ziria kondeari huraxe bera leporatu ziotenak, alegia izugarria zela.

— Ez ote gintzakeen kondeak —esan zuen koronelaren emazteak geuri ere arrazoi osoarekin jende izugarria iritzi, gure aurpegi zurbilak eta jokabide bitxia ikusita?

Kondeak jakinduriazko etorri oparoa erakusten zuen solasaldi guztietan. Jaiotzez italiarra izaki, atzerriko doinua zeukan baina hitzaldirik sakonenean ere oso iaioa zen. Haren kontakizunen sugarrak nahitaez asaldatzen zuen inor; Moritzek eta Dagobertek ere, arrotzari zioten ezinikusia gorabehera, hizketan hasi eta haren aurpegi hits baina egoki eta adierazkorretik irribarre alai hura hegaldatzen zenean gorroto guztiak ahaztu, eta Angelika bezala, beste guztiak bezala, harexek zer esango zain jartzen ziren.

Koronelaren kondearekiko adiskidetasuna jaiotako erak ere gizonik prestuena zela erakusten zuen. Iparraldeko lurretan halabeharrez elkaturik, kondeak eskuzabaltasunik handienaz lagundu zion koronelak irteten estuasun batetik, beste gainontzean diru ondasunetan ezezik ize nona eta ohorean ere ondorio mingotsak izango zituen. Koronelak, eskerronez, kondearekin bat egin zuen gorputz eta animaz.

— Heldu da garaia zuri esatekoa kondea hemen egotearen arrazoia —esan zion koronelak emazteaki bakarrik aurkitu zuen batean—. Bada-kizu kondea eta biok, gero eta lagunminago ginenez, azkenean elkarren ondoko gela banatan jarri ginela bizitzen P.ko herrian, nik bertan lau urte egin ondoren. Behin batean kondeak goizean goiz bisitatu ninduen eta nirekin neraman Angelikaren erretratu ñimiñoari ohartu zitzaion, mahai gainean. Hurbilagotik so egin orduko bere onetatik atera zen, harritzeko moduan. Nire galderei erantzun ezinik, harixe begiak josita zegoen, begirada saihestu ezinik, harik eta aztoraturik aldarrikatu zuen arte inoiz ez zuela emakume eder, zoragarriagorik ikusi;

egundaino ez omen zuen maitasunik nabaritu, lehen aldiz barrena sugaldetan jartzen zion haren parekorik. Txantxetan hartu nuen erretratuaren eragin miresgarri hura; kondeari Kalaf berria deitu eta zortea opa nion, nire Angelika zintzoa Turandot behintzat ez zela eta.

«Azkenik, itzulitururik gabe adierazi nion harrituxea nindukala bere urteekin, adindua ez baina mutil gazte deitzerik ere ez baitzegoen, bat-batean hain modu erromantikoan erretratu batekin maitemindu zelako. Zinez hitz eman zidan orduan, bere aberrian ohitura den zoramen lehiatsurekin, ikuskarri maite zuela Angelika eta etsipenaren osinik sakonenean amilduko ez bazen, arren utzi behar niola Angelikaren maitasuna eta ezkontza eskatzen. Horregatik etorri zaigu etxera. Segurutzat hartzen du Angelikaren onespena eta behar bezala aurkeztu zidan atzo eskaria. Zer derizkiozu?»

Koronelaren emazteak ez zekien zergatik, baina senarraren azken hitz haiekin bat-bateko dardara baten antzekoa zabaldu zitzaion gorputz guztian.

— Jainkoaren izenean —hots egin zuen—, konde arrotz hori gure Angelikarentzat?

— Arrotza deitzen al diozu —gaineratu zuen koronelak bekozko ilunez—, ohorea, askatasuna eta agian bizitza bera ere zor diodanari? Aitor-tzen dut urtetan aurreratua dagoenez agian ez dela aproposena gure poxpolin gaztetxoarentzat; baina zalduna da eta gainera aberatsa, oso aberatsa.

— Angelikari galdetu gabe? —eten Zion emazteak—. Kondeak, maitasunarekin ergeldurik, agian ez du uste hainbateko zaletasunik edukiko beragana.

— Inoiz pentsarazi al dizut —hots egin zuen koronelak, eserlekutik zutitu eta begiak sutan zituelarik emazte aurrean jarriaz— guraso zoro, tiranoa naizenik, nire alaba maitea nolana salduko lukeena? Utz nazazue baketan zuen ipuinetako sentiberatasun eta fineziarekin. Makina bat asmakeria sumatzen da bikoteren bat ezkontzen denero! Angelikak adi-adi entzuten dio kondeari; atseginez begiratzen dio; gorritu egiten da kondeak eskuak ezpainen kontra estutzen dizkionean, berak nahita haren esku artean utzi ondo-

ren. Hortik ezagun dira neskatila lainoen zaletasunak, gizona zoriontsu egingo dutenak. Ez dago ipuinetako amodioen beharrik, zuen buruak hondatu eta sorgindu besterik ez baitzaituztete egiten!

— Nire ustez —hartu zuen emazteak hitza—, Angelikaren bihotza ez da berak uste bezain libre.

— Zer? —hots egin zuen koronelak sumindurik.

Bazihoan itsumustuan irtetera, hartan atea ireki eta Angelika sartu zenean, zintzotasun lainozko irribarre xarmantez.

Koronelak, haserre eta amorru guztiak batabatean bazterturik, hurbildu eta muxu eman zion kopetan; eskutik heldu, besaulkira eraman eta bere alaba ezti, maitearen ondoan eseri zen goxo-goxo. Ondoren kondeari buruz hasi zen hizketan: bere nobletasuna, adimena, zuhurtzia goraiatu eta gogoko al zuen galdetu zion Angelikari. Honek erantzun zion kondea hasieran arrotza eta izugarria iruditu zitzaiola, baina orain, sentimendu hura gainditu ondoren begiko zuela.

— Ene! —hots egin zuen koronelak pozez gainezka—. Eskerrak Jainkoari, ni kontsolatu eta salbatzera datorrelako! S...i konde prestuak bihotzaren barren-barrenetik maite zaitu, alaba kuttuna, eta zure eskua eskatu duenez ezin ukatuko diozu.

Hitz hauek entzun bezain laster, ordea, Angelikak antsi sakon bat jalki eta zorabiatuak bezala erori zen atzeraka. Amak besoetan hartu zuen, senarrari begirada esanguratsua boteaz. Han, mututurik, alaba zurbil, errukarriari so zegoen.

Bere oneratzean mara-mara isuri zitzaizkion malkoak Angelikari, eta ahots erdiragarritz hots egin zuen:

— Kondea! Konde ikaragarria! Ez, ez, inoiz ere ez.

Koronelak gozotasun osoz galdetu zion behin eta berriro, nolatan jotzen zuen kondea hain izugarritzat. Angelikak orduan aitortu zuen, kondeak maite zuela entzundako unean bertan erne zitzaiola indarbiziturik bere baitan, lau urte lehenago, bere hamalaugarren urtebetetze gauean izandako amets beldurgarri hura, berebiziko

larriaz esnarazi ziona, bertako irudi bakar batekin ere oroitu ezinik.

— Zuhaiska eta lore arraroz betetako baratze eder batean nenbilela zirudien —esan zuen Angelikak—. Bat-batean arbola miresgarri baten aurrean gertatu nintzen, hosto ilun, lore handi eta usain bitxikoa, intsusaren antzekoa. Era zoragarrian astintzen zituen adaskak eta keinu egiten zidan bere gerizpera gonbidatuz bezala. Indar ikusezin batek erakarri eta arbola azpiko belazean etzan nintzen. Airean zehar lanturu arraroak zebiltzala ematen zuen, haizearen antzera arbola ukituaz eta intziri beldurgarriak jalkiaz. Berebiziko minak hartu eta erruki sakon bat piztu zen ene baitan, zergatik jakin gabe. Halako batean argi printza gartsu batek zulatu zidan bihotza, erdibituz bezala! Sekulako larritasunak kargatzen zidan bularra eta bota nahi izan nuen garrasia intziri motel bihurtu zen. Bihotza pitzatu zidan argi printza hura sasiarte ilunetik zelatan neuzkan bi begi ziren. Une hartantxe aurrez aurre jarri zitzaizkidan begi haiek eta elur zurizko esku bat agertu zen, nire inguruan zirku-luak egiten. Hauek gero eta estuagoak ziren eta

suzko harien bidez inguratzen ninduten; azke-
nean ez neukan mugitzerik ere sare trinko har-
tan. Gainera bazirudien begirada izugarri hark
barrenetik atxikitzen ninduela, nire buruaren
jabe eginaz. Izpi mehe batetik eskegita nengoe-
la pentsatzeak heriozko larria sortzen zidan.
Arbolak niganantz beheratu zituen loreak eta
gazte baten ahots maitagarria mintzatu zen han
tartetik: «Angelika, neuk salbatuko zaitut,
neuk!» Baina...

Angelikak eten egin behar izan zuen. P. kapi-
taina iritsi zela adierazi zuten, koronelarekin lan
kontuei buruz mintzatzeko gogoarekin. Angeli-
kak kapitainaren izena entzun orduko oihu egin
zuen, negarra berriro mara-mara zeriolarik, oina-
ze garratz batek jota bezala, amodio minik sako-
nenak zauriturik dagoenaren antzera hasperen
eginaz:

— Moritz! Ai, Moritz!

Sartzerakoan kapitainak hitz horiek entzun
zituen. Malkotan blai ikusi zuen Angelika, besoak
beragana luzaturik. Bere onetatik aterata buruko
kaskoa kendu zuen, zarata artean lurrera eror-
tzen utziaz. Angelikaren aurrean belaunikatu eta

besoetan hartu zuen, irrika eta oinazez gainezka zerraldo erortzera zihoan unean. Bularraren kontra estutu zuen grinati. Koronelak harriduraz hitz egin ezinik begiratzen zion bikoteari.

— Baneukan elkar maite zuten susmoa — xuxurlatu zion emazteak—, baina ez nekien ezer zehatzik.

— R. kapitaina —ekin zion koronelak haserre—, zer harreman daukazu nire alabarekin?

Moritzek, segituan bere buruaren jabe eginik Angelika erdi hila xamurki besaulkian utzi, kas-koa lurretik jaso, aurpegia gorriturik koronelaren aurrean begimakur jarri eta bere ohoreagatik hitz eman zion bihotzaren barrenetik maite zuela Angelika baina ordurarte bere ezpainen ez zute-
la jalki bere sentimenduak ezagutaraziko zituen txintarik. Izan ere zalantza handiak zituen, Ange-likak ere antzeko sentimenduak ote zeuzkan. Zeruko zorion guztiak batera ikusten zituen lehen aldia omen zen hura, oraindik zergatik ez jakin arren; eta ba omen zeukan itxaropena ere aita prestu eta amoltsu hark ez ziola uko egingo elkartze hura bedeinkatzeko erreguari, maitasu-
nik garbi eta barrukoena batuko zukeen hari.

Koronelak zorrotz aztertu zituen nola kapitaina hala Angelika ere. Ondoren besoak antxumaturik gelan gora eta behera ibili zen isilik, erabakia hartzeko kinkan dagoenaren tankeran. Emaztearen aurrean geratu zen, Angelika besotetan hartu eta kontsolatzeko ahaleginetan ari zelarik.

— Zer ikusi dauka kondeak hire amets txoroarekin? —esan zuen koronelak amorruari eutsiz.

Angelika bere aurrean ahopez jarri, eskuetan muin egin eta malkoz basitu ostean ahots erdi itoz mintzatu zen:

— Ai, aita! Aita maitea, barrenetik atxiki ninduten begi beldurgarri haiek kondearenak ziren, eta parte gaiztoko bere eskuak bildu ninduen suzko sare hartan! Baina arbola miresgarriaren lore urrintsuen artetik deitu zidan gazte ahots kontsolatzailea Moritzena zen. Ene Moritzena!

— *Hire* Moritzena? —oihukatu zuen koronelak zakar jiratzuz, Angelika ia lurrera erortzeraino. Ahots lodiz jarraitu zuen—: Maitasun ezkutuen amets ziztrinekin erantzuten al dien orduan aitareren erabaki zuhur eta gizaseme prestu baten ezkon eskariei?

Arestian bezala isilikibili zen gelan gora eta behera. Azkenean Moritzeri jarri zitzaion eta:

— R. kapitain jauna, badakizu ez diodala inoiz nire alabari zu baino subi jatorragorik opatu, hainbesteko begirune bai baitizut! Baina nire hitza emana diot S...i kondeari eta zorretan nago berarekin, gizonen artean izan daitekeen mailarik handiengan. Etzazu ordea uste guraso tirano, tematiarena egingo dudarik. Kondeagana noa berehala, honen berri ematera. Zure amodioa auzi odoltsua izango da niretzat, agian heriotza ere ekarriko dit baina hala bedi. Amore ematen dut! Zaude hemen ni itzuli zain.

Kapitainak tinko adierazi zion mila bider nahiago zuela herioak bera eramatea, koronelak arriskurik ttikiena nozitzea baino. Erantzun gabe aldegin zuen koronelak bertatik.

Koronela gelatik irten bezain laster maitaleek alaiki elkar besarkatu eta leialtasun irmoa hitz eman zioten batak besteari. Orduan Angelikak segurtatu zuen, kondearen ezkon eskarien berri entzundako unean bertan animaren barren-barrenetik jabetu zela Moritzi zion maitasunaz, eta nahiago zuela hiltzea, beste inoren emazte

izatea baino. Bat-batean jabetu omen zen Moritzen maitasuna ere berea adinako zela. Beren maitasuna adierazten zuten une haietaz oroitu ziren eta poz pozik zeuden, koronelaren purrusta eta haserre guztiak ahazturik, ume zoriontsuen antzera garrasika. Koronelaren emazteak, maitasun itsatsi hartaz aspaldi oharturik eta Angelikaren joera onetsita, hunkiturik hitz eman zien gogotik ahaleginduko zela bere senarra konpromezu hartatik askatzen, zergatik ez jakin arren berari ere hain higuigarri zitzaiona.

Ordubete inguru igaroa zen, atea zabaldu eta, denen harridurarako, S...i kondea sartu zenean. Koronelak jarraitzen zion, begirada arraiz. Kondea Angelikagana hurbildu, eskutik heldu eta irribarre mikatz, mingarri batekin jarri zitzaion begira. Angelikak dardara egin eta ahots izpi batez xuxurlatu zuen, zorabiatzeko zorian: Ai, begi horiek!

— Zurbildu egin zara, andereño —hasi zen kondea—, zuen lagunartera azaldu nintzen lehen aldi hartan bezala. Fantasma beldurgarri baten tankera hartzen al didazu? Ez gero! Ez zaitetz izutu, Angelika! Eziozu ikararik izan gizon onbe-

ra honi, gaztetxoen sugar eta grina osoz maite zintuenari, bihotza jada besteri oparitua zeniola jakin gabe eta zure eskua eskatzeko bezain inozoa izan den honi! Ez! Aitaren hitzak ez dit inongo eskubiderik ematen zuk bakarrik eskain dezaitezun zorionerako! Libre zara, andereño! Nire begiradak ez dizu une goibelik gogorazi behar. Laster, agian bihar bertan itzuliko naiz nire sorterrira!

— Moritz, ene Moritz! —hots egin zuen Angelikak gozatsu, bere maitearen bularrean burua ezarriz. Kondeak gorputza dardarka zeukan, begiak sugalda bizian eta ezpainak ikaraz, marmar hots isil bat jalki zuenean. Axolarik gabeko galdera bat eginaz koronelaren emazteagana burua jiratzea aski izan zuen bere sentimendu harrotuak baretzeko.

Baina koronela behin eta berriro ari zen:

— Hau fintasuna! Hau gizonaren zuhurtasuna! Zu bezalakorik ez da! Nire bihotzeko lagun betierekoa...

Koronelak orduan bularraren kontra besarkatu kapitaina, Angelika eta emaztea, eta irribarretsu adierazi zien ez zuela besterik jakin nahi bere

aurka sumatutako azpilan zatar hartaz; eta itxaropen zeukala aurrerantzean Angelikak ez zuela gehiago nozituko fantasma begien oinazerik.

Eguerdia aurreratua zegoenez koronelak otordua etxean bertan hartzera gonbidatu zituen kapitaina eta kondea. Dagoberteri ere deitu zioten eta laster agertu zen pozik asko.

Mahaian esertzen hasi zirenean Margerite falta zen. Bere gelan geratu omen zen, esanaz ondoezik zegoela eta ez zela gauza jende aurre-ra agertzeko.

— Ez dakit zer gertatzen zaion Margeriteri azkenaldian —mintzatu zen koronelaren emaztea—. Kasketaldiak dauzka, arrazoirik gabe egiten du negar edo barre, eta sarritan jasanezineraino behartzen du irudimena.

— Zure zorionak —xuxurlatu zion isilik Dagobertek kapitainari belarrira—, Margeriteren heriotza ekarri du!

— Azti halakoa! —gehitu zuen kapitainak isilik ere—. Bakea emaidazu!

Koronela ez zen inoiz orduan baino alaiago egon eta ezta emazteak ere barrena hain pozik eduki, alaba kuttunarekin aldi behin izandako

kezkak bazterturik. Hori gutti bazen, Dagobert alegrantzia handiarekin ari zen jardunean eta kondeak ere, bere dolua ahazturik, argitan jarri zuen bere izpiritu oparoaren bizitasuna. Hala, erramu koroa loratu batek mugatzen zuen bikote alaiaren inguru guztia.

Ilunabarra abaildu zen. Ardo finak txinparta egiten zuen basoetan eta ezkongaien zorionaren alde ari ziren denak edaten, barre eta algara artean. Halako batean salako atea astiro ireki eta Margerite sartu zen alderoka, gaujantzi zuriarekin, ilea askatuta, hildakoa bezain zurbil eta desitxuraturik.

— Margerite, zer ero zabilta! —hots egin zuen koronelak.

Esandakoa aintzat hartu gabe Margerite zuzenean kapitainagana astiro joan, esku izoztua haren bular gainean ipini eta muxu eme bat eman zion bekokian, ahots erlatsez marmarka:

— Hilzorian daudenen muxuak osasuna dakarkio senargai alegerari!

Ondoren lurrera erori zen ziplo.

— Horra hor zoritxarra —mintzatu zitzaion Dagobert kondeari ahopeka—. Tuntun hori mai-temindua dago kapitainarekin.

— Badakit —gaineratu zuen kondeak—. Pozoia hartzeko burugabekeria egin du, nonbait.

— Jainkoaren izenean! —egin zuen Dagobertek garrasi izuturik, zutitu eta gaixoa ezarri zuten besaulkirantz joanaz.

Angelika eta ama Margeriteri kopeta alkohol urez freskatu eta igurtzitzen ari ziren. Dagobert hurbildu bezain laster ireki zituen begiak. Koronelaren emazteak esan zuen:

— Lasai, ume maitea. Gaixo hago, baina joango zain. Orduan Margeritek erantzun zuen ahots erlatsez:

— Bai, laster joango zait dena... pozoia hartu dut eta.

Nola Angelikak hala amak ere garrasi egin zuten, eta senarrak sutan hots egin zuen:

— Mila deabru! Zoro alena! Korri medikuagana... Azkar! Etor dadila aurkitzen duzuen lehenbizikoa!

Morroiak abiatzera zihoazen, eta baita Dagobert ere.

— Geldi! —hots egin zuen kondeak, ordurarte lasai egon eta Sirakusako ardo bizkorraz betetako kopa, gehien maite zuena alegia, atseginez hustu ondoren—. Margeritek pozoia hartu badu ez da inongo mediku beharrik, neu naiz holakoe-tarako iaioena eta. Uztazue nire gain.

Margeriteren ondoan ipini zen. Hau etzanda zegoen, zorabiatuak, eta batzuetan ezinezko dardarak egiten zituen. Aurrean makurtu eta sakelatik kutxatila ateratzen ikusi zuten. Handik zerbait hartu, atzamar artean heldu eta ez tiro igurtzi zituen Margeriteren garondo eta sabelgaina. Beragandik urrundu eta honela esan zien besteei:

— Opioa hartu du baina sendatuko da, nire esku dauzkadan bitarteko berezi batzuk erabiliaz.

Kondearen esanari jarraiki Margerite gelara igo eta berarekin bakarrik geratu zen. Bien bitartean, koronelaren emazteari orainurrena agindu zioten opio ontzia aurkitu zuen gelariak Margeriteren ganberan, gajoak zeharo husturik.

— Kondea benetako mirarigilea da — esan zuen Dagobertek doinu ironiko samarrez—.

Dena igarri du. Margerite ikusi orduko jakin du pozoia hartu duela, eta baita zer nolakoa ere.

Handik orduerdira kondea salan sartu eta Margeriteren bizitza ez zegoela arriskuan ziurtatu zuen. Moritzer zeharbegiratua bota ondoren, gaineratu zuen ustez behintzat uxatu zituela gaitz haren sustrai guztiak. Gelariak gaua Margeriteren alboan esna egitea nahi zuen, berak ere aldameneko gelan igaroko zuela eta, badaezpada hurbil izateko. Aurretik, baina, ardo oneko beste baso pare bat opatu zizkion bere buruari, mediku lan hartarako indartzeko aitzakiarekin.

Hala, mahaian eseri zen gizonen ondoan eta aldi berean Angelika eta ama joan egin ziren, gertaerarekin hunkituta.

Koronela haserre zegoen tuntunkeria ziztrin harengatik, horrelaxe deitu baitzion Margeriteren jokabideari. Moritzek eta Dagobertek nahasmen desatsegina sentitzen zuten. Baina hori zenbat eta nabariagoa izan, orduan eta ugaria goa zen kondearen etorri alaia, inoiz ez bezalakoa eta zinez ukitu beldurgarrizkoa.

— Niretzat konde horrek —esan zion Dago-
bertek lagunari etxerakoan—, izugarria izaten
jarraitzen du. Lotura latzen bat daukadala bera-
rekin iruditzen zait.

— Ai! —gaineratu zuen Moritzek—. Bihotza
kargaturik daukat... zoritxarren batek nire mai-
tea mehatxatzen ote duen susmo beltzarekin.

Gau hartan bertan hiriburuko mandatari
batek iratzarri zuen koronela. Biharamunean
zurbil samar agertu zen emaztearen aurrera:

— Apartatu beharrean gara berriro, laztana
—esan zuen lasaitasun bortxatuz—. Barealdi
labur honen ostean berriro lehertu da gerra. Bart
jaso dut agindua. Ahal bezain agudo, beharbada
datorren gau honetan bertan abiatuko naiz nire
erregimentuarekin.

Erabat beldurturik, emazteak negarrari eman
zion. Kontsolatu nahian mintzatu zitzaion koro-
nela, esanaz ziur zegoela gatazka hura aurrekoa
bezain goragarria izango zela, eta bihotzean
zeukan kemenak ez ziola inongo zoritxarretan
pentsatzen uzten.

— Bitartean —gaineratu zuen—, arerioa
berriro oinperatu eta bakea ezartzen dugun arte

gure ondasunetara joan zaitezke Angelikarekin. Laguntzailea emango dizuet, egonaldia ren bakardade eta moztasuna ahantzaraziko dizue-na. Zuekin joango da S...i kondea!

— Ene, Jainkoaren izenean! —hots egin zuen emazteak—. S...i kondea gurekin etorriko dela? Ezkongai baztertua? Azpilari italiar hori, daukan amorrua barruan gordetzen dakiena, aukera duenean indar guztiarekin askatzeko? Zergatik den ez dakidan arren atzodanik inoiz baino higuingarriagoa bihurtu zaidan hori?

— Hau da hau! —eten zion koronelak—. Ez dago burutzerik emakumeen fantasia eta amets txoroekin! Ez diote igartzen zuhurtzia aparteko gizon baten bihotz zabalari! Aurrez esan bezala, Margeriteren aldameneko gelan igaro du kon-deak gau osoa. Beste inori baino lehenago, bera-ri aipatu diot gatazka berriaren albistea. Sorterri-ra itzultzea ia ezinezkoa zaio. Jota geratu da. Nire ondasunetan geratzea eskaini diot. Zalan-tza handien ondoan baietz erabaki eta ohorezko hitza eman dit ahalegina guztiak egingo dituela zuek babestu eta zuen urrunaldia samurtzeko. Kondearekin zorretan egon eta nire ondasunak

iheslektzat erabil ditzakeela jakinik, ukatzea nahi al duzu?

Emaztea ez zen gauza, eta ez zeukan eskubiderik ere ezer gehitzeko. Koronelak esanari eutsi zion. Gau hartan bertan zabaldu zen abiatze deia, eta bereizi beharraren oinaze latz eta nahigabe erdiragarriak hartu zituen bi maiteak.

Handik egun guttitara Margerite zeharo zuzpertzean, harekin eta Angelikarekin irten zen koronelaren emaztea ondasunetarantz. Kondea ere atzetik zuten, mirabe zenbaitekin.

Hasieran goxotasunik finenaz agertzen zen kondea emakumeengana, eskatutakoan besterik ez; gainerakoan bere gelan geratu edo ibilaldi bakartiak egiten zituen.

Hasiera batean bazirudien arerioaren alde jarri zela gatazka, baina laster erdietsi ziren garaipen loriosak. Kondea zen beti garaipenen berri jasotzen lehena, eta koronelak zuzendutako erregimentuaren nondik norakoaz albisterik zehatzenak zeuzkana. Borrokarik odoltsuenetan ere ez zitzaien balakada edo ezpata ukaldirik egokitu, ez koronelari eta ezta kapitainari ere.

Hala zioten behintzat koartel nagusiko gutun fidagarrienek.

Hartara, bada, garaipen eta zorionaren aingeru zerutiarraren antzera agertzen zitzaien beti kondea emakumeei. Horretaz gain, bere jokabide guztian atxikimendurik min eta gardenena erakusten zuen Angelikagana, guraso xamur eta onbera baietz bezala. Ama-alabak aitortu beharrean zeuden koronelak zuzen epaitu zuela bere lagun leiala, eta beren lehengo ezinikusia asma-kizun inozoa izan zela. Margeritek ere sendatua zirudien bere grina txoro hartatik eta betiko frantses alai, hiltuna zen berriro.

Koronelak emazteari zuzendutako gutun batek, hain zuzen ere kapitainaren Angelikarentzako beste bat zekarrenak, kezka ondar guztiak aienatu zituen. Arerioaren hiriburua hartu eta suetena erabaki zen.

Angelika pozak zoratzen zegoen eta baita kondea ere, hau beti bizitasunik ernegarrienaz ari baitzen hizketan Moritz ausartaren balentriez eta haren andregai izatearen zorteaz. Behin batean Angelikari eskutik heldu, bularraren kontra estutu eta beraganako gorrotoa lehen adina-

koa al zen galdetu zion. Lotsaz gorriturik eta malkoak begietan, Angelikak ziurtatu zion berak gajoak ez zuela inoiz gorrotatu, baizik eta Moritz maitatu zuela bihotz guztiarekin, kondearen eskari hark sortutako izua desegiteko. Zorrotz eta irmo hitz egin zion orduan kondeak:

— Har nazazu, Angelika, zure aitaren pareko laguntzat.

Muxu arin bat eman zion orduan bekokian, eta hark, ume dohatsuak, pozik hartu zuen, aita iruditzen baitzitzaion era hartan muxu ematen ziona.

Itxaropena izatekoa zen, epe baterako behinik behin koronela etxeratuko zela, ez non eta ez han bere gutun bat heldu zenean, arrunt latza. Kapitaina bere zaldi-morroiarekin herrixka bate-tik igarotzerakoan, laborari armatu batzuk eraso omen zioten, saihetsetik tirokatu eta lapurreta eginaz, eta ozta-oztan lortu omen zuen onik ateratzea. Horrela, etxe guztia bizitzen zuen poztasuna bat-batean bihurtu zen izulaborri, oinaze samin eta lanturu etsi.

Koronelaren etxean etengabekoa zen joan-
etorriaren ardaila. Eskaileretan gora eta behera
zebiltzan librea dotorez apaindutako mirabeak;
zalapartan iristen ziren jauregiko patiora zaldiko-
txeak gonbidatuekin, eta koronelak itzaltsu ema-
ten zien ongietorria, azken gatazkan irabazitako
ohore dominekin bularrean.

Goiko gela bakarti batean zegoen eserita
Angelika, andregai jantzi distiratsurekin, gazte-
tako loraldi oparoaren edertasun gorenean, ama
alboan zuelarik.

— Alaba maitea —esan zion—, askatasun
osoz aukeratu dun S...i kondea hire senar izate-
ko. Lehen aitak elkartze hau burutzeko zeukan
desira handia izan arren, Moritz gizarajoa hil
ondoren ez din batere gogor egin. Biok hala biok
ere mingostasun bera nabari dugula iruditzen
zaidan, eta ezin dinat ezkutatu. Ez dinat ulertzen
hi Moritzekin horren azkar ahaztua. Hurbiltzen
ari dun ordu erabakiorra... kondearekin ezkon-
tzera hoa... heure bihotza ongi azter ezan, orain-
dik garaian haiz eta! Ahaztu dunan horren oroi-
tzapenak inoiz ez dezala hire bizitzako argia
errainu beltz batez goibeldu!

— Inoiz ere ez! —hots egin zuen Angelikak, begietako malkoak ihintz tantak bezala distirana—. Inoiz ez naiz ene Moritzekin ahaztuko, eta ezta inoiz beste inor bera hainbat maitatuko ere. Kondeaganako nire sentimendua beste tankera batekoa da! Ez dakit nola piztu duen halako zale-tasuna nigan! Ez, ez dut maite eta ezin dut Moritz hainbat maite, baina bera gabe ezin naiz bizi eta bere bitartez bakarrik pentsa eta senti dezakedala iruditzen zait! Izpiritu ahots batek etengabe esaten dit bere emazte izan behar dudala, bestela lur honetan ez dela niretzat bizitzeko modurik izango eta. Zeruetako mintzo ezkututzat daukadan ahots horri jarraitzen natzaio.

Gelaria sartu zen orduan, egunsentiaz gero desagertutako Margeure oraindik ez zutela aurkitu esanaz, baina lorazainak etxekoandrearentzat gutun bat ekarri berri zuela, agi danean Margeritek eskuratua, eginbeharrak bukatu eta jau-regira azken loreak ekarritakoan emateko aginduta.

Honela zioen koronelaren emazteak zabaldu zuen eskutitzak:

«Ez nau berriro ikusiko. Halabehar goibel batek narama berorren etxetik urrun. Arren eskatzen diot, benetako ama izan dudan horri, ez nazatela jarrai, bortxaz itzularazteko. Nire burua hiltzeko bigarren eginahalak izango al du lehenbizikoak baino arrakasta gehiago! Zorion osoa opa diot Angelikari, niri bihotza lehertu didan arren.

Ongi bizi bedi. Ahaztu malerus honetaz, Margerite.»

— Zer da hau ordea? —hots egin zuen etxe-koandreak irmoki—. Hemengo lasaitasuna apurtzeko asmoa al dauka erdiero horrek? Makurkeriaz jardun behar al du senar maiteari eskua luzatu nahi dionanero? Alabatzakoa bezala zaindu eta begiratu dudan zuntzun esker gaizto hori sekulan etxeratzen bada, ez naun berarekin batere arduratuko.

Ahizpa galduarengatik lanturu bizian hasi zen Angelika, eta amak jainkoarren eskatu zion une garrantzitsu haietan lekurik ez emateko erdiero batenganako oroitzapenei.

Jendea salan bilduta zegoen, orduak jotzean kapera ttikira biltzeko, non apaiz katoliko batek bikotea ezkondu behar zuen. Koronelak barrura lagundu zion andregaiari; denak harriturik zeuzkan bere edertasunak, soinekoaren dotorezia lainoarekin nabarmendua. Kondearen zain zeuden denak. Ordu laurdenak erreskadan igaro baina ez zen ageri. Koronela haren ganberarantz abiatu zen. Gelariarekin gertatu zen. Honek esan zionez, erabat janztez bukatzean kondea txarki sentitu eta parkera irten zen haizea hartuz bizkortzera, atzetik jarraitzea debekatu ondoren.

Ezin zezakeen asmatu kondearen jokabide hark zergatik kargatu zion bihotza hainbeste, eta ezta zergatik bururatu zitzaion zerbait beldurgarria gerta zekiokeela kondeari.

Kondea aurki agertuko zela adieraz zezaten agindu eta ezkutuan deitu zion jendearteko mediku ospetsu bati. Honekin eta gelariarekin joan zen parkera, kondearen bila. Zumardi nagusitik saihestu eta sasi itxiz inguratutako txoko batera joan ziren, non, koronelak gogoan zeukanez, kondeak luzaroan geratzeko zaletasuna zuen. Bertan zegoen kondea eserita, erabat bel-

tzez jantzita, izar domina distiratsu bat bularrean, eskuak eserleku gainean bildurik, intsusa loratuaren enberrari bizkarra emanda, begirada josita geldi-geldi. Dardara egin zuten denek, kondearen begi huts, ilunen distirak ikusmenik gabea baitzirudien.

— Konde jauna! Zer gertatu da? —hots egin zion koronelak, baina han ez zen ez erantzun, ez mugimendu, ez arnasarik!

Medikua hurbildu, kondeari txalekoa urratu, lepokoa eta txamarra indarrean kendu, eta kopeta ukitu zion. Koronelagana jiratu zen ahots lodiarekin:

— Alferrik da. Hilda dago. Oraintxe bertan geratu da nerbio atakeak jota.

Gelaria lanturu bizian hasi zen. Koronelak, zeukan indar guztiarekin bere izulaborria menperatuaz, isiltzeko eskatu zion.

— Bertan hilko dugu Angelika, kontuz ez bagabiltza —esan zuen koronelak. Gorpua hartu eta bidezidor bakartietan barrena eraman zuten pabiloi baztertu batera, koronelak soinean bazeraman hango giltza. Gelariaren zaintzapean bertan utzi eta jauregirantz abiatu zen berriro

medikuarekin. Erabakia hartzeko zalantzan, ez zekien izugarrikeria hura Angelika gaioari isildu edo emeki-emeki esaten saiatu.

Salara sartzean, urduritasun eta nahasmenik handiena zen nagusi. Elkarrizketa alaiaren erdian Angelikari bat-batean begiak itxi eta ondoeza egin zitzaion. Aldameneko gelan zeukaten, sofan etzanik. Zurbildu edo desitxuraturik ez, baizik eta masail gorriak inoiz baino bizi eta freskoago zeuzkan, ezin ederrago, aurpegi guztian zeruko loria hedaturik. Pozik handienaz okiturik zirudien. Medikiak, arreta urduriz begiratu ondoren, segurtatu zuen ez zegoela inolako arriskutan, eta harrigarria bazen ere hipnotizaturik zegoela. Ez omen zen ausartzen indarrean esnatzera, laster itzarriko zela bere kabuz eta.

Bien bitartean zurrumurru misterioitsu bat zabaldu zen gonbidatuen artean. Kondearen ustekabeko heriotzaren berri heldu zitzaien, nonbait. Aldegiten hasi ziren denak pixkana, isilik eta goibel. Urruntzen zihoazen zaldikotxeen hotsa entzun zitekeen.

Koronelaren emazteari, Angelikaren gainean makurturik, alabaren arnasaldi bakoitza iristen

zitzaion. Bazirudien hitz isilak xuxurlatzen ari zela, inorentzat ulertezinak. Medikuak ez zuen utzi Angelikari arropak erantzten, ezta eskularruak kentzen ere, edozein ukitu kaltegarria izan zitekeelakoan.

Angelikak bat-batean begiak ireki, gora so egin eta garrasi batean zutitu zen:

— Hemen da! Hemen da!

Anima apartaturik aldegin zuen sofatik atean barrena, sala igaro eta eskaileretan behera.

— Erotu egin da! —hots egin zuen izuturik amak—. Oh Jainko santua, erotu egin da!

— Bai zera! —lasaitu zuen medikuak—. Ez da eromena. Berealditako zerbait gertatuko zen!

Hori esan eta andereñoaren atzetik joan zen.

Jauregiko atean zehar ikusi zuen bidean gora eskuak altxata zihoala, ziztu bizian lasterka, hai-zeak xerrazko soineko ederra farfaildu eta ile karakoilak askatzen zizkiolarik, jostailuak balira bezala.

Zaldizko bat hurbildu zen laukoan. Angelikaren aldamenara heltzean jauzi egin eta besoetan hartu zuen. Atzetik zetozen beste bi lagun ere gelditu eta zaldietatik jaitsi ziren.

Koronela, medikuari presaka jarraitu ondoren, hitzik gabe zegoen talde hari harriduraz begira, kopeta igurtziaz, gogoetek ihes ez egiteko bezala.

Moritz zen bularraren kontra Angelika besarkatzen ari zena. Dagobert eta gizaseme lerden bat zeuzkan ondoan, azken hau jeneral errusiarraren uniforme dotorez jantzia.

— Ezta sekulan ere! —zioen Angelikak behin eta berriro, bere maitea besarkatuaz—. Sekulan ere ez natzaizu infidela izan, ene Moritz maite laztana!

Eta Moritzek orduan:

— Badakit bai, ondo ere! Ene aingeru kuttuna! Infernuzuloko amarruak erabiliz liluratu zaitu beste horrek!

Artean ere elkarri helduta jauregirantz abiatu ziren biak, besteek isilik jarraitzen zietelarik. Jauregiko atera iristean egin zuen koronelak hasperen lehen aldiz, bere onera orduantxe etorri balitz bezala. Honela hots egin zuen, jakinminez inguruetara begira:

— Hauek gertaerak! Hau mirara!

— Dena argituko da —esan zuen Dagobertek, eta Bogislav von S...en jeneral errusiarra bezala aurkeztu zion koronelari arrotz hura, kapitainaren lagunik min eta leialena omen zena.

Behin jauregiko geletara heldu eta koronelaren emaztearen harridura itzelaz jabetu gabe, begirada sutuz galdetu zuen Moritzek:

— Non da S... i kondea?

— Hilen artean! —ihardetsi zion koronelak ahots lodiz—. Orain dela ordubete eraman du nerbio atakeak.

Angelikak dardar egin zuen.

— Bai, banekien —mintzatu zen—. Zundu den unean bertan, nire barrenean kristal bat tintinotsez apurtu dela iruditu zait. Aldarte bitxi batean erori naiz... baina suntsitu egin da amets latz hura, nire senera etortzean begi beldurgarri haiek ez baitzuten inongo botererik nigan, suzko sarea etenda zegoenez... libre sentitu naiz... Zorionez gainezka... Halako batean Moritz ikusi dudan arte... ene Moritz... nigana etortzen... eta korrika irten natzaio!

Hartan, bere maitea besarkatu zuen, berriro galdu beldur balitz bezala.

— Eskerrak Jainkoari —mintzatu zen koronelaren emaztea, begiak zerurantz zuzendurik—. Arindu zait bihotzeko astuntasuna, arrunt zanpazten ari ninduena; aske naiz Angelikak zorigaiztoko kondeari eskua luzatu beharrak sortzen zidan larritasun latzetik. Nire alaba kuttuna ezkutuko botereekin ezkontzera zihoala iruditzen zitzaidan.

S...en jeneralak gorpua ikusi nahi eta haren-gana eraman zuten. Hilotza estaltzen zuen tapakia baztertu eta heriotzak gogortutako aurpegi hura ikusitakoan jeneralak atzera egin zuen dardarka, ozenki zioelarik:

— Bera da, bai! Jainkoaren izenean, bera da!

Lo ezti batek hartu zuen Angelika, kapitainaren besoetan. Ohera eraman zuten. Medikuaren iritziz beste ezer baino mesedegarriagoa zen lo hura, estuasun biziraino asaldatutako izpiritu hura baretzeko. Eritasun arriskua aldentzeko era aproposa omen zen.

Joanak ziren gonbidatuak jauregitik.

— Orain da garaia —hots egin zuen koronelak—, misterio miresgarri guztiak argitzekoa.

Esazu, Moritz, zeruko zein aingeruk berpiztu zaituen.

— Badakizue —hasi zen Moritz—, nolako zitalkeriaz eraso ninduten S.ko lurraldean, suetena erabaki ostean. Bala batek jota zerraldo erori nintzen zalditik. Ez dakit zenbat denboran egon nintzen heriozko zorabio sakon hartan lurrean etzanda. Lehen aldiz nire opera etorri nintzenean, lauso artean, norabait ninderamatela irudititu zitzaidan. Gau beltza zen. Ahots batzuen zurrumurrua aditu nuen nire inguruan. Frantsez arri ziren. Beraz, larriki zauritua eta etsaien menpe! Gogoeta horrek beldurrez bete eta berriro hartu ninduen zorabioak. Gero nire egoera aldatu egin zen, eta orduztikakoak dira nire aldian behingo burukomin gogorak.

«Goiz batean, argitasun osoz esnatu nintzen. Borla eta litxa handiz apaindutako eta zetazko gortinadun ohe txukun, la dotore batean nengoen. Zetazko tapizez eta mahai eta eserleku urreztatuz zegoen jantzia gela zabal hura, antzinako eran. Gizon arrotz bat neukan aurpegira begira, makur makur eginda. Kanpai lokarriari heldu eta indartsu tira zion. Minutu gutti igaro

ziren atea zabaldu eta bi gizon sartu ziren arte, adinduenak antigoaleko jantzi brodatua eta Ludwig gurutzea zeramatzalarik. Gazteena nigana hurbildu, pultsua hartu eta frantsesez esan zion zaharrenari: “Arriskutik kanpo dago. Salbatu da!”»

«Adineko gizona T. *chevalier*-a bezala aurkeztu zitzaidan, jauregi hartako jabea. Bidaian zihoalarik igaro omen zen herrixka hartatik, lurrera bota ninduten nekazari zital haiek ni lapurtzeko zorian zeuden unean. Ni askatzea lortu zuen. Zaldikotxera igo eta bide militarretatik urrun zegoen bere jauregira eramana ninduen. Etxeko zirujulari trebea arduratu zen nire buruko zauri larriaren sendaketa neketsuaz, arrakastarekin. Nire hernia maite zuela aitortu zidan *chevalier*-ak; izan ere, iraultzaren garai nahasi, arriskutsuetan laguntza eskaini zioten behin bertan, eta pozik zegoen niri mesede egin ahal izateaz. Erosotasun eta kontsolamendurako nuen guztia eskura neukala bere jauregian esan zidan ere, eta ez zuela inolaz ni joaterik onartuko, nola zauria hala bideetako arriskua amaitu

arte. Gainera ezinezkoa omen zen, tamalez, une hartan lagunei nire egonlekuaren berri ematea.»

«*Chevalier*-a alarguna zen eta seme-alabak urrun zituen. Bakarrik bizi zen jauregian beraz, zirujilaria eta mirabe frankorekin. Gogaikarria litzateke luzaz kontatzen hastea nola joan nintzen sendatzen zirujilari iaioaren eskuetan, eta nola ahalegindu zen *chevalier*-a nire ermitau bizitza hura goxatzen. Solasa zuhurragoa eta begirada sakonagoa zuen bere herrikoengan ohitura dena baino. Artea eta zientziaz egiten zuen berba, nahiz eta ahal zuen heinean isildu azkenaldiko gertaeren kontuak. Ez dut hitz ematen hasi beharko nire gogoeta guztiak Angelikarentzat zirela, eta anima sugaldetan jartzen zidala jakiteak nire heriotzarekin oinazeturik egongo zela! Etengabe erregutzen nion *chevalier*-ari nire gutunak koartel nagusira helaraz zitzan. Uko egin zion eskari hura bere gain hartzeari, ziurrenik ere liskarrak berriro piztera zihoazela eta. Itxaropena eman zidan esanaz kosta-ahala-kosta arduratuko zeta, erabat osatzen nintzeanean, neure herrira onik ekartzen. Bere adierazpenetatik igarri nuen gerra berriro lehertu zeta,

eta aliatuen kalterako gainera, nahiz eta berak begirunez isildu.»

«Aipamen solte horiek aski izan ziren Dago-berten susmoak baieztatzeko.»

«Ia sukarra joana zitzaidanean, gau batez amets tankerako egoera ulertezinean erori nintzen, oraindik ere dardarka jartzen nauena, nahiz eta hartatik oroitzapen iluna besterik gertatzen ez zaidan. Angelika ikusi nuen, baina bere irudia gandu artean lausotzen zeta zirudien, eta alferrik lehiatzen nintzen hura atxikitzeko. Beste norbait zegoen bion artean: nire bularraren kontra ezarri eta bihotz barrenetik eutsi zidan; oina-zerik garratzenean hondoratu eta atsegin arrotz, miresgarri batek zeharkatu ninduen. Biharamunean, beste ezer baino lehenago, ohe aurrean eskegitako koadroari ohartu nintzaion, ordurarte nik inoiz bertan ikusi gabea. Anima barreneraino beldurtu nintzen, Margerite baitzen bere begi beltz biziakin argi ematen zidana. Mirabeari galdetu nion koadroaren jatorri eta irudiaren nortasunaz. *Chevalier*-aren iloba zeta segurtatu zidan, T.ko markesa, eta koadroa beti egon zeta han eskegita; ez nintzaiola baina ordurarte ohartu,

hautsak bezperan kendu zizkionez. *Chevalier*-ak ere hala berretsi zuen. Nahiz esna nahiz ametsetan ni Angelika ikusteko gogoz, eta nire aurrean nor egongo eta Margerite. Arrotza iruditzen zitzaidan neure burua, kanpoko botere batek agintzen zuen nigan, eta, nire izuan, uste nuen ezin nintzela Margeritegandik aldendu. Inoiz ez naiz ahaztuko egoera ikaragarri haren oinazearekin.»

«Goiz batez banago leihoan, goizeko haizeak dakarkidan urrinaren freskuran, eta turutotsak entzuten ditut urrutira. Pozez betetzen naiz zalduneria errusiarraren martxa alaia antzematean. Doinu haien bidez izpiritu zintzoen uhin antzekoak datozkit, ahots goxo, kontsolatzailez hizketan; badirudi bizitza berriak eskua luzatzen didala, botere maltzurak itxita eduki nauen hilkutxatik jaiki nadin! Tximista bezain azkar agertzen dira zaldun batzuk jauregiko patioan. Behera begiratzen dut eta... «Bogislav, ene Bogislav» hots egiten dut erabat asaldaturik. *Chevalier*-a nire gelan sartzen da, zurbil, txundituta, soldaduen ustekabeko helduera eta istilu latzei buruz

totelka! Aintzat ere hartu gabe airean jaitsi eta ene Bogislav besarkatzen dut!»

«Bakea aspaldi erabaki zeta jakin nuen, ni zeharo harrituaz, eta gudaroste adar gehienak etxerantz zihoazela. *Chevalier*-ak isilean gorde zidan hura dena, ni jauregian atxilotuaren pare edukitzeko. Ez nik eta ezta Bogislavek ere ezin genuen jokabide haren arrazoirik igarri, baina biok susmatzen genuen han tartean bazela makurkeriaren bat. *Chevalier*-a aurrerantzean ez zen lehengoa, ikuskarri petrala baizik, edozein huskeriarekin teman jarriaz. Eskerronez gartsuki hizketan hasi nintzaionean ere, bizitza salbatu zidala eta, maltzurki egin zuen irribarre, ameslari erdiero bat baino areago.»

«Berrogeitazortzi orduko atsedenenaren ostean abiatu zen Bogislav, eta baita ni ere berarekin. Pozik ginen gaztelu zahar hura atzean uztearekin, espetxe ilun, izugarriaren gogorapenak sortzen zizkidana. Baina jarrai ezazu orain zuk, Dagobert, zuri baitagokizu txanda, gertatu zaizkigun gorabeherak jalkitzeko.»

— Nola jarri zalantzan —hasi zen Dagobert—, gizakiak berezko duen igartzeko gaitasuna?

Inoiz ez nuen sinistu nire lagunaren heriotza. Ametsetan geure barrenetik ulertzeko moduan hitz egiten digun izpirituak esaten zidan Moritz bizi zeta, eta uhal misterioitsu batzuk nonbait lotuta zeukatela. Angelikak kondearekin bat egiteak bihotza erdiratzen zidan.

«Duela zenbait denbora hona etorri, eta aitortu beharra daukat izutzeko moduko aldar-tean aurkitu nuela Angelika. Sekretu ezkuturen bat ikusi uste nuen, ispilu magiko antzeko batean. Horregatik itsatsi zen nire baitan atzerrian barrena joateko erabakia, ene Moritz aurkitu arte.»

«Igarriko diozue nire bozkario eta pozari, A.ko alemaniar lurretan Moritz aurkitu nuenean, S...en jeneralarekin. Anima apartaturik jarri zen nire laguna, Angelika eta kondearen arteko bat egitearen berri entzutean, baina Angelika infidela izan zitzaiolako botatako birao eta lanturu erdiragarri guztiak isildu zituen nire susmoak jakinarazi eta ziurtatu nionean oraindik ere oker hura deusezteko moduan zegoela. S...en jenerallak dardara egin zuen kondearen izena aipatu nuenean, eta berak eskaturik aurpegi eta gor-

puzkera deskribatu nizkionean honela oihukatu zuen: “Bai, inondik ere bera behar du izan!”»

— Harrituko zarete entzundakoan —eten zion jeneralak hizlariari—, Napolin duela zenbait urte S...i kondeak nire bihotzeko maitea lapurtu zidala, bere eskura zeuzkan deabrukeriak erabiliaz. Hala, gorputzean labana sartu nion unetik aurrera infernuko itsumenak atxiki gintuen maitea eta biok, elkarrengandik betirako bereiziaz! Gerora jakin nuen nik sortutako zauriak ez ziola galarazi eskua eskatzea, ai! eta ezkontzera zihoan egun berean geratu zela nire maitea nerbio atakeak jota zerraldo!

— Jainko errukiorra! —hots egin zuen koronelaren emazteak—. Ez ote zuen nire alaba laztana patu horrek berak mehatxatzen? Nolatan igarri ahal izan ote diot?

— Izpiritu igarlearen ahotsak hitz egin dizu, anderea —esan zion Dagobertek.

— Eta Moritzek kontatutako agerpen latz hura —jarraitu zuen koronelaren emazteak—, kondea halako modu izugarrian etxean sartu zitzaigun arratsalde hartan?

— Aldi hartan kontatu nizuenez —hartu zuen Moritzek hitza—, kolpe izugarria entzun eta heriozko lamara izoztuak haizeman zidan. Irudi zurbil baten zurrumurru antzekoa zebilen gelan barrena, errainu dardarti, ia antzemanenezkoa. Kemen guztia behar izan nuen nire izua menperatzeko. Nire onera etorri nintzenean hildakoa bezain gogor zegoen Bogislav. Etorrarazitako medikuaren ahalegin ugarien ondoren bere konortera itzuli zenean, saminki luzatu zidan eskua, esanaz: «Aurki... Bihar bertan bukatuko dira nire nahigabeak».

«Berak iragarri legez gertatu zen, baina berak uste ez bezala izatea erabaki zuen zeruetako indar betierekoak. Biharamuneko gatazka-
ren garratzenean, bala kartutxo ahul batek bularrean jo eta bota zuen zalditik. Bala mesedegarri hark mila puskatan txikitu zuen infidelaren irudia, oraindik bularrean zeramana. Erraz sendatu zitzaion ubeldura, eta orduz gero Bogislavek ez du ezeren kalterik nozitu, bizitzara hondamena ekar diezaiokeenik.»

— Hala da, bai —mintzatu zen jenerala—. Eta maite galduarekin gogoratze hutsak oinaze goxo

batekin betetzen nau eta mesede egiten dio nire barruko izpirituari. Jarrai dezala gure lagun Dagobertek kontatzen, ordea, zer gehiago gertatu zitzaigun.

— Lehenbailehen joan ginen A.tik —hartu zuen Dagobertek hitza—. Gaur egunsentian, hemendik set miliatara dagoen P. herrixkara heldu gara. Ordu batzuetan atsedean hartu, eta ondoren zuzenean honako bideari jarraitzeko asmotan ginen. Anitz harritu gara Moritz eta biok Margeriterekin topatu garenean ostatuko gelatik ateratzen, eromenezko aurpegi zurbilarekin. Kapitainaren oinetan makurtu, belaunak antsika besarkatu eta bere buruari gaizkile doilorra deitu dio, ehun aldiz heriotza merezi duena, eta arren han bertan hiltzeko eskatu dio. Moritzek higuinik handienaz baztertu eta aldegin du.

— Bai —eten zion kapitainak lagunari—. Margerite nire oinetan ikustean, *chevalier*-aren jau-regian pairatutako oinaze latz haiek guztiak abaildu zaizkit gainera, nire baitan inoiz ezagutu gabeko amorrua piztuaz. Margeriteri bularretik labana sartzekotan egon naiz, nire sua menperatuaz handik aldegin dudan arte.

— Margerite lurretik altxa —jarraitu zuen Dagobertek—, eta bere gelara eraman dut. Azkenean bera lasaitzea lortu dudanean, bere hitz etenek nire susmoak egiaztatu dizkirate. Gutun bat eman dit, atzo gauerdian kondeagandik jaso. Hona hemen!

Dagobertek gutuna atera, azala urratu eta honela irakurri zuen:

Egin ihes, Margerite! Galdua da dena. Badator gorroto duguna. Nire jakintza guztia ez da aski, bizitzako puntu goren honetan atxiki nauen zorigaitz ilunaren aurka. Margerite! Beste edozein emakume suntsituko zuketen sekretutan barrena gidatu zaitut. Baina zure kemen berezi eta borondate irmo horrekin, maisu jakintsuaren ikasle duina izan zara. Gogotik lagundu didazu. Zure bitartez menperatu dut Angelikaren gogo eta barrena. Horren ordainetan bizitzaren zoriona eskuratu nahi nizun, zuk desio bezala; hala, talde ezkutuan, arriskutsuenetan sartu zara, ni neu ere sarritan izutzen ninduten ekintzatan hasiz. Baina alferrik da! Egin ihes, bestela noraezekoa da zure hondamena eta! Azkenera arte ekingo

diot ausardiaz indar gaizto honi! Baina heriotza ekarriko didala somatzen dut! Bakardadean hilko naiz. Une horretan zuhaitz miresgarri hartara joango naiz, biok misterio miresgarriei buruz mintzatzeko sarritan erabili dugun haren gerizpera. Margerite! Betirako bazter itzazu sekretuok. Ama Natura beldurgarriak, haserreturik, bere kontra erabil daitekeen jostailu distiratsua ematen die sasiko ume eta zelatari azkarreri, baina hauek esku arinez urratzen diote aurpegiko errezela. Behin emakume bat hil nuen, maitasun grinarik barrukoenaz besarkatu uste nuen mementuan. Horrek indarrak makaldu zizkidan, baina halere, ni bai inozoa, banuen itxaropenik munduko zorionean.

Ongi izan, Margerite! Itzul zaitez zure sorterrira. S.ra zoaz. T.ko *chevalier*-a arduratuko da zutaz.

Ongi izan!

Dagobertek gutuna irakurtzez bukatzean, hotzikarak hartu zituen denak.

— Beraz —hasi zen isilik koronelaren emaztea—, nire animaren barrenetik uko egiten die-

dan gauzetan sinistu beharra daukat. Hala eta guztiz ere, ezin nuen inolatan ere ulertu Angelika Moritzekin hain agudo ahaztu eta kondea ondoan hartu izana. Jabetuta nengoen, halaber, la etengabeko asalduran zegoela eta honek berak ere kezka mingarriz betetzen ninduen. Gogoan dut Angelikaren kondeaganako zaletasuna modu bitxian azaldu zela hasieran. Berak konfiatu zidanez, la gauero egiten zituen amets bizi eta atseginak kondearekin.

— Hori da —hartu zuen Dagobertek hitza—. Margeritek berak aitortu dit gau osoak igarotzen zituela Angelikaren alboan kondearen aginduz, honen izena ahots eztiarekin belarrira xuxurlatzen. Kondea ere noizean behin sartzen omen zen gelan gauerdi aldera, eta minutu batzuz begirada Angelika lokartuagan josita eduki ondoren joaten zen. Beharrezkoa al da, kondearen gutun esanguratsu hau irakurri ondoren beste ezer eranstea? Argi dago barne animari psikiko-ki eragiten ahalegindu zela botere ezkutuen bitartez, eta naturako indar bereziei esker lortu zuela hori. T.ko *chevalier*-arekin harremanetan zegoen, eta Frantzian eta Italian adarrak dituen

beste eskola sekretu horretako partaide zen, P.ko eskola zaharraren ondorengoa bide dena. Berak bultzata atxiki zuen *chevalier*-ak kapitaina jauregian, eta amodiozko hainbat sorginkeria zital praktikatu zituen berarekin. Inoren oinarri psikikoa menperatzeko kondeak zerabilzkien bitarteko misteriozuei buruz hizketan jarrai nezake, Margeritek azaldu dizkidan gisan. Zertxobait azal nezake ere niri ezezaguna ez zaidan zientzi horri buruz, nahiz eta izenez aipatu nahi ez dudan, gaizki ulertuko didazuen beldur... Utzidazue bada gaurkoz honenbestez bukatzen.

— Eta behin betirako —hots egin zuen koronelaren emazteak asaldatuta—. Ezta txinta bat ere gehiago izuikararen erresuma ilun, arrotz horretaz! Eskerrak zeruko indar betierekoari, nire alaba kuttuna salbatu eta gu kaltetu nahian etxera sartu zitzaigun gonbidatu beldurgarri hartaz libratu gaituelako!

Biharamunean hirira itzultzea erabaki zuten. Koronela eta Dagobert geratu ziren bakarrik, kondearen ehorzketaz arduratzeko.

Angelika aspalditik zen kapitainaren emazte zoriontsu. Azaroko ekaitz gau batean familia

osoa salan eserita zegoen, tximiniako su gartsuaren inguruan, S...i kondea atetik hain beldurgarriro sartu zen aldi hartan bezala. Orduan bezala nahasten ziren, oihuka eta txistuka, ekaitz haizeak lotatik iratzarritako ahots harrigarriak.

— Gogoan al duzue oraindik? —galdetu zuen koronelaren emazteak begi argiz—. Oroitzen al zarete oraindik?

— Fantasma istoriorik ez gero! —hots egin zuen koronelak.

Baina Angelika eta Moritz jadanik hizketan ari ziren gau hartan nabaritu zutenaz, eta nola ordu-rako neurriz gain maite zuten elkar. Ez zuten bukatzen orduko xehetasun guztiak aipatzez, bateko beren maitasunaren distira garbia isladatzen zela denean, besteko izuaren dardara eztiak ere maitasun irrikak sortu zituela biengan; eta azkenik, gonbidatu izugarria izan zela, belearen makakorroek iragarri ondoren, laztasun guztien sortzailea.

— Ez al dirudi, bihotzeko ene Moritz —esan zuen Angelikak—, oraintxe entzuten ditugun

ekaitz haizearen doinu bitxiak gure arteko mai-tasunaz ari direla goxoki hizketan?

— Arrazoi duzu —erantzun zion Dagobertek—. Eta te-ontziaren txistu, ziiteko eta zirt-zartak ez du batere garratza ematen. Aldiz, barru horretan espetxeratutako iratxo jatorra lokanta eder bat gogoratzen ari dela dirudi!

Moritz ezin zoriontsuagoaren bularrean gorde zuen Angelikak larrosa galda bizizko bere aurpegia. Hark orduan emazte laztana besarkatu eta xuxurlatu zion:

— Ba ote da hau baino zorion handiagorik?

— Agi danean —mintzatu zen Ottmar, kon-taera amaitu eta lagunak zaputzean isilduta geratu zirenean—, nire ipuina ez zaizue sobera gustatu. Hartaz gehiago mintzatu gabe, bada, utz dezagun ahanzturak beregana dezan.

— Egin dezakegun onena —gaineratu zuen Lothark.

— Hala eta guztiz ere —hartu zuen Cyprianek hitza—, nire lagunaren alde egin behar dut. Izan ere, neu ere partaide nabarmena naizela esan dezakezue, bere jakiko zenbait ongailu Ottmarek

nigandik hartu eta neure sukaldean maneiatu dituenetz. Beraz, ez da bidezkoa nik epairik luzatzea. Ez gero errukirik gabe dena gaitzetsi, Radamanto alenak, aitortu beharra baitago Ottmaren kontaerako hainbat osagarri benetan serapiondartzat har daitezkeela, esate baterako hasiera...

— Hala da —eten zion Theodorek lagunari—. Te-ontziaren inguruko giroa oso bizia zen, eta baita ipuineko beste hainbat alderdi ere; baina argi eta garbi, konde arrotza bezalako fantasma antzeko pertsonaia desatseginek larritu egiten gaituzte, eta zaila da beren berritasun edo originalitatea nola-hala handitzea. Konde arrotzaren parekoa da *Magnetizatzailea*-ko Alban (ezagutzen duzue istorioa), eta kontaera hark Ottmarenaren oinarri berdina du. Arren eskatu nahi nizueke, bada, nola Ottmari hala zuri ere, ene Cyprianus, tankera horretako izugarrikeriei aurrerantzean biderik ez emateko. Ottmarek lortuko du, baina zuk, Cyprian, inoiz ere ezetz uste dut.